



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INKURUMEN SALA
DEPARTAMENTO DE ORDENACION DEL TERRITORIO
Y MEDIO AMBIENTE

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACION DE GIPUZKOA
OBRA HIDRAULIKO ETA HIRIGINTZA DEPARTAMENTUA
DEPARTAMENTO DE OBRAS HIDRAULICAS Y URBANISMO



TOLOSALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA

2019ko URTARRILA



I. LIBURUA

MEMORIA

EKONOMIA ETA FINANTZA AZTERKETA ETA GAUZATZEKO PROGRAMA

ZUZENDARITZA
MIKEL ELETXIGERRA (Arkitektoa) & JUAN RAMÓN LONBERA (Arkitektoa)

KOLABORATZAILEAK

A. ITURRALDE (Mendi Ingeniari) / PEIO URKIDI (Geografoa) / P. AZKUE – N. IGLESIAS (Ingeniariak) / IÑIGO GARAIALDE (Ekonomilaria)

TOLOSALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA

2019ko URTARRILA

0. SARRERA

0. SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde-esparruetako egungo lurralde-ereduetan, udal-plangintzak eta arloko politikek eginkizun garrantzitsua bete dute. Tresna horiek lurraldearen antolaketa oso bati ekiteko dituzten muga nabarmenak zeregin horretan diharduten erakunde eta eragile guztiek onartzen dituzte gaur egun, eta udalaz gaindiko antolamendu-jarraibideen beharra planteatzen da bion politikak orientatze aldera.

Lurralde Antolakuntzari buruzko Legea (LAL) eta Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak (LAA) onartu zirenetik lege-esparru egokia izateak eremu funtzionalen plangintzari modu koherente batez aurre egiteko aukera eman du. Hemen aurkezten dugun Lurraldearen Zatik Planak gainditu egin nahi ditu adierazitako mugak.

Lurralde-ingurune zabalagoak aintzat hartu beharra, bertan garatzen diren dinamika eta prozesuekin, berehalako beharrak gaindituko dituen epe luzerako ikuspegia sartzea, lurraldeak eta jarduerak osatzen duten multzoa errealitatea analizatzeko eremutat eta Eremuaren garapen sozioekonomikorako aukera berrien esparrutat hartzea orokorrean, eta biztanleen bizitza-kalitatea hobetzea ingurumenaren babesari, iraunkortasunari eta lurraldearen erabilera arrazionalari lotutako babes irizpide orokor batzuen arabera, horiek izan dira dokumentu hau lantzeko kontuan hartu diren oinarritzko ideia eta helburuetako batzuk. Lurralde-ingurune zabalagoak aintzat hartu beharra, bertan garatzen diren dinamika eta prozesuekin, berehalako beharrak gaindituko dituen epe luzerako ikuspegia sartzea eta lurralde osoa errealitatea analizatzeko eremutat eta aukera berrien esparrutat hartzea, horiek izan dira dokumentu hau lantzeko kontuan hartu diren oinarritzko ideietariko batzuk.

Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatik Planaren osagaiak honakoak dira: a) Azterlanak eta informazio planoak, b) Planaren azalpen memoria, c) Azterketa ekonomiko eta finantzarioa, d) Gauzatzeko programa, e) Antolaketa planoak eta arauak, eta f) Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazio Azterketa. Hiru liburuki dira, eta honi erantsi behar aipatutako dokumentazio grafikoa (Informazio eta antolaketa planoak).

I. liburukian azalpen-memoria hartu dugu barne, baita egindako gaikako azterketen informazio-laburpena, ekonomia- eta finantza-azterketa eta gauzatzeko programa. II. liburukian, aldiz, antolamendu-arauak eta udal plangintzaren gaineko eraginaren agiri

osagarria, eta III. liburukian Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazio Azterketa jaso dugu.

Memoria hiru kapitulutan antolatu dugu eta horiek, nolabait ere, plana prestatzeko egindako prozesu metodologikoa islatzen dute.

1. kapitulua. Plana formulatzeko oinarriak.
2. kapitulua. Eredua lantzeko oinarriak.
3. kapitulua. Eremu funtzionaleko lurralde eredua.

Lehen kapituluak labur-labur jorratzen ditu hainbat alderdi: plana formulatzeko lege- eta administrazio-oinarriak eta oinarri teknikoak, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan aurreikusitako lurraldea antolatzeko tresnak, lurraldearen zatiko planek bildu behar dituzten zehaztapenak eta planaren denbora-horizontea eta plana lantzeko prozesuari eta erakundeen parte-hartzeari dagozkien beste hainbat alderdi.

Bigarren kapitulua egin diren gaikako azterketa eta dokumentuen informazio-sintesia da, Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 12. artikuluan adierazitakoari jarraiki. Modu sistematizatuan baloratu ditugu bertan eremu funtzionalaren lurralde-antolamenduari dagozkion hainbat alderdi. Lurraldeari dagozkion zenbait gai ere landu ditugu bertan, ikuspegi bikoitzetik, hots, lurralde euskarriztat eta ingurune fisikotzat hartuta, eta komunikazio, garraio eta zerbitzu-azpiegituren sareei, asentamenduei, egoera sozioekonomikoari eta etorkizuneko joerei dagozkienak ere jorratuta. Izan ere, horiek guztiak erreferentzia dira eredua ulertu ahal izateko. 2016ko abenduan informazio laburpen hori eguneratua izan da, eskueran ditugun datu soziodemografiko eta urbanistiko nahiz lurraldeari buruzkoak aintzat hartuta, baina datu horiek eransteak ez dio Ereduari baliozkotasunik galarazten, ez eta bere alderdi nagusien ezaugarriak aldarazten. Ondorio gisa, adierazitako eredua konfiguratzeko kontuan hartu diren alderdi garrantzitsuenak adierazten dira.

Gaur egungo egoerari buruzko informazioa eskaintzen eta horren inguruko diagnostikoa egiten duen laburpen hori, LAAetako eredua eta etorkizuneko joerak izan dira planaren lurralde-proposamena egiteko oinarri.

Hirugarren kapituluan –Planaren proposamen alderdiari dagokionean alegia- oinarrizko helburu orokorrak eta eremu funtzionalerako lurralde-antolamenduaren eredu integratua

azaltzen dira. Eredu hori esku hartzeko esparruetarako (ingurune fisikoa, kokalekuak eta sistema erlazionala) hainbat estrategia elkarrekiko lotutan eta irizpide eta proposamen partikularizatu batzuetan gauzatzen da. Horien artean, eredia konfiguratzeko izaera egituratzailea dela-eta, eragiketa estrategiko izendatu direnak nabarmentzen dira.

Ereduak, halaber, hirigintza-antolamenduak aintzat izan beharko dituen zenbait irizpide, printzipio eta arau orokor biltzen ditu, baita LALaren 12. artikuluan eskatutako gainerako zehaztapenak ere. Eduki eta proposamen horiek ondorengo azpikapituluetan garatu ditugu:

- 3.1. Antolaketarako oinarrizko irizpideak eta helburuak
- 3.2. Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko lurralde eredia
- 3.3. Ingurune fisikoaren antolamendua
- 3.4. Harremanetarako sistemak eta zerbitzuak: Ereduaren oinarrizko azpiegiturak.
- 3.5. Asentamendu sistemak
- 3.6. Eragiketa estrategikoak eta plangintzak bateragarri egitea

Planaren euskarri grafikoa informazio- eta antolamendu-planek osatzen dute, eta ondorengoak dira:

Informazio-planoak

I.1.1.	Eremu funtzionalaren lurraldea. Erliebea. Hipsometria.....	1:30.000
I.1.2.	Eremu funtzionalaren lurraldea. Erliebea. Maldak.....	1:30.000
I.2	Asentamendu posibleetarako espazio-gaitasuna duten eremuak.	1:30.000
I.3.1.	Egungo okupazioa eta lurzorua erabilerak.	1:30.000
I.3.2.	Ingurune fisikoa antolatzeko baldintzak eta bestelako oinarrizko alderdiak: Balio naturalistiko eta nekazaritzakoak eta higatzeko arriskua duten eremuak.	1:30.000
I.3.3.	Ingurune fisikoa antolatzeko baldintzak eta bestelako oinarrizko alderdiak: Espazio Babestuen Sarea eta beste barruti eta elementu berezi interesgarri batzuk Sare hidrologikoa, babes, urrakortasuna eta arriskua.....	1:30.000
I.4.	Egungo komunikazio eta garraio sarea.	1:30.000
I.5.1.	Eremu funtzionala eta bere ingurua: lurralde egitura	1:50.000
I.5.2.	Asentamendu sistema	1:30.000
I.5.3.	Asentamendu sistema: udal plangintza.....	1:30.000

Antolamendu planoak

01.1	Ingurune fisikoaren antolamendua. Babestu, hobetu edota leheneratu beharreko garrantzi handiagoko eremuak.....	1:30.000
01.2	Ingurune fisikoaren antolamendua, antolamendu-kategoriak eta hainbat erreferentzia.	1:30.000
02.1	Garraio eta komunikabideen sarea.	1:30.000
02.2	Oinarrizko zerbitzu egiturak.....	1:30.000
03	Asentamendu sistema: Espazioaren okupazioaren ezaugarri orokorrak. Bizitegi, industria eta hornidurarako lurzoruak.....	1:30.000
04	Udalaz gaindiko ekipamendu-sistema eta espazio libreak.....	1:30.000
05	Plangintzarako irizpide orokorrak eta hiri-garapenaren esku-hartze estrategikoak.	1:30.000
06	Lurralde ereduaren eskema.	1:30.000

Dokumentu hau izapidetzean aldatu egin da Batasuneko Intereseko Keku (BIL) deiturikoen izendapena, eta Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izatera igaro dira. Hori dela eta, Tolosaldeko Lurraldearen Zatik Planaren dokumentu guztietan –dokumentu grafiko zein idatzietan- BILei buruz egiten diren aipamen guztiak leku horietarako deklaraturako KBE izendapenez aldatutzat joko dira, eta KBE horietako bakoitzari dagokion araudia izango zaio aplikagarri.

LURRALDE ANTOLAKUNTZARI BURUZKO LEGEAREN BETETZE FORMALA.

Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatik Planaren agiri hau bete-betean dator bat 1990/4 Legeak, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoak, batez ere 12. artikuluan, gisa honetako figuretarako eskatzen dituen eduki eta agiriekin. Ikus dezagun nola egokitzen den horretara:

- 1.- 1.a, b, c, e, eta f ataletan aipatutako zehaztapenak horiei dagozkien AZALPEN-MEMORIAko kapituluetan eta PLANOETAN bildu dira. Zehatzago esateko ondorengo agiri, plano eta epigrafeetan:
 - Gaur egungo egoeratik abiatuta egindako helburu nagusien definizioa INFORMAZIO LABURPEN, BALORAZIO ETA DIAGNOSTIKOko agirian ez ezik, AZALPEN MEMORIA izeneko agiriaren enuntziatu orokor eta partikularretan ere agertzen da. Hori guztia aurrez, LZPa prestatzeko prozesuaren aurreko faseetan, lurraldeari buruzko informazioa lortzeko egindako lan handitik eratorritakoa da.
 - Azpiegitura handien euskarri diren espazioak, berriz, dokumentazio grafikoan zehaztu dira erabat, batez ere 02.1 eta 02.2 planoetan. Horiez gain, AZALPEN MEMORIAko testuan ere dagokien ataletan jasotzen dira.
 - Eremu funtzionaleko interes komuneko ekipamenduetarako proposamenak dokumentazio grafikoan zehaztu dira erabat, batez ere 04 zenbakia duen planoan, baita AZALPEN MEMORIAren baitan dagozkion kapituluetan ere.
 - Eremu funtzionalean birmoldatu, leheneratu edo birgaitu behar diren espazioen definizioa ere dokumentazio grafikoan hartu da barne, hain zuzen ere, 05 eta 06 zenbakiak dituzten planoetan. MEMORIArean dagokien kapituluaren adierazi dira programazioaren eta ekintzarako neurrien inguruko erreferentzia orokorrak, proposamenen hitzez hitzeko azalpenaz gain.
 - Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzetarako nahiz industrietarako lurzorua inguruko proposamenen kuantifikazioa MEMORIArean ez ezik, EKONOMIA ETA FINANTZA AZTERKETAn nahiz GAUZATZEKO PROGRAMAN adierazi dugu.

- 2.- 1.d eta g ataletan adierazitako zehaztapenei dagokienez:
- ANTOLAMENDU ARAUAK izeneko agirian lege-terminoen bidez adierazi ditugu antolamenduaren edukiak (berorren irizpideak, printzipioak eta arau orokorrak), baita hori aplikatzeko baldintzak eta bere izaera loteslearen irismena ere, batez ere II.etik VI.era bitarteko kapituluetan. Horrezaz gain, funtsean VII. Kapituluari, berariaz ezarri ditugu hirigintza-antolamenduak LZPa aplikatzeko erreferentziak.

 - Lurraldearen Antolamendurako Azterpideek egindako zehaztapenak garatzeko funtsezko eta ezinbesteko diren irizpideak, printzipioak eta gainerako edukiak, eremu funtzionala honi dagozkionak, LZP honetako antolamendurako proposamenetan bildu ditugu. Horiek berariaz aipatu ditugu MEMORIAN eta PLANOetan. Gainera, zehaztapen normatibo gisa gehitu ditugu ANTOLAMENDU ARAUAK izeneko agirian, batez ere II.etik VI.era bitarteko kapituluetan, horietako bakoitzari dagokion irismena adieraztearekin batera.
- 3.- Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko LZParen agiri honek lurraldearen antolamendu bati dagozkion zehaztapen guztiak biltzen ditu, baita, horrenbestez, hirigintzakoak ere, lurralde eredua osatuko dutenak. Horien sintesi grafikoa 06 zenbakia duen planoan jaso dugu.
- 4.- LZP honetako edukiak prestatzerakoan, uneoro saiatu gara toki-entitateei dagokien eskumen-eremua errespetatzen. Araudiari dagokionez, esku-hartzeak garapen-plangintzaren norabidean bideratzen ahalegindu gara. Horiek batez ere udalaren mailara bideratzen saiatu gara, horietan baitute eskumen horiek aplikazio-eremurik handiena.
- 5.- LZP honen agiriak bete-betean datoz bat Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legeak eskatutakoekin.

TOLOSALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA

2019ko URTARRILA

I. LIB.

A DOKUMENTUA

MEMORIA

C DOKUMENTUA

**AZTERKETA EKONOMIKO FINANTZARIOA ETA GAUZATZEKO
PROGRAMA**

AURKIBIDE OROKORRA

I. LIB.

A DOKUMENTUA

MEMORIA

MEMORIAREN AURKIBIDEA

1. TOLOSALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO LZPa FORMULATZEKO OINARRIAK	1
1.1. Lurraldea antolatzeko tresnak Euskal Autonomia Erkidegoan.....	3
1.2. EAeko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak.....	3
1.2.1. Europako Lurralde Estrategia LAAen lurralde proposamenaren oinarrian	4
1.2.2. Hirien eta eremu funtzionalen sistema, LAAen lurralde ereduaren oinarritzko alderdiak	5
1.3. Lurraldearen zatiko planak	7
1.3.1. Zehaztapenak eta dokumentazioa	8
1.3.2. Lurraldearen zatiko planaren epemuga.....	10
1.4. Tolosaldeko Eremu Funtzionalako LZPa: prestakuntza prozesua eta udalaren partaidetza	10
2. LURRALDE EREDUA LANTZEKO OINARRIAK	17
2.1. Lurraldea	19
2.1.1. Eremu funtzionalaren mugak eta ezaugarri orokorrak.....	19
2.1.2. Ingurunearen analisia eta ebaluazioa.....	22
2.1.2.a. Ezaugarri geomorfologikoak	22
2.1.2.b. Unitate ekologiko eta paisajistikoak	24
2.1.2.c. Eremu funtzionalaren aktibo eta baliabide bereziki baliotsuak	29
2.1.2.d. Ondorioak: degradazioak, mehatxuak eta jardun ildo nagusiak.....	32
2.2. Biztanleria, ekonomia eta lurraldea.....	37
2.2.1. Biztanleria eta lurraldea.....	37
2.2.1.a. Eremu funtzionalaren karakterizazio demografikoa	37
2.2.1.b. Biztanleriaren duela gutxiko bilakaera	38
2.2.1.c. Biztanleriaren egitura	48
2.2.1.d. Etorkizuneko eszenatokiak	55
2.2.2. Ekonomia eta lurraldea	63
2.2.2.a. Ezaugarri sozialak eta jarduerarekiko erlazioa	63
2.2.2.b. Jarduera ekonomikoaren produkzio egitura	72
2.2.2.c. Garapen estrategia	79
2.3. Komunikazio eta garraio sareak eta oinarritzko azpiegiturak.....	83
2.3.1. Komunikazio eta garraio sareak	83
2.3.1.a. Gaur egungo sarea eta jarduteko aurreikuspenak.....	83
2.3.1.b. Garraio publikoa	91
2.3.1.c. Errepidezko garraiorako ekipamenduak.....	93

2.3.2. Oinarrizko azpiegiturak.....	94
2.3.2.a. Saneamendua	94
2.3.2.b. Ur hornidura.....	95
2.3.2.c. Arriskuen prebentzioa	96
2.3.2.d. Hondakin solidoak.....	97
2.3.2.e. Azpiegitura elektrikoa.....	97
2.3.2.f. Gas azpiegitura.....	98
2.3.2.g. Telekomunikazioak	98
2.4. Asentamendu sistema	100
2.4.1. Lurralde egitura eta hiri egitura	100
2.4.2. Bizitegitarako lurzorua: azken aldiko eboluzioa, arazoak eta erreserbak.....	106
2.4.3. Jarduera ekonomikoetarako lurzorua.....	116
2.4.4. Ekipamendu komunitarioak.....	128
2.5. Tolosaldeko Eremu Funtzionalen garatu beharreko lurralde politikaren giltzarriak, erreferentziak eta ardatz nagusiak	136
2.5.1. Lurralde antolamenduko eredia osatzeko giltzarri eta erreferentziak	136
2.5.2. Lurralde politikaren ardatz nagusiak.....	140
3. TOLOSALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE ANTOLAMENDUA.....	147
3.1. Antolamendurako oinarrizko printzipioak, irizpideak eta helburuak	149
3.2. Tolosaldeko Eremu Funtzionalen lurralde eredia.....	152
3.2.1. Ereduen irudikapen grafikoa	156
3.3. Ingurune fisikoak, lurralde ereduaren oinarria eta euskarria.....	158
3.3.1. Antolatzeko irizpideak eta helburuak.....	158
3.3.2. Ingurune fisikorako antolamendu eredia	159
3.3.2.a. Garrantzi bereziko eremuak.....	160
3.3.2.b. Ingurune fisikoaren kategorizazioa	163
3.3.3. Erabileren eta jardueren arautzea: antolamendu matrizea.....	169
3.3.4. Ekintza positiboko neurriak: jarduera proposamenak.....	170
3.4. Erlazio eta zerbitzu sistemak: ereduaren oinarrizko azpiegiturak.	172
3.4.1. Erlazio sistema.....	172
3.4.1.a. Garraio eta komunikazio sistemaren ezaugarri orokorrak.....	172
3.4.1.b. Garraio eta komunikazioen sistema antolatzeko irizpideak eta helburuak.....	174
3.4.1.c. Bide garraio eta komunikazioen sistemaren eredu integrala.....	175
3.4.1.d. Garraio eta komunikaziorako sistemarako proposamenak	178
3.4.2. Oinarrizko azpiegiturak.....	181
3.4.2.a. Saneamendua	181
3.4.2.b. Ur hornidura.....	182
3.4.2.c. Arriskuen prebentzioa	182
3.4.2.d. Hondakin solidoak.....	184
3.4.2.e. Azpiegitura elektrikoa.....	184
3.4.2.f. Gas azpiegitura.....	185
3.4.2.g. Telekomunikazioak	185

3.5. Asentamendu sistema.....	186
3.5.1. Antolamendu oinarriak eta eredia	186
3.5.1.a. Asentamendu sistemaren karakterizazio orokorra	186
3.5.1.b. Asentamendu sistema antolatzeko irizpideak	187
3.5.1.c. Asentamendu sistemaren eredu integrala.....	189
3.5.1.d. Proposamen estrategikoak	191
3.5.2. Bizitegi lurzorua.....	194
3.5.2.a. Bizitegitarako lurzorua antolatzeko lurralde irizpideak	194
3.5.2.b. Bizitegitarako asentamendu sistemaren esku hartzeko moduak	196
3.5.2.c. Bizitegi asentamenduen ereduaren beste alderdi batzuk.....	199
3.5.2.d. Bizitegitarako lurzoruaren eskaintza kuantifikatzea udal plangintzan	200
3.5.2.e. Nolabaiteko babes publikoa duten etxebizitzetarako lurzorua dimentsionatzeko proposamena	213
3.5.3. Jarduera ekonomikoetarako lurzorua.....	217
3.5.3.a. Irizpide eta helburu orokorrak.....	217
3.5.3.b. Jarduera ekonomikoetarako lurzorua antolatzeko eta kokatzeko lurralde irizpideak.....	218
3.5.3.c. Esparru estrategikoak eta lehentasuneko garapeneak	222
3.5.3.d. Ereduaren dimentsionamendu orokorra.....	223
3.5.4. Udalaz gaindiko ekipamendu sistema eta espazio libreak	225
3.5.4.a. Lurralde irizpideak eta helburuak.....	227
3.5.4.b. Ereduko ekipamenduak	228
3.6. Eragiketa estrategikoak eta plangintzak bateragarri egitea.....	233
3.6.1. Eragiketa estrategikoak.....	233
3.6.2. Plangintzak bateragarri egitea.....	237

ERANSKINA

Monumentu megalitikoak eta haitzuloak.....	239
--	-----

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Azaleraren banaketa erabileraren arabera, udalerrika.....	21
2. taula. Biztanleriaren bilakaera udalerrika (1986-2016)	39
3. taula. Biztanleriaren bilakaera lurralde esparruka (1986-2006)	40
4. taula. Biztanleriaren dinamika lurralde esparruka (1986-2016)	45
5. taula. Biztanleriaren dinamikaren konparaketa, bosturteka (1996-2016).....	46
6. taula. Demografia tasen bilakaera bosturteka (1986-2016).....	47
7. taula. Biztanleriaren egitura adinaren arabera (1986-2016)	49
8. taula. Biztanleriaren proiektzioa lurralde esparruka (2016-2033)	57
9. taula. Pisu demografikoaren proiektzioa lurralde esparruka (2016-2033).....	59
10. taula. Familiaren batez besteko neurriaren proiektzioa lurralde esparruka (2017-2033)	62
11. taula. Etxebizitza nagusien proiektzioa lurralde esparruka.....	62
12. taula. Adierazle sozioekonomikoak udalerrika.....	64
13. taula. Adierazle sozioekonomikoak lurralde esparruka.....	66
14. taula. Biztanleria jarduerarekiko, udalerrika (2015).....	67
15. taula. Biztanleria jarduerarekiko, lurralde esparruka (2015)	68
16. taula. Jarduera eta enplegua lurralde esparruka (1996-2015).....	71
17. taula. Okupazioaren egitura sektoriala udalerrika (2011)	73

18. taula. Okupazioaren egitura sektorialaren bilakaera (1996-2011)	75
19. taula. Produkzio establezimenduak udalerrika (2016)	77
20. taula. Produkzio establezimenduak lurralde esparruka (2016)	78
21. taula. Produkzio establezimenduak sektoreka eta neurrika, Tolosaldean (2016)	79
22. taula. Etxebizitza-parkea udalerrika (1991-2015)	109
23. taula. Etxebizitza-parkea lurralde esparruka (1991-2016)	111
24. taula. Etxebizitza nagusiak eta familiaren neurria lurralde esparruka (1991-2015)	112
25. taula. Hirigintza-plangintzan barne hartutako etxebizitzaren aurreikuspenak	114
26. taula. Hirigintza planean jarduera ekonomikoetarako lurzoruari buruz jaso diren aurreikuspenak	119
27. taula. Lurzoru kalifikatuaren azalera, lurralde esparruka	120
28. taula. Hiri erabileretara edo jarduera ekonomikoetara bideratzeko egokia datekeen lurzoruaren erabilgarritasun fisikoa	121
29. taula. Tolosaldeko industri lurzoruaren gaitasuna	122
30. taula. Ereduaren behin-behineko ezaugarrien laburpena	129
31. taula. Bizitegi beharrak udalerrika (1. epea)	207
32. taula. Bizitegi-ahalmena udalerrika, LEZ gabe (1. epea)	207
33. taula. Beharrak, gehieneko bizitegi-ahalmena eta egungo egoera	208
34. taula. Bizitegi beharrak udalerrika (1. epea)	210
35. taula. Bizitegi-ahalmena udalerrika (1. epea)	210
36. taula. Bizitegi beharrak udalerrika (2. epea)	212
37. taula. Bizitegi-ahalmena udalerrika (2. epea)	212
38. taula. Ereduaren dimentsionamendu orokorraren laburpena	225

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. Biztanleriaren bilakaera lurralde esparruka (1981-2016)	43
2. irudia. Tolosaldeko eta Gipuzkoako biztanleriaren bilakaera konparatua (1981-2016)	44
3. irudia. Zahartze-indizea lurralde esparruka (1981-2016)	51
4. irudia. EAeko biztanleria (itzala) eta Tolosaldekoa (marra) 2016an.	54
5. irudia. Tolosaldeko biztanleria 1986an (itzala) eta 2016an (marra)	54
6. irudia. Tolosa inguruko biztanleria (itzala) eta Villabona ingurukoa (marra) 2016an.	55
7. irudia. Udalerrri handietako biztanleria (itzala) eta txikietakoa (marra) 2016an	55
8. irudia. Tolosaldeko eta Gipuzkoako biztanleriaren proiektzioak (2017-2033)	57
9. irudia. Familiaren batez besteko neurriaren proiektzioak (2017-2033)	61
10. irudia. Biztanleria aktiboa eta enplegua Gipuzkoan eta Tolosaldean (1986-2015)	70
11. irudia. Jarduera eta enplegu tasa Gipuzkoan eta Tolosaldean (1986-2015)	71
12. irudia. Etxebizitza-parkearen bilakaera lurralde esparruka (1991-2015)	110
13. irudia. Familiaren neurriaren bilakaera lurralde esparruka (1981-2015)	113
Bide sare eta hiri sistemen eskema	90

B DOKUMENTUA

PLANOAK

INFORMAZIO PLANOAK

I.1.1.	Eremu funtzionalaren lurraldea. Erliebea. Hipsometria.....	1:30.000
I.1.2.	Eremu funtzionalaren lurraldea. Erliebea. Maldak.	1:30.000
I.2.	Asentamendu posibleetarako espazio gaitasuna duten eremuak.	1:30.000
I.3.1.	Egungo okupazioa eta lurzoruaren erabilerak.	1:30.000
I.3.2.	Ingurune fisikoa antolatzeke baldintzak eta bestelako oinarrizko alderdiak: Balio naturalistiko eta nekazaritzakoak eta higitzeko arriskua duten eremuak.	1:30.000
I.3.3.	Ingurune fisikoa antolatzeke baldintzak eta bestelako oinarrizko alderdiak: Espazio Babestuen Sarea eta beste barrendegi eta elementu berezi interesgarri batzuk Sare hidrologikoa, babesa, urrakortasuna eta arriskua.	1:30.000
I.4.	Egungo komunikazio eta garraio sarea.....	1:30.000
I.5.1.	Eremu funtzionala eta bere ingurua: lurralde egitura	1:50.000
I.5.2.	Asentamendu sistema.....	1:30.000
I.5.3.	Gaur egungo asentamendu sistema: udal plangintza.....	1:30.000

ANTOLAMENDU PLANOAK

01.1	Ingurune fisikoaren antolamendua. Babestu, hobetu edota leheneratu beharreko garrantzi handieneko eremuak. 1:30.000	
01.2	Ingurune fisikoaren antolamendua, antolamendu kategoriak eta hainbat erreferentzia	1:30.000
02.1	Garraio eta komunikabideen sarea	1:30.000
02.2	Oinarrizko zerbitzu azpiegiturak	1:30.000
03	Asentamendu sistema: Espazioaren okupazioaren ezaugarri orokorrak Bizitegi, industria eta homidurarako lurzoruak	1:30.000
04	Udalaz gaindiko ekipamendu sistema eta espazio libreak.	1:30.000
05	Plangintzarako irizpide orokorrak eta hiri garapenerako esku-hartze estrategikoak	1:30.000
06	Lurralde ereduaren eskema.	1:30.000

C DOKUMENTUA

EKONOMIA ETA FINANTZA AZTERKETA

ETA GAUZATZEKO PROGRAMA

EKONOMIA ETA FINANTZA AZTERKETA.....	245
GAUZATZEKO PROGRAMA.....	255

II. LIB.

D DOKUMENTUA

ANTOLAMENDU ARAUAK

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA. LZPa APLIKATZEAREN INGURUKO XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea
2. artikulua. Aplikazio eremua
3. artikulua. Indarrean irauteko baldintzak
4. artikulua. Tolosaldeko eremu funtzionaleko lurraldearen zatiko plana aldatzea eta berrikustea
5. artikulua. LZParen dokumentazioa eta interpretazioa

II. KAPITULUA. ANTOLAMENDUAREN FUNTSEZKO OINARRI ETA EDUKIAK KONTZEPTU ETA ENUNTZIATU OROKORRAK

6. artikulua. Zehaztapen orokorrak sistematizatzea
7. artikulua. Antolamendurako helburu orokorrak
8. artikulua. Lurralde eredua
9. artikulua. Lurralde egitura
10. artikulua. Esku-hartzeez oro har
11. artikulua. Eremu funtzionaleko antolamendu kategoriak
12. artikulua. Lurzoruaren bereizte primarioa

III. KAPITULUA. ANTOLAMENDUAREN FUNTSEZKO OINARRI ETA EDUKIAK INGURUNE FISIKOAREN ANTOLAMENDUA

13. artikulua. Ingurune fisikoaren antolamenduaren helburuak
14. artikulua. Ingurune fisikorako lurralde eredua
15. artikulua. Garrantzi bereziko eremuak
16. artikulua. Ingurune fisikoaren kategorizazio orokorra
17. artikulua. Ingurune fisikoko erabilerak eta jarduerak arautzea
18. artikulua. Aplikazio erregimena natur intereseko eremuetan
19. artikulua. Aplikazio erregimena zientzia eta kulturako intereseko eremuetan
20. artikulua. Aplikazio erregimena nekazaritza edota ingurumen intereseko eremuetan
21. artikulua. Aplikazio erregimena interes hidrologikoko eremuetan
22. artikulua. Aplikazio erregimena ingurumenari gainjarritako baldintzatzaileen eremuetan: lur azpiko akuiferoak, urpean gera daitezkeen eremuak
23. artikulua. Aplikazio erregimena hobetu edota leheneratu beharreko eremuetan
24. artikulua. Erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizea, ingurune fisikoaren kategorizazioaren arabera
25. artikulua. Ekintza positiboko neurriak: jarduera proposamenak

IV. KAPITULUA. ANTOLAMENDUAREN FUNTSEZKO OINARRI ETA EDUKIAK EREDUAREN OINARRIZKO AZPIEGITURAK ERLAZIO ETA ZERBITZU SISTEMAK

26. artikulua. Garraio eta komunikazioen sistema antolatzeako irizpideak eta helburuak
27. artikulua. Bide garraio eta komunikazioen sistemaren eredu integrala
28. artikulua. Garraio eta komunikaziorako sistemarako proposamenak
29. artikulua. Zerbitzu azpiegituren eredua

V. KAPITULUA. ANTOLAMENDUAREN FUNTSEZKO OINARRI ETA EDUKIAK
ASENTAMENDU SISTEMA.

LEHENENGO SEKZIOA.
ASENTAMENDU SISTEMA ORO HAR

- 30. artikulua. Asentamendu sistema antolatzeko irizpideak eta helburuak
- 31. artikulua. Asentamendu sistemaren eredu integrala
- 32. artikulua. Esku hartzeko modu nagusiak

BIGARREN SEKZIOA
BIZITEGI ASENTAMENDUAK

- 33. artikulua. Bizitegirako lurzorua antolatzeko irizpideak
- 34. artikulua. Babes eta birgaitze jarduketak.
- 35. artikulua. Hiri eremuak eraldatzeko eta biziberritzeko jarduketak.
- 36. artikulua. Bizitegi garapen berriko jarduerak
- 37. artikulua. Etxebizitzaren esparrurako administrazioaren berariazko ekintzak
- 38. artikulua. Bizitegitarako eskaintzaren aurreikuspenen tamaina

HIRUGARREN SEKZIOA
EKONOMIA JARDUEREN ASENTAMENDUAK

- 39. artikulua. Ekonomia-jardueretarako lurzorua antolatzeko irizpideak eta helburu orokorrak
- 40. artikulua. Ekonomia-jardueretarako lurzorua kokatzeko irizpideak
- 41. artikulua. Esparru estrategikoak

LAUGARREN SEKZIOA
EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO LIBREAK

- 42. artikulua. Ekipamendu eta espazio libreetara bideratutako lurzorua antolatzeko irizpideak eta helburuak
- 43. artikulua. Ekipamendu eta espazio libreen garapen berrietarako lehentasunezko jarduketak.

VI. KAPITULUA. ANTOLAMENDUAREN FUNTSEZKO OINARRI ETA EDUKIAK
ESKU-HARTZE ESTRATEGIKOAK

LEHENENGO SEKZIOA
ESKU-HARTZE ESTRATEGIKOEN ERREGIMEN OROKORRA

- 44. artikulua. Esku-hartze estrategikoak

BIGARREN SEKZIOA
ESKU-HARTZE ESTRATEGIKOEN ERREGIMEN PARTIKULARRA

- 45. artikulua. Villabona-Irura-Anoeta-Tolosa ardatzaren antolamendu integrala erregulatzeko irizpideak
- 46. artikulua. Tolosa-Ibarraren hegoaldeko inguruaren antolamendu integrala arautzeko irizpideak
- 47. artikulua. Esku-hartze estrategikorako esparruak antolatzeko proposamenen izaera

VII. KAPITULUA. LURRALDEAREN ZATI KO PLANA APLIKATZEKO ARAUAK
GARAPEN PLANGINTZAREN HIRIGINTZAKO ERREGIMEN OROKORRA

- 48. artikulua. Alorreko eta hirigintzako ekintzak lurralde antolamenduari lotzea
- 49. artikulua. Arau eraginkortasunaren izaera
- 50. artikulua. Lurralde ereduaren oinarritzko zehaztapenak hirigintzako plangintzan aplikatzeko baldintzak
- 51. artikulua. Garapen berriak antolatzeko baldintzak
- 52. artikulua. Lurzoru kutsatuak
- 53. artikulua. LZParen garapeneko plangintza
- 54. artikulua. Plangintzak koordinatzea
- 55. artikulua. Garapen berriak antolatzeko eta diseinatzeko berariazko jarraibideak
- 56. artikulua. Zortasun aeronautikoak

E DOKUMENTUA

UDAL PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINEN AGIRI OSAGARRIA

1. XEDEA

2. INDARREAN DAGOEN PLANGINTZAREN GAINEKO ERAGINEN ZERRENDA ZEHATZA

Abaltzisketa
Aduna
Albiztur
Alegia
Alkiza
Altzo
Amezketta
Anoeta
Asteasu
Baliarrain
Belauntza
Berastegi
Berrobi
Bidania-Goiatz
Elduain
Gaztelu
Hernalde
Ibarra
Ikaztegieta
Irura
Larraul
Leaburu
Lizartza
Orendain
Orexa
Tolosa
Villabona
Zizurkil

III. LIB.
F DOKUMENTUA

INGURUMEN ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO AZTERKETA

0. SARRERA

1. TOLOSALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK DESKRIBATZEA

- 1.1. Jardun eremua eta denbora eragina
- 1.2. LZParen helburu orokorrak
- 1.3. Aukerak sortzea, deskribatzea eta aztertzea
- 1.4. Proposatutako lurralde ereduaren oinarritzko alderdiak
- 1.5. Maila hierarkiko altuagoko beste plan batzuetatik ondorioztatutako jarraibideak eta irizpideak kontuan hartzea, barne hartzea eta garatzea
- 1.6. Inpaktuak eragin ditzaketen aukeren jarduketak identifikatzea
- 1.7. Plana gauzatzeko faseak eta berau garatzen duten beste programa batzuk
 - 1.7.1. LZPa gauzatzeko faseak
 - 1.7.2. LZPa garatzeko planak
- 1.8. Parte hartze publikoa eta lantze prozesua

2. Beste plan eta programa batzuekiko erlazioak aztertzea.

- 2.1. Maila hierarkiko altuagoko plan edo programetatik ondorioztatutako jarraibideak eta irizpideak identifikatzea
- 2.2. LZPa idazteko orduan kontuan hartu diren jarraibideak, helburuak eta konpromisoak
- 2.3. Azterketaren esparruan eragiten duten arloko, eskualdeko eta tokiko planak eta dokumentuak, kontuan hartuak

3. PLANAK EDO PROGRAMAK ERAGINDAKO ESPARRUAREN INGURUMEN AZTERKETA, DIAGNOSTIKOA ETA BALORAZIOA

- 3.1. Azterketaren esparrua definitzea, deskribatzea eta aztertzea
 - 3.1.1. Eremu funtzionalaren ezaugarri geologikoak eta geomorfologikoak.
 - 3.1.2. Poluituta egon daitezkeen lurzorua
 - 3.1.3. Lurzoruen gaitasun agrologikoa
 - 3.1.4. Hidrologia eta hidrogeologia
 - 3.1.5. Landaretza eta flora
 - 3.1.6. Fauna: biotopo nagusiak
 - 3.1.7. Paisaia
 - 3.1.8. Egoera sozioekonomikoa
 - 3.1.9. Asentamenduak
 - 3.1.10. Ekipamenduak
 - 3.1.11. Komunikazio eta garraio sareak eta azpiegiturak
- 3.2. Ukituta gera daitezkeen ingurumen faktoreak
- 3.3. Eremu funtzionalan ingurumenaren ikuspegitik baliotsuak izan daitezkeen baliabideak identifikatzea
- 3.4. Ingurumenaren kalitatearen alderdiak baloratzea

- 3.5. Informazio laburpena eta laburpen ekologikoa
- 3.6. Ingurumen unitate homogeenak definitzea
- 3.7. Ingurumen diagnostikoa: narriadurak, mehatxuak.

4. TEKNIKOKI ARRAZOIZKOAK DIREN AUKEREN INGURUMEN AZTERKETA ETA EGINDAKO AUKERAREN JUSTIFIKAZIOA

- 4.1. LZPko JARDUN PROPOSAMENAK DEFINITZEA
- 4.2. "0" AUKERA EDO ESKU-HARTZERIK EZ GAUZATZEKO DEFINITZEA
- 4.3. AUKERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK
- 4.4. Aukerak alderatzea eta egindako aukera justifikatzea

5. PLANEKO HAINBAT JARDUNEN INPAKTUAK IDENTIFIKATZEA ETA BALORATZEA

- 5.1. LZParen helburuen litzkeen ingurumen afektazioak identifikatzea eta aztertzea
- 5.2. LZPan jasotako jardunek izan ditzaketen ingurumen eraginak identifikatzea, baloratzea, karakterizatzea eta kalifikatzea
 - 5.2.1. Maila hierarkiko altuagoetan IEBEaren xede izan diren jardunak
 - 5.2.2. Maila hierarkiko altuagoetan IEBEaren xede izan ez diren jardunak
Antzemandako inpaktuen laburpena eta balorazio orokorra

6. LZPAK IZAN DITZAKEEN INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAK PREBENITZEKO NEURRIAK

- 6.1. Maila hierarkiko altuagoko planen inpaktuak prebenitzeko eta zuzentzeko neurriak
- 6.2. Planaren helburuak eta estrategiak egokitzeko proposamena
- 6.3. LZParen ingurumen kostua murrizteko neurriak definitzea
 - 6.3.1. Neurri babesleak, zuzentzaileak eta konpentsatzaileak
 - 6.3.2. Udal plangintzarako irizpideak, garapen berrien ingurumen programazioarekin eta ebaluazioarekin lotuta

7. PLANAREN INGURUMEN ERAGINAK GAINBEGIRATZEKO PROGRAMA

- 7.1. Kontrol helburuak
- 7.2. Jarraipenaren xede diren sistemak, alderdiak edo aldagaiak identifikatzea
- 7.3. Adierazleen jarraipena egiteko beharrezkoak diren datu kuantitatiboak eta kualitatiboak zehaztea
- 7.4. Gainbegiratze programa

8. LABURPEN DOKUMENTUA

- 8.1. Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko lurraldearen zatiko planaren helburu estrategikoak eta horiek betetzeko kontuan hartutako aukerak deskribatzea
- 8.2. Beste plan eta programa batzuekiko erlazioak aztertzea
- 8.3. Planak edo programak eragindako esparruaren ingurumen azterketa, diagnostikoa eta balorazioa
- 8.4. Aukeren ingurumen azterketa eta egindako aukeraren justifikazioa
- 8.5. Planeko hainbat jardunen inpaktuak identifikatzea eta baloratzea
- 8.6. LZPAk izan ditzakeen ingurumenaren gaineko eraginak prebenitzeko neurriak
- 8.7. Proposatutako neurriak betetzeari buruzko adierazleak

PLANOEN AURKIBIDEA

0	Planaren jardun eremua	e: 1/90.000
01.1a	Ingurune fisikoaren antolamendua - Babestu, hobetu edota leheneratu beharreko garrantzi handieneko eremuak.....	e: 1/90.000
01.1b	Ingurune fisikoaren antolamendua – Antolamendu kategoriak eta hainbat erreferentzia.	e: 1/90.000
01.2	Hiri ingurunearen antolamendua	e: 1/90.000
01.3	Planeko egitura-zehaztapenak	e: 1/90.000
01.4	LZPko garrantzi handieneko eremuak / proposamenak (gainjarrita)	e: 1/90.000
02.1	Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak, LAA	e: 1/90.000
02.2	Nekazaritza eta basorako LAPa.	e: 1/90.000
02.3	EAEko korridore ekologikoen sarea (azterketa teknikoa)	e: 1/90.000
02.4	Paisaia berezi eta bikainen katalogo irekia (aurreproiektua)	e: 1/90.000
02.5	Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sarearen LAPa. Gipuzkoako bizikleta bideen oinarritzko sarearen egungo egoera.....	
03.1a	Hipsometria	e: 1/90.000
03.1b	Litologia	e: 1/90.000
03.2	Higadura-arriskua duten eremuak	e: 1/90.000
03.3	Lur gaineko eta lur azpiko urak (urrakortasuna eta arriskua)	e: 1/90.000
03.4	Interes geologikoko eremuak	e: 1/90.000
03.5	Poluituta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioa.....	e: 1/90.000
03.6	Arriskuen mapa	e: 1/90.000
03.7	Lurzoruen gaitasun agrologikoa	e: 1/90.000
03.8a	Lur gaineko sare hidrologikoa.....	e: 1/90.000
03.8b	Mapa hidrogeologikoa	
03.9	Landaredia eta lurzoruaren erabilerak.....	e: 1/90.000
03.10	Paisaia.....	e: 1/90.000
03.11	Ondare naturalistikoa eta zientifiko-kulturala	e: 1/90.000
03.12	Interes faunistikoko eremuak.....	e: 1/90.000
03.13	Paisaia.....	e: 1/90.000
03.14	Ingurune fisikoaren informazio laburpena.....	e: 1/90.000
03.15	Laburpen ekologikoa	e: 1/90.000
04	Ingurumen unitate homogeneoak.....	e: 1/90.000
05	Lurraldeko interes bereziko eremu eta baliabideak	e: 1/90.000
06.1	Antzemandako inpaktu nagusiek espazioan duten kokapena	e: 1/90.000
06.2	Inpaktu/antolamendu kategorian nagusiak (gainjarrita)	e: 1/90.000

A DOKUMENTUA

MEMORIA

**1. TOLOSALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN ZATIKO
PLANA FORMULATZEKO OINARRIAK**

1. TOLOSALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDEAREN ZATIKO PLANA FORMULATZEKO OINARRIAK

1.1. LURRALDEA ANTOLATZEKO TRESNAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Lurralde Antolakuntzari buruzko Legean Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea antolatzeke aintzat hartzen diren tresnak Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak, Lurraldearen Zatiko Planak eta Lurraldearen Arloko Planak dira.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak, hots, lurraldea eta hiriak antolatzeke gainerako tresnak formulatzeke erreferentzia-esparru orokorra, otsailaren 11n onartu ziren behin betiko 28/1997 Dekretuaren bitartez.

Legeak bere garapena Lurraldearen Zatiko Planen eta Lurraldearen Arloko Planen bitartez egitea aurreikusten du, izan ere antolamendu zehatzagoa behar duten esparru konkretuetarako formulatu ahal izango baitira.

1.2. EAEko LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO ARTEZPIDEAK

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek lurraldean jarduten duten eragileen jarduera ekonomikoak eta sozialak bertan kokatzeko prozesuak arautzea eta arloko politikak formulatzeke eta gauzatzeko erreferentzia-esparrua eraikitzea dute helburu. Arloko politikak zein udal plangintzek lurraldearen antolamendu integral zuzena bermatzeko dituzten muga ondoz sortzen dira. Izan ere, lurraldearen ikuspegi estrukturalik ez dutenez gero ezin dute diagnostiko integraturik egin, eta epe laburretarako programazioak garapen-ikuspegia mugatzen die.

Helburu hori lortzeko, LAAek proposamen integratuen multzo bat eskaintzen dute. Proposamen horiek lurraldearen antolamendurako eredu jakin bat osatzen dute. Horretatik abiatuta, aipatutako prozesu horiek bideratzeko eta erregulatzeko irizpide eta arauak finkatzen dituzte.

1.2.1 EUROPAKO LURRALDE ESTRATEGIA LAAen LURRALDE PROPOSAMENAREN OINARRIAN

Euskal Autonomia Erkidegoaren bilakaera gaur egun ezin da ulertu inguratzen duten eta neurri handi batean baldintzatzen duten gertuko espazioetan garatzen ari diren joera, prozesu eta estrategietatik bereiz.

Jarduera ekonomikoan, garraio eta azpiegituren sarean, produkzio-espazioen ikuskeran, hiri-eremuen eta, oro har, ingurune fisikoaren kalitatean egitura-aldaketak dakartzaten prozesu horiek eta beren lurralde-inplikazioak ulertzea ezinbestekoa da prozesu horiekin koherenteak izango diren etorkizuneko estrategia berriak diseinatzeko eta kudeaketako eta plangintzako tresnak testuinguru berri horretara egokitzeko.

Estatu mailaz gaindiko esparruetan diseinatutako politiken lurralde-eragin gero eta handiagoa dela eta, kontuan hartu behar dira bai erreferentzia-esparru hau, bai bertan hartzen diren erabakiak eta garatzen diren estrategiak, baita lurralde estrategia partikular bat ere.

- EBren lehiakortasuna eskala globalean hobetzen jarraitzeko behar-beharrezkoa da Europako eskualdeak munduko ekonomian integratzea.
- Europako eskualdeak lehiakorak izateko ezinbestekoa da eskala globaleko hiri eta eskualde metropolitarrak behar adinako potentzial ekonomikoa izatea.
- Europako eskualde guztien ahalmena aprobetxatzeko behar-beharrezkoa da elkarrekin, landa-eskualdeekin eta beren eragin-eremuko tamaina desberdinetako hiriekin lotutako nazioarteko sarbide errazeko eskualde metropolitarrak osatutako zona dinamikoen sare batean integratzea.

Tesi hauek harturik oinarri, Europako lurralde-garapeneko politikaren hiru jarraibideak honakoak dira:

- ***Hirien sistema orekatu eta polizentrikoaren garapena eta landaren eta hiriaren arteko erlazio berria.***
- ***Azpiegituretarako eta jakintzarako sarbide baliokidearen bermea.***
- ***Garapen iraunkorra, kudeaketa adimenduna eta naturaren eta kultur -ondarearen babesa.***

Helburu harmonizatu horiek beren gain hartu beharko lituzkete bai Europako erakundeek bai gobernuko eta administrazioiko maila nazionaletan, eskualdekoetan eta tokikoetan.

Erreferentzia horiekin, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek Europako hiri-sistema handiak analizatzen dituzte, baita Euskal Autonomia Erkidegoak eta bere ingurune hurbilenak horietan bete dezakeen eginkizuna aztertu ere, eta Europako lurralde-estrategia Euskal Autonomia Erkidegoko testuingurura moldatuz berrinterpretatu eta birformulatzen dute.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako lurralde-politikaren hiru printzipio edo jarraibideak honakoak dira:

- ***Hirien sistema orekatua lortu beharko da, eta bertan hiriburuak zein tamaina ertaineko hiriguneak eta landa-eremuak integratu beharko dira.***
- ***EAErako proposatutako hirien sistema osatzen duten hiriguneen kanpoko zein barruko konexio-aukerak optimizatuko dituen azpiegitura-sistema garatu beharko da, European integratzeko.***
- ***Ingurune fisikoarekiko beste jarrera bat hartu beharko da, baliabideek eta lurzoru urbanizaezinak gizarte-eskari berrien testuinguruan bete behar duten eginkizuna abiapuntutzat hartuta, ingurune fisikoa babesteko eta balioz hornitzeko.***

1.2.2. HIRIEN ETA EREMU FUNTZIONALEN SISTEMA, LAAen LURRALDE EREDUAREN OINARRIZKO ALDERDIAK

Aurreko estrategia horietatik Lurralde Eredu bat prestatzea etorri da; honek hainbat elementu baliatzen ditu lurraldea egituratzeko, besteak beste honakoak:

A. Hiri sistema hierarkizatu bat jasotzea, lau maila txertatutan bereizirik hau:

- *Euskal Hiriburuen Gune Anitzeko Sistema.*

Osagarritasunaren eta elkarrekiko erlazioaren ikusmoldetik pentsatua, hiru hiri garrantzitsuenen, BILBO, DONOSTIA, GASTEIZ, hots, lurralde historikoetako hiriburuen existentzian oinarritzen da, Euskal Autonomia Erkidegoaren muga politiko-administratiboak gaindituko dituen espazio zabal baten aitzindari izateko gai izango den maila handiko hiri-euskarri integratua lortzeko helburuarekin.

- Burutza-hirien edo eskualde mailako sistema.

Burutza hauek funtsezko piezak dira polarizatzen dituzten udalerrietako biztanleentzako zuzkidura, ekipamendu eta zerbitzuen eskaintza optimizatzeko, bigarren mailako egitura sortzen baitute, lurralde osoa orekatuta garatzeko oinarritzakoa.

- Gainerako udalerriek eta landagunek eta landa-eremuek osatzen duten sistema.

Bi udalerrri-multzok osatzen duten sistema mailakatuak eratzen du azken maila. Lehen multzoa tamainaren, eskualde-sistemako posizioaren, beste udalerrri batzuekiko erlazio funtzionalen eta beste hainbat ezaugarriren arabera hierarkizatutako udalerriei dagokie. Bigarren multzoan landa-eremuak daude, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek balio estrategiko handikotzat jotzen dituztenak, hiri eta industria izaerako kokaleku dentsifikatuagoen osagarri; eremu horiek suspertu beharra dago, enplegua sortzeko eta jasaten duten despopulazte-prozesu estrukturalari eusteko baldintzak sortuz.

B. Eremu funtzionalak mugatzea.

LAAen lurralde-eskemaren funtsezko beste alderdi bat EA Eren eta udalerrriaren tarteko beste marko bat zedarritzea izan da (hori LALan aurreikusi zen). Horixe dugu eremu funtzionala izenekoak. Horiek aukera eskaintzen dute eskualde mailan bereizitako eremuetako bakoitzean lurralde antolamenduko programak ezartzeko. Eremu funtzionalak eta dagozkien burutzak funtsezko piezak dira lurraldea orekatzeko estrategiak Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguru orokorrean aplikatzeko.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek 15 eremu funtzional mugatzen dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan, eta horien artean dago Tolosaldeko eremu funtzionala. Tolosaldeko Eremu Funtzionalean, berau osatzen duten 28 udalerrien lurraldeaz gain, Enirio-Aralarri dagokiona sartzen da; hau sartuta dago, halaber, Beasain-Zumarraga (Goierri) Eremu Funtzionalean.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako lurralde-estrategiak eta berau zehazten duen ereduak Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen etorkizuneko ikuspegia eskaintzen dute. Biltzen dituen helburu, irizpide eta printzipioen

proposamenekin, erreferentzia-esparru orokorra dakar lurralde-eragin garrantzitsuak dituzten ekintza publiko eta pribatuentzat eta, bereziki, Lurraldearen Zatiko Planak lantzeko. Izan ere, plan horiek Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetakoen osagarriak diren hirigintza-irizpideak eskaini beharko dituzte, Lurraldearen Arloko Planen koherentzia handiagoa eta udal planen garapen doituagoa bermatzearen.

1.3. LURRALDEAREN ZATIKO PLANAK

Lehen ere adierazi dugunez, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legea (LAL) onartzetik abiatuta osatutako lurralde-plangintzako sistemaren barruan, lurraldearen zatiko planak artezpideen eta udaletako hirigintza-plangintzen arteko lurralde-antolamendurako figuratzat jotzen dira. Plan horiek, beren ezaugarriak eta kokalekua direla eta, antolamendu xeheagoa eskatzen duten eremuetarako prestatu beharko dira.

Hori dela eta, LAAen lurralde-eskemaren barruan, garrantzi berezia dute eremu horiek, eremu funtzionala deiturikoak, definitzearen inguruan zehaztutakoek, izan ere, horiek eskala fisiko eta funtzionaleko marko egoki dira lurraldea antolatzeko eta orekatzeko estrategiak aplikatzeko. Estrategia horiek izango dira bide udal-mugapenek hirigintza-plangintzan hiri-arazo jakin batzuk aztertze, ulertzeko eta gainditzeko sortzen dituzten mugak eta itxuraldatzeak gainditzeko, hirigintza-arazo batzuen irtenbidea lurralde-marko zabalagoetan bilatu behar baita. Gainera, lurraldea egituratzearekin zerikusia duten zenbait alderdiri heltzeko ere balio dute estrategia horiek, arloko politikak ez baitira nahikoak horretarako, kasu askotan praktikara eramane behar izaten diren neurriek izaera integratua izaten dutelako.

Udal-plangintzak eta arloko politikak koordinatzea eta integratzea, eta LAAen zehaztapenak eta eredu zehaztea eta garatzea, betiere horiek, EAE osorako eskalaren arabera, lurraldearen antolamenduaren inguruko zenbait gai, lurralde-antolamenduaren esparruen berriazko ezaugarriak gehiago baloratzeko eskatzen dutenak, behar adinako koherentziarekin lantzeko dituzten mugak gaindituz.

Hori guztia eta Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen arabera Lurraldearen Zatiko Planek bildu behar dituzten zehaztapen batzuk kontuan hartuta —hurrengo idatz zatian zerrendatuko dira—, Lurraldearen Zatiko Plana erreferentziako lurralde-eredu eta programa

eragile gisa ulertzen da.

Lurralde ereduak islatu egiten ditu xedea eta gaur egungo egoeratik lortu nahi dugun lurralde eredura iristeko ekintzak, programak, irizpideak eta arauak. Lanerako programak (LALaren arabera gauzatzeko programak) egin beharreko lanak identifikatuko ditu, baita horien erritmoa programatuko ere.

1.3.1. ZEHAZTAPENAK ETA DOKUMENTAZIOA

- LZPen inguruan LALak egindako zehaztapenak

Lurraldearen Zatiko Planek bildu beharko dituzten zehaztapenak, maiatzaren 31ko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen 12. artikuluan adierazten direnak, honako hauek dira:

- a) Antolakuntzako helburuen zehaztapena, lurraldearen oraingo egoera, gizarte eta ekonomiaren aldetikako egoera eta horiek nolako aurrera-bidea izan dezaketen aztertzeetik abiatuz.
- b) Azpiegitura handientzako irozkai izateko gai diren tokien zehaztapena, horien zer-nolakoan arabera.
- c) Egitarauaren gai den alor edo aldetarako guztien onerakoak izanezko antolapideen kokaleku zehaztapena.
- d) Hiri-antolakuntza haiei atxiki beharko zaieneko irizpide, printzipio eta arau nagusiak.
- e) Birregokiketaren, birroneratzearen edo birgaitzearen gai izan beharreko tokien zehaztapena, horien andeapena eragozteko edo erabat edo bere baten bestelakoak izanezko erabileretarako berreskuratu ahal izateko. Baita horretarako garatu beharreko egitarauena eta horiek gauzatzeko bultzabide izan daitezen laguntza-neurriena ere.
- f) Dena dela, honako helburu hauetakoren batetarako gorde beharreko lurren luze-zabalaren zenbaketa:
 - Agintaritza-babespeko etxebizitzak (herri nahiz norbanako-alorrak suztatuzkoak), edo etorkizunean beren azken prezioa berariazko araupeketaz mugatu dakiekeen beste edozein eratakoak egiteko.
 - Hirigintza-lanak egindako lur-eremuak eratzeko bide egin ahal izateko, industri lurraren herri-sustapena egiteko.

g) LAAetan jasotako zehaztapenak garatzeko beharrezko irizpide, arau eta printzipioak.

Aipatutako zehaztapen horiek ondorengo agirietan bildu ditugu:

- a) *Azterketa eta informazio planoak*
- b) *Planaren azalpen-memoria*
- c) *Ekonomia eta finantza azterketa*
- d) *Gauzatzeko programa, lau urteko etapatan banatutakoa*
- e) *Antolamendu planoak eta arauak*

Lurraldearen zatiko planen funtsezko eginkizuna, beraz, LAAetako eredia eremu funtzional mailan garatzea litzateke. Horretarako hainbat zehaztapen, irizpide eta jarraibide adierazten dira, eta horiek guztiak kontuan hartu beharko ditu garapeneko plangintzak, LZPa bera tartean dela.

- **LAAen zehaztapenak, irizpideak eta orientabideak**

Oro har betetzea kaltetu gabe, eduki zehatza dela eta, 22. kapituluaren (LAAk aplikatzeko arauak izenekoan) honakoak aipatzen dira berariaz:

- a) Udal plangintzak bateragarri bihurtzea, hala badagokio, LAAen 19. kapituluaren ezarritakoaren arabera.
- b) Eremu funtzionalaren mugakideen LZPak koordinatzeko baldintzak, LAAen 20. kapituluko 5.3 atalean ezarritakoaren arabera.
- c) Zenbatespen lotesleak (22. kapituluaren 2.2.II.b)
 - Eremu funtzionalean barne hartutako udalerrietako bakoitzari dagokion bizitegi-lurzoruaren eskaintza kuantifikatzea.
 - Bigarren etxebizitzetarako lurzorua eskaintzaren gehienezko mugak finkatzea.
- d) LZPak idazteko irizpideak eta orientabideak (22. kapituluaren 2.2.11.c).
 - Ingurune fisikoaren antolamendua (8. kapituluaren 5, 6 eta 7 atalak).
 - Ingurune fisikoko elementu eta prozesuei eta jardueren kontrolari buruzko artezpide orokorrak.
 - Ingurune fisikoa antolatzeko kategorien artezpide partikularrak: lurralde-eredua. Lurralde-eredua.
 - Lurralde ereduaren ondorioak lurzorua politikari (9. kapituluaren 4.1, 4.2, 4.11 eta 6 atalak)
 - Ekonomia-jardueretarako lurzoru-politikaren orientabideak

- LZPetarako eta LAAk garatzeko plangintzarako orientabideak
- Bigarren etxebizitzak eta baliabide turistikoak antolatzea (10. kapitulua, 4 eta 5 atalak)
 - Helburuak eta irizpideak
 - Antolamendua
- Atsedeen-eremuen eta lurralderako sarreraguneen sistema (11. kapitulua, 4, 5.2, 5.3, 5.4 eta 6 atalak).
 - Helburuak eta irizpideak
 - Antolamendua
- Etxebizitza-premia eta bizitegitarako lurzoru berriaren eskaintzaren kuantifikazioa (12. kapitulua, 3 eta 4 atalak)
 - Helburuak eta irizpideak
 - Eskaintza kuantifikatzea uda plangintzan

1.3.2. LURRALDEAREN ZATIKO PLANAREN EPEMUGA

Planaren izaera bera eta edukiak ikusita, badirudi justifikatuta dagoela udal-plangintzak garatzeko finkatu ohi duena baino epemuga zabalagoa ezartzea. Bestalde, programatzeko eta berrikusteko erritmoek bat etorri behar dute hirigintzako eta lurraldeko legeriak jasotzen dituenekin.

Tolosaldeko Eremu Funtzionala antolatzeko proposamenak 16 urteko aldirako aurreikusitako garapenaren arabera ezarri dira.

Aldi hori udal plangintzaren programazioan eskatutakoaren bikoitza da eta bat dator 4/90 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzkoan, ezarritako jarraibideekin, horrek 4 urteko etapak aurreikusten baititu.

1.4. TOLOSALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO LZPa: PRESTAKUNTZA PROZESUA ETA UDALAREN PARTAIDETZA

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea da Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen konfigurazioa garatu behar duten tresnak mailaz maila formulatzeko esparru juridikoa.

Lurraldearen Zatik Planak formulatzeko ekimena, adierazitako legearen 13.1. artikuluan

adierazitakoaren arabera, berdin dagokie Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari eta foru aldundiei, planak hainbat lurralde historikotako udalerririk eraginpean hartzen dituenen izan ezik, halakoetan ekimena beti adierazitako sailak gauzatuko baitu, ofizioz edo foru aldundiek eskatuta.

Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, artean artezpideak behin betiko onartu gabe zeudela, Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagozkion eremu funtzionalak lurraldearen zatiko planak egiteko lanei ekiteko une egokia zela bat etorri, lankidetzan hitzarmen bat sinatu zuten 1992ko uztailean, prozesu hori arautzeko eta sustatzeko, hain zuzen ere. Hurrena, hitzarmenean jasotako Jarraipen eta Zuzendaritza Batzordea eratu zen, eta oraindik ere funtzionatzen segitzen du horrek.

1992, 1993 eta 1994 urteen artean aurretiko zenbait azterlan egin ziren. Analisi eta diagnostiko horiek amaitzeko, 1995eko apirilean Gipuzkoako lurraldearen planen aurrerapenak aurkeztu ziren, horien artean, Goierriko eremu funtzionalari dagokiona, zehatz esateko. Aurrerapen hori eremu funtzionalak udaletara bidali zen, nahiz eta ondoren prozesua eten egin zen LAAk behin betiko onartu arte. Hori 1997an gertatu zen, bi urteko iraupena izan zuen esku hartzeko aldiaren ondoren.

Artezpideak onarturik, akordio bat sinatu zuten Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, foru aldundien hirigintza departamentuek eta Eudelek, lurraldearen zatiko planak metodologia komun batez sustatzearren.

Gainera, Aurrerapena entregatu eta artezpideak onartu bitartean, udal plangintzek eta hiri garapenak beren bidea egin zuten. Gisa horretan, planteatutako proposamenetako batzuk gauzatu egin ziren, beste batzuk sortu eta abar, eta neurri batean aldatu egin ziren, halaber, eremu funtzionalak baldintza sozioekonomikoak eta espazioaren erabilgarritasunari buruzkoak.

Era berean, LAAk onartzearen ondorioz, idazteko prozesuan zeuden lurralde planetako batzuk (bizitegitarako lurzoruen eta ekonomia-jardueren ingurukoa esate baterako) aldatu egin ziren, izaera publikoko homonimo bihurtzeko. Bien bitartean, beste sail batzuk beraiei zegozkien arloko planak idazten eta onartzen hasi ziren. Horietako batzuk amaitu ere egin zituzten.

Hori dela eta, sail sustatzaileek uste izan zuten lehen urrats gisa, behin betiko agiria

idazteko zereginekin jarraitu baino lehen, egokia litzatekeela aipatutako aurrerapen-agiri hori berrikustea eta eguneratzea. Berrikusteko lan hori irizpide, helburu eta irtenbide orokorren agiri bat prestatzeko erabakian jaso zen eta, era berean, lanen zuzendaritzak jorratuko zuen ikuspegi berria sartu zen “Oinarri Metodologiko eta Kontzeptualak” agiriaren prestakuntzaz; honek, izan ere, zabaldu egiten zuen instituzio esparruaren eta gizarte eragileen esku hartzea eta, metodologiaren ikuspegitik, errealitate hurbilagoko faktore analisiak sartzen zituen, ezinbestekoak berak oinarri sendoagoko eta eremu funtzional bakoitzaren ezaugarri espezifikotara egokituagoko lurralde eredu bat lortzeko. SUNION enpresari eman zitzaion agiri hori prestatzeko lana.

Testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 13.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Tolosaldeko Eremu funtzionaleko LZPren Aurrerapena, 1995eko apirilean formulatua, lurraldeko administrazio publiko interesdunetara bidali zen entzunaldiaren izapiderako. Bi hilabeteko epea izan zuten beren oharrak, iradokizunak, alternatibak edo proposamenak adierazteko. Horrez gain, jendaurrean jarri ziren aurrerapenean barne hartutako irizpide eta irtenbide orokorrak.

Iradokizun idazkiak aurkeztu zituzten Aduna, Albiztur, Alegi, Altzo, Amezketza, Asteasu, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Tolosa eta Villabonako udalek, Energiaren Euskal Erakundeak, Jose Maria Unanue, Gotzon Arruabarrena eta Txomin Mendizabal jaunek eta Euskal Herriko Nekazarien Elkartasunak.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Sailak, Errepide Zuzendaritza Nagusiak, Garraio Zuzendaritza Nagusiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuak ere txostenak egin zituzten.

Kontratatutako iradokizunak eta aukerak aurrez baloraturik, lan horren lehen entrega bat egin zuen 1997ko apirilean, “Análisis integral del Avance del PTP del Área Funcional de Tolosa (Tolosaldea) y su incidencia en los distintos municipios” izenarekin; kontratatutako zerbitzuen lehen faseari zegokion, eta une horretan eten egin zen prozesua.

Prozesua lehiaketa bidez atzera abiatuak, Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatikiko Plana idazteko lanak Mikel Eletxigerra eta Juan Ramon Lonbera arkitektoek zuzendutako erredakzio-taldeari esleitu zitzaizkion.

Talde horrek eremu funtzionaleko LZPren Aurrerapen dokumentu berri bat, 2005eko

urtarrileko datako bat, eman zion Administrazioari, 1997an jendaurrean jarritako dokumentua ordezkatzuz horrela.

Dokumentu hori, funtsean, 2004ko urtean zehar prestatu zen. Dokumentuak halako zehaztasun maila bat hartu zuenean, eta dokumentuaren entregaren ondotik halaber – 2005eko urtarrila–, dibulgazio bilerak egin ziren, bai eremu funtzionaleko udalei bai beste kolektibo jakin batzuei zuzendurik. Horretaz gain, administrazioen eta beste erakunde, elkarte eta kolektiboen kontsultak atenditu ziren, zuzenean, Planaren edukiari buruzko zenbait kontu argitzea eskatzen zutenean.

Aurkezpen eta dibulgazio epe honen ondotik, dokumentua lau hilabetez egon zen entzute fasean, eta ukitutako lurralde administrazio publiko guztiei bidali zitzairen, eta jendaurrean jarri zen, eta baita Interneten ere Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren web orrien bidez, egoki irizten zieten ohar, iradokizun eta proposamenak egin zitzatela eskatzearekin batera.

2006ko martxoan, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lurralde Antolaketako Zuzendaritzek ingurumen eraginari buruzko aurretiazko txostena eskatu zuten, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazioaren prozedura arautzen duen 183/2003 Dekretuak, uztailaren 22koak, 6. artikuluan jasotzen duenaren arabera. Eta Ingurumeneko sailburuordeak, 2006ko ekainaren 13ko ebazpenaren bidez, aldeko txostena eman zuen.

Era berean, Aurrerapen horri buruzko aldeko txostena eman zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzako Batzordeak, 2006ko maiatzaren 25ean egindako saioan.

Aurrerapen dokumentuari oharrak, iradokizunak eta proposamenak aurkezteko zabalduetako epearen barnean, Eusko Jaurlaritzatik hamaika idazki jaso eta erredakzio-taldeari bidali zitzaizkion, erantzuna eman ziezaien. Igorleak, berriz, erakunde hauek izan ziren: Alkiza, Larraul eta Ikaztegietako udalak, Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF), EHNE sindikatua, Tolosaldea Garatzen S.A. (bi idazki), Euskaltel, SA, eta baita Eusko Jaurlaritzaren Ur, Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetza eta Energia eta Meategietako Zuzendaritzak ere. Horrekin batera, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazio Azterketaren dokumentua entzute eta jendaurreko tramiteetara igaro zen, eta hiru idazki jaso ziren, Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Biodibertsitate eta

Ingurumen Partaidetzako Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mendi eta Natur Ingurune Zuzendaritzarena.

Erantzunak entregatu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2007ko azaroan beste idazki sorta bat bidali zion erredakzio taldeari, hamabi idazkiz osatutako bat zehazki; erakunde igorleak honakoak ziren: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Landa Garapeneko Departamentua eta Bide Azpiegituretako Departamentua, Irura, Lizartza, Tolosa eta Zizurkilgo udalak, Gipuzkoako Ganbera, Tolomendi Elkarte, Red Eléctrica de España S.A., Cantera de Alzo S.A., Hormigones Goiherriko-Bi-S.L. eta Aizkibel S.A.

Aurkeztutako oharak, iradokizunak edota proposamenak aztertu eta analizatu ondoren, horien guztien aurretiazko balorazio orokor berri bat egin zen, modu partikularizatuan erantzunez igorritako azkenetako bakoitzari, Administrazioak beharrezko irizpide-akordioak hartu eta behin betiko erredakzioari ekitearren.

Ingurumeneko Sailburuordetzak emandako ingurumenaren gaineko eraginari buruzko aurretiazko txostena ikusirik batetik, bestetik kontuan harturik jendaurreko epearen eta kontsultatutako administrazioekiko entzute tramitearen emaitzak, eta azkenik, aurkeztutako iradokizun eta aukerei buruz Lurraldearen Zatik Planaren erredakzio-taldeak egindako balorazioa aintzat, 2010eko ekainaren 15eko datuz Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluaren erabakiz eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren aginduz, onartu egin ziren prestatutako Eremu Funtzionaleko LZParen Aurrerapen dokumentuan jasotako irizpide, helburu eta aukera orokorrak, hain zuzen ere Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatik Plana prestatzeko lanek kontuan hartu beharko zituztenak.

Hala eta guztiz ere, prozesuaren denbora-gorabeherak kontuan hartuta eta, proposatutako Lurralde Ereduen aldeko balorazioa egin arren, bidezkotzat jo zen Aurrerapen agiriko "Lurralde Eredua lantzeko oinarriak" eguneratzea. Eta eguneratze-lan hori une hartan eskura zeuden datu sozioekonomiko eta urbanistikoen arabera eta proposatutako planteamendu metodologiko orokorrari jarraituz egin ostean, ondorioztatu zen ez zela beharrezkoa Lurralde Eredua berriro aztertzea; hala, dokumentua idazteari ekin zitzaion, eta 2012ko urte hasieran entregatu zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2013ko urriaren 15eko saioan hasierako onespina eman zion dokumentu horri, EAEko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak egindako txostena kontuan hartuta. Gero, dokumentua jendaurrean ukusgai jarri zen 10

hilabetez. Epe horretan 26 idatzi jaso ziren eta erredakzio-taldeari bidali zitzaizkion. Hauek izan ziren idatziak bidali zituzten erakundeak: Estatuko Gobernuaren EAeko Ordezkaritza; Sustapen Ministerioko Trenbideetako Zuzendaritza Nagusia; Telekomunikazioen eta Informazioaren Teknologiaren Zuzendaritza Nagusia (Telekomunikazio sare eta operadoreen Zuzendariorde Nagusia); Kantaurikoko Ur Konfederazioa; Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzako Sailburuorde Nagusia; Eusko Jaurlaritzako Garraioa Planifikatzeko Zuzendaritza; Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia; eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Azpiegituretako Departamentua. Gainera, honako hauek ere jarri zituzten alegazioak: Aduna, Alegi, Alkiza, Anoeta, Asteasu, Berastegi, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu-Txarama, Lizartza, Oresa, Villabona eta Zizurkilgo udalak, Red Eléctrica de España, Aizkibel SA eta Calcinor SA.

Alegazio horiek guztiek erredakzio-taldearen erantzuna jaso zuten “Tolosaldeko LZPren Hasierako Onespen Dokumentua” izenekoan; eta dokumentu hori 2015eko urtarrilean entregatu zen.

Berrito ere, izaera politikoko hainbat zirkunstantzia tarteko (2015eko maiatzeko hauteskundeak) ezinezkoa izan zen LZP behin-behinekoz onartzea.

Gobernu-talde berriak Tolosaldeko LZP berrito sustatzea erabaki du, baina behin-behineko onespena eman aurretik bidezkoztat jo du datu sozioekonomiko eta urbanistikoak eguneratzea, eta lege nahiz araudi berriak dokumentuan txertatzea –erantsi zaizkio, hain zuzen–. Horrek ez du esan nahi, ordea, proposatutako Lurralde Ereduaren edukian eta dokumentuan bertan funtsezko aldaketak egin direnik.

2. LURRALDE EREDUA LANTZEKO OINARRIAK

2. LURRALDE EREDUA LANTZEKO OINARRIAK

2.1. LURRALDEA

2.1.1. EREMU FUNTZIONALAREN MUGAK ETA EZAUGARRI OROKORRAK

Eremu funtzional honen lurraldeak 323 km²-ko azalera du gutxi gorabehera eta 28 udalerrik osatzen dute (Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil). Oria ibaiaren Erdiko arroa okupatzen du eta bat dator, oro har, Tolosaldeko eskualde tradizionalarekin.

Gipuzkoako lurralde historikoaren eskualdean kokatuta dago, eta iparraldean, hegoaldean eta mendebaldean Gipuzkoako lurralde historikoko beste hiru eremu funtzionalekin egiten du muga (Donostialdea, Goierri eta Urola-Kosta, hurrenez hurren). Ekialdean, berriz, Nafarroako Foru Erkidegoko Leitza, Areso eta Araiz Haraneko lurrekin egiten du muga.

Eremu funtzionalaren batez besteko altuera ez da oso handia, mendigune nagusietan izan ezik: batetik, Hernio-Gatzume mendigunean –Oiz mendiko unitatearen parte izanik, eta ipar-ekialde/ hego-ekialde norabidean, Uzturre-Ipuliño mendigunean zehar, Tolosaldea eta Nafarroa arteko mugara egiten du– eta, bestetik, Aralarko mendikatean –eremuaren hego-ekialdean dago, eta Goierriekin eta Nafarroarekin partekatzen du–.

Lurraldean haran estuek zeharkatzen dituzten muinoak eta mendiak dira nagusi; malkartsua eta erliebe gorabeheratsukoa da, eta horren lekuko da lurraldearen % 90ak % 20tik gorako aldapa izatea eta % 70ak % 30etik gorakoa. Zertzelada hauetatik oso faktore garrantzitsua ondorioztatzen da: erabilera eta jardura askorentzako lurzoru erabilgarri gutxi izatea.

Konposizio geologikoari eta eragin atlantikoari esker, bertako klima freskoa eta prezipitazio ugariak denez, bertako ibaiak eta errekek tamaina txikikoak badira ere, eremu funtzionaleko sare hidrografikoa sendoa da.

Horrenbestez, bertako ibaiak eta errekek indartsuak eta higatzeko ahalmen handikoak dira. Guztiek isurtzen dituzte urak Oria ibaian. Oria ibaia da sare hidrografikoa eta lurraldea

hierarkizatzen eta egituratzen duen ardatza. Ibaiadar nagusiak Amezketa, Araxes, Zelai eta Leitzaran ibaiak dira, eskuinaldean, eta Aldaba, Salubita (Albiztur), Alkiza eta Asteasu errekek, ezker aldean.

Eremu Funtzionalak 47.000 biztanle zituen gutxi gorabehera 2016. urtean.

Lurraldearen egungo okupazioan haranen hondoak linealki okupatzen dituen giza kontzentrazioa da nagusi, bi gunetan bilduta eta polarizatuta, Tolosa-Ibarra multzoan eta Villabonako hirigunea eta Zizurkilgo Elbarrena auzoa hartzen dituen hiri-eremuan, muinoetako inguruetako eremu aski hutsekin kontrastatuz. Eremu hauetan kokatzen dira eremu funtzionalaren zati handi bateko gunek.

Haran nagusiko bederatzi udalerriek biztanleria osoaren % 82 biltzen dute; eremu funtzionaleko gainerako 19 udalerrietan, berriz, 8.703 biztanle baino ez dira, 34 biz./km²-ko batez besteko dentsitatearekin, eta lurraldearen % 70 kudeatzen dute. Udallerri horietatik hamalau sartuta daude EAeko Landa Garapen Iraunkorrerako Plana 2000-2006 delakoan.

Hiri garapenaren egungo egoera 1.260 ha inguru kalifikatzean islatuta geratzen da; izan ere, eremu funtzionalaren azaleraren % 3,90 dira. Lurzoru kalifikatu osoa harturik, 382 ha bizitegi-lurzorua dira, 335 ha jarduera ekonomikoetarako lurzorua, eta beste 543 ha sistema orokorretarako dira; hauen barnean, bide azpiegiturak eta oinarritzko azpiegiturak 253 ha dira.

Eremu funtzionalak (Udalplanaren arabera), 21.785 etxebizitza inguruko parkea du 2016ko urtarrilean; hauetatik 18.834 hiriko etxebizitzak dira, eta 3.000, % 15 inguru alegia, landako etxebizitzak. Tolosaldeko bizitegi-eremu hirtarren batez besteko dentsitatea 55 etxebizitza/ha da. Eremu funtzional osoko dentsitate handieneko gunek Ibarra, Villabona eta Tolosakoak dira, 110 etx./ha, 85 etx./ha eta 84 etx./ha baitituzte hurrenez hurren.

Lurraldearen % 90 baino gehiago espazio nabarmenki landatarra da. Bertan lehen sektoreko jarduerak oraindik ere bere oinarri ekonomikoaren osagai garrantzitsua dira eta baserriak betetzen du lurralde zabal horren kudeatzailearen eginkizuna.

1996ko nekazaritza erroldako datuen arabera, Tolosaldeak 9.550 hektareako nekazaritza-azalera erabilgarria du, hau da, eremu funtzionalaren azalera osoaren % 29,5, honela banatuta:

1. taula. Azaleraren banaketa erabileraren arabera, udalerrika

UDALERRIA	LURZORUAREN ERABILERA												GUZTIR A	%
	NAE (1)	%	(1) Azalera guztira	Sastraka	%	(2) Azalera guztira	Ez-emankorra (3)	%	(3) Azalera guztira	Basoak	%	(4) Azalera guztira		
Abaltzisketa	521	5,4	45,8	74	3,4	6,5	24	2,4	2,1	518	2,6	45,6	1.137	100
Aduna	195	2,0	27,7	52	2,4	7,4	43	4,3	6,1	415	2,1	58,9	705	100
Albiztur	479	5,0	37,6	41	1,9	3,2	13	1,3	1,0	740	3,8	58,1	1.273	100
Alegia	192	2,0	24,5	8	0,4	1,0	53	5,4	6,8	531	2,7	67,7	784	100
Alkiza	352	3,7	28,8	99	4,6	8,1	1	0,1	0,1	770	3,9	63,0	1.222	100
Altzo	266	2,8	26,7	30	1,4	3,0	47	4,7	4,7	655	3,3	65,6	998	100
Amezketeta	819	8,6	40,4	76	3,5	3,7	44	4,4	2,2	1.089	5,5	53,7	2.028	100
Anoeta	193	2,0	44,6	11	0,5	2,5	28	2,8	6,5	201	1,0	46,4	433	100
Asteasu	849	8,9	49,9	148	6,8	8,7	23	2,3	1,4	680	3,5	40,0	1.700	100
Baliarrain	139	1,5	47,6	-	-	-	2	0,2	0,7	151	0,8	51,7	292	100
Belauntza	137	1,4	38,7	5	0,2	1,4	11	1,1	3,1	201	1,0	56,8	354	100
Berastegi	504	5,3	11,0	734	34,0	16,0	107	10,8	2,3	3.254	16,5	70,8	4.599	100
Berrobi	135	1,4	48,9	1	0,0	0,4	7	0,7	2,5	133	0,7	48,2	276	100
Bidania-Goiatz	600	6,3	44,9	26	1,2	1,9	10	1,0	0,7	701	3,6	52,4	1.337	100
Elduain	150	1,6	5,9	206	9,5	8,2	11	1,1	0,4	2.158	11,0	85,5	2.525	100
Gaztelu	158	1,7	18,6	58	2,7	6,8	6	0,6	0,7	626	3,2	73,8	848	100
Hernialde	241	2,5	58,9	8	0,4	2,0	3	0,3	0,7	157	0,8	38,4	409	100
Ibarra	262	2,7	51,5	23	1,1	4,5	23	2,3	4,5	201	1,0	39,5	509	100
Ikaztegieta	112	1,2	55,2	2	0,1	1,0	11	1,1	5,4	78	0,4	38,4	203	100
Irura	32	0,3	10,9	29	1,3	9,9	53	5,4	18,1	179	0,9	61,1	293	100
Larraul	245	2,6	43,0	15	0,7	2,6	2	0,2	0,4	308	1,6	54,0	570	100
Leaburu	176	1,8	50,9	2	0,1	0,6	-	-	-	168	0,9	48,6	346	100
Lizartza	258	2,7	20,7	138	6,4	11,1	8	0,8	0,6	842	4,3	67,6	1.246	100
Orendain	238	2,5	36,7	8	0,4	1,2	4	0,4	0,6	399	2,0	61,5	649	100
Orexa	103	1,1	16,6	53	2,5	8,5	4	0,4	0,6	460	2,3	74,2	620	100
Tolosa	1.232	12,9	32,8	100	4,6	2,7	250	25,3	6,6	2.178	11,1	57,9	3.760	100
Villabona	516	5,4	29,2	53	2,5	3,0	156	15,8	8,8	1.044	5,3	59,0	1.769	100
Zizurkil	456	4,8	29,8	162	7,5	10,6	46	4,6	3,0	865	4,4	56,6	1.529	100
GUZTIRA	9.560	100	29,5	2.162	100	6,7	990	100	3,1	19.702	100	60,8	32.414	100

Iturria: Nekazaritzako Errolda, 1996

(1) Oharra: Udalplan 2016ko datuen arabera, lurzoru kalifikatuak 1.260 hektarea dira, taulan 990 agertzen badira ere. Seguruenik, galera horren parte nagusia Nekazaritzako Azalera Erabilgarrian gertatuko zen.

Lurraren orografia eta aldapak direla eta, baso-erabilera da hedatuena, 19.700 ha zehazki, hots, eremu funtzionalaren azaleraren % 60,8. Sastrakak, 2.150 ha-rekin, % 6,7 hartzen du eta erabilera ez-emankorrek, 1.000 ha ingururekin, gainerako % 3,1a.

Baso-erabilerako 19.700 hektareetatik, koniferoak nagusi diren arren (11.000 ha, hots, baso-erabilerako azalera osoaren % 55,8), nabarmentzekoa da hostozabalek okupatzen duten azalera garrantzitsua, 8.600 hektarearekin gainerako % 44,2a hartzen baitute, Gipuzkoako batez bestekoa baino zazpi puntu gehiago (baso-erabilerako azaleraren % 37).

Hurrengo taulan ikus daiteke nekazaritzako eta basogintzako erabilerak udalerrietan eta eremu funtzionalean nola dauden banatuta.

2.1.2. INGURUNEAREN ANALISIA ETA EBALUAZIOA

2.1.2.a. EZAUGARRI GEOMORFOLOGIKOAK

Batik bat ibai-higadura jasan duten oinarrizko ezaugarri geologiko eta litologikoen konbinazioaren ondorioz, hiru erliebe-unitate edo egitura handi bereiz daitezke.

- **Haran-hondoak:** Oria ibaiaren haranarekin bat egiten dutenean dute azalera handiena. Oro har arroaren profila oso estua den arren, eremu irekiagoak ditu Tolosa-Ibarra aldean, Araxes eta Zelai ibaiekiko elkargunean. Hernio-Uzturre sinklinala zeharkatzean berriz estutu ondoren, Anoeta-Iluratik aurrera berriz irekitzen da. Gauza bera gertatzen da beste bi ibaiadar nagusien, Asteasu eta Amezketaren, behe-ibilbideetan. Horien eta ibilgu nagusiaren arteko elkargunean kokatzen dira Villabona-Elbarrena hiri-eremua eta Alegiako hirigunea, hurrenez hurren.

Oro har, askotariko jatorria duten material detritikoen metatzeak eratutako lautada alubiala izatea dute bereizgarri. Zenbaitetan, beren porositate bereizgarriaren ondorioz, akuifero aski garrantzitsuak osatzen dituzte, nahiz eta gaur egun gehienak oso poluituta egon.

Haran-hondo irekiago horien salbuespena bada ere, Leitzaran ibaiaren ibilgu estua, hainbat meandro osatuz, sakonki artekatu da haraneko material paleozoiko gogorren artean. Araxes ibaiak antzeko garapena azaltzen du Lizartzako udalerritik ibaian gora, baina kasu honetan V erako haran sakona kareharrizko materialen gainean sortu da eta, horrenbestez, bere meandroek forma leunagoak dituzte.

Bestalde, jatorria ibaiko higaduran eta metatzean ez badute ere, badaude beste era bateko haran-hondo lauak. Hondoak metakin alubialez estalita izan baditzakete ere, jatorri karstikoa dute funtsean. Hori izango litzateke Berastegiko haranaren, Bidania-Goiatzeko haranaren, Aintzergako sakonunearen edo Asteasuko eta Berrobiko haran-hondo lauen kasua.

- **Kareharrizko mendiguneak:** mendiguneek mendilerroak eta mendiak osatzen dituzte, kareharrizko jatorriagatik eremu funtzionaleko erliebean eta paisaian nabarmentzen direnak. Hernio mendigunea batik bat Urola-Kostako eremu funtzionalean zehar hedatzen da, baita Donostialdean ere, baina Tolosaldean dago mendigunearen erdiko sektorea eta bertan dute gailurrek altuerarik handiena, Hernion bertan (1075 m) edo Herniozabalaren (1010 m). Hegoalderanzko luzapenean kota apalagoak ditu, Intxurre (743 m) esate baterako.

Uzturre mendia (730 m), Tolosatik begiratuta alde malkartsua erakusten badigu ere, ez da Uzturre-Ipuliño mendiguneko gailurrik garaiena; izan ere mendigune honek gero eta garaiera handiagoak hartzen ditu barnealderantz, hor dira eta Urdelar (852 m), Larre San Lorentzo ermitarekin (796 m), eta, azkenik, Ipuliño bera amaitzeko (930 m).

Hegoalderantz, Berastegiko haranaren beste aldean, Erroizpe-Uli mendilerroa altxatzen da, altuera apalagoekin: Erroizpe bera (801 m), Laarte (810 m) eta kotarik altuena den Ulizar (868 m).

Tolosa eta Alegia artean Aralar mendilerroaren iparraldeko sektoretzat jotzen dena jaiotzen da; Otsabio mendia da bere gailurrik enblematikoena, 801 metroko altuerarekin. Aralarreranzko luzapenean, Nafarroako Ariz haranarekiko mugan, Urreako Haitza nabarmen daiteke, Artubi mendian erori eta irristatutako kare-bloke handia. Jakina, Aralarren daude eremu funtzionaleko kotarik altuenak, Txindoki edo Larrunarri mitikoan (1346 m).

- **Flysch-muinoen sektorea:** azalera handia okupatzen dute eskualdean, hegoaldean batik bat. Erliebea oso bereizgarria da, gailur lauak edo behinik behin oso biribilduko muino eta ibaiarten txandakatzean oinarritua. Gune hauetan sarritan aurki daiteke giza kokalekuren bat, hots, baserriak, landaguneak edo herri txikiak (Abaltzisketa,

Orendain...). Ibaiarte eta muino horiek amaitzean aldapa handiak dituzten isurialdeak daude, aurreko erliebearen leuntasuna hausten dutenak. Arestian adierazitako prezipitazio ugarien ondorioz higadura-ahalmen handiko erreka txikiak osatzen dira eta ez da batere arraroa mazela-irristatzeak eta solifluxio-prozesuak egiaztatzea, masa irristatuak eta are askatze-orbainak ere antzeman baitaitezke.

2.1.2.b. UNITATE EKOLOGIKO ETA PAISAJISTIKOAK

Eskualde naturalen araberako banaketa orokorrari jarraituz, eta eremu funtzionalaren egitura geomorfologikoan, landaretzan, faunan eta paisaian ere islatzen den moduan, banaketa orokor horren barruan bi oinarritzko ingurumen-unitate bereiz daitezke:

1. unitatea: Hernio-Gatzumeko eta Aralarko mendigune karstikoak eta inguruko lurrak.

Unitateak oso erliebe menditsua du, gehienbat izaera karstikoko kareharri Urgondarrez osatua.

Isurketa-urik ez dagoenez, morfologia karstikoan gertatu ohi den moduan, uren lurpeko zirkulazioa oso handia da, eta garrantzi handiko baliabide naturala da. Lurpeko urek batzuetan oso arro zabalak drainatzen dituzte, eta iturburuen bidez azaleratzen dira. Iturburu horien artean hauek nabarmen daitezke: Bidaniko Erreka Alkizan, Urbeltza Elduainen, Salubita Tolosan eta Zazpiburrieta Amezketan.

Landaretzari dagokionez, industrializazioa baino lehen hasi zen prozesu historiko baten ondorioz, zuhaitz-masa hostozabalek atzerakada bortitza jasan dute. Mendiguneetan, ordea, nahiz eta historikoki gizarte landatarraren baliabide gisa ustiatu izan diren eta zenbaitetan degradazio-aztarnak azaltzen dituzten, nekazaritzaren ikuspuntutik begiratuta hainbesteko balioa ez duten lurzoruen gainean garatu direnez gero, landaredi autoktonoaren berezko hostozabalen orban garrantzitsuak kontserbatu dira: Erroizpe eta Hernio mendiguneetako pagadi kaltzikolak edo eutrofikoak, Hernioko iparraldeko isurialdeko, Larre-San Lorenzoko eta Ulli, Añi eta Mizpiran mendien mazelatko pagadi azidofiloak; bestalde, Murumendirantz doazen Bidania-Goiatzeko udalerriko mazelatan bi pagadi-moten nahasketak dituzten orbanak daude, alde askotan konifero-sail landatuz inguratuak.

Unitate honen espezifikoa ez bada ere, sarritan estai muinotarraren mazelatan agertzen

baitira, sastraken artean nabarmentzekoa da inguruko mendi guztietan zehar hedatzen den txilardi/otadi/iratzedi atlantikoa, nekazaritza-jarduera tradizionalak mesede handia egiten dio-eta.

Halaber, albitz-belardiak eta larre mesofiloak inguruko kareharrizko eremu batzuetan daude batik bat, gehienetan baso-soilguneetan sartuta edo mendiko belardiekin mosaikoa osatuz.

Azken hori Hernio eta Aralar mendiguneetako zona garaietan kokatzen da, garai batean pagoek okupatzen zituzten kareharrizko lurzoruen gainean. Gaur egun oso garrantzi handikoak dira,azienda garrantzitsuari sostengua ematen baitiote, batez ere ardi-aziendari, udaberritik udazkenaren erdialdera arte. Halaber, azpimarratzekoak dira adierazitako esparruetan eta Basabekon eta Uzturre mendian dauden kareharrizko hartxingadien enklabe txikiak. Mendilerro horietako lurzoru argaetan, larre harritarren eremu zabalak daude, mosaikoan edo beste okupazio batzuekin –adierazitako belardiak edo harkaitzetako edo kareharrizko gailurretako landaredia– txandakatuta.

Faunari dagokionez, landaretzaren garapen-maila desberdinek hainbat fauna-espezieren euskarri edo habitaten eginkizuna betetzen duten ekosistemak sortzea ahalbidetzen dute, eta kareharrizko erliebe malkartsuak, aldapa handikoak eta irisgarritasun urrikoak direnez gero, leku aproposak dira hegaztiak bertan habia egiteko.

Baso hostozabaletako fauna garai batean isurialde kantauriarraren zati handi batean bizi zen faunaren lekukoa da. Bertako oihanpea landare-espezietan aberatsa da eta barietate faunistiko handia ahalbidetzen du, batez ere baso zabaletan.

Unitate honen barruan interes faunistiko handiko honako eremuak nabarmentzen dira: Aralarko mendilerroa eta Hernio-Gatzume mendigunea.

Aralarko mendilerroa hedadura handikoa eta zuhaitz-masa zabalekoa da. Gainera, harkaitz-eremuak eta larre-espazio ireki handiak ditu, baita hezeguneren bat ere. Hortaz, balio faunistiko handiko habitata da. Bertan habia egiten duten hegaztien artean baso-masa heldu eta handietako espezie hauek daude: okil beltza, zapelatz liztorjalea, sai zuria, sai arrea, arrano txikia, belatz handia, harkaitz-zozo gorria, hainbat motatako belatxingak, eta abar.

Anfibioen artean, gailurretako uhandrea nabarmentzen da; ugaztunen artean, elur-lursagua, lepahoria eta basakatua adierazi behar dira, eta batzuetan orkatza ere antzeman da –duela gutxi sartu dute Nafarroan eta bertatik sartzen da eremu funtzionalera–.

Urola-Kostako eremu funtzionalarekin partekatzen den Hernio-Gatzume mendigunean, bestalde, basoetan babesa bilatzen duten mikrougaztunez gain, mendi txirriskila edo mendi-txirtak nabarmendu behar dira hegaztien artean. Gainera, mirotz urdinak bertan egiten du habia –surialde kantauriarrean oso leku gutxitan egiten du–, baita belatza handiak ere, iparraldeko mazeletan. Azkenik, Murumendiko alderik malkartsuenean hainbat hegaztik egiten dituzte habiak, hala nola mirotz zuriak, gabiraiak eta okil txikiak.

Beste ikuspegi batetik, arestian adierazi den bezalaxe, eremu funtzionaleko materialak kareharrizkoak direnez gero, kareharriaren disoluzioarekin lotzen diren fenomeno karstikoak ageri dira. Fenomeno horiek interes geomorfologikoa, zientifikoa eta kulturala ez ezik, edertasun eta kontraste handiko paisaia bereizgarria eskaintzen dute: lapiazak –batzuetan estaliak edo erdi estaliak–, dolinak, sakonuneak, leizeak, sarbegiak, kareharrizko gailurrak, eta abar.

2. unitatea: haran-hondoak eta alboetako mazelak eta sakanak.

Oria ibaiari dagokion haran nagusiak eta zeharkako haranek osatzen duten unitate honetan, dentsitate handiko hiri eta industri okupazioa eta komunikabide-sarea nagusi dira haran-hondoetan, lehenengoan batik bat.

Alboetako haranetan, bereziki, aldapa handiz eta ibilbide laburreko alboetako sakanez osatutako erliebeak bereizten ditu goialdeko eremuak, mendi-mazelak eta haran-hondo estu eta lineala. Landa-auzoak landazabaleko paisaian sakabanatutako landagune txikiak eta baserriek osatzen dituzte, sarritan inguruan konifero exotikoen sail landatuen zabalgunek handiak dituztela.

Unitate honetan faktore natural baldintzatzailea higitzeko arrisku nabaria duten (aldapa handia, lodiera urria eta litologia ugaria) eta uholde-arriskupean dauden lurzoruek (drainatze laburreko arro zabalak) osatzen dute. Horiei gizakiak haran-hondoan (urbanizazioa) eta mendi-mazeletan (baso-ustiapena) garatu duen esku-hartze handia gehitu behar zaie.

Honako azpiunitate hauek bereiz daitezke:

- Oria ibaiaren harana
- Amezketa ibaiaren harana
- Araxes ibaiaren harana
- Berastegi edo Elduain ibaiaren harana
- Leitzaran harana
- Albizturko harana
- Asteasuko harana
- Berastegiko eta Bidania-Goiatzeko haran garaiak

Landaretzari dagokionez, garai batean zeuden zuhaitz-masa hostozabalek atzerakada garrantzitsua jasan dute. Bereziki nabarmena da behealdeko eta erdialdeko kotetan, apenas geratzen baita garai batean haritzak nagusitasunez okupatzen zuen eremuaren aztarnarik. Izan ere, haran-hondo gehienetan hiri-jarduerei lotutako erabilerek hartu dute haren lekua eta, zenbaitetan, baserriari lotutako belardi eta laboreek.

Kotan gora egin ahala belardiak eta labore atlantikoak produkziarako baso-berritzeekin konbinatzen hasten dira, *pinus radiata* pinuaren baso-berritzeekin batik bat. Hori dela eta, oso gutxi dira adieraz daitezkeen baso interesgarriak: Orexako harizti kaltzikolaren orban txikiak, Leitzaran haraneko amezti urriak, edo Leitzaran ibaiaren goi-ibarrean, Berastegin, eta eremu funtzionalaren iparraldean, Abalotz haranean, eta goi-ibarreko erreken tarteetan, Zizurkilek eta Adunak Andoainekin eta Donostiarekin duten mugan dauden harizti azidofiloen eta baso misto atlantikoen orbanak.

Salbuespen gisa Araxes ibaiaren haranean eta Amezketa ibaiaren haranaren zati batean, Jazkugañe (Altzo) inguruan, estai muinotarraren eta mendiko estaiaren arteko mugan dauden artadi-masa garrantzitsuak aipa daitezke; izan ere, nekazaritzarako lurzoru elkorragoetan garatu direlako lortu dute irautea. Albizturren ere lekuko moduko orban txikiak antzeman daitezke.

Araxes ibaiaren haranean sastrakadi garai atlantikoa ere antzeman daiteke artadiarekin erlazionatuta.

Eskualdeko biztanleria oso kontzentratuta dago haran-hondoetan, ibilgu nagusietako tarte askotan esku-hartze ugari gauzatu dira eta ez dago arazketa-sistema egokirik; horrek guztiak oso eragin negatiboa izan du urbazterreko ekosistemetan.

Ildo horretan, urbazterreko basoak osatzen zituzten haltzadi nagusiak ere desagertu egin dira, edo astigar zurien sail landatuak ezarri dira horien orde. Garrantzitsuenak, beren eta ibai-ibarren garapenagatik, Oria ibaian zeuden eta aztarna txiki batzuk baino ez dira geratzen gaur egun Ikaztegietan. Sare hidrografikoko gainerako ibaiek, oro har haran meharrak garatu dituztenez, garapen urriko galeria-baso estuak baino ez dituzte osatu. Hobeto kontserbatutako salbuespen batzuk Amezketa ibaiaren haraneko eta Bedaio ibaiko tarte batzuk, Asteasuko haranekoak, eta bereziki, Leitzarano haraneko tarte zabal batzuk dira. Horien garrantzia, aberastasun eta aniztasun floristikoa baino gehiago, hainbat kilometro hartzean datza, nahiz eta baso zabalak ez garatu eta sakonera txikiko lurzorua izan.

Faunari dagokionez, iraun duten baso misto gehienek azalera txikia dutenez gero, oso mugatuta dago tamaina handiko espezieen agerpena.

Koniferoen baso-berritzeen zonetan, erabilitako espezieen ezaugarrien eta ustiapen-modaren ondorioz –ziklo laburrekoa eta sarritan baso-soilketa bidezkoa–, baliabide urriko ekosistema sortzen da, eta horrek baso hostoerorkor helduen berezko komunitate faunistikoak ezartzea eragozten du. Izan ere, egoera berrira moldatutako basoko espezieek osatzen dute eremu horietako fauna.

Ustiapen-modu desberdinen eta maila desberdinetako presio antropogenoaren ondorio den landazabaleko aniztasun paisajistiko horren isla dugu eremu horietako biodibertsitate faunistiko handia; izatez, ornodun lurtarren agerpena oso handia da landazabalean.

Azkenik, adierazi beharra dago, arestian esan dugun bezala, gaur egun ibaiak eta urbazterrak direla habitatik aldatuenak, batez ere presio handiagoa jasaten duten behealdeko tarteak, eta horrek arazo garrantzitsuak eragiten dizkie beren fauna mantentzeko.

Eremu funtzionalean, haranen ingurumen-unitatearen barruan, Leitzarango biotopoa nabarmentzen da bere fauna-interesa dela eta. Bertan, kalitate handiko urari esker kontserbatu den iktiofauna aberatsaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoan bakanak diren espezieak ageri dira. Anfibioen artean, Pirinioetan soilik agertzen den uhandre piriniarra nabarmen daiteke (Euskal Autonomia Erkidegoan bertan baino ezin da aurkitu). Gainera, muturluze piriniarra ageri da, eta bisoi europarra ere agertzeko aukera handiak daude. Hegaztien artean, martin arrantzalea eta ur-zozoa agertzeak ere ibai-ekosistemaren

kontserbazio-egoera ona berresten du. Araxes ibaiak ere kalitate bikaineko urak mantendu ditu –batez ere, goi-tartean–, eta aipatutako hegazti horiek ere ikusi dira bertan.

Eremu funtzionalaren iparraldean, Atxulondo-Abalotz errekaren goi-ibarrean, bisoi europarra dagoela egiaztatu da, baita hurbileko inguruan lepahoria ere. Izan ere, ingurune hiritartuetatik hurbil dagoen arren, irisgarritasun urriko haran meharra da.

2.1.2.c. EREMU FUNTZIONALAREN AKTIBO ETA BALIABIDE BEREZIKI BALIOTSUAK

Ingurumenaren ikuspuntutik, Hernio-Gatzume eta Aralar mendiguneak dira eremu funtzional osoko espazio natural garrantzitsuenak, baina ez bakarrak. Espazio horietako ekosistemen kalitatea handia da, eta biodibertsitate handia dute. Era berean, ikuspuntu zientifiko-kulturaletik, interes handieneko espazioak dira.

Esparru horietan biztanleria oso urria da, abeltzaintzarekin lotzen diren lehen sektoreko jarduerak dira nagusi eta esparru horietarako irisgarritasuna txikia da. Bi alderdi horiek dira espazio natural horien integritatearen kausa nagusiak.

Askotan gainjartzen diren askotariko balio ekologiko, geologiko eta paisajistikoak direla medio (bertako basoak, babestutako fauna- eta flora-espezie garrantzitsuen habitatak, paisaia karstikoen agerpenak, harkaitzegiak, harkaitzetako landaretza, balio etnografikoak, etab.), eta horien dimentsioa dela kausa, garrantzi itzeleko aktiboak dira espazio natural horiek. Horrexegatik proposatu dute, inolako zalantzarik gabe, biak Batasunaren Intereseko Leku (BIL) izendatzea, eta bigarrenak parke naturalaren kategoria dauka gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko Legearen arabera. Adierazpen horren indarrez, Europako Natura 2000 Sarean sartu dira biak.

Dudarik gabeko beste espazio batzuk Leitzarango biotopoa –Aralar parkeak bezalaxe, babes-irudia dauka Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko Legearen arabera– eta Oria ibaia eta Araxes ibaia dira, guzti-guztiak Batasunaren Intereseko Leku izendatuak, eta arestian adierazitako Hernio-Gatzumerekin eta Aralarrekin batera Natura 2000 Sarea osatzera igaro direnak berak.

Aipatutako ibaiak Interes Bereziko Eremuak dira Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan, "galtzeko arriskuan" kategorian, dauden bi espezierentzat, hau da, bisoi europarrarentzat eta muturluze piriniarrarentzat. Orexaran erreka, Araxesen adarra dugu hau, Interes Bereziko Eremua da, halaber, aipatu espezieetako azkenarentzat.

Espazio horiez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko espazio natural garrantzitsuen zerrenda irekiak eta Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen 3. eranskinak balio eta interes bereziko zona gisa jasotzen dituzte Jazkugañe eta Basabe eremua eta Atxulondo-Abalotz eta Murumendi esparruak.

Eremu horiek guztiek, Araxes ibaia eta urbazterrak eta Jazkugañe eta Basabe izan ezik, eremu funtzional bateko baino gehiagoko lurraldeak hartzen dituzte, eta Murumendi babesteko proposatu du Goierriko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatik Planak. Horrenbestez, bateratze neurriak bideratu beharko dira, espazio hauek antolatzearen.

Beste maila batean, azpimarratzekoa da baserriak kudeatzen duen lurraldearen paisaia eta ingurumen arloko balioa eta kultura-ondare horrek duen garrantzia, gizakiaren eta naturaren arteko erlazioa islatzen baitu tokiko eta eskualdeko nortasuna mantentzen laguntzen duen aldi berean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aurrerapena aztertu ondoren, ez da interes handiko hezegunerik dagoenik egiaztatu, ez naturalik ez gizakiaren esku-hartzeak sortutakorik. Inbentarioan ezarritako tipologiaren barruan, Villabonako ihitokia besterik ez da geratzen B11 motakoen artean, hots, garrantzi gutxiko ur-landaretzaren sistemen barruan.

Balio bereziko espazio eta zona horiez gain, interes berezia duten interes naturalistikoko edo zientifiko-kulturaleko beste hainbat elementu daude eremuan, zenbaitetan aurreko haien barruan sartuta.

Lehen alderdiaren barruan bi zuhaitz berezi daudela aipa liteke, pago bat eta izei bat, Altzoko eta Albizturko udalerrietan, hurrenez hurren, bakoitza dagokion babes-irudi eta guzti, eta bigarrenean, bestalde, interes geologikoko, arkeologikoko edo historikoko hainbat gune.

Arestian adierazi dugun bezala, mendiguneek mendilerroak eta mendiak osatzen dituzte, kareharrizko jatorriagatik eremu funtzionaleko erliebean eta paisaian nabarmentzen direnak, eta jatorri karstikoa duen lurpeko sistema hidrológico garrantzitsua dago.

Zirkunstantzia horien guztien ondorioz, Tolosaldeko Eremu Funtzionala interes geologikoko zona eta gune ugari dituen lurraldea da –izaera tektonikoa, geologikoa, prozesuena, hidrológicoa eta abar direla eta–. Berezieneren artean honakoak nabarmen daitezke: Txindoki mendia, Hernio-Gatzume mendigunearen silueta bera, Uzturre mendia, Salubitako lapiazak eta iturburuak Albizturren, Bidaniko poljea, Berastegiko sakonunea eta, beheago, Elduainen, Urbeltza eta Galitxi iturburuak, Aintzergako hondoratzeak, etab.

Balio arkeologiko eta historikoen artean honakoak nabarmen daitezke: Pagoaundi tumulua Otsabion, eta Añi eta Axurdario trikuharriak, haitzuloetako hainbat hobi eta monumentu megalitikoak Hernio mendiaren iparraldeko mazedetan (Otagain, Zaingo Bizkarra eta Zaingo Ordeka trikuharriak; Munain, Belanburu eta Itxurain tumuluak; eta Zopite bekoa eta Zopite haitzuloak), Beibatari eta Moa tumuluak eta Gorosmendi trikuharria Leitzaranean. Aralarren trikuharri, monolito, tumulu, harrespil, haitzuloetako hobi eta aire zabaleko hobi ugari daude eta luzeegia egingo litzateke guztiak aipatzea.

Hiritarragoak diren edo hiriguneetan kokatuta dauden elementu arkitektonikoez eta eremu osoan zehar barreiatuta dauden basiliza ugarietz gain (Izaskun Tolosan, San Sebastian eta San Lorentzo basilizak Berastegin, San Sebastian Leaburun, Sagrario eta Magdalena Lizartzan, San Martin Toursekoa Amezketan, Larraitz Abaltzisketan, Santakruz Zizurkilen, etab.), azpimarratzekoak dira interes kulturekotzat katalogatutako zubi ugariak, batzuk Santiago bidekoak, hala nola Oria ibaiaren gaineko Zubizaharra Alegian, Nafarroakoa Tolosan, Zubimusu Villabona-Zizurkilen edo Zubizaharra deitzen zaiona Leizaran ibaiaren gainean, Elduaingo udalerrian. Santiago-bidean ez dauden arren, interesekotzat katalogatuta daude Oria ibaiaren gaineko Benta Txiki zubia Ikaztegietan, Araxes ibaiaren gaineko Ubereta Lizartzan, Leizaran ibaiaren gaineko Urto Berastegin eta Zelai ibaiaren gaineko Zubitxo Ibarren.

2.1.2.d. ONDORIOAK: DEGRADAZIOAK, MEHATXUAK ETA JARDUN-ILDO NAGUSIAK

Uraren eta airearen kalitatea galtzea, lurzoruak kutsatzea eta suntsitzea eta biodibertsitatea galtzea dira ingurune naturaleko arazorik nagusienetako batzuk.

Honakoak dira gaur egungo egoeraren diagnostikoko elementuak eta Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko lurraldearen kalitatearen diagnostikoko elementuak:

Ibai-ekosistema eta uren kalitatea eta akuiferoen urrakortasuna

Ildo horretan, duela gutxi arte Oria ibaiaren ingurumen-degradazioa oso handia izan da, baita haren ibai-ekosistema eta uren kalitatea ere. Izatez, poluzio maila oso handia da, eta defizit handiak zeuden saneamendu-azpiegituren arloan.

Industria-birmoldaketaren eraginez, eta hartu diren zenbait neurri zuzentzailearen poderioz (produkzio-sistemetan egin diren aldaketak, Legorretako hondakin uren araztegia abian jartzea), egoera zati batean hobetu den arren, isurketa organikoen ondoriozko eutrofizazioa izan da, orain arte, Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko uretan eragina izan duen arazorik handiena, betiere uraren kalitateari eta kontserbazioari dagokionez. Eutrofizazio hori industrien edo herriguneeen zuzeneko isurketek sortutakoa da, edo nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak zeharka sortutakoa.

Bigarren mailako arroetako batzuetarako interzeptagailu orokorra eta saneamenduak eraikitzeak, besteak aztertzeak eta proiektatzeak, eta Adunako HUA martxan jartzeak nabarmen hobetu dute egoera.

Nolanahi ere, badaude ibilguen ingurumen-egoera baldintzatzen duten beste faktore batzuk. Kasurik gehienetan, hiri-okupazioaren, industria-okupazioaren, eta komunikazio-azpiegituren okupazioaren ondoriozkoak dira, eta, batzuetan, ibai eta erreka nagusietako urbazter eta ibar urperagarrien zati handi bateko laborantza intentsiboen okupazioaren ondoriozkoak. Kasu horietan, ibilguaren eta urbazterren morfologia oso aldatuta dago tarte handietan, eta zailtasunak izan daitezke tarte horiek leheneratzeko. Honako alderdiak laburbil daitezke:

- Urbazterreko landaretza sistematikoki suntsitzea hiriguneetan eta industria-eremuetan, emari handien hustuketarako oztopoa baita.
- Ibai-tarteen ubideratzeak eta urbazterrak higaduraz babestea, material gogorreko babesak erabiliz –horrek nolabaiteko eiteko landaredia egotea eragozten du, eta faunarentzako babeslekuak ezabatzen ditu–.
- Ibilgu zabaleko ubideratzeak egitea, agorraldietarako ubidea aintzat hartu gabe. Hori dela eta, agorraldietan ur-geruza sakabanatzen da, mantsotu eta errazago poluitzen eta eutrofizatzen da.
- Ibaiko faunarengan eta florarengan zuzeneko ondorioak dituzten dragatzeak egitea.
- Emariaz gehiegi baliatzea eta, horrela, emarien erregimenean aldaketak eragitea –kasurik larrienen ibai-tarte batzuk ia lehor utzi arte–.
- Arrain-espezieen joan-etorriak blokea ditzaketen edo uraldietan ur-geruza neurritz gain igo eta uholdeen eragina areago dezaketen presa txikiak eta beste oztopo batzuk agertzea.
- Ibar alubialaren nekazaritza-erabilera areagotzea gunek jakin batzuetan, eta, hala, aldaketa estetiko-paisajistikoak sortzea, eta hondakinak sortzen dituzten produktu kimikoak gehiago erabiltzea (ongarriak, intsektizidak, herbizidak).

Bestalde, lurpeko akuiferoei dagokienez, aditzera eman behar da Euskal Autonomia Erkidegoan dauden 16 unitate hidrologiko karstikoetatik, bost daudela osorik edo zati batean Tolosaldeko Eremu Funtzionalan: Elduain, Hernio, Albiztur, Gatzume eta Aralar. Horrenbestez, eremuaren zati handi bat akuiferoak poluitzeko urrakortasun handiko edo oso handiko eremuetan dago.

Uraren zikloaren arloan, beraz, jatorrian bertan aurrea hartu beharko zaio poluzioari eta jatorrian bertan murriztu beharko da. Hala, lur gaineko drainatze-sistemak zuzen funtzionatzeko neurriak hartu beharko dira, baita lurpeko akuiferoak kargatzeko sistema eta inguruko iturburuak elikatzen dituen karst sistema ere. Horretarako, urpean gera daitezkeen ibarrak eta ibilguak okupatzeko baldintzak arautu beharko dira, ingurumen-emia kontrolatu beharko da, oztopo artifizialak deuseztatu beharko dira, urbazterrak leheneratu beharko dira, arroaren kudeaketa orokorrerako beste neurri batzuk hartu beharko dira, ur-hornidurako eta saneamenduko beste azpiegitura batzuk garatu beharko dira, eta kontsumo-ohiturak arrazionalizatu beharko dira.

Biodibertsitatea:

Biodibertsitatearen gaineko arriskurik handiena sistema naturalak galtzea, murriztea edo aldatzea da. Besteak beste, honako alderdietan egiten da ageriko hori:

- Bertako baso naturalak kantitatean zein kantitatean murrizten dira. Izatez, baso horiek etengabe ari dira murrizten ahalezko landarediari dagokionez –batez ere harizti azidofiloari eta harizti/baso misto atlantikoari dagokionez–.
- Aldapa handiko eta higadura-arrisku handiko eremuetan egiten diren ustiapen intentsiborako koniferoen baso-berritzeen eremuen proportzioa gehiegizko da, eta, horrenbestez, bertako basoetarako lurzoruen ehunekoa oso txikia da (gainera, aurrekoen ondorioz zatikatuta geratzen dira).
- Aurrekoaren eraginez, basoko faunarako eta florarako habitat baliotsuenetako batzuen azalera arras ari da murrizten, eta urbazterreko ekosistemak pobretzen ari dira, askotan gizakiaren esku-hartzearen ondorioz.
- Azpiegituren garapenak eraginda, lurraldearen etengabeko aldaketa eta zatiketa gertatzen da. Aldaketa eta zatiketa horrek, era berean, aldaketak eragiten ditu sistema naturaletan, eta horiek, jakina, eragina dute sistema natural horietan bizi diren espezieengan –batzuetan espezie horiek desagertzeraino iristen da–.
- Espezie gutxi batzuen baso-ustiapen intentsiboa ageri da, eta horrek biodibertsitatea galtzea eta paisaia degradatzea dakar.
- Aurreko zirkunstantzien ondorioz, degradazio estetiko-paisajistiko handia gertatzen da, eta degradazio hori areagotu egin daiteke nekazaritza-ustiapenak bertan behera uzten badira, bai landa-munduaren dinamika sozio-ekonomikoaren ondorioz, bai jardueraren marjinalitatearen beraren eraginez.
- Beste maila batean, baina paisaiaren ikuspegitik era berean, aipatu behar da gure mendietako asko eta askoren gailurretan ikusten den telekomunikazio-azpiegituren ugaltzea; instalazio horiek ez dute inolako antolaketarik, ezta paisaian txertatzera begirako inolako azterketarik ere.
- Azkenik, arautzerik ez duten interes naturaleko eremuetan, hala nola, Zelatungo inguruan –ia 900 metrotara, Hernio mendiaren oinean–, gaizki ulertutako irisgarritasunak edo gehiegizko irisgarritasunak presio handia eragiten du ekosistema naturaletan.

Lurzorua

Lurzorua da giza jardueraren euskarria eta, horrenbestez, berezkoak dituen funtzio naturalak eta erabilera-funtzioak betetzeko haren ahalmena narriatuko duten eraginetatik babestu behar da.

Lurzoruaren eginkizunetako edozein hondatzeak murriztu egiten du lurzorua bera sostengu duten ekosistemak mantendu ahal izateko oinarrizko elementuak hornitzeko duen gaitasuna.

Higadura, azidifikazioa, trinkotzea, materia organikoaren galera, poluzioa eta hiri-garapenaren okupazioa dira lurzorua degrada dezaketen prozesuak.

Hala ere, horietatik guztietatik, giza jarduera da mehatxurik handiena, giza jarduera garatzeko, hots, azpiegitura hidraulikoetarako, garraio-azpiegituretarako, jarduera ekonomikoko edo bizitegi jarduerako beste eremu batzuetarako, gero eta lurzoru gehiago behar baita.

Lurzoruaren erabilera desorekatua egiten bada, ingurumenean nahi ez ditugun efektuak eragin daitezke, hala nola:

- Hiri inguruko habitat naturalen gaineko eraginak (ibai, espazio natural eta abarren gaineko eraginak).
- Nekazaritzarako lurzorurik onenen okupazioa.
- Nekazaritza-lurzoruaren zein BIL/Naturgune Babestuen konektagarritasuna murriztea, zatikatzea eta galtzea.
- Lurpeko akuiferoak poluitzeko eta horiek kargatzeko eremua poluitzeko arriskutsuak diren substratuak okupatzea.
- Uholdeengatik, mazelen ezegonkortasunagatik eta abar arrisku naturalak dituzten eremuak okupatzea.
- Paisaia artifiziala egitea.

Eremu funtzionalean, lurzoruak eta biodibertsitateak dituzten beste degradazio eta mehatxu batzuk meategiak eta harrobiak izatetik datoz (kasu batzuetan ez daude ustiatuta gaur egun eta, beste batzuetan, ustiapen-fronteak hazten eta hazten ari dira,

Altzoko Artarrekako harrobiaren kasuan esaterako, artadi garrantzitsu baten kaltean).

Hiri-hondakinen etengabeko gorakada eta horien kudeaketa eta tratamendua ere aintzat hartu beharreko problematika da. Izan ere, gaur egun ez dago hondakinak tratatzeko azpiegituren, ez bakarrik Tolosaldean ez eta Gipuzkoako lurralde osoan ere.

Azkenik, azpiegituren alorrean, etorkizuneko trenbide sare berriaren trazadurak eta Mandoegiko balizko Parke Eolikoaren eraikuntzak Eremu Funtzionalean izango duten eragina hartu beharko da kontuan.

Amaitzeko, ondoriozta daiteke giza jardunaren ondorioz naturgunea oso degradatuta dagoen arren, Tolosaldeko Eremu Funtzionalak balio naturalistiko eta paisajistiko garrantzitsuko espazioak dituela, eta espazio horiek babestea merezi duela. Hortaz, ingurumena, oro har, eta espazio jakin horiek, zehazki, kontserbatzea interes handikoa da.

Alabaina, aurrekoak babestera bideratzen diren ekintzak ez dira nahikoa; ekintza horiek lurraldearen gainerakoan gauzatu beharreko beste ekintza batzuekin osatu beharko dira, hau da, espazio horiek uharte babestu ez bihurtzeko eta eremu horien eta kokatzen diren inguruaren arteko artikulazioa lortzeko ekintzak egin beharko dira.

Helburu hori lortzeko garrantzi handikotzat jotzen da naturgunea birsortzea eta biodibertsitateari eustea. Horretarako, lurzorua okupazio-unitateak orekatu beharko dira, interesa handieneko habitatak eta landaredia duten gainerako eremuak zaindu beharko dira, baita ekosistema berezi adierazgarrienak, nekazaritza-balio handieneko lurzorua eta paisaiarik adierazgarrienak ere (euskal baserria nabarmendu behar da azken horren barruan). Gainera, hainbat korridore ekologiko sortu beharko da eremu horiek elkarren artean lotzeko, eta baliabideak eta horien funtzioak orokorrean babesteko neurriak hartu beharko dira. Ildo horretan, erabilerak eta jarduerak lurraldearen aukeretara eta joeretara behar bezala egokitu beharko dira, eta, hala, giza jarduerak, orokorrean eta hiri-erabilerekin, zehazki, lurraldearen gainean eragiten duten presioa orekatuko da.

2.2. BIZTANLERIA, EKONOMIA ETA LURRALDEA

2.2.1. BIZTANLERIA ETA LURRALDEA

2.2.1.a. EREMU FUNTZIONALAREN KARAKTERIZAZIO DEMOGRAFIKOA

Tolosako eskualdeko biztanleria 4 udalerrri nagusitan biltzen da nagusiki (Tolosa, Villabona, Ibarra eta Zizurkil). 2016. urtean, Eremu Funtzionaleko biztanleriaren % 68 bizi zen udalerrri horietan. Lau udalerrri hauek bi hiri-aglomeratu eratzen dituzte (Tolosa-Ibarra eta Villabona-Zizurkil), eta hauek buruak dira eremu funtzionalean bereiz daitezkeen bi lurralde eremuetan.

Kapitulu oso honetan zehar, eskualdearen ezaugarri sozioekonomikoak deskribatzeko eta aztertzeko unitate gisa 2 lurralde eremu horiek erabiliko dira (Tolosako eremua eta Villabonako eremua izango dira, hurrenez hurren). Horrez gain, adierazitako hiri-konglomeratuei (Tolosa-Ibarra eta Villabona-Zizurkil) dagozkien ezaugarriak ere aurkeztuko dira.

Tolosako eremua erabat nagusitzen da Eremu Funtzionaleko demografian, bertako biztanleria osoaren % 72 hartzen du-eta; gainera, ehuneko hori mantendu egin da krisialdi ekonomikoa hasi zenetik. Egonkortze horren aurretik hidagura moteleko epealdi luze bat izan zen baina badirudi garai hori eten egin zela 2008. urte inguruan, hain zuzen ere Tolosa eremuak Area Funtzionalaren barruan zuen pisua murriztu zenean: 1991n % 75,6 izatetik % 72,5 izatera pasa baitzen 2008-2010ean.

Interesgarria izan daitekeen beste lurralde-mugape bat N-I errepideak eta Irun-Madril trenbide-lineak Oria haranaren hondoan ezarritako korridorea da. Korridore horren gainean zuzenean kokatutako 9 udalerriek (letra lodiz adierazita daude 1. taulan) Eremu Funtzionaleko biztanleria osoaren % 81 hartu dute azkeneko 35 urteetan, nahiz eta gorabehera txiki batzuk izan diren tartean (1996an gehiena, % 82,1, eta 2008an gutxiena, % 80,8).

Eremu Funtzional honen ezaugarri demografikoei dagokienez azpimarratu beharreko azken alderdia oso biztanleria txikiko udalerrri kopuru handia da: Eremuko 28 udalerrrietatik 15 ez ziren 500 biztanlera iristen 2016. urtean (horietatik 4 ez ziren 200 biztanlera iristen). Beste 3 udalerrrik 500-800 biztanle zituzten. Goian aipatutako 2 hiri-

buruzetan bildutako 4 udalerririk alde batera utzita, 6 udalerririk bakarrik (Anoeta, Alegia, Irura, Asteasu, Berastegi eta Amezketa) zituzten 800 biztanle baino gehiago 2016an, baina horietako bat ere ez zen iristen 2.000 biztanlera. Eta, 1.500 biztanle baino gehiago dituzten Eremu Funtzionaleko 7 udalerririk N-I errepideak eratzen duen korridorean kokatuta daude.

2.2.1.b. BIZTANLERIAREN DUELA GUTXIKO BILAKAERA

2. taulan ageri da Eremu Funtzionaleko 28 udalerrietako biztanleriak izan duen bilakaera. Oro har, eskualdeko biztanleria 1986an 44.355 biztanle izatetik 46.969 biztanle izatera pasa da 2016an; hau da, % 5,9ko hazkundera, urtean % 0,2ko hazkunde xumea beraz.

Esan behar da bilakaera hori ez dela lineala izan denboraldi horretan zehar, zeren eta lehen hamarkadan 1.500 inguru biztanle galdu zituen arren, 4.400 inguru berreskuratu baititu 2001etik 2006ra bitartean. EAEk izan duen portaera demografikoaren paraleloan joan da, eta epe horietan zehar jaiotza-tasak eta batez ere migrazio-saldoak izan dituzten gorabeheren isla izan da halaber. Azken urteotan hazkunde hori moteldu egin da, EAE osoan bezalaxe. Tolosaldeko biztanleriaren batez besteko hazkundera, 2004-2012an 376 pertsona/urte izatetik, 122 pertsona/urte izatera pasa da 2013-2015 hirurtekoan.

Eremu Funtzionaleko biztanleriaren hazkundera, halaber, ez da homogenea izan udalerririk guztietan. Udalerririk horietako 4tan (Leaburu, Belauntza, Amezketa eta Lizartza) biztanleria-galera % 10etik gorakoa izan da 1986 eta 2016 bitartean. Esan behar da udalerririk horietako bat bera ere ez dagoela N-I korridorean. Korridorean dauden udalerririketatik Ibarrik bakarrik galdu du biztanleria, % 9 inguru.

Eta alderantziz, 8 udalerritan biztanleriaren hazkundera % 20tik gorakoa izan dute, baita % 167koa ere Ibarrik, nahiz eta hazkundera moteldu egin den azken urteotan. Horixe da udalerririk dinamikoen artean kasu aipagarri bakarra, izan ere beste 7 udalerririketako bat bera ere ez baitzen 500 biztanlera iritsi 2016an, eta horietako 4 ez dira iristen 250 egoliar izatera.

Eskualdeko 4 udalerririk nagusiak, batera hartuta, soilik % 2,9 hazi dira azkeneko 3 hamarkadetan, 1986tik 2016ra alegia, eta horrek esan nahi pisua galdu dutela eskualde osoan (% 70 izatetik 1986an, % 68 izatera pasa dira 2016an). Hala eta guztiz ere, bada halako diferentzia bat Villabona-Zizurkil gunearen –epealdi horretan % 8ko hazkundera

izan baitu biztanleriak, eta hortaz, pisu pittin bat irabazi du eskualdean), eta Tolosa-Ibarra gunearen artean –hemen hazkundera % 1,1 soilekoa izan da eta 2,3 puntu galdu ditu eskualde osoan zuen pisuan–.

2. taula. Biztanleriaren bilakaera udalerrika (1986-2016).

Udalerria	Zona	Biztanleria urte jakin batean:					Alde. % 1986-2016	EFarekiko % (2016)
		1986	1996	2006	2011	2016		
Abaltzisketa	1	290	259	292	314	314	8,3	0,67
Aduna	2	351	311	336	447	465	32,5	0,99
Albiztur	1	316	296	279	289	309	-2,2	0,66
Alegia	1	1.677	1.662	1.525	1.783	1.760	4,9	3,75
Alkiza	2	266	260	267	343	346	30,1	0,74
Altzo	1	338	321	359	351	358	5,9	0,76
Amezketza	1	1.110	1.005	950	951	921	-17,0	1,96
Anoeta	1	1.899	1.776	1.697	1.830	1.996	5,1	4,25
Asteasu	2	1.284	1.192	1.255	1.475	1.493	16,3	3,18
Baliarrain	1	97	94	88	121	145	49,5	0,31
Belauntza	1	312	286	283	296	255	-18,3	0,54
Berastegi	1	958	932	936	1.041	1.064	11,1	2,27
Berrobi	1	594	565	552	582	599	0,8	1,28
Bidania-Goiatz	1	498	421	446	529	514	3,2	1,09
Elduain	1	263	227	223	233	243	-7,6	0,52
Gaztelu	1	137	144	172	175	165	20,4	0,35
Hernalde	1	286	301	297	349	313	9,4	0,67
Ibarra	1	4.570	4.287	4.140	4.237	4.177	-8,6	8,89
Ikaztegieta	1	377	380	399	462	484	28,4	1,03
Irura	2	655	726	856	1.593	1.750	167,2	3,73
Larraul	2	164	135	176	246	246	50,0	0,52
Leaburu	1	454	377	361	378	360	-20,7	0,77
Lizartza	1	732	644	600	641	638	-12,8	1,36
Orendain	1	184	156	142	182	196	6,5	0,42
Orexa	1	83	79	87	115	114	37,3	0,24
Tolosa	1	18.399	17.979	17.687	18.111	19.041	3,5	40,54
Villabona	2	5.310	5.370	5.401	5.755	5.768	8,6	12,28
Zizurkil	2	2.751	2.684	2.738	2.772	2.935	6,7	6,25
Tolosaldea		44.355	42.869	42.544	45.601	46.969	5,9	100,0

Iturria: Eustat (Biztanleria eta Etxebizitza errolda eta estatistika; Biztanleen udal estatistika).

Oharrak:

Zona-kodeak Tolosa (1) edo Villabona (2) adierazten du. Letra etzan eta lodiz idatzitako udalerriak N-I errepidearen korridorean daude.

Datuak urtarilaren 1ekoak dira honako urteetan izan ezik: 1986 (apirilaren 1a) eta 1996 (maiatzaren 1a).

3. taulan eta 1. irudian ageri da Eremu Funtzionalaren esparru ezberdinetan egoiliar biztanleriak izan duen bilakaera. Irudian garbi ikus daitekeen bezala, bikalera horren profilak itxura berdintsua du esparru guztietan. Beherakada nabarmen samarra lehendabiziko hamarkadan eta gero, gorakada, hasierako biztanleria gainditzera arte. Bilakaera hori zertxobait atzeratu egin da Tolosa-Ibarra hiri-konglomeratuaren eta honek hartzen duen zonaren kasuan; horrek esan nahi du 1986 eta 2016 bitartean 3 puntu inguru murriztu dela Tolosalde osoarekiko zuen biztanleria-pisua.

Bi zona horietako udalerrri txikiek beren burutzen antzeko portaera erakusten dute, eta bakoitzaren inpaktua dagokion burutzaren inpaktuari gehitzen zaio. Nabarmentzekoak Villabona inguruan lurak izan duen hazkunde handia, eta kontrako bidean, Tolosa inguruan Amezketak eta Lizartzak izan dituzten jaitsierak.

3. taula. Biztanleriaren bilakaera lurralde esparruka (1986-2016)

Lurralde esparrua	Biztanleria urte jakin batean:					Aldearen %	
	1986	2001	2006	2011	2016	86-01	01-16
EAE	2.136.100	2.079.210	2.115.383	2.174.033	2.171.886	-2,7	4,5
Gipuzkoa	689.222	672.434	686.292	702.897	710.699	-2,4	5,7
Tolosaldea	44.355	42.544	43.876	45.601	46.969	-4,1	10,4
% EAErekiko	2,08	2,05	2,07	2,10	2,16		
% Gipuzkoarekiko	6,44	6,33	6,39	6,49	6,61		
Tolosako ingurua	33.574	31.515	31.981	32.970	33.966	-6,1	7,8
Villabona ingurua	10.781	11.029	11.895	12.631	13.003	2,3	17,9
Tolosa-Ibarra	22.969	21.827	21.852	22.348	23.218	-5,0	6,4
Villabona-Zizurkil	8.061	8.139	8.385	8.527	8.703	1,0	6,9
N-len korridorea	35.989	34.779	35.646	36.990	38.376	-3,4	10,3
Gainontzekoa	8.366	7.765	8.230	8.611	8.593	-7,2	10,7
>800 bizt. udal.	38.613	37.185	38.210	39.548	40.905	-3,7	10,0
<800 bizt. udal.	5.742	5.359	5.666	6.053	6.064	-6,7	13,2
% Tolosa ing./EF	75,7	74,1	72,9	72,3	72,3		
% Tolosa-Ibarra/EF	51,8	51,3	49,8	49,0	49,4		
% N-len korridorea/EF	81,1	81,7	81,2	81,1	81,7		
>800 bizt. udal.	87,1	87,4	87,1	86,7	87,1		

Iturria: Eustat (Biztanleria eta Etxebizitza errolda eta estatistika; Biztanleen udal estatistika).

Villabona ingurua eskualdeko guztizkoarekiko pixkanaka izaten ari den hazkundera prozesu suabea da, egonkorra ordea, zona hori Donostialdetik hurbilago egotearen isla neurri handi batean. Joera hori mugatuko duten neurri zuzentzaileak jarri artean, pentsatzekoa da Donostialdeak bere eragina izaten jarraituko duela Tolosaldeko bilakaera demografikoan, Villabona inguruak dinamismo handiago izan dezan lagunduz eta Tolosaldearen pisua murriztuz.


Beste bi lurralde zatiketek (N-I errepidearen korridorea eta 800 egoiliarretik gorako udalerriak) egonkortasun handiagoa erakutsi dute aztertutako epealdian. N-I korridorearen pisua gorabehera gutxirekin mantendu da tarte estu batean (% 81-82), 1996an jo zuen goia % 82,1ekin eta azken pisua % 81,7koa izan du 2016an. Eta 800 biztanletik gora dituzten 10 udalerrien pisua 2001ean % 87,9 izatetik (gehienekoa) % 87,1ekoa izatera pasa da 2016an; beherakada txiki bat izan zuen 2010era arte eta zertxobait berreskuratu egin du azkeneko bosturtekoan.

Tolosaldeko Eremu Funtzionalak, bere osotasunean hartuta, Gipuzkoak eta Euskal Autonomia Erkidegoak baino atzeraldi demografiko nabarmenagoa izan du aztertutako epealdiaren lehen erdian (biztanleriaren % 3,4ko galera 1986tik 2001era; Gipuzkoak % 2,4 eta Euskal Autonomia Erkidegoak % 2,7). Baina epealdiaren bigarren erdian joera hori alderantz egin da: Tolosaldeko biztanleria % 10,4 hazi da 2001etik 2016ra bitartean; aldiz, Gipuzkoakoa % 5,7 hazi da eta EAEkoa % 4,5. Horrela bada, Tolosaldeko Eremu Funtzionalaren pisu demografikoak gora egin du Gipuzkoa osoarekiko (% 6,44 1986an eta % 6,61 2016an); baita EAErekiko ere (% 2,08 1986an eta % 2,16 2016an).

2. irudiak, biztanleriak Gipuzkoan eta Tolosaldean azken 30 urteetan izan duen bilakaera erakusten du. Berehala antzematen da bilakaera berdintsua izan dela bi esparruetan, bi epe kontrajarri bereiziz: Demografiaren atzerakada epealdiaren lehen erdian, eta jatorrizko biztanleria gainditzearainoko gorakada, bigarren erdian. Tolosaldearen profilak Gipuzkoarenak baino gorabehera handiagoak izan ditu, beherakada handixeagoa eta geroko gorakada ere biziagoa.

Irudiak agerian uzten duen alderdi interesgarri bat, 1996az geroztik iturri estatistikoen artean sortutako desadostasunak dira. Eta desadostasun horiek hainbat arrazoi izan dituzte oinarri: Batetik, errolda izaerako eragiketak eta Biztanleen Udal Erroldaren berrikuspena bereiztea erabaki du INEK; hain zuzen ere, bi iturriek bat egin zuten azkeneko aldia 1996ko berrikuspena izan zen.

1. irudia. Biztanleriaren bilakaera lurralde esparruka (1981-2016)




Iturria: Eustat (Biztanleria eta Etxebizitza errolda eta estatistika; Biztanleen udal estatistika).

Oharrak:

Marren koloreak aurreikusitako lurralde esparruen isla dira: urdina (Tolosaldea), gorria (Tolosa ingurua / Villabona ingurua), beltza (N-I errepidearen korridorea / gainerakoa) eta berdea (800 biztanletik gorako udalerrak / 80 biztanletik beherako udalerrak). Kolore bakoitzaren goiko marra aipatutako lehen esparruari dagokio beti.

Marra punteatua (1981-2011) bosturteko errolda-eragiketegi buruzko informazioari dagokio, eta marra jarraitua, berriz (2001-2016) Udalaren urteroko biztanleria-estatistikari.

2. irudia. Tolosaldeko eta Gipuzkoako biztanleriaren bilakaera konparatua (1981-2016)



Iturria: Eustat (Biztanleria eta Etxebizitza errolda eta estatistika; Biztanleen udal estatistika) eta INE (Udal Erroldaren berrikuspena).

Oharrak:

Gipuzkoako datuetan ezkerreko eskala erabili da, eta Tolosaldekoetan, eskuineko eskala.

Marra punteatua (1981-2011) bosturteko errolda-eragiketei buruzko informazioari dagokio (Eustat); marra jarraitua, (2001-2016) Udalaren biztanle-estatistikari (Eustat); eta trazu-lerroa (1996-2016) Udal Erroldaren berrikuspenari (INE).

Errolda Jarraitua sartzeak eta Udal Erroldaren seiheroko berrikuspenek ordezkatu egin dute errolda-izaerako bosturteko eragiketei ematen zitzaien funtzio zuzentzailea, eta horien ondorio da, hain zuzen, azken urteotan bi estatistika-iturri izatea. Bestetik, errolda-eragiketak eta horien ustiapen lanak koordinatzeko INE eta Eustat institutuek zuten akordioa bukatu izanaren ondorioz, zifra ezberdinak sortu dituzte, zeren eta bakoitzak bere irizpideak jarraitu baititu jatorrizko datuak garbitzeko, berrikusteko eta tratatzeko garaian.

Aldaketa horien eragina 2. irudiko marretan ikus daiteke, ezberdinak baitira bai Gipuzkoako biztanleriaren serieari dagokionez eta bai Tolosaldekoari dagokionez. Eustat institutuaren zentsu etra errolda datuen arteko desadostasuna oso txikia da (irudiko marra punteatuak eta jarraituak), eta ez du arazo handiegirik sortzen iraganeko joerak aztertzeko eta etorkizuneko proiektioetarako balizkoak ezartzeko. INE institutuak emandako serieak (irudiko trazu-marra) Eustatek emandako seriearen antzeko profila du, maila-ezberdintasun handi samarra eta denboran zehar iraunkorra erakusten du. Tolosaldeko batez besteko biztanleria (2001-2016) Eustatek emandako datuekin alderatuta, % 1,3 altuagoa da INEren arabera, eta batez beste 580 pertsonako gorabehera dakar horrek. Gipuzkoari eta EAERI buruzko datuen arteko aldea txixixeagoa da (% 0,9 eta % 0,7, hurrenez hurren).

Tolosaldeko biztanleriaren etorkizuneko bilakaera proiektatzeari begira, interesgarria da 2. irudian azken hiru urtekoan ikusten den hazkunde demografikoaren moteltzea. Hain zuzen, 2002-2013 epealdian, urteko batez besteko hazkunde tasa % 0,8 izan zen, baina 2013-2016 aldian hazkunde hori % 0,3ra jaitsi zen.

4. taulak 1986-2016 aldiko biztanleriaren aldakuntza deskonposatu egin du, oinarriko bi osagaiak kalkulatzeko: berezko hazkundera edo begetatiboa (hots, jaiotzak ken heriotzak) eta migrazio-saldoa (hots, immigranteak ken emigratzaileak). Xehekapen honek aukera ematen du bilakaera demografikoaren arrazoiak kontuan hartutako eremuaren barne dinamikan bilatzeko, edo, bestela, kanpo fluxuen ondorio diren ikusteko.

Azken 30 urteetan, Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko demografiak bilakaera positiboa izan du, Gipuzkoan antzemandako dinamikaren oso antzekoa, eta Euskal Autonomia Erkidegokoaren osotasunean izandakoarekin alderatuta, ez oso ezberdina. Kontuan hartutako 3 kasuetan, biztanleriak hazkunde txiki bat izan zuen, hazkunde begetatiboaren eta migrazio-saldoaren emaitza positiboak bultzatuta. Bi osagai horien zifrak oso

antzekoak dira Tolosaldearen eta Gipuzkoaren kasuan; aldiz, 1986-2016 aldian, biztanleriaren hazkundearen % 86 migrazio-osagaiak eragin zuen EAEn.

4. taula. Biztanleriaren dinamika lurralde esparruka (1986-2016)

Lurralde esparrua	Biztanl. aldakuntza	Jaiotzak	Heriotzak	Berezko hazk.	Migrazio-saldoa ^a
EAE	35.786	548.957	544.124	4.833	30.953
Gipuzkoa	21.477	186.263	176.133	10.130	11.347
Tolosaldea	2.614	13.163	11.877	1.286	1.328
Tolosa ingurua	392	9.196	9.341	-145	537
Villabona ingurua	2.222	3.967	2.536	1.431	791
Tolosa-Ibarra	249	6.047	6.675	-628	877
Villabona-Zizurkil	642	2.638	1.821	817	-175
N-len korridorea	2.387	10.624	9.566	1.058	1.329
Gainontzekoa	227	2.539	2.311	228	-1
>800 bizt. udal.	2.292	11.433	10.272	1.161	1.131
<800 bizt. udal.	322	1.730	1.605	125	197

^a Daten artean igarotako denboran biztanleriari buruzko datuen eta hazkunde begetatiboaren magnitudearen arteko diferentziatik ateratako zenbatespena.

Iturria: Geuk egina Eustaten datuetan oinarrituta (Biztanleria eta Etxebizitza errolda eta estatistika; Biztanleen udal estatistika).

Eremu Funtzionalaren barruan bereizitako esparruen artean honakoak nabarmentzen dira: Tolosa-Ibarrako (eta ondorioz, Tolosa inguruko) hazkunde begetatibo negatiboa, eta Villabona-Zizurkil esparruaren berezko dinamismo handiagoa; izan ere, hemen, hazkunde begetatiboak soberan konpentsatu baitzuen epealdian zehar migrazio-saldo negatiboak sortutako biztanle galera. Villabona inguruko udalerrri guztiak kontuan hartuta, 1986-2016 aldian, gorakadaren % 64 berezko hazkundeak eragin du; aldiz, Tolosa inguruan, hazkunde begetatiboaren ekarpen negatiboak % 27 murriztu du migrazio-saldoaren ekarpen positiboa.

5. taulak bi osagai horiek azken 20 urteetan izan dituzten gorabeherak erakusten ditu. Berrero ere, garbi dago hazkunde begetatiboaren eta migrazio-saldoaren bilakaera antzekoa izan dela Tolosaldean eta Gipuzkoan. Kasu batean zein bestean, berezko hazkunde nabarmen berreskuratu zen 1996 eta 2010 artean baina gero, azken bosturtekoan, behera egin du berriz ere, neurri handi batean biztanleriaren pixkanakako zahartze prozesuagatik.

Migrazio-saldoa laurogeita hamarreko hamarkada bukaeran argi eta garbi negatiboa izan bazen ere, balio nabarmen positiboak hartu ditu mende honetako lehen bosturtekoetan.

5. taula. Biztanleriaren dinamikaren konparaketa, bosturteka (1996-2016)

Lurralde esparrua	Hazkunde begetatiboa				Migrazio-saldoa ^{a1}			
	96-00	01-05	06-10	11-15	96-00	01-05	06-10	11-15
EAE	-7.827	236	7.864	-2.411	-11.404	35.937	50.786	264
Gipuzkoa	-610	2.514	5.053	314	-3.182	11.344	11.552	7.488
Tolosaldea	14	398	622	268	-378	934	1.103	1.100
Tolosa ingurua	-198	109	222	-12	-521	357	767	1.008
Villabona ingurua	212	289	400	280	143	577	336	92
Tolosa-Ibarra	-161	-27	-27	-125	-300	52	523	995
Villabona-Zizurkil	171	149	158	92	-87	97	-16	84
N-Ien korridorea	82	243	415	211	-497	624	929	1.175
Gainontzekoa	-68	155	207	57	119	310	174	-75
>800 bizt. udal	101	314	462	189	-555	711	876	1.168
<800 bizt. udal	-87	84	160	79	177	223	227	-68

⁸ Biztanleriari buruzko datuen eta hazkunde begetatiboaren magnitudearen arteko diferentziatik ateratako zenbatespena

Iturria: Geuk egina Eustaten datuetan oinarrituta (Biztanleria eta Etxebizitza errolda eta estatistika; Biztanleen udal estatistika).

Eskura dagoen informazioaren arabera, 2010az geroztik EAEn eta Gipuzkoan ikusten ari den joera-aldaketa atzeratzen ari da Tolosaldean, nahiz eta azken urteotan Gipuzkoan urte pare bat aurrerago bizi izan zen aldaketaren antzekoa antzematen den. Hain zuzen, urteratutako datuek erakusten dutenez, Tolosaldean 2011-2012 epean eman zen migrazio-saldorik handiena (420 pertsona/urte pasatxo) eta 2012-2015 hirurtekoan zeharo murriztu da (84 pertsona/urte batez beste).

Lurralde esparruka bereizita berretsi egiten da migrazio-fenomenoak* pisu demografikoari eusteko izan duen garrantzia, bai Tolosa-Ibarra hiri ingurunean eta bai Tolosa inguruan, oro har. Villabona-Zizurkilek kontrako profila erakusten dute, kontuan hartutako 20 urteetan zehar migrazio-ekarpen txikia izan baitute.

800 biztanle baino gutxiago dituzten 18 udalerrien bilakaerak azken 15 urte hauetako garapen demografiko berezi samarra uzten du agerian. Hain zuzen ere, hazkunde begetatibo askoz handiagoa izan dute, termino erlatiboetan, udalerrri handiek baino

¹ Migrazio mugimenduez hitz egiten ari garenean, aipatu nahi ditugu hiru fluxuek osatzen duten multzoa, nahiz hiruak bereizgarriak izan edukiz eta jokamoldez. Aurkezten den migrazio-saldok bere barne hartzen ditu Tolosaldearen barnean gertatzen den herriarteko migrazioa, EAE barneko migrazioa eta kanpo migrazioa.

(hazkunde begetatibo hori Tolosaldea osoaren % 25 izan da, nahiz eta biztanleriaren % 13 baino ez diren). Migrazio-saldoa ere handiagoa izan dute 1996 eta 2010 bitartean (eskualde osoko % 38), nahiz eta azken bosturtekoan saldo hori negatiboa izatera pasa den. Bilakaera hori, itxura guztien arabera, udalerrri horiek 2010 aurreko urteetan izandako gaztetze-prozesuaren ondorio da, baina hala ere, joera hori eten egin da krisialdiak udalerrri txiki horietara migratzaile berrien etorreran izan duen eraginaren indarrez.

6. taulan ikus daiteke azken 6 bosturtekoetan urteko tasak lurralde esparruka izan duen bilakaera, bai hazkunde begetatiboari dagokionez eta bai migrazio-saldoari dagokionez. Tolosaldeko profila Gipuzkoako profilaren oso antzekoa da baina, hala ere, 2001-2015 epealdian hazkunde begetatiboa zertxobait altuagoa eta iraunkorragoa izan da, lurralde historiko osoan baino. Diferentzia hori Villabona-Zizurkilen eta eremu horretako udalerrri-multzoaren portaeraren ondorio da batez ere, konparazioan hauek hazkunde begetatibo dezentea izan baitute (% 0,5 inguru 1996az geroztik). Eta Tolosa-Ibarrak, beste muturrean, osagai begetatibo negatiboa izan du etengabe, magnitude hori oso inportantea ez bada ere.

6. taula. Demografia tasen bilakaera bosturteka (1986-2016)

Lurralde esparrua	Biztanleria egoiliarrekiko urteko tasa (%) bosturtekoan zehar											
	Hazkunde begetatiboa						Migrazio-saldoa					
	86-90	91-95	96-00	01-05	06-10	11-15	86-90	91-95	96-00	01-05	06-10	11-15
EAE	1,2	-0,5	-0,8	0,0	0,7	-0,2	-4,2	-0,1	-1,1	3,4	4,7	0,0
Gipuzkoa	1,1	-0,2	-0,2	0,7	1,5	0,1	-4,8	0,0	-0,9	3,3	3,3	2,1
Tolosaldea	0,8	-0,9	0,1	1,8	2,8	1,2	-4,9	-1,9	-1,8	4,3	4,9	4,7
Tolosa ingurua	0,1	-1,8	-1,2	0,7	1,4	-0,1	-4,4	-2,3	-3,3	2,2	4,7	6,0
Villabona ingurua	2,9	1,7	3,9	5,0	6,4	4,3	-6,2	-0,7	2,6	9,9	5,4	1,4
Tolosa-Ibarra	-0,5	-2,1	-1,5	-0,2	-0,2	-1,1	-2,7	-0,9	-2,7	0,5	4,7	8,6
Villabona-Zizurkil	4,5	1,6	4,2	3,6	3,7	2,1	-4,4	-2,0	-2,2	2,3	-0,4	1,9
N-len korridorea	1,1	-0,5	0,5	1,4	2,3	1,1	-4,1	-1,1	-2,9	3,5	5,1	6,2
Gainontzekoa	-0,6	-2,5	-1,8	3,8	4,9	1,3	-8,3	-5,4	3,0	7,6	4,1	-1,7
>800 bizt. udal	1,0	-0,5	0,5	1,7	2,4	0,9	-4,2	-1,5	-3,0	3,7	4,5	5,7
<800 bizt. udal	-0,7	-3,4	-3,3	3,0	5,4	2,6	-9,6	-4,2	6,6	8,0	7,6	-2,3

Iturria: Geuk egina Eustaten datuetan oinarrituta (Biztanleria eta Etxebizitza errolda eta estatistika; Biztanleen udal estatistika; Jaiotzen, heriotzen eta migrazio-mugimenduen estatistikak).

Deigarria da Tolosa-Ibarrak migrazio-saldoa hain berandu berreskuratu izana, 2006tik aurrera bakarrik hasi baitzen indartzen, baina badirudi krisialdiak inmigrazioan duen ondorio negatiboari beste esparru batzuek baino hobeto egiten diola aurre. Migrazio-saldoak eragindako hazkunde demografikoak 2011-2015 bosturtekoan ezagutu zuen bere tasarik altuena, % 0,9 hain zuzen. Esparru honetan oso ekarpen inportantea izan da, batez ere duen berezko dinamismo eskasa ikusita eta, ondorioz, Tolosa-Ibarrak 1981etik 2005era jasan duen biztanleria galera kontuan hartuta.

Oro har, 2010etik aurrera, kontuan hartutako esparru guztietan ahuldu egin da hazkunde begetatiboaren tasa, eta horrek arrazoi bikoitza izan dezake. Batetik, krisialdi ekonomikoak bere horretan jarraitzeak eta familien egoera ekonomikoa oraindik ere halamoduzkoa izateak –emankortasun orokorrerako garrantzizkoenak diren adin-multzoetan batez ere–, besteak beste, aurreko hamarkadan ezagutu zen jaiotze-tasaren nolabaiteko berreskuratzea apurtu du agian. Eta bestetik, euskal biztanleriaren etengabeko zahartze-prozesuak hazkunde begetatiboaren murrizpena dakar; izan ere, adin emankorrean dagoen biztanleriak pisu txikiagoa izatearen ondorioz, jaiotza gutxiago daude, eta gainera, biztanleria adintsuagoaren pisu handiagoaren ondorioz, heriotza-kopurua gehitu egin da.

2.2.1.c. BIZTANLERIAREN EGITURA

1986-2016 epean Tolosaldeko Eremu Funtzionalerako ikusten den adinen araberrako egituraren bilakaera erreferentziako lurralde eremuetan izandakoarekin pareka daiteke, 7. taulan ikus dezakegun moduan. 30 urte horietako Eremuko zahartze indizearen igoerak Gipuzkoan eta Euskal Autonomia Erkidegoan antzemandakoek baino profil apalagoa erakusten du. Hain zuzen, 20 urtetik beherako biztanleriaren parte-hartzea 8,5 puntu murriztu da; aitzitik, Gipuzkoan 10,7 puntu jaitsi da eta EAEn 11,7 puntu. Kontrako muturrean, 65 urteko eta gehiagoko biztanleriaren pisua 7,8 puntu igo da 1986 eta 2016 bitartean; aldiz, 10,5 puntu igo da Gipuzkoan eta 11 puntu EAEn. Horrela bada, Tolosaldeko biztanleriaren zahartze-indizea (65 urteko eta gehiagoko biztanleria 20 urtetik beherako biztanleriarekiko) inguruan baino gutxiago igo da, azken 30 urte hauetan 2,4 aldiz gehiago hazi da, Gipuzkoan hirukoiztu den bitartean.

7. taula. Biztanleriaren egitura adinaren arabera (1986-2016)

Lurralde esparrua	Biztanleriaren % adin taldeen arabera						Zahartze indizea ^a			
	0-19 urte		20-64 urte		>64 urte		1986	1996	2006	2016
	1986	2016	1986	2016	1986	2016				
EAE	29,19	18,2	59,7	60,3	10,4	21,4	35	74	111	117
Gipuzkoa	29,9	19,2	59,3	59,5	10,8	21,3	36	75	105	111
Tolosaldea	29,7	21,4	58,9	59,0	11,4	19,6	38	74	91	91
Tolosa ingurua	28,6	20,7	59,4	58,8	12,0	20,5	42	80	98	99
Villabona ingurua	33,1	23,2	57,6	59,5	9,3	17,2	28	57	73	74
Tolosa-Ibarra	28,5	19,9	59,2	58,5	12,3	21,6	43	79	103	109
Villabona-Zizurkil	33,8	21,4	57,5	59,2	8,7	19,4	26	51	76	91
N-len korridorea	30,2	20,9	58,7	59,1	11,1	20,0	37	69	91	96
Gainontzekoa	27,7	23,5	59,8	58,9	12,5	17,7	45	95	90	75
>800 bizt. udal.	30,1	21,1	58,7	59,0	11,2	19,9	37	70	91	95
<800 bizt. udal.	26,8	23,7	60,5	59,2	12,7	17,2	47	104	90	72

^a Zahartze indizea zera da, 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren portzentaje-proportzioa 20 urtetik beherako biztanlearekiko.


Iturria: Geuk egina Eustaten datuetan oinarrituta (Biztanleria eta Etxebizitza errolda; Biztanleen udal estatistika).

Eremu Funtzionalaren barnean alde nabarmenak ikusten dira adin-egituraren bilakaeran, kontuan hartutako zonen artean. Kasurik adierazgarrienak Tolosa-Ibarra aglomerazioa eta Tolosaldeko udalerrri txikien bilakaera harrigarria dira.

3. irudiak Tolosaldea osatzen duten esparruek 1986-2016 aldian zahartze-tasak izan duen bilakaera erakusten du. Euskualdean oro har eta esparru gehienetan, zahartze-tasa oso bizkor areagotu zen 1986 eta 2005 bitartean, eta hurrengo hamarkadan egonkortu egin da. Indize hori honako balio hauen artean egonkortu da: gutxienekoa Villabona inguruan, 70-75 eta gehienekoa Tolosa inguruan, 95-100.

Udalaren datuak aztertuta ikusten denez, zahartze-prozesua berezia izan da Tolosa eta Ibarra udalerrietan, epealdiaren bukaeran Eremu Funtzionalako 800 biztanletik gorako 10 udalerrien buru jarri baitziren zahartze-ari dagokionez, postu hori Amezketari kenduz 2013. urtean (ikus 12. taulako udal datuak). Hala, 2016. urte bukaeran, Tolosa-Ibarra aglomerazioaren zahartze-indizea 109ra iritsi zen, eskualdeko batez bestekoa 17 puntutan eta Villabona ingurukoa 34 puntutan gaindituz.

3. irudia. Zahartze-indizea lurralde esparruka (1981-2016)



Iturria: Eustat (Biztanleria eta Etxebizitza errolda eta estatistika; Biztanleen udal estatistika).

Oharrak:

Zahartze indizea zera da, 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren portzentaje-proportzioa 20 urtetik beherako biztanleriarekiko.

Irudi horretan ez dira jaso Biztanleen 2001-2005erako Udal Estatistikari dagozkion datuak, zeren eta iturri honetan diferentzia anormalak antzeman baitira 2001eko erroldarekin alderatuta, baina alde horiek zuzendu ziren 2006. urterako.

Prozesu horrek oso zehaztua dagoela dirudi eta, etorkizuneko migrazio-fluxuek eragindako zuzenketarik izan ezean, finkatzeko joera erakusten du, Tolosa-Ibarrako hazkunde begetatiboa ahula delako eta, ondorioz, biztanleria zahartzen ari delako.

1996tik aurrera haustura garbia ikusten da Tolosaldeko landagune txikietako zahartze joeran. 1996 aurreko zahartze bizkorreko prozesu bat gertatu ondoren, 800 biztanletik beherako udalerrietan zahartze-indizea jaisten joan da hurrengo hamarkadan zehar, harik eta 2006ko urtean bat egin duen arte Eremu Funtzionaleko batez bestekoarekin, eremuko batez bestekoa baino ia 20 puntu beherago jarriz 2016an. Magnitude mugatuko fenomeno bat da (18 udalerrien artean Tolosaldeko biztanleriaren % 13 baino ez baitziren 2016an), baina garrantzi handikoa izan daiteke landa izaera handiagoa duen esparru honen garapen iraunkorrerako.

Iritzi orokor hau berretsi egiten da, gainera, udalerriak banaka aztertzen direnean. 800 biztanletik gorako udalerrri guztietan zahartze-indizeak gora egin du 1996 eta 2006 bitartean, luraren kasu bakarra baztertuta; aldiz, 800 biztanletik beherako udalerrri gehienetan indize horren balioak beherantz egin du nabarmen. Multzoko 18 udalerrietatik 4 bakarrik dira 1996 eta 2016 bitartean zahartze indizea igotzen ikusi dutenak (Belauntza, Berrobi, Hernialde eta Ikaztegieta). Udalerrri txikietan zahartze-indizea batez beste 48 puntu jaitsi da 1996-2016 epealdian; aldiz, 800 biztanletik gorako udalerrietan 18 puntutan dago batez beste.

4., 5. 6. eta 7. irudiek grafikoki adierazten dute lurralde esparru eta data ezberdinetako bost urteko adin-taldeen arabeko biztanleriaren egitura. 4. irudian ikusten da Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko adinaren arabeko gaur egungo egitura, EAE osoari buruzko piramidearekin alderatuta. Adierazle orokorrez mintzatzerakoan esan dugun Tolosaldeko biztanleriaren adinaren arabeko egitura ez da oso ezberdina EAE osokoarekin (eta Gipuzkoarekin) alderatuta. Ikusten da 25 urtetik beherako pertsonen kopurua zertxobait handiagoa dela, baina hori konpentsatuta geratzen da 44 urtetik gorako emakumeen kopuru txikiagoarekin. Horiek dira Tolosaldean EAEn aldean dagoen zahartze-tasa txikiagoa azaltzen duten bi elementuak.

5. irudiak erakusten du Tolosaldeko adin-egiturak azken 30 urteetan izan duen aldaketa. Ikusten da 5 eta 35 urte bitarteko biztanleriak pisua nabarmen galdu duela, baina hori ere konpentsatua geratzen da, 40 urtetik gorako biztanleria ere nabarmen handitu delako. Aldaketa hori Eremu Funtzionaleko biztanleria osoaren % 17 pasatxo da. EAE osoan


bezala, Tolosaldean ere 1975 inguruan jaiotako belaunaldiek erakusten dute maximo historikoa, gero beherakada bizia etorri zen eta ez zuen etenik izan 1994 arte, izan ere urte horretan izan baitzen jaiotza-kopuru txikiena, bai Tolosaldean eta bai Gipuzkoan eta EAEn.

6. eta 7. irudietan ikus daitezke Tolosaldeko Eremu Funtzionalaren barnean bereizi diren lurralde esparruetako adin-egituran dauden aldeak. 6. irudian ikus daitezke Tolosa inguruaren eta Villabona inguruaren arteko aldeak; diferentzia horiek handixeagoak dira Tolosaldearen eta honen inguruaren artean baino. Villabona inguruan 35 eta 50 urte bitarteko biztanle kopuru handiagoa dago eta, normala den bezala, baita 20 urtetik beherako belaunaldiei dagokienez ere, hauek azken batean gurasoen profila errepikatzen baitute. Tolosa inguruak parte-hartze handiagoa erakusten du, 55 urtetik gorako emakumeei dagokienez batez ere; horixe da, hain zuzen, zahartze-indize handiagoa izatearen arrazoia.


7. irudian ikusten da 800 biztanletik gorako 10 udalerrien eta biztanle kopuru horretara iristen ez diren 18 udalerrien arteko aldea. Deigarria da 25-49 urte bitartean dauden emakumeen belaunaldien eta 15 urtetik beherako pertsona kopuruaren artean korrespondentzia handirik ez izatea. Diskordantzia hori azaltzeko garaian kontuan hartu beharreko bi elementu daude. Batetik, pentsa daiteke lurralde esparru honetako familia gazteenek portaera emankorragoa dutela Tolosaldeko gainontzekoek baino. Bestetik, litekeena da beren adin emankorraren bukaerara hurbiltzen ari diren emakumeek (40-44 urte bitarteko belaunaldi zabalagoak) emankortasuna beranduago eta oparoxeago gauzatu izana. Eta baliteke profil horren arrazoia esparru honetan 1996-2010 epean izandako migrazio-fluxu handiek gizartearen konposizioan izandako eraginean egotea.

Bestetik, udalerrri txikienean maskulinitasun tasa handiagoa erakusten dute 50 urtetik gorako belaunaldietan (% 54,0 hain zuzen, udalerrri handiagoetan % 47,1 eta Gipuzkoan % 45,9 den bitartean). Horren arrazoia, agian, nekazaritzako ustiategietan eta, oro har, landa inguruan gizonezko ezkongabeen tasa handia izatearekin lotua dago.


4. irudia. EAEko biztanleria (itzala) eta Tolosaldekoa (marra) 2016an




5. irudia. Tolosaldeko biztanleria 1986an (itzala) eta 2016an (marra)



6. irudia. Tolosa inguruko biztanleria (itzala) eta Villabona ingurukoa (marra) 2016an



7. irudia. Udalergi handietako biztanleria (itzala) eta txikietakoa (marra) 2016an



2.2.1.d. ETORKIZUNeko ESZENATOKIAK


Plangintzaren iraunaldian izango diren etxebizitza nagusiaren premien zenbatespena egitearren, biztanleriari eta familiaren neurriari buruzko proiektzioak prestatu dira, 2025eko eta 2033ko urtarrilaren 1a jarrita erreferentzia, data horiek baitira, hurrenez hurren, udal plangintzaren denbora-horizontea (2017-2024, biak barne) eta Lurraldearen Zatiko Planarena (2017-2032, biak barne).

Proiektzio demografikorako hainbat metodo aztertu dira; eta horietatik, PZPerako alternatiba aukeratzeko orduan garrantzizkoenak izan direnak aurkezten dira hemen. 8. irudian grafikoki laburtua ageri da informaziorik inportanteena: Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko eta Gipuzkoako biztanleriaren bilakaera 1981 eta 2016 bitartean, eta LZParen iraunaldirako (2017-2032) aurreikusi den bilakaeraren 3 proiektzio.

Bilakaera demografikoaren alderdirik aipagarriena, bai Tolosaldean eta bai bere hurbileko inguruan, bere portaera kulunkaria da. Hain zuzen, biztanleriak beherantz egin zuen 1981 eta 2001 bitartean; aldiz, erritmo bizi samarrean hazi zen 2001 eta 2016 bitartean. Tolosaldearen profila, dirudienez, denborari dagokionez ez dator bat Gipuzkoarako ikusten denarekin. 8. irudiak erakusten duenez, Gipuzkoako biztanleriak geldialdia izan du 1991 eta 2011 bitartean; Tolosaldeak, aldiz, biztanle kopurua galtzen jarritu du epealdi horretan. Eta horren antzera, Gipuzkoan biztanleriaren hazkundera apaldu egin da 2011tik aurrera; Tolosaldean, aldiz, aurreko bosturteetako hazkunde-erritmo berdintsuari eutsi zaio urte beretan. Horrek erakusten du zuhurtziaz jokatu behar dela Tolosaldeko biztanleriaren etorkizuneko portaera proiektatzeko orduan. Eta horrexegatik, hain zuzen ere, 1986-2016 epealdia mantentzea erabaki da LZParen iraunaldiko proiektzio demografikoak egiteko erreferentzia gisa.

2000ko urtearen inguruan ikusten den inflexio demografikoa dela eta, eta milurtekoaren bigarren hamarkadaren lehen urteetan aldaketa berri bat antzematen dela kontuan hartuta, erreferentziako epea zatitzea eta 3 hamarkadetarako haztapena egitea erabaki da, denboran hurbil daudela-eta. 8. irudian ikus daitezke aztertutako 3 haztapenen emaitzak eta, horrela, biztanleriaren proiektzioa egiterakoan 3etako bakoitza erabiltzeak izan dezakeen eragina baloratu daiteke.

8. irudia. Tolosaldeko eta Gipuzkoako biztanleriaren proiektzioak (2017-2033)



Iturria: Geuk egina Eustaten datuetan oinarrituta (Biztanleria eta Etxebizitza errolda eta estatistika; Biztanleen udal estatistika).

Gipuzkoako datuetan ezkerreko eskala erabili da, eta Tolosaldekoetan, eskuineko eskala. Marra punteatua (1981-2016) eskura dagoen informazioari dagokio. 2017-2033 eperako marrek 3 haztapen alternatiboekin egindako proiektzioak erakusten dituzte, 1986-1996, 1996-2006 eta 2006-2016 hamar-urteetarako, leiendan zehaztutako pisuekin.

Hauek dira grafiatutako 3 haztapenak (hamar-urteko zaharretik berrienera):

- 1/3, 1/3, 1/3. 3 hamar-urtekoek haztaperen bera izan dute. Aukera hau, etorkizuneko biztanleriaren proiektzioa egiteko 1986-2016 aldiko batez besteko bariazio-tasa erabiltzearen parekoa da. Irudian ikus daitezkeen bezala, haztaperen honek sortzen ditu proiektziorik apalenak, zeren eta lehen 15 urteetako bilakaera atzerakorrari eta azken 15 urteetako proiektzio espantsiboari pisu bera eman baitzaie.
- 1/6, 2/6, 3/6. Azkeneko hamar-urtekoak hasierakoaren pisua halako 3 jaso du. Haztaperen horrek proiektzio altuagoak sortzen ditu, duela gutxiagoko hamar-urtekoai emandako pisu altuarekin bat.
- 2/9, 3/9, 4/9. Azkeneko hamar-urtekoak hasierakoaren pisua halako 2 jaso du. Haztaperen horrek proiektzio espantsiboak sortzen ditu, baina aurreko alternatibak baino apalagoak. Tolosaldeko LZPea erabilitako proiektzioetan aukera hau gorde da.

8. taulak proiektzio honen emaitzak erakusten ditu, azterketan erabilitako lurralde esparru bakoitzari dagokionez. Taulan aurkezten diren proiektzioak ateratzeko, alde batetik eskualdeko biztanleriaren proiektzioa egiten da eta, bestetik, 28 udalerrietako biztanleriaren proiektzioa, aukeratutako proiektzioa (2/9, 3/9, 4/9) kasu guztietan aplikatuta. Ondoren, udal proiektzioak modu proportzionalen zuzentzen dira, hain zuzen 28 udalerrietarako jotzen diren bariazioen batura bat etor dadin modu agregatuan proiektatzen den eskualde-bariazioarekin.

8. taula. Biztanleriaren proiektzioa lurralde esparruka (2016-2033)

Lurralde esparrua	Biztanleria			Bariazioa (% 2006koarekiko)	
	2016	2025	2033	2016-25	2016-33
EAE	2.171.886	2.192.716	2.211.400	1,0	1,8
Gipuzkoa	710.699	721.303	730.862	1,5	2,8
Tolosaldea	46.969	48.291	49.498	2,8	5,4
Tolosa ingurua	33.966	34.378	34.713	1,2	2,2
Villabona ingurua	13.003	13.913	14.785	7,0	13,7
Tolosa-Ibarra	23.218	23.455	23.642	1,0	1,8
Villabona-Zizurkil	8.703	8.893	9.041	2,2	3,9
N-len korridorea	38.376	39.510	40.552	3,0	5,7
Gainontzekoa	8.593	8.782	8.946	2,2	4,1
>800 bizt. udal.	39.984	41.144	42.205	2,9	5,6
<800 bizt. udal.	6.985	7.147	7.293	2,3	4,4

Iturria: Geuk egina, Eustaten datuak baliatuta.

Udalerrri gehienetan, eskualde osorako zuzeneko proiektzioaren eta proiektzio zuzenduaren artean ez dago alde handirik eta, kontuan hartuta proiektzio ahalegin orok berekin duen ziurgabetasuna, proiektzio zuzenduak erabiltzea erabaki dugu Tolosaldeko Eremu Funtzionalaren barruan 2017-2033 eperako aurreikus daitekeen bilakaera demografikoaren iruzkinetan.

Tolosaldeko Eremu Funtzionalerako gehikuntza erlatibo apala proiektatu da (% 0,3ko urteko tasaren baliokidea), baina hala ere, Gipuzkoarako eta EAerako aurreikusitakoa baino askoz altuagoa. Aurreikusten da Tolosaldea osoan biztanleria 2.500 pertsonatan gehituko dela 2016 eta 2033 bitartean. Gehikuntza hori Villabona inguruan kontzentratuko litzateke (1.800 pertsona inguru) eta Tolosa inguruan, berriz, hazkundera dezente moderatuagoa izango litzateke (750 bat pertsona). Esan behar da Villabona inguruko dinamismoa ez dela bertako burutzaren ondorio –eskualdeko batez bestekoaren azpitik haziko baita– baizik eta zonaldeko beste 4 udalerriren ondorioz (Irura, Aduna, Larraul y Alkiza) hauek % 10etik gora haziko baitira epealdi horretan, eta hori Villabona inguruan aurreikusi den gehikuntzaren % 74 da. Tolosa inguruan ere, agidanez antzeko zerbait gertatuko da, 3 udalerritan (Baliarrain, Orexa eta Ikaztegieta) biztanleria % 10 haziko da baina, hain udalerrri txikiak izanik, Tolosa ingururako aurreikusi den hazkunderaren % 17 besterik ez da izango.

Proiektzio honetan aurreko analisisian ikusitako joera berak mantentzen dira. Zona bakoitzeko burutzen hazkunderak zona bakoitzeko joera erakusten du, baina askoz ere erritmo motelagoan (Villabona-Zizurkilen 340 pertsona gehiago eta Tolosa-Ibarran 420).

9. taulan Tolosaldeko Eremu Funtzionalak Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Gipuzkoaren gainean duen pisu demografikoak izan lezakeen bilakaera ikus daiteke, baita aintzat hartutako eremu bakoitzak Eremu Funtzional osoaren gainean izan lezakeena ere. Tolosaldeak dinamismo demografiko handiagoa izango du, Eremu Funtzional honek Gipuzkoan eta EAEn duen pisuak zertxobait gorantz egingo baitu.

Proiektatutako bilakaeraren ezberdintasun nagusiak Villabona inguruak eskualdeko biztanleria osoan duen partaidetzaren goranzko prozesuaren jarraipena izango genuke, 800 biztanletik beherako udalerrien pisu galerarekin batera. Tolosa-Ibarra konglomeratuak osatzen duen eskualdeko burutzak ia 2 portzentaje-puntu galduko litzuzke 2016 eta 2033 bitartean, 1986 eta 2016 bitartean ikusitako beheranzko joerari eutsiz – epe horretan 3,4 puntu galdu zituen–.

9. taula. Pisu demografikoaren proiektzioa lurralde esparruka (2016-2033)

Pisu demografikoa (%)	Behaketa		Proiektzioa	
	1986	2016	2025	2033
Tolosaldea EA Erekiko	2,08	2,16	2,19	2,21
Tolosaldea Gipuzkoarekiko	6,44	6,61	6,66	6,71
Esparrua Tolosaldearekiko (%)				
Tolosa ingurua	75,69	72,32	71,32	70,43
Villabona ingurua	24,31	27,68	28,68	29,57
Tolosa-Ibarra	51,78	49,43	48,71	48,07
Villabona-Zizurkil	18,17	18,53	18,52	18,46
N-Ien korridorea	81,14	81,70	81,85	81,98
Gainontzekoa	18,86	18,3	18,15	18,02
>800 bizt. udal.	84,55	85,13	85,25	85,35
<800 bizt. udal.	15,45	14,87	14,75	14,65

Iturria: Geuk egina, Eustaten datuak baliatuta eta 8. taulako proiektzioak erabili.


Villabona inguruak erakusten du profil dinamikoena. Eta proiektzioan luraren hazkundera nabarmentzen da, zona honetako burutza-gunean sartuta ez baina N-I errepidearen korridorean dagoen udalerria bera, Eremu Funtzionaleko bi konglomeratu urbanoen artean. Udalerrri honen biztanleria, zuzenketa-jarduketarik egin ezean, % 63 haziko litzateke 2016 eta 2033 bitartean, hau da, Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko biztanleriaren epe horretako hazkunde garbiaren % 44, nahiz eta udalerrri horren biztanleria, 2016an, eskualde osoaren % 4ra iristen ez den.

Bilakaera demografikoa etxebizitza nagusiaren behar bihurtzeko, familiak proiektatutako epean izango duen neurriaren proiektzioa egin behar da. 9. irudian ikus daiteke familiaren neurriak Gipuzkoan eta Tolosaldean azkenaldi honetan izan duen bilakaera, baita Gipuzkoari buruz 2017-2033 eperako egin diren 3 proiektzio alternatiben emaitzak ere. Era berean, 1985-2015 eperako egin ziren proiektzioak ere aurkezten dira, metodo bakoitza iragandako bilakaerari nola egokitu zaion hobeto baloratu ahal izateko.

Hauek dira Gipuzkoako familien batez besteko neurriaren proiektzioa egiteko erabili diren 3 metodoak:

- Funtzio logaritmikoaren doikuntza minimo-koadratikoa 1981-2015 serieari. Irudian ikus daitekeen bezala, funtzio honek fidagarritasun dezentez jasotzen du Gipuzkoan familiaren neurriak iraganean izan duen bilakaera, nahiz eta 1991 eta 2001 bitartean izandako murrizpen bizkorra azpitik balioetsi duen eta, aldiz, 2001az geroztik izandako jaitziera gainetik. Funtzioaren linealtasunak berak ez du uzten 2001. urte inguruan ikusten den begien bistako inflexioa islatzen.

9. irudia. Familiaren batez besteko neurriaren proiektzioak (2017-2033)



Iturria: Geuk egina Eustaten datuetan oinarrituta (Biztanleria eta Etxebizitza errolda eta estatistika, 1981-2006; Biztanleen eta Etxebizitzen udal estatistikak, 2010-2015).

Oharra: Marra jarraitu lodia (1981-2015) Gipuzkoari buruz dagoen informazioari dagokio. 2017-2033 eperako marrek 3 metodo alternatiboekin egin diren eta 1981-2015 eperako informazioari aplikatu zaizkien proiektzioak erakusten dituzte (urteko % 1,3ko murrizte tasa, urteko % 1,5eko murrizte tasa eta zenbatespen logaritmikoa). Marra punteatu urdina Tolosaldeko bilakaerari buruzkoa da, eta erreferentzia gisa jaso da.

Dirudienez, metodo hau erabilta puztu egiten da familiaren neurriak etorkizunean izango duen murrizte erritmoa (Gipuzkoari begira 2033 urte hasierarako aurreikusi den balioa 2,01 pertsona/etxe da, eta horrek urtean % 2,1eko murrilea suposatzen du familiaren neurri aldagarrian).

- Familiaren neurriaren % 1,5eko murrizte tasa aplikatzea. Hori da urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretuak proposatzen duen metodoa, udalerriko bizitegi premiak kuantifikatzeko. EAE osoan 2001 eta 2015 bitartean behatutako tasa da (Gipuzkoarako behatutako tasa % 1,3 da, eta Tolosalderakoa % 1,0). Irudian ikus daitekeen bezala, proiektio honek gainera balioesten du Gipuzkoan azken urteotan izan den murriztea; eta Tolosaldean are gehiago. Metodo hau erabilta, 2033. urtean familiaren neurria 2,12 pertsona/etxebizitza izango da Gipuzkoan.
- Familiaren neurriaren % 1,3ko murrizte tasa aplikatzea. Hori da Gipuzkoan 2001 eta 2015 bitartean behatutako tasa eta, irusiak erakusten duen bezala, hori da Gipuzkoan behatutako bilakaera hobekien doitzen duena, nahiz eta Tolosalderako murriztea gainera balioesten duen. Edonola ere, 2010-2015 aldiaren Tolosaldean familiaren neurriak izan duen joera nahiko bat dator hirugarren metodo honekin; horregatik, LZPeko proiektioak egiteko urteko % 1,3ko murrizte tasa erabiltzea erabaki dugu. Metodo honekin egindako proiektioaren arabera, Gipuzkoan 2,16 pertsona/etxebizitza izango da Gipuzkoan.

Urteko % 1,3ko murrizte tasa aplikatu zaio azter daitezkeen azken 3 urteetan (2013-2015) udalerririk bakoitzean behatutako familiaren neurriari, eta emaitzak 10. taulan jaso dira. Murrizte tasa aplikatu zaion hasierako balioa 2013-2015 hirurtekoaren batez bestekoa izan da; hortaz, 2014ko urtarrilaren 1ari dagokiona.

Lurralde esparru guztiei murrizte tasa bera aplikatuta, taulan ikusten diren bariazioak ere oso antzekoak dira elkarren artean; izan ere, diferentzia bakarrak, udalerririk bakoitzean abiapuntutzat hartu den familiaren neurrien arteko diferentzialak eragindakoak baitira. Aplikatutako balizkoak eremu desberdinetako familiaren neurriaren pixkanakako konbergentzia errespetatzen du, 800 biztanletik beherako udalerrietako familiaren neurria Tolosalde osoko batez bestekora hurbiltzean ikusten den moduan (diferentziala, bi esparruetan, 2014an 0,18 pertsona/etxebizitza izatetik 0,13 izatera pasako da 2033an).

10. taula. Familiaren batez besteko neurriaren proiektzioa lurralde esparruka (2017-2033)

Lurralde esparrua	Familiaren neurria (perts./etxeb.)			Murriztea (perts./etxeb.)	
	2014 ^a	2025	2033	2014-2025	2014-2033
EAE	2,48	2,26	2,11	0,23	0,37
Gipuzkoa	2,49	2,26	2,12	0,23	0,37
Tolosaldea	2,55	2,32	2,17	0,24	0,39
Tolosa ingurua	2,53	2,30	2,15	0,23	0,38
Villabona ingurua	2,62	2,37	2,21	0,25	0,40
Tolosa-Ibarra	2,47	2,24	2,10	0,23	0,37
Villabona-Zizurkil	2,57	2,33	2,18	0,24	0,39
N-len korridorea	2,52	2,28	2,14	0,23	0,38
Gainontzekoa	2,73	2,47	2,30	0,27	0,43
>800 bizt. udal.	2,53	2,29	2,15	0,23	0,38
<800 bizt. udal.	2,73	2,46	2,30	0,26	0,43

^a 2013, 2014 eta 2015eko batez besteko balioa, 2014ko urtarrilaren 1ari dagokionez.

Iturria: Geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Azkenean, 11. taulak etxebizitza nagusien kopuruaren bilakaera erakusten du, aurkeztu diren biztanleriari eta familiaren neurriari buruzko proiektioetatik abiatuta. Tolosaldeko Eremu Funtzionalean 2017 eta 2032 bitartean (biak barne) 3.500 etxe gehiago izatea aurreikusten da, hau da, urtean batez beste 218 etxebizitza nagusi gehiago izango dira aipatutako epean. Gehikuntza horren % 56 hiri-burutzak osatzen dituzten 4 udalerrietan izango da. Hau da, burutza horien partaidetza 2015ean eskualdeko biztanlerian zutenarekin alderatuta (% 68,8) dezente azpitik egongo da, egindako proiektzioen arabera guene horiek hazkunde txikiagoa izango baitute.

11. taula. Etxebizitza nagusien proiektzioa lurralde esparruka

Lurralde esparrua	Etxebizitza nagusiak (urtarrilaren 1ean)			Etxebizitza nagusien igoera		
	2015	2025	2033	2017-24	2025-32	2017-32
EAE	882.032	960.222	1.025.705	63.723	65.483	129.206
Gipuzkoa	287.575	314.638	337.733	22.304	23.094	45.398
Tolosaldea	18.559	20.593	22.383	1.698	1.791	3.489
Tolosa ingurua	13.571	14.789	15.829	1.023	1.040	2.063
Villabona ingurua	4.988	5.796	6.539	669	743	1.411
Tolosa-Ibarra	9.502	10.323	11.018	688	695	1.383
Villabona-Zizurkil	3.412	3.765	4.061	292	296	588
N-len korridorea	15.362	17.089	18.588	1.418	1.499	2.917
Gainontzekoa	3.197	3.510	3.802	281	292	573
>1.000 bizt. udal.	16.311	17.704	19.250	1.465	1.546	3.012
<1.000 bizt. udal.	2.248	2.864	3.107	232	244	476

Iturria: Geuk egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

11. taulako proiektzioetan ikus daitekeen moduan, hazkunde demografikoaren eraginez eta familiaren neurria murriztearen ondorioz, etxebizitza nagusiek gora egingo dute pittin bat kontuan hartutako bigarren epealdian (2025-2032, biak barne), lehendabiziko epealdiarekin (2017-2024, biak barne) alderatuta. Igoer ahoi nahoko mugatua izango da denboran, zeren eta 2017-2024 epean ia 1.700 etxebizitza izatetik 1.790 izatera pasako baita 2025-2032 epean. Hau da, % 5 pasatxoko igoera izango da lehendabiziko aldiarekin alderatuta.

Esan behar da biztanleriaren bariazioetik eta familiaren neurria murriztetik etorritako premia zehatzei bakarrik buruzkoa dela eskainitako kalkulua. Kopuru hauek handitu egin beharko dira eskaerako beste osagai batzuk kontuan harturik. Horiek, izan ere, jaso egin beharko dituzte bigarren etxebizitzak zein etxebizitza nagusien bariazioari lotutako etxebizitza hutsak, ezinbestekoa baita horiek ere zenbatestea merkatuak funtzionamendu egokia izan dezan.

2.2.2. EKONOMIA ETA LURRALDEA

2.2.2.a. EZAUGARRI SOZIALAK ETA JARDUERAREKIKO ERLAZIOA

12. taulak Tolosako Eremu Funtzionala osatzen duten udalerrien ezaugarri sozioekonomiko garrantzitsuetako batzuk islatzen ditu. Lehen elementu interesgarria udalerrien dentsitate demografikoari buruzkoa da. Eskualdeak, oro har, Gipuzkoakoaren eta EAEkoaren batez bestekotik nabarmen beheragoko dentsitatea du (141 bizt./km² 2016an, besteetan 359 eta 300 direnean hurrenez hurren), Tolosaldeko Eremu Funtzionalak bere ingurukoekin alderatuta erakusten duen izaera ez hain urbanizatuaren erakusle.

Dena den, azpimarratu behar da ezen, eskualdeko udalerrri nagusiekin batera (Tolosa, Ibarra, Villabona eta Zizurkil), neurri txikiko udalerrri batzuek biztanleria dentsitate handia dutela, kasu askotan lurralde eremu txikia dutelako eta, ondorioz, beteak daudelako. Kasurik deigarrienak Anoeta eta Irurako udalerrriak dira, eta neurri txikiagoan Ikaztegieta, Alegia eta Berrobi. Lehenbiziko biek eskualdeko batez bestekoa baino askoz beheragoko zahartze-maila dute gainera, azken urteotan zehar izan duten portaera demografiko dinamiko samarraren ondorioz.

12. taula. Adierazle sozioekonomikoak udalerrika

Udalerrria	Zona	Dentsitatea 2016	Zahartzea 2016	Errenta pertsonala 2013/2014	Prestakuntza 2015	Euskara 2011
Abaltzisketa	1	27,3	68,3	112,0	91,9	94,9
Aduna	2	66,1	48,4	108,8	94,8	88,6
Albiztur	1	24,3	87,5	113,7	90,2	93,4
Alegia	1	227,1	90,1	91,6	94,6	79,9
Alkiza	2	28,6	51,5	104,1	96,6	90,0
Altzo	1	36,6	47,5	106,1	97,0	88,6
Amezketza	1	44,8	107,4	99,8	89,4	92,7
Anoeta	1	486,8	68,0	96,2	94,5	75,3
Asteasu	2	88,5	64,0	99,8	93,2	82,8
Baliarrain	1	52,9	46,3	116,1	97,7	96,0
Belauntza	1	74,3	133,3	98,7	88,2	81,5
Berastegi	1	23,2	72,8	102,9	86,2	89,6
Berrobi	1	202,4	77,2	94,9	92,1	80,5
Bidania-Goiatz	1	37,4	65,3	92,3	93,6	89,0
Elduain	1	9,7	73,4	114,5	94,7	92,8
Gaztelu	1	17,8	75,6	104,7	88,3	93,6
Hernialde	1	75,2	107,3	95,0	94,5	84,5
Ibarra	1	814,2	109,6	95,0	92,5	69,1
Ikaztegieta	1	236,1	80,0	96,2	97,0	82,1
Irura	2	603,4	35,5	109,9	101,2	77,1
Larraul	2	44,2	34,7	107,0	98,4	88,1
Leaburu	1	107,5	97,4	96,7	87,5	84,3
Lizartza	1	52,6	101,5	89,4	90,1	84,5
Orendain	1	30,5	71,4	114,2	96,6	91,2
Orexa	1	19,4	63,6	101,9	94,7	96,0
Tolosa	1	511,7	108,3	110,4	99,8	70,9
Villabona	2	328,1	89,9	93,2	92,6	70,9
Zizurkil	2	187,5	92,3	96,7	93,0	71,8
Tolosalde		145,2	91,5	102,8	95,9	75,0

Iturria: Geuk egina, Eustaten datuak baliatuta.

Oharra: Zona-kodeak Tolosa (1) edo Villabona (2) adierazten du. Letra etzan eta lodiz idatzitako udalerrriak N-I errepidearen korridorean daude.

Jasotako *aldagaiak* honela definitzen dira:

Dentsitatea: biztanleak km²-ko

Zahartzea: 65 urte eta gehiagoko biztanleak, 20 urtez azpiko biztanleriarekiko (%)

Errenta pertsonala: Portzentaje-indizea EAEko batez bestekoarekiko (2013 eta 2014ko batez bestekoa)

Prestakuntza: Portzentaje-indizea EAEko batez bestekoarekiko (10 urte eta gehiagoko biztanleek lortutako titulaziorik altuenari dagozkion prestakuntza urteak)

Euskara: Euskaldun portzentajea 2 urte eta gehiagoko biztanleriarekiko (ia-euskaldunetatik % 25 ere sartuz, euskaldunez gain)

Azpimarratu behar den bigarren alderdia zera da, eskualdeak errenta pertsonalari dagokionez erakusten duen lurralde banaketa homogeneo samarra. Informazio honen

sorburua pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik ateratzen diren datu fiskalen gainean Eustatek egindako ustiapena da, eta 2013-2014 epeko ekitaldietako batez bestekoari buruzkoa da. Eskualdeko batez bestekoak ia-ia 3 puntuz gainditzen du EAEko batez bestekoa, eta ia-ia bat dator Gipuzkoakoarekin (EAEkoaren batez besteko balioaren % 102,4). Eremu Funtzionalaren barnean, bakar-bakarrik Lizartza dago erkidegoko batez bestekoaren % 90aren azpitik. Udalerrri gehienek, aurreko hamarkadan, halako hobekuntza bat erakutsi dute errenta erlatiboaren batez besteko mailan, eta eskualdeko errenta pertsonalaren batez besteko maila EAEko batez besteko maila baino 3,5 puntu gehiago hazi da.

Tolosaldeko biztanleriaren prestakuntza maila Gipuzkoako eta EAEko batez bestekoaren azpitik dago. Adierazle honek erakusten du ikasleak ez diren eta 10 urte edo gehiago dituzten biztanleek lortutako titulaziorik altuenari dagokion prestakuntza formalaren iraupena. 12. taulan jasotako indizeak indizearen portzentaje-balioa erakusten du, Euskal Autonomia Erkidegoak 2015ean ematen zuen batez besteko indizearekiko.

Ikus daiteke Eremu Funtzionalako udalerrri guztiek EAEko batez bestekoaren azpitiko prestakuntza profila ematen dutela; Irura salbuespena da, eskualdeak oro har baino biztanleria gazteagoa baitu. Edonola ere, ikusten da aldean neurria oso txikia dela, zeren eta adierazlearen balioa landako 5 udalerritan bakarrik baitago % 90 baino beherago (Berastegi, Leaburu, Belauntza, Gaztelu eta Amezket), eta horiek eskualdeko biztanleria osoaren % 6 baino gutxiago dira.

Taulako azken zutabeak euskaldunen ehunekoa jasotzen du (ia-euskaldunetatik % 25 ere sartuta) eta, berriro ere, eskualde homogeneo samarra eta euskaldun maila altukoa dela ikusten da. Eskualdeko biztanleria euskalduna, 2011n, 2 urteko eta gehiagoko biztanleriaren % 75 zen. Udalerrri kopuruaren erdian biztanleriaren % 85etik gora da euskalduna; gutxiena Ibarra, % 69.

Euskal hiztunen biztanleriak 2001-2011 hamarkadan izan duen bilakaera aztertuta, aurreko euskalduntzearen nolabaiteko geldialdia antzematen da, lurraldearen homogeneizazio prozesu garbiarekin batera. Hain zuzen, Tolosaldeko euskalduntze tasa % 67,0koa zen 1981ean, eta tasa hori % 75,7ra igo zen 2001ean, baina hala ere ez zuen gainditzen 2011n ikusitako % 75,0eko tasa. Geldialdi horrekin batera, euskal hiztunen kopuruak atzera egin du udalerrri txikietan (2001eko % 93,1etik % 87,3ra jaitsi da 2011n), eta zertxobait igo da eskualdeko hiriguneetan (2001eko % 70,3etik % 70,8ra igo da 2011n).

13. taulak adierazle sozioekonomiko sorta bera erakusten du, azterketan erabilitako lurralde eremuei aplikatuta. Ikusten da gutxien urbanizatutako udalerrietan –biztanleria-dentsitate txikiagokoak dira– zahartze maila nabarmen txikiagoa dela, eta euskalduntze maila altuagoa. Profil hori osatuz, hezkuntza maila zertxobait altuagoa eta errenta maila zertxobait baxuagoa dela ikus daiteke. Bi alderdi horiek, ziurrenik, udalerrri txikiek azken bosturtekoetan izan duten gaztetze prozesuaren adierazle dira, eta prozesu horrek nolabaiteko homogeneizatzeko soziala bultzatu du eskualdean bertan. Alde sozialik handiena Tolosa-Ibarra eta Villabona-Zizurkil eremuetako errenta mailaren eta hezkuntza mailaren adierazleetan ikus daiteke. Eskualde-burutzak profil moldatuagoa erakusten du, estatus handieneko enpleguak nolabait kontzentratu egin direlako eta zerbitzu pertsonalen eskaintza gehiago garatu delako, agian.

13. taula. Adierazle sozioekonomikoak lurralde esparruka

Lurralde esparrua	Dentsitatea 2016	Zahartzea 2016	Errenta pertsonala 2013/2014	Prestakuntza 2015	Euskara 2011
EAE	300,2	117,5	100,0	100,0	43,6
Gipuzkoa	359,3	111,0	102,4	99,6	58,9
Tolosako EF	141,5	91,5	102,8	95,9	75,0
Tolosa ingurua	138,2	98,9	104,6	96,2	75,0
Villabona ingurua	167,3	74,1	98,0	95,6	74,7
Tolosa-Ibarra	548,4	108,6	107,6	98,5	70,6
Villabona-Zizurkil	261,9	90,7	94,4	92,8	71,2
N-Ien korridorea	386,0	95,6	103,2	95,5	72,0
Gainontzekoa	38,4	75,3	100,9	96,6	87,6
>800 bizt. udal.	235,6	94,7	103,0	95,3	73,1
<800 bizt. udal.	40,5	72,4	101,3	97,0	87,3

Iturria: Geuk egina, Eustaten datuak baliatuta.

Oharra: Ikus 12. taula

14. eta 15. taulek agerian jartzen dute biztanleriaren eta jarduera ekonomikoaren arteko erlazioa, udalerrrika eta lurralde esparruka hurrenez hurren. Informazioa 2015eko urtarrilaren 1ekoa da eta, beraz, ez du jasotzen 2007/2008ko krisialdi ekonomiko eta finantzarioaren eragina.

16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren gainean neurtutako jarduera-tasak irudi zabal samarra ematen du udalerrien artean, Ikaztegietako % 73tik Orendaingo % 91 bitartean. 4 gune nagusiak % 75 eta % 78 bitarteko tartean daude, udalerrri txiki gehienak bezalaxe, eta tarte horretan dago, halaber, Eremu Funtzionaleko batez besteko balioa (% 77,5). 800 biztanletik gora dituzten udalerrri guztietatik Irurak eta Asteasuk bakarrik gainditzen dute % 80ko jarduera-tasa.

Langabezia-tasak espektro zabalagoa erakusten du, Albizurreko minimotik (% 3,3) Lizartzako maximora (% 16,5) bitartean. 2015eko urte hasieran, 4 udalerrri nagusietako langabezia-tasa % 14 ingurukoa zen, eskualdeko % 13,2ko batez bestekoa baino zertxobait gehiago. Atentzioa ematen du, baina, ikusteak landa inguruko udalerrri txikiak espektroan zehar banatzen direla. Honek agerian uzten du adierazle mota hauek asko alda daitezkeela hain biztanle gutxiko guneeetan.

14. taula. Biztanleria jarduerarekiko, udalerrika (2015)

Udalerrria	Zona	Aktiboak	Lanean	Langabeak	Jarduera tasa (%) 16-64 urte	Langabezia tasa (%)
Abaltzisketa	1	151	141	10	76,8	6,6
Aduna	2	246	218	28	84,2	11,4
Albiztur	1	150	145	5	79,3	3,3
Alegia	1	825	705	120	75,6	14,5
Alkiza	2	186	167	19	87,7	10,2
Altzo	1	167	149	18	74,1	10,8
Amezketza	1	454	404	50	77,8	11,0
Anoeta	1	1.009	868	141	76,9	14,0
Asteasu	2	773	697	76	81,4	9,8
Baliarrain	1	78	71	7	81,3	9,0
Belauntza	1	136	116	20	78,0	14,7
Berastegi	1	518	472	46	75,8	8,9
Berrobi	1	298	255	43	76,0	14,4
Bidania-Goiatz	1	271	240	31	80,5	11,4
Elduain	1	118	111	7	84,9	5,9
Gaztelu	1	84	73	11	76,9	13,1
Hernalde	1	166	150	16	77,8	9,6
Ibarra	1	2.027	1.738	289	76,4	14,3
Ikaztegieta	1	234	202	32	73,4	13,7
Irura	2	906	792	114	82,9	12,6
Larraul	2	130	112	18	78,2	13,8
Leaburu	1	164	146	18	74,5	11,0
Lizartza	1	328	274	54	78,5	16,5
Orendain	1	100	92	8	90,7	8,0
Orexa	1	56	53	3	88,9	5,4
Tolosa	1	9.239	7.995	1.244	77,5	13,5
Villabona	2	2.776	2.366	410	75,2	14,8
Zizurkil	2	1.436	1.224	212	77,2	14,8
Tolosaldeia		23.026	19.976	3.050	77,5	13,2

Iturria: Eustat, Biztanleria aktiboari buruzko udal inkesta (2015)

Oharra: Zona-kodeak Tolosa (1) edo Villabona (2) adierazten du. Letra etzan eta lodiz idatzitako udalerrriak N-I errepidearen korridorean daude.

14. taulan ikus daitekeen bezala, Tolosaldeko lan egoera Gipuzkoako batez bestekoa baino hobexegoa da, eta EAeko batez bestekoa baino are hobea (ia puntu bat gehiago jardueran, eta 3 puntu gutxiago langabezian). 10. irudiak grafikoki erakusten du jarduerak, okupazioak eta langabeziak, 1986 eta 2015 bitartean Tolosaldean eta Gipuzkoan izan duten bilakaera. Hiru magnitudeen bilakaerak antzeko profila du bi kasuetan, baina kontuan hartuta atzeraldiak (2007-2012) enplegua Tolosaldean gutxiago jaitsiarazi duela bere inguruan baino (% 2,9ko jaitsiera, Gipuzkoan % 5,2 eta EAEn % 5,9 izan den bitartean).

15. taula. Biztanleria jarduerarekiko, lurralde esparruka (2015)


Lurralde esparrua	Aktiboak	Lanean	langabeak	Jarduera tasa (%) 16-64 urte	Langabezia tasa (%)
EAE	1.074.244	900.849	173.395	76,8	16,1
Gipuzkoa	348.879	298.800	50.079	77,1	14,4
Tolosako EF	23.026	19.976	3.050	77,5	13,2
Tolosa ingurua	16.573	14.400	2.173	77,3	13,1
Villabona ingurua	6.453	5.576	877	78,1	13,6
Tolosa-Ibarra	11.266	9.733	1.533	77,3	13,6
Villabona-Zizurkil	4.212	3.590	622	75,9	14,8
N-len korridorea	18.698	16.108	2.590	77,2	13,9
Gainontzekoa	4.328	3.868	460	79,0	10,6
>800 bizt. udal.	19.963	17.261	2.702	77,3	13,5
<800 bizt. udal.	3.063	2.715	348	79,1	11,4

Iturria: Eustat, Biztanleria aktiboari buruzko udal inkesta (2015)

11. irudiak informazio bera ematen du, tasaka adierazita, konparaketa errazago egin ahal izateko. Ikus daitekeenez, Gipuzkoarekin alderatuta, Tolosaldeak ia-ia bilakaera bera izan du, nahiz eta azkeneko hamar urteetan bere aldeko diferentzia txiki bat izan duen okupazio eta langabezia tasetan.

16. taulak aintzat hartu diren lurralde-esparruetan enpleguak eta langabeziak 1996 eta 2015 bitartean izan duten bilakaera erakusten du. Kontuan izan behar da 1996an bukatu zela aurreko 1992-1995 zikloan hasitako beherakada; beraz, enplegu maila bereziki baxua zen eta, ondorioz, langabezia-tasak orduan ezagutu zuen azken hamarkadetako mailarik altuena (% 25 1994an).


10. irudia. Biztanleria aktiboa eta enplegua Gipuzkoan eta Tolosaldean (1986-2015)



Iturria: Eustat (Biztanleria eta Etxebizitza errolda eta estatistika; 2015, Biztanleria aktiboari buruzko udal inkesta).

Oharrak: Marra jarraituetan Gipuzkoako egoera erakusten da eta ezkerreko eskala erabili da; marra etenak berriz Tolosaldeari buruzkoak dira, eskuineko eskala erabilia.

11. irudia. Jarduera eta enplegu tasa Gipuzkoan eta Tolosaldean (1986-2015)



Iturria: Eustat (Biztanleria eta Etxebizitza errolda eta estatistika; 2015, Biztanleria aktiboari buruzko udal inkesta).

Oharrak: Marra jarraituak Gipuzkoari buruzkoak dira eta marra etenak, berriz, Tolosaldeari buruzkoak.

Jardueraren eta enpleguaren bariazioa Tolosan positiboagoa izan zen Gipuzkoan baino eta EAE osoan baino. Biztanleria landuna % 34 igo zen, Gipuzkoan % 28 eta EAEn % 31 igo zen bitartean. Biztanleria okupatuaren gehikuntza Villabona inguruan bildu zen, % 48ko hazkundeaz, eta tasa hori nabarmen altuagoa da eskualde osoan izandako mailarekin alderatuta. Bai Tolosa inguruan eta bai Tolosa-Ibarra konglomeratuan okupazio-tasa eskualdeko batez bestekoa baino gutxiago igo da, nahiz eta oraindik ere Gipuzkoako batez bestekoa baino altuxeagoa den.

16. taula. Jarduera eta enplegua lurralde esparruka (1996-2015)

Lurralde esparrua	Biztanleria aktiboa			Biztanleria okupatua		
	1996	2015	Bariazio % 1996-2015	1996	2015	Bariazio % 1996-2015
EAE	898.278	1.074.244	19,6	689.100	900.849	30,7
Gipuzkoa	295.926	348.879	17,9	233.028	298.800	28,2
Tolosako EF	19.032	23.026	21,0	14.874	19.976	34,3
Tolosa ingurua	13.978	16.422	17,5	10.994	14.259	29,7
Villabona ingurua	4.935	6.453	30,8	3.775	5.576	47,7
Tolosa-Ibarra	9.742	11.266	15,6	7.539	9.733	29,1
Villabona-Zizurkil	3.662	4.212	15,0	2.754	3.590	30,4
N-len korridorea	15.580	18.698	20,0	11.940	16.108	34,9
Gainontzekoa	3.333	4.177	25,3	2.829	3.727	31,7
>800 bizt. udal.	16.672	19.963	19,7	12.877	17.261	34,0
<800 bizt. udal.	2.241	2.912	29,9	1.892	2.574	36,0

Iturria: Eustat, Biztanleria eta Etxebizitza estatistika (1996) eta Biztanleria aktiboari buruzko udal inkesta (2015).

Okupazioaren hazkunderan ikusten den diferentzia horren arrazoia, neurri batean behintzat, Villabona inguruaren dinamismo demografiko handiagoa da, izan ere 1996tik 2015era biztanleria % 21 hazi baita, Tolosa inguruan hazkunde hori % 6 izan den bitartean. Azpimarratu behar da bi burutza-aglomerazioetan igoera berdintsua eman dela, bai enpleguan eta bai jardueran; beraz, bi aldagai horiek Villabona inguruan portaera hobea izan badute, eremu horretako udalerrri txiki batzuen bilakaera positiboaren ondorioz izan da; bereziki Iruran eta Larraulen, baina baita Adunan ere, neurri apalagoan izan arren.

Eskualdeko udalerrri txikienetan okupazio-igoera eskualdearen osotasunean baino sendoagoa izan da, eta hori jarduera eta langabezia tasetan ikusten da, bi puntu positiboagoak Tolosaldeko batez bestekoa baino. Nolanahi ere, eskualdeko lurralde esparruen artean ikusten diren aldeak ez dira oso deigarriak.

2.2.2.b. JARDUERA EKONOMIKOAREN PRODUKZIO EGITURA

Tolosaldeko Eremu Funtzionalean bizi den biztanleriaren egitura sektoriala Gipuzkoako batez bestekoaren antzeko samarra da, baina baditu bereizgarri batzuk, hala nola industria-espezializazio handiagoa, paperaren sektorearen pisua eta zerbitzu-jardueraren presentzia urriagoa, produkzio zerbitzuetan eta enpresentzako zerbitzuetan batez ere.

17. taulak Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko udalerrien egitura sektoriala aurkezten du, produkzio-jardueraren arlo nagusien arabera: nekazaritza, industria, eraikuntza, merkatuko zerbitzuak (merkataritza, ostalaritza, garraioa, finantza zerbitzuak, profesionalak eta antzekoak) eta zerbitzu pertsonalak nahiz gizartekoak (hezkuntza, osasuna, administrazio publikoa, zerbitzu pertsonalak eta abar). Datuak 2011ko urtearen bukaera aldekoak dira, ordukoa baita biztanleriaren produkzio-jarduerari buruzko azken estatistika xehatu eta berezia. Zerbitzuetan daude Eremu Funtzionaleko enplegu guztietatik % 60 baino gehiago, eta horiek duten pisua eremuko 28 udalerrietatik 5etan besterik ez da jaisten biztanleriaren % 50etik (balio txikiena Amezketan ikusten da, hirugarren sektoreko okupazioa % 43koa baita; eta industriaren parte-hartze handiena ere bai, % 43 horretan ere). Industriak (manufaktura-jarduerak ez ezik, erauzketa eta energia-jarduerak ere hartzen ditu bere baitan) eskualdeko enpleguaren % 30 hartzen du, eta Gaztelun baino ez da jaisten % 20tik.

Nekazaritzaren eta eraikuntzaren pisua erratikoagoa da. Nekazaritza, abelazkuntza eta basogintza jarduerak eskualdeko enplegu osoaren % 1,4 dira; sektore honetan lanean ari den biztanleria erdia baino gehixeago murriztu da 1996 eta 2011 bitartean (586 pertsonatik 272 pertsonara). Hala ere, oraindik ere jarduera honetan dihardu eskualdeko 4 udalerritan lanean ari den biztanleriaren % 5 baino gehiagok, eta udalerririk horietako 2tan (Orendain eta Orexa) % 10etik gora dira. Edonola ere, Asteasuko salbuespena kenduta, 300 biztanlera ozta-ozta iristen diren udalerririk txikiak dira.

Eraikuntza-jarduerak eskualdeko enplegu osoaren % 8 hartzen du eta % 15eko kota gaitzen du 3 udalerritan (Gaztelu, Belauntza eta Baliarrain). Sektore honetako enpleguak portaera ziklikoa izan ohi du, Tolosaldearen kasuan antzematen den bezalaxe: hedatze fasean eman da parte-hartzerik handiena (enplegu osoaren gaineko % 9,6 eta % 9,7, hurrenez hurren, 2001ean eta 2006an), eta parte-hartze motelagoa atzeratze-fasean (% 8,6 eta % 8,0 hurrenez hurren, 1996an eta 2011n). Termino absolutuetan, sektore honetan 1.560 pertsona ari ziren 2011n; hori nabarmen baxuagoa da 2006an emandako gehieneko balioarekin (1.940 pertsona) alderatuta, baina 1996ko 1.280ko kopurua baino dezente handiagoa, hala ere.

17. taula. Okupazioaren egitura sektoriala udalerrira (2011)

Udalerrria	Zona	Biztanleria okupatua	Okupatu % sektoreka				
			Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Merkatu zerbitzuak	Zerbitzu perts./soz.
Abaltzisketa	1	133	5,3	34,6	12,8	29,3	18,0
Aduna	2	224	1,3	26,8	9,8	38,4	23,7
Albiztur	1	126	3,2	31,0	11,1	33,3	21,4
Alegia	1	745	0,7	33,2	8,2	31,9	26,0
Alkiza	2	156	3,2	33,3	10,9	28,8	23,7
Altzo	1	159	1,9	27,7	5,7	34,0	30,8
Amezketza	1	392	3,1	43,4	10,2	21,4	21,9
Anoeta	1	785	1,5	31,0	8,3	35,0	24,2
Asteasu	2	668	5,4	24,1	9,9	41,0	19,6
Baliarrain	1	58	1,7	32,8	15,5	24,1	25,9
Belauntza	1	137	2,9	26,3	17,5	34,3	19,0
Berastegi	1	464	2,6	32,8	14,2	27,4	23,1
Berrobi	1	226	2,7	40,3	5,8	33,2	18,1
Bidania-Goiatz	1	234	4,3	29,9	13,2	33,3	19,2
Elduain	1	103	1,9	37,9	5,8	32,0	22,3
Gaztelu	1	73	4,1	15,1	19,2	35,6	26,0
Hernalde	1	169	3,0	26,6	14,8	32,0	23,7
Ibarra	1	1.732	1,0	31,5	8,0	34,3	25,2
Ikaztegieta	1	180	1,1	36,1	7,2	36,1	19,4
Irura	2	798	0,4	32,6	6,3	36,0	24,8
Larraul	2	118	3,4	22,0	12,7	33,9	28,0
Leaburu	1	152	2,0	29,6	13,2	30,9	24,3
Lizartza	1	255	1,2	40,0	8,2	24,3	26,3
Orendain	1	84	13,1	20,2	10,7	29,8	26,2
Orexa	1	54	13,0	24,1	3,7	25,9	33,3
Tolosa	1	7.648	0,7	27,5	6,1	35,7	30,1
Villabona	2	2.434	1,0	30,8	8,7	36,7	22,8
Zizurkil	2	1.169	1,3	27,5	10,0	37,1	24,1
Tolosaldea		19.476	1,4	29,6	8,0	34,8	26,1

Iturria: Eustat, Biztanleria eta Etxebizitza errolda (2011)

Oharra: Zona-kodeak Tolosa (1) edo Villabona (2) adierazten du. Letra etzan eta lodiz idatzitako udalerririk N-I errepidearen korridorean daude.

18. taulan enpleguaren egitura sektorialak 1996tik 2011ra izan duen aldaketa aurkezten da, bai eremu funtzional osorako bai aztertu diren lurralde eremuetarako. Zerbitzuen sektoreak Tolosa inguruan izan duen enpleguaren gorakada askoz handiagoa da EAE osoan eta Gipuzkoan epealdi berean izandakoa baino. Hala eta guztiz ere, hirugarren sektoreko okupazioak Tolosaldean duen partaidetzak Gipuzkoako eta EAEko batez besteko mailaren azpitik segitzen du (7,5 eta 10,7 puntu, hurrenez hurren). Gabezia hori

bereziki gordina da produkzio zerbitzuen eta enpresentzako zerbitzuen sektoreetan (jarduera ekonomikoen estatuko sailkapeneko 21 sektoreri erantsitako H, K, J eta L kodeak). Tolosaldeak, sektore horietan, Batasuneko batez bestekoaren % 70etik beherako maila zuen 2011n.

Tolosaldean industrian eta eraikuntzan ari den biztanleria okupatu edo landunak, 1996 eta 2011 bitartean, zertxobait gora egin du (7.070 pertsonatik 7.330 pertsonara igo da). Aldiz, Gipuzkoan eta EAEn joerak kontrako bidea egin du, % 6 eta % 8 galduz hurrenez hurren (sektorearen pisuak izan duen galera orokorra enpleguaren gorakada orokorrarekin konpentsatu da). Saldo positiboa ondorioztatu da nahiz eta, krisialdi ekonomikoa dela-eta, 2006 eta 2011 bitartean enplegua nabarmen galdu den. Hain zuzen, Tolosaldean industrian okupatutako biztanleriak behera egin du: 8.630 pertsona 2006an (gehienekoa) eta 7.330 landun 2011n. Dena den, eskualdeak argi eta garbi Gipuzkoak eta EAEk baino industria-espezializazio altuagoa erakusten jarraitzen du.

18. taula. Okupazioaren egitura sektorialaren bilakaera (1996-2011)

Lurralde esparrua	Nekazaritza			Industria eta eraikuntza			Zerbitzuak		
	Bizt. okup. %		Bar. %	Bizt. okup. %		Bar. %	Bizt. okup. %		Bar. %
	1996	2011	1996-2011	1996	2011	1996-2011	1996	2011	1996-2011
EAE	2,4	1,0	-43,5	38,7	27,3	-8,1	58,9	71,7	58,5
Gipuzkoa	2,4	0,9	-53,6	41,1	30,6	-6,0	56,4	68,5	53,6
Tolosako EF	3,8	1,4	-51,9	47,5	37,7	3,7	48,7	61,0	64,0
Tolosa ingurua	3,1	1,3	-46,9	47,2	37,4	-0,7	49,7	61,3	54,5
Villabona ingurua	5,9	1,6	-59,4	48,5	38,2	16,3	45,6	60,1	94,4
Tolosa-Ibarra	1,5	0,7	-40,0	45,2	34,7	-4,6	53,3	64,6	50,9
Villabona-Zizurkil	3,0	1,1	-51,2	50,5	38,8	0,5	46,5	60,1	69,1
N-len korridorea	2,0	0,9	-42,7	47,1	36,5	2,1	51,0	62,6	61,7
Gainontzekoa	11,3	3,7	-58,3	49,5	42,4	10,0	39,3	53,9	76,0
>800 bizt. udal.	2,9	1,1	-48,9	47,5	37,0	1,8	49,6	61,9	63,0
<800 bizt. udal.	9,8	3,1	-57,4	47,6	41,7	15,8	42,6	55,2	71,2

Iturria: Geuk egina Eustaten datuetan oinarrituta (Biztanleria eta Etxebizitza errolda, 1996 eta 2011).

Tolosa-Ibarrako hiriguneak eremu funtzional osoko hirugarren sektoreko espezializaziorik handiena azaltzen du (% 65), baina Gipuzkoako eta Euskal Autonomia Erkidegoko batez bestekoa baino txikiagoa da oraindik ere (% 69 eta % 72 hurrenez hurren). Ildo horretan, interesgarria da ikustea hirugarren sektorearen pisu-irabazi handiena, 1991 eta 2011 bitartean, Villabona-Zizurkilek osatutako burutzan izan dela, nahiz eta oraindik ere industria-espezializazio nabarmenagoa erakusten duen Tolosa-Ibarra konglomeratuak baino. Izan ere, Tolosa da eskualdeko udalerrien artean zerbitzuek biztanleria

okupatuaren gainean % 65etik gorako partaidetza-kota ematen duen bakarra. Aldiz, Ibarra eta Villabona ez dira % 60ko kotara iristen zerbitzuetan, eta % 30etik gorako kota dute industrian.

Eta interesgarria da ikustea biztanleria okupatuaren sektorekako konposizioak, berriro ere, agerian uzten duela Eremu Funtzionalaren barnean lurraldeen arteko ezberdintasunak murrizteko joera. Udalerrri txikiak eta N-len korridoretik urrunen daudenak dira hirugarren sektoreko okupazioan igoera handiena erakusten dutenak, Villabona-Zizurkilgo aipatutako kasuarekin batera. Gogorazi behar dugu biztanle egoiliarren okupazioaz ari garela, eta ez enpleguaren lurralde kokapenez. Tolosaldearen dimentsio eta ezaugarriak kontuan hartuta, bi magnitude horien artean alde handiak egon daitezke, udal banaketari dagokionez.

19. taulak Tolosaldeko Eremu Funtzionalako udalerrietako produkzio establezimenduen egitura erakusten du, 2016ko urtearen hasierakoa. Horrela, modua izango dugu eremu bakoitzean kokatutako produkzio egitura antzemateko, biztanleria okupatu egoiliarraren produkzio jarduera ikusi beharrean. Informazio hau Eustaten Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendatik atera da, eta hainbat muga ditu beste iturri batzuekin alderatzeko. Muga hauen sorburuan jarduera batzuk (nekazaritzakoak eta etxe-zerbitzuak esate baterako) kanpoan utzi izana dago, eta produkzio establezimendu multzoaren estalduran gertatu diratekeen bariazioak (prozesu administratiboan eta depuratze lanen ondorioz)*.

Ikus daitekeen bezala, produkzio establezimenduen erdia Tolosan eta Villabonan dago, nahiz eta bi udalerrri horiek eskualdeko enpleguaren % 44 bakarrik hartzen duten. Alde horren arrazoia zerbitzuetara bideratutako establezimendu gehiago izatea litzateke. Zerbitzu establezimenduen batez besteko tamaina txikiagoa izaten denez, batez besteko enplegua, bi udalerrri horietan, 3,8 eta 3,7 pertsonakoa da establezimenduko, argi eta garbi baxuagoa eskualdeko batez bestekoa baino (4,4 pertsona).

* Para el conjunto de la CAPV puede estimarse la cobertura del Directorio de Actividades Económicas en 94% del empleo total a partir de la comparación con el dato suministrado por la Estadística Municipal de Población Activa de 2015. Curiosamente, esta cobertura es bastante más reducida que la calculada para 2010 o la resultante de la comparación con el Censo de Población y Vivienda de 2011 (cobertura en torno al 97%).

19. taula. Produkzio establezimenduak udalerrika (2016)

Udalerrria	Zona	Enplegua		Establezimenduak				
		Guztira	Batez beste	Guztira	Enplegua 20+	Establ. % enpleguaren arabera		
						0-5	6-19	20+
Abaltzisketa	1	94	2,6	36	1	91,7	5,6	2,8
Aduna	2	773	7,7	100	9	62,0	29,0	9,0
Albiztur	1	120	3,4	35	1	88,6	8,6	2,9
Alegia	1	477	3,7	129	5	88,4	7,8	3,9
Alkiza	2	74	1,9	39	0	94,9	5,1	0,0
Altzo	1	293	6,4	46	3	80,4	13,0	6,5
Amezketza	1	368	3,5	105	3	95,2	1,9	2,9
Anoeta	1	721	5,4	134	7	80,6	14,2	5,2
Asteasu	2	1.142	5,8	197	12	77,2	16,8	6,1
Baliarrain	1	33	2,5	13	0	84,6	15,4	0,0
Belauntza	1	339	5,5	62	4	82,3	11,3	6,5
Berastegi	1	305	3,3	93	2	96,8	1,1	2,2
Berrobi	1	96	3,2	30	0	83,3	16,7	0,0
Bidania-Goiatz	1	132	2,6	50	1	94,0	4,0	2,0
Elduain	1	75	4,2	18	1	83,3	11,1	5,6
Gaztelu	1	24	1,3	19	0	100,0	0,0	0,0
Hernalde	1	40	1,8	22	0	95,5	4,5	0,0
Ibarra	1	1.529	5,9	261	12	84,3	11,1	4,6
Ikaztegieta	1	273	5,9	46	4	84,8	6,5	8,7
Irura	2	1.016	6,2	163	9	87,1	7,4	5,5
Larraul	2	85	2,8	30	1	96,7	0,0	3,3
Leaburu	1	178	4,5	40	3	80,0	12,5	7,5
Lizartza	1	234	4,7	50	3	82,0	12,0	6,0
Orendain	1	42	2,3	18	0	94,4	5,6	0,0
Orexa	1	25	2,8	9	0	77,8	22,2	0,0
Tolosa	1	6.146	3,8	1.610	47	89,4	7,6	2,9
Villabona	2	1.348	3,7	368	13	90,5	6,0	3,5
Zizurkil	2	1.075	5,6	192	14	80,7	12,0	7,3
Tolosaldea		17.057	4,4	3.915	155	87,0	9,0	4,0

Iturria: Eustat, Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (2016)

Oharra: Zona-kodeak Tolosa (1) edo Villabona (2) adierazten du. Letra etzan eta lodiz idatzitako udalerrriak N-I errepidearen korridorean daude.

Establezimendu handienak banatu samarrak daude lurraldean zehar. Hain zuzen, 2016an, 100 langile baino gehiagoko establezimenduak Eremu Funtzionaleko 9 udalerritan banatuak zeuden. Tolosa zen zerrendaren buru 6 establezimendurekin (horien artean, 250 langiletik gora dituen enpresa bakarra), hurren Ibarra eta Irura, bakoitza 2

establezimendurekin, eta gero Amezketa, Anoeta, Asteasu, Berastegi, Villabona eta Zizurkil, bakoitza establezimendu batekin.

20. taulan informazio bera ikus daiteke, analisisan erabili diren lurralde-esparruetarako informazioari erantsita. Taula horretan nabarmentzen diren alderdien artean, esparru ezberdinen arteko homogeneotasuna aipa daiteke, eta establezimenduen tamaina Gipuzkoa eta EAEkoen batez bestekoa baino txikiagoa izatea, nahiz eta Tolosaldearen industria-espezializazioa aipatzekoa den.

20. taula. Produkzio establezimenduak lurralde esparruka (2016)

Udalerrria	Enplegua		Establezimenduak				
			Guztira	Enplegua 20+	Establ. % enpleguaren arabera		
	Guztira	Batez beste			0-5	6-19	20+
EAE	854.114	4,9	175.674	6.438	88,0	8,3	3,7
Gipuzkoa	287.022	4,8	59.907	2.165	87,7	8,7	3,6
Tolosako EF	17.057	4,4	3.915	155	87,0	9,0	4,0
Tolosa ingurua	11.544	4,1	2.826	97	88,4	8,2	3,4
Villabona ingurua	5.513	5,1	1.089	58	83,6	11,1	5,3
Tolosa-Ibarra	7.675	4,1	1.871	59	88,7	8,1	3,2
Villabona-Zizurkil	2.423	4,3	560	27	87,1	8,0	4,8
N-Ien korridorea	13.358	4,4	3.003	120	87,0	9,0	4,0
Gainontzekoa	3.699	4,1	912	35	87,2	9,0	3,8
>800 bizt. udal.	14.127	4,3	3.252	124	87,8	8,4	3,8
<800 bizt. udal.	2.930	4,4	663	31	83,6	11,8	4,7

Iturria: Geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendako (2016) datuak baliatuta.

Eskualdearen industria-espezializazioa eta industriaren establezimenduen batez besteko neurri handiagoa baditugu ere, Tolosako eskualdeak Gipuzkoako eta EAEko batez bestekoa baino % 10 inguru txikiagoa. 21. taulak xehetasun handiagoz erakusten ditu Tolosaldeko egitura sektoriala eta sektore ezberdinetako establezimenduen batez besteko tamaina, nekazaritzako jarduerak alde batera utzita.

Normala den bezala, industria-sektoreak du batez besteko tamainarik handiena, baina Gipuzkoako eta EAE osoko batez bestekoa baino txikixeagoa da (13,4 enplegatu establezimenduko, inguruan 14,4 diren bitartean). Azpimarratu behar da, Tolosaldeko produkzio-establezimenduak txikiagoak direla, batez beste, Gipuzkoakoak edo Euskal Autonomia Erkidegokoak baino, ia-ia produkzio-sektore guztietan.

Diferentziala bereziki altua da informazio eta komunikazio jardueretan, horiei dagokienez Tolosaldeko establezimenduen neurria halako 2,5 bider eta 3 bider handiagoa baita, hurrenez hurren, Gipuzkoako eta EAEn batez bestekoa. Zerbitzu profesionalen sektoreak ere neurritz txikiagoak dira, ingurukoekin alderatuta (% 30-40 txikiagoak). Alabaina, diferentziala % 20 inguru murrizten da honako sektoreetan; zerbitzu pertsonalak, merkataritza, garraioa eta ostalaritza, finantza zerbitzuak, administrazio publikoa, osasuna eta hezkuntza.

21. taula. Produkzio establezimenduak sektoreka eta neurrika, Tolosaldean (2016)

Sektorea	Establ. guztira	establezimendu %				Enplegua batez beste		
		0-2	3-9	10-49	50+	Tolosa	Gipuzko a	EAE
01. Merkataritza eta abelazkuntza	351	84,3	15,4	0,3	0,0	1,7	2,1	2,1
02. Industria eta energia	482	42,9	27,0	24,7	5,4	13,4	14,4	14,4
03. Eraikuntza	477	85,7	10,3	4,0	0,0	2,3	2,2	2,5
04. Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	1.424	74,9	20,9	4,2	0,1	2,7	3,4	3,3
05. Informazioa eta komunikazioak	38	84,2	10,5	5,3	0,0	1,9	4,8	6,3
06. Finantza zerb. eta aseguruak	76	65,8	28,9	5,3	0,0	2,8	3,5	3,8
07. Higiezin zerbitzuak	49	93,9	6,1	0,0	0,0	1,5	1,5	1,6
08. Zerbitzu profesionalak	387	84,2	11,6	3,9	0,3	2,4	3,6	4,3
09. Administrazio publikoa, osasuna eta hezkuntza	371	61,5	21,3	12,4	4,9	8,8	10,6	10,9
10. Aisia zerbitzuak	260	81,5	15,0	3,5	0,0	2,2	2,8	2,8
Guztira	3.915	73,4	18,4	7,0	1,2	4,4	4,8	4,9

^a Establezimenduen batez besteko enplegua Eustatek definitutako Tolosaldeko eskualdeari buruzkoa da; esparru horretan Legorretako udalerrria ere sartzen da, eremu funtzionalako 28 udalerriez gain. Akatsak ez du informazioa gehiegi desitxuratzen; izan ere, Legorreta establezimenduetatik % 2 besterik ez da, eta eskualde osoko enpleguaren % 3 baino gutxiago.

Iturria: Eustat, Jarduera Ekonomikoen Direktorioa (2016)

Maila bereziago batean, Tolosaldeko industriak papergintzaren sektorean duen espezializazio maila handia aipa daiteke. 2016an Tolosaldeko Eremu Funtzionalak, 27 establezimendurekin, EAEn papergintzaren sektoreko produkzio 117 establezimenduetatik ia-ia laurden bat hartzen zuen (CNAE 17). Proportzio hori % 42ra igotzen zen paperezko artikuluen fabrikazioan (CNAE 1723), eta % 37ra paper eta kartoi fabrikazioan (CNAE 1712). Aipamen berezia merezi du paper eta kartoi industriarako makinariaren fabrikazioak (CNAE 2895), bere 13 establezimenekin Tolosaldeak hartzen baitu, sektore honetan, EAE osoaren % 75etik gora.

2.2.2c. GARAPEN ESTRATEGIA

Tolosaldeko Eremu Funtzionalerako garapen ekonomikoko estrategia baten lerro nagusiak identifikatzeko garaian, abiapuntuko egoera karakterizatzea eta ahalmenak eta alderdi ahulak identifikatzea komeni da. Karakterizazio horren ezaugarri azpimarragarrienak honakoak dira:

- Eremua industria-jardueran espezializatu da nabarmen, eta horren barruan, metal eta mekanika sektoreetan. Ekonomia heldu guztietan bezala, nagusitasun horrek beherako joera du, baina erronka bati egin behar dio aurre; hain zuzen ere, gero eta handiagoa den Europako integrazioa eta mundu mailako globalizazioa egokitu behar du industri-jarduera.
- Jarduera ekonomikoaren hirugarren sektorerako joera historikoa agerikoa da Tolosako Eremu Funtzionalan ere: zerbitzuen sektoreko enplegua, 1996. urtean, guztiaren % 49 ingurukoa zen, eta 2011. urtean % 61 izatera iritsi zen. Joera horrek jarraipena izango du hurbileko etorkizunean, eta ezinbestekoa izango da hirugarren sektoreko askotariko jarduera orekatua garatzea, sistema ekonomikoaren osotasunaren produktibitate orokorra sustatuko duena.
- Iragan historikoak hirigune garrantzitsu gisa konfiguratu du Tolosa, eta bere funtzionaltasuna bere pisu demografikotik eta ekonomikotik etorritakoa baino handiagoa da. Hierarkia-maila hori, gainera, Oria ibaiaren haranaren erdian kokatuta egotean eta, neurri batean, gipuzkoar lurraldean bertan egotean sostengatzen da, errepidez eta trenbidez duen irisgarritasun bikainean bezalaxe. Tolosako merkatal eta kultur eginkizunek Eremu Funtzional hau bereizi egiten dute Gipuzkoaren testuinguruan.
- Eremu Funtzionalaren zati handi bat atzeraldi demografiko luzea jasan duten eta gaur egun nolabaiteko nekazaritza-jarduera mantentzen duten udalerrri landatar txikiek okupatzen dute. Udalerrri horietako gehienek zailtasunak dituzte oinarrizko zerbitzuen arrazoizko eskaintza mantentzea ahalbidetuko dieten gutxieneko masa kritikoa lortzeko. Oria ibaiaren arroko bigarren mailako haranetan kokatuta egoteak, halaber, garraio-sare nagusirako irisgarritasuna mugatzen die.
- Dinamika demografikoak, produkzio jardueren kokapenak eta zerbitzuetarako sarrerak hainbat diferentzia eragin dituzte N-I errepidearen korridorearen inguruan

kokatutako gune urbanoen eta landa izaera nabarmeneneko udalerrien artean. Azken urteotan, ordea, konbergentzia argia ikusten da, udalerrri txikiaren dinamismo handiagoaren ondorioz. Bestalde, Villabona inguruak dinamismo ekonomiko eta demografiko handiagoa erakutsi du azken 15 urteetan Tolosako udalerrriak eta honen inguruneak baino. Faktore horrek eskualdeko kohesioaren pixkanakako ahultzea eta Villabonako eremuaren Donostiako eragin-eremuranzko prozesu zentrifugoa iragar lezake.

- Eremu funtzionalaren erliebeak berak eta zeharkatzen duten garraio-azpiegituren presioak ezarritako mugek Tolosaldeko Eremu Funtzionalaren hedapen demografiko eta ekonomikorako ahalmena baldintzatzen dute. Jarduera ekonomikoetarako eta bizitegi jardueretarako behar besteko lurzorua garatzea da Eremu Funtzionalaren hazkundeari eusteko erronka baldintzatzaileetako bat.
- Eremu Funtzionalak garapen-agentzia du (Tolosaldea Garatzen, SA) 1994az geroztik. Elementu hori faktore erabakigarria izan daiteke eskualdearen hazkunde antolatu eta iraunkorraren plangintzan eta sustapenean. Apattaerreka industria-poligonoaren garapena eta eskualdea berritzeko zentroa, Lehiberri, martxan jartzea izan dira, ziurrenik, orain arte garatu diren proiektu nagusiak, baina agentziaren jarduera eskualdearen garapena ziurtatzeko hori bezain erabakigarriak diren beste arlo batzuetara hedatzen da: prestakuntza eta enplegua, turismoa dinamizatzea eta sustatzea, enpresa-ekimen berriak bultzatzea, enpresei zerbitzuak ematea, zerbitzu erkidetuak sustatzea, etab.

Eremu Funtzionalaren egitura demografiko eta ekonomikoaren karakterizazio horren aurrean, honako ardatz hauen inguruan artikulatzen den garapen-estrategia planteatzen da:

- ✓ Eskualdeko industri-ehuna bultzatzea, Lehiberri foroak uztartzen dituen lau ardatz hauen bitartez:
 - *Elkarlana*: Tolosaldeko enpresen % 93 mikroenpresa txiki eta ertainak dira, 10 langile baino gutxiagokoak, eta horrek izugarri mugatzen du proiektu berriei ekiteko edota merkatu globalean lehiatzeko aukera. Enpresa osagarrien arteko elkarlana bultzatzeak, tamaina handiagoko erronkei ekiteko bidean lagundu behar luke.

- *Nazioarteratzea*. Eskualdeko enpresei merkatu berrietara irekitzen laguntzea.
 - *Barne-ekintzailletza/dibertsifikazioa*. Eskualdeko enpresa txiki gehienek gaur egun duten azpikontratista izaera murrizten lagunduko duten produktu eta zerbitzu berriak bilatzea etengabe.
 - *Eskualdeko enpresetan prestakuntza bultzatzea eta kudeaketa profesionalizatzea*.
- ✓ Azken hamarkadetan mikropoligono sarea egituratu da. Mikropoligono horiek ikuspegi lokaletik eraiki dira, zerbitzu lagungarri gutxiarekin eta irisgarritasun arazoekin; horrek garapena eragotzi du, bai eta poligonetan kokatutako enpresa-proiektuen jarraipena ere. Aukera bideragarri bakarra, etorkizunari begira, eskualde mailan kudeaketa urbanistiko eta ekonomikoa egitea da (Apattaerreka industrialdearen antzera), industri-asetamendu berrien kopurua minimizatuz eta lehendik badauden industrialde handiagoak modernizatzeari lehentasuna emanez.
- ✓ Zerbitzu-sektorearen etengabeko garapena, kuantitatiboa zein kualitatiboa, sustatzea. Jarduera horien garrantziak gora egiten jarraituko du etorkizunean. Izan ere, alde batetik biztanleria landun gehienari enplegua eta errenta emango dizkiete eta, bestetik, produkzio-jardueraren eraginkortasuna eta biztanleriaren bizi-baldintza orokorrak hobetzeko etengabeko prozesua bermatuko dute. Ildo horretan, Tolosaldearen kasuan interes berezia duten hirugarren sektoreko esparru batzuk nabarmendu beharra dago:
- Tolosako udalerriko merkataritza eta kultur jarduerak garatzea, gaur egungo garapen-maila aprobetxatuz eta eskualdeko eta eskualdeaz gaindiko funtzioetara egokitzea bilatuz.
 - Eskualdean prestakuntza-jarduerak hobetzea, papergintzaren sektorera eta landa-garapenera zuzendutakoak batik bat.

- Enpresentzako zerbitzuak sustatzea, sektore erabakigarria baita industria-produktibitatea hobetzeko eta eskualdearen produkzio-egiturari nolabaiteko autonomia-maila ziurtatzeko.
 - Udalerrri txikienetako biztanleei oinarrizko zerbitzu pribatu zein sozialen maila egokia bermatzea.
- ✓ Ingurune naturala bultzatzea, eskualdearen ondare komunaren zati garrantzitsua baita oraindik ere. Ongi zaindutako ingurune naturalak eta horiei loturiko landa-jardueren garapenak eginkizun benetan garrantzitsua bete dezakete udalerrri txikietarako dibertsifikazio ekonomikoko elementu gisa, eta eskualdeaz kanpoko eskaria erakartzeko faktoreak izan daitezke, bereziki Donostiako hiri-konurbazioan sortutako aisia-eskaria erakartzeko.
- ✓ Aurreko horren osagarri gisa, egokia izan daiteke espezializazio sektorial eta okupazio-tipologia egokiak sustatzea (lurzoru gutxi okupatu eta ingurune naturala errespetatzen dutenak) produkzio-jardueraren zein bizitegi-ekipamenduen esparruan. Okupazio-irizpideak ingurune zehatzera egokitu beharko lirarteke kasu bakoitzean, ezin baitira inondik inora konparatu N-I errepidearen korridoreko hiriguneen baldintzak eta udalerrri txikien landa-esparruei aplikatzekoak.
- ✓ Eskualdea N-I errepideari lotutako komunikazio-ardatzean kokatuta egoteak eta horren ondorio den irisgarritasun onak eskaintzen dituen abantailak aprobetxatzea. Azpimarratu beharra dago kokapen horrek balizko mehatxua ere planteatzen duela, eskualdearen egitura ekonomikoa eta soziala ahultzen duten indar zentrifugoen jokia ahalbidetzen du-eta. Lurralde-ikuspegitik alderdi bereziki garrantzitsua da Tolosa-Ibarrako hirigunea pixkanaka eskualde osoko burutza funtzional gisa finkatzea, Villabona-Zizurkilgo garapena norabide horretan baskularazten ahaleginduz, bai geografikoki bai funtzionalki.

2.3. KOMUNIKAZIO ETA GARRAIO SAREAK ETA OINARRIZKO AZPIEGITURAK

2.3.1. KOMUNIKAZIO ETA GARRAIO SAREAK

Bide egitura, errepide sarea eta trenbide sarea antolatzeko arazoa ezin da Eremu Funtzionalaren beraren ikuspegitik soilik aztertu; behar-beharrezkoa da lurralde historikoaren mailako ikuspegia eta analisisa eta are goragoko mailakoa ere aintzat hartzea, eremu funtzionalen artean dagoen bide-erlazioa ulertu nahi bada. Izan ere, erlazio horren sostengu diren lehentasuneko intereseko sareak, oinarrizko errepide sarea eta trenbide sarea, lurraldea antolatzeko etorkizuneko proposamenaren elementu egituratzaileak baitira.

2.3.1.a. GAUR EGUNGO SAREA ETA JARDUTEKO AURREIKUSPENAK

- **Gipuzkoako errepide sarearen konfigurazio orokorra.**

Lurralde historikoari dagokionez, bide egitura funtsezko bi korridoretan oinarrituta egituratzen da:

- Ekialde-mendebalde korridorea, A-8 autobideak eta N-634 errepideak osatzen dutena.
- Ipar-hego korridorea, N-I errepideak (Etxegarate eta Donostia artean) eta N-I errepideak berak eta A-8 autobideak (Donostia eta muga zaharraren artean) osatzen dutena.

Nafarroarekiko konexioak, Andoain-Irurtzun autobidaren bitartez, eta Deba haranean zeharreko ahalmen handiko ardatz berria (Europako E-80 ibilbidea, Lisboa-Paue) sortzeak, Urbina-Maltzaga autobidaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Gipuzkoako lurralde historikoko kanpo-konexio komun nagusiak osatuko dituzte.

Maila horretan, epe laburrean gaur egun eraikitzen ari diren Durango - Bergara - Beasain zeharkako ardatza sartu beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoan lehen mailako bide egituratzailearen eginkizuna beteko du eta.

Adierazitako korridoretan oinarrituta, mendeko sarea ezartzen da maila desberdinetako errepideen bitartez, eremu funtzional mugakideetako burutzak elkarrekin lotzeko.

Sare horren barruan aipatzekoa da, lurralde arteko konexio-ahalmenagatik (ahalmen aski ahulduta, egia esan, bere ezaugarri teknikoak eta segurtasuna eta erabilera-maila kontuan hartuta), Nafarroarekiko ekialdeko mugan Urto mendatetik abiatzen den bide-sekuentzia, Berastegi eta Tolosatik igarotzen dena (GI-2130 errepidea), eta ondoren, Errezil, Azpeitia eta Elgoibartik (GI-2634 errepidea), Markinarako GI-2636 errepidearekin konektatzeko eta, azkenik, Gernikara joateko (BI-2224).

- **Gipuzkoako trenbide sarearen konfigurazio orokorra.**

- Oriaren korridorea ipar-hego bide-ardatz nagusiaren euskarria da; honen barnean daude, N-1 autobiaz gain, gipuzkoar lurralde osoko trenbide azpiegiturarik garrantzitsuena, Madril - Paris ardatzaren parte berau, eta estatuak Europarekin trenbidez lotzeko dituen loturetako bat da halaber; horrenbestez, Gipuzkoak pribilegiozko kokalekua du europar trenbideen eskeman.

Madril-Irun linea horretan, ADIFek aldiriko trenbide-zerbitzua ustiatzen du Brinkola eta Irun artean. Zerbitzuen maiztasunari esker errepidean zeharreko garraioarekiko lehiakortasuna bermatzen du, Tolosaldea eta hiriburuaren artean ez ezik, Oria haranaren hondoan linealki kokatutako udalerrien beren artean ere.

Gipuzkoan aurreikusitako trenbide sare berriak –euskar "Y" deritzona, Akize-Gasteiz trazaduraren barruan, hiru hiriburuen arteko lotura ahalbidetzen duena– Eremu Funtzionalari dagokion luzera osoan zeharkatzen du Oria ibaiaren harana. Trazadura haranaren mendebaldeko mendi-mazelan bermatzen da eta zati handi batean tunelean igarotzea aurreikusten da.

Trenbide sare berria bidaiari zein salgai jakin batzuen garraiorako ustiatzeko dago pentsatuta. Ildo horretan, Pasaiaiko portuarekin konektatzeko adar bat aurreikusten da, dagokion terminalarekin, eta baztergunea Ezkion.

Gaur egungo trenbide sarea ibilbide luzeko zerbitzuez liberatuta, aldiriko zerbitzuak zabaltzeko eta zerbitzua egokiago egiteko aukera emango du.

- **Eremu Funtzionalako bide egitura.**

- Egitura geomorfologikoak –honen ezaugarri orokorrak elementu adierazgarrienak dira, hala nola Oria ibaiaren harana, ertzetako mazela aldapatsu samarrez nahiko

definitua bera, eta nagusiarekiko perpendikularrean dauden haran sekundario sakonak—izugarri baldintzatzen du egitura funtzionala, halako mailan ezen bide eskema, “arrain-hezur” baten antzekoa bera, neurri handian bat baitator haranaren itxura fisikoarekin.

Biztanle gehien duen Tolosaldeko aldeak, burutza (Tolosa) barne, Oria ibaiaren haranaren hondoan kokatzen da estrategikoki, baita Tolosaldea zeharkatzen duen bide-erborra ere, hau da, N-I errepidea. Errepide hori eta, bere paraleloan, Irun-Madril trenbidea dira eskualdeko Garraio eta Komunikazio Sistema nagusiak, eta iparralde-hegoalde fluxuak bideratzen dituzte. Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriaren trazadurak, haranaren ardatzarekiko paraleloan eta mendebaldeko mendimazelan bermatuta, indartu egingo luke komunikazio-kanal hori.

Bestalde, A-15 eta N-1 autobaien lotunea eta Durango-Beasain zeharkako ardatzaren lotunea hurbil daudenez gero —lehen a eremu funtzionalaren iparraldeko muturretik hurbil, eta bigarrena hegoaldeko muturretik hurbil—, eta bigarren mailako beste zeharkako konexioei esker, esparru hori oso irisgarritasun handikoa da.

Sistemako beste elementu garrantzi batzuk haranaren ardatzetik irteten diren edo esparrua ortogonalean zeharkatzen duten errepideak dira, horiek ere eremu funtzionala kanpoaldearekin erlazionatzen dute-eta. Lehenik, Nafarroarekin lotzeko bide zaharra dago, hau da, Lizartza eta Azpiroztik barrena bideratzen dena. Bigarren, eskualdeko sareko GI-2130 errepideak (Urto - Berastegi - Tolosa) eta GI-2634 errepideak (Tolosa - Azpeitia - Elgoibar, Albiztur eta Bidania-Goiatzetik barrena) osatzen duten bigarren mailako korridorea. Azken korridore horrek garrantzi handiagoa izan zuen garai batean, baina aukera osagarria izan daiteke —bere diseinua, ahalmena eta segurtasun-baldintzak zentzuz eta benetan hobetuta— arestian adierazitako lurraldearen ekialde-mendebalde egituraketan; baina, batez ere, elementu garrantzitsua izan daiteke herrialdearen funtzio integratuan eta lurralderako paisaia arloko sarbide gisa, landa-esparruak suspertzeko eta ingurune fisikoari lotutako baliabideak arrazionalki erabiltzeko estrategiaren barruan.

Tokiko sareak osatzen du bide-sistema. Oria ibaiaren haranetik bigarren mailako haranetara eta ardatz nagusiarekiko paraleloak diren muinoetan eta mazeletan dauden herrigune txikietara sartzeko bideek osatzen dute tokiko sarea eta, zenbaitetan, edertasun handiko muinoetan zeharreko ibilbideen zirkuituak egiten dituzte. Sekzio txikia eta topografiari egokitutako trazadura duten bideak dira, bihurtune askokoak.

Tokiko sare horretan, Villabona-Asteasu-Aia-Orio eta Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Zaldibia bideek bakarrik dute eskualdeaz kanpoko jarraitutasuna; dena den, haranaren hondoan eta iparralde-hegoalde ardatzean dauden gunek handietatik goialdeko gunek txikietara iristeko azpiegiturak dira. Bideak, eskuarki, gunek handi horietakoren batean elkartzen dira. Hala, gunek bakoitza tokiko sistema eta esparru baten polo edo elementu zentralizatzaile bihurtzen da. Horren ondorioz, kontuan hartu beharreko lurralde-egitura berezia agertzen da, hainbat polok osatzen dutena: Villabona, Irura-Anoeta, Tolosa, Alegia eta Ikaztegietak. Polo horiei loturik beren gunek txikiak daude, tokiko sare nolabait ere autonomo batek elkartzen dituenak, honako multzo hauek konfiguraturik:

- Villabonako poloa.
Aduna, Zizurkil, Asteasu, Larraul eta Alkiza. / (Zizurkilgo zirkuitua)
- Irura - Anoetako poloa.
Alkiza eta Hernialde. / (Anoeta-Alkiza-Villabona zirkuitua)
- Tolosako poloa.
Albiztur, Bidania-Goiatz.
Belauntza, Berrobi, Elduain, Berastegi.
Leaburu, Gaztelu.
Lizartza, Oresa.
Altzo.
- Alegiako poloa.
Altzo, Amezketeta, Abaltzisketa, Orendain. / (Amezketeta-Orendain zirkuitua)
- Ikaztegietako poloa.
Baliarrain.
- **Eremu Funtzionaleko errepideen zerrenda.**
 - Laburbilduz, eta EAeko Errepideen Bigarren Plan Orokorraren Berrikuspeneko kategorizazio funtzionala harturik erreferentzia, Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko bide egitura honela itxuratzen da:
 - IPAR-HEGO ARDATZA.
- **Lehentasunezko errepideen sarea.-**
 - N-1 errepidea.
Meseta eta Portugalekiko, eta Donostialde, Irun, Lapurdi eta Frantziarekiko lotura. Autobia gisa diseinatuta dago, eta gaur egun erabat saturatuta dago garraio astunaren eraginez.

Eskualde sarea.-GI-2131 errepidea

Luzerako ardatza, N-1 errepidearen paraleloan, Alegia eta Ordizia artean.

- ZEHARKAKO ARDATZAK.

Lehentasunezko errepideen sarea.-A-15 autobia.

Gipuzkoa - Nafarroa lotura (Andoain - Irurtzun).

Oinarrizko sarea.-

Tolosaldean ez dago kategoria honetako biderik.

Eskualde sarea.-GI-2130 errepidea (Urto-Berastegi-Tolosa).

Gipuzkoa - Nafarroa lotura zaharra, Leitzatik zeharrekoa. Trazadura eta sekzio eskasak.

GI-2130A

N-1 errepidearen eta Apattaerreka industrialdearen artean gaur egun, Ibarako saihebidetaren zati da eta, behin osatutakoan, Urto-Berastegi-Tolosa ardatzean txertatua geratuko da.

GI-2634 errepidea (Tolosa-Azpeitia-Elgoibar).

Urolaren haranarekiko lotura zaharra. Trazadura eta sekzio eskasak.

GI-2135 errepidea.

Gipuzkoa - Nafarroa lotura zaharra. Trazadura eta sekzio eskasak.

EAEko Errepideen Bigarren Plan Orokorraren Berrikuspenean, N-130 errepidea, lehenago Lehentasuneko Errepideen Sarean sartua bera, funtzionalitatez aldatu da, eta orain Eskualde Sarekoa izango da, GI-2135 izenez, Sare Funtzionalaren barnean mantenduz betiere.

Sare Funtzional horretatik aparte, badira elkarren ondoko eskualdeen arteko komunikazioa ahalbidetzen duten beste errepide batzuk; honakoak dira:

GI-2631 errepidea (Villabona-Asteasu-Aia)GI-2133 errepidea (Amezketeta-Abaltzisketa-Larraitz-Zaldibia)**Tokiko sarea.-**

Iparretik hegora, tokiko sarea osatzen duten errepideak honakoak dira:

- Aduna, Andoain eta Villabonatik.	GI-3610
- Zizurkil, Villabonatik.	GI-3282
- Larraul, Asteasutik.	GI-4751
- Amasa, Villabonatik.....	GI-4751
- Alkiza (eta Anoeta), Villabonatik	GI-3630
- Alkiza, Anoetatik.....	GI-3630
- Hernialde, Anoetatik.....	GI-3411
- Hernialde, Tolosatik	GI-3650
- Belauntza, Tolosa-Ibarratik	GI-3211
- Leaburu eta Gaztelu, Tolosa-Ibarratik.....	GI-3502
- Oresa, Lizartzatik.	GI-3502
- Altzo, Alegiatik.....	GI-3072
- Orendain, Alegiatik.....	GI-3670
- Ikaztegieta, Alegiatik	GI-2131
- Baliarrain, Ikaztegietatik	GI-3851

Egungo Komunikazio eta Garraio Sarea jasotzen duen planoan islatuta dago sistema hau

- **Bide eta erlazio sistemaren arazoak.**

- Erlazioari eta irisgarritasunari dagokienez, egungo bide sareak arazoak ditu, eta horietatik oinarrizko hainbat premia ondorioztatzen dira:


- a. N-1 autobiarene saturazioa.**

N-1 errepideak, autobia diseinukoa berau, trafikoaren intentsitatearen gorakada nabarmen bat ikusi du azken urteotan zehar, batez ere kamioiei dagokienez; horrenbestez, une askotan saturaziotik oso hurbil egoten da.

Zaila da arazoa egungo bidearen gainean esku hartuz zuzentzea, eta dirudienez lurralde-irismen handiagoko estrategia baten bidez ekin ahal izango zaio, Europa – Meseta – Portugal ibilbideko paserako trafiko sendoak banatuz nolabait.

Aurrerapenean esan bezala, irtenbidea A-8ren ahalmena handitzea, Donostiako bigarren ingurabidea egitea eta Maltzaga – Gasteiz autobidea erabat osatzea litzateke. Lan horiek guztiak eginak eta martxan daude dagoeneko, baina A-8 eta A-1 horietako bidesariak baldintzatu egiten du berorien erabilera.

Bide sarearen eta hiri sistemaren eskema.



b. Hiri-erlazio sistema haustea eta N-1 errepidean trafikoak nahastea.

N-1 autobia da Eremu Funtzionaleko barne erlazioak biltzen dituen lotura nagusi bakarra. Baina paserako trafiko biziaren, hots, dituen ezaugarriak direla eta inpaktu handiko, are arriskutsuko trafiko biziaren euskarria ere bada.

N-1 errepidea autobia bihurtzeak, izan ere haraneko hiriguneetako asko zeharkatzen zituen, hobekuntza ekarri zuen gune horietako trafikoan eta barne-bizitzan, ez dago zalantzarik, baina ez zen irtenbide osoa izan, zeren eta trazadura gainjarri egin zitzaion hiriarteko tarte zenbaiti, ordezkatzeko ordea; hala, banaketa eta sarbide sarea moztu edo eten egin zen bi puntutan, Villabona eta Irura artean iparrean, eta Tolosa eta Alegia artean hegoan. Gainera, industri asentamendu garrantzitsu batzuek, Iruratik Villabonarako tartean, autobiatik dute zuzeneko sarrera bakar eta derrigorrezkoa.

Planteamendu horren ondorioa trafiko motak nahastea izan da, ezen batera dira pasokoak, banaketakoak, are sarrerakoak ere. Eta horrelako egoera bat ez da inolaz ere desiragarria, ez eginkizunak behar bezala eta segurtasunez betetzeko, ez hiri-kalitateak eskatzen dituen erlazio egokietarako.

Arazo hauek konpontzeko, zehatz-mehatz aztertu behar dira ardatzeko guneen interkonexioak eta irisgarritasuna.

c. Gune txikietarako tokiko sarbide sarea zatikatzea.

Haraneko gune txikietarako, hots, inguru garaietan daudenetarako irisgarritasunak ere jasaten ditu bide sistema orokorraren arazoak, beheko aldean dauden guneekiko eta N-1en ardatzarekiko polarizazio eta dependentziagatik. Hori dela eta, gune hauek elkarrekin eta Eremu Funtzionaleko beste asentamenduekin izan behar duten erlazio eta egituratzeari behar bezala ekiteko modu bakarra zera da, lehen aipatutako ardatzeko guneen integrazioaren norabidean jardutea.

Zailagoa dateke, baina, orografiak ezartzen dituen zailtasunak direla eta, haraneko goialdeetako guneetarako zerbitzu sare lokalaren sare-egitura hori osatzeko zeharkako bide-kontaktuak ezartzea, nahiz egungo sarea hobetu daitekeen, maila puntualean.

d. Berastegi – Tolosa – Azpeitia bigarren mailako zeharkako ardatz eskasa.

Bigarren mailako zeharkako ardatzak, A-15 autobidea Berastegi eta Tolosarekin lotzen duenak hurrena Bidania-Goiatz eta Azpeititik zehar jarraitzeko, bere mailari eta eremu funtzionalaren egituraren agian hartu beharko lukeen eginkizunari erreparatuta behar lituzkeenak baino askoz maila baxuagoko diseinu ezaugarriak ditu.

Kontua da ardatzaren hobekuntza helburu funtzionaletara eta lurraldearen ezaugarri fisikoetara egokitzea, ikuspegi errealista batez betiere.

2.3.1.b. GARRAIO PUBLIKOA

a). a) Errepideko garraio publikoa

Eremu funtzionalean hiru zerbitzu maila bereizten dira.

- I.- Barne loturak edo Tolosaldeko guneen artekoak.
- II.- Tolosaldeko guneen eta EAEko eta Nafarroako beste eremu funtzional edo adameneko lurraldeen arteko loturak.
- III.- Estatuko eta Europako beste lurralde batzuekiko loturak.

Azken bi maila hauek barne lotura batzuk ere eskaini litzakete.

Lehenbiziko bi mailak dira analisiaren xederako interesgarrienak, egitura-eredua ezagutzen laguntzen baitute.

- I.- Lehen mailari dagokionez, egun dagoen autobus-linea kopuru handia azpimarratu behar da; horiek eremuko gune gehienei ematen diete zerbitzua, gune asko eta biztanleria txikikoak badira ere. Linea hauetako gehienek lotu egiten dituzte Tolosa udalerrri txikienekin eta azken hauek elkarrekin; Aduna (333 bizt.) –Villabona eta Andoaindik oso hurbil dago– eta Larraul (155 bizt.) –Asteasutik oso hurbil dago– dira autobus-zerbitzurik ez duten gune bakarrak.

Eremu Funtzionaleko barne linea gehienetako zerbitzua "Tolosaldea Bus" (TB) konpainiak ematen du; Tolosa eta Asteasutik Donostiarako lotura, berriz, Compañía del Tranvía Eléctrico San Sebastián Tolosa (CTESST) konpainiak ematen du:

- Tolosa – Alegia – Amezketeta - Abaltzisketa.....(TB)
- Tolosa – Alegia – Ordizia.....(TB)
- Tolosa – Hernialde – Alkiza.....(TB)
- Tolosa – Altzo – Alegia – Ikaztegieta – Baliarrain.....(TB)
- Tolosa – Anoeta.....(TB)
- Asteasu – Zizurkil - Donostia.....(CTESST)
- Asteasu – Zizurkil – Tolosa.....(CTESST)
- Tolosa – Ibarra – Belauntza – Berrobi – Elduain – Berastegi.....(TB)
- Tolosa – Ibarra – Leaburu – Gaztelu.....(TB)
- Tolosa – Lizartza – Oresa.....(TB)

II.- EAEko eta Nafarroako beste eremu funtzional eta kanpo esparru batzuekiko loturetarako zerbitzuak Euskotren (ET), La Gipuzkoana (LG), Compañía del Tranvía Eléctrico San Sebastián Tolosa (CTESST), PESA eta beste konpainia lokal batzuek ematen dituzte; honela banatzen dira:

- Tolosa - Donostia (Villabona eta Iruratik).....(CTESST)
- Tolosa - Azkoitia - Azpeitia, (Errezil, Bidania-Goiatz eta Albizturren barrena) (ET / LG)
- Donostia - Beasain - Bergara - Bilbo (Tolosatik).....(PESA)
- Betelu – Tolosa.....(Uzturre Bus)
- Leitza – Tolosa.....(Leizarán M.)
- Iruñea - Zarautz (Tolosatik), udan.....(Burundesa)

III.- Ibilbide luzeko lineek batez ere estatuko muga, Irunen, eta penintsulako hainbat zona lotzen dituzte; Tolosaldean, Oriaren ardatzean, eskala eginez, zerbitzu erantsi bat eskaintzen dute.

Irundik abiatzen diren konexio horien helmugak eta konpainiak honakoak dira: Bartzelona (VIBASA), Madril eta Andaluzia (Continental), Valencia eta Torreveja, Badajoz, Zalamea, León, Coria eta Zamora (ENATCAR), eta guztiek dute eskala Tolosan.

Lotura mota honi erantsi behar Logroño eta Calahorra Donostiarekin lotzen dutenak (La Estellesa).

b). Trenbidezko garraio publikoa.

RENFEren Brinkola–Irun lineak aldirietarako zerbitzua ematen die Oriaren haranaren ardatzeko udalerriei. Zerbitzu honetako geltokiak Villabona, Anoeta, Tolosa Herria, Tolosa Geltokia, Alegia eta Ikaztegietakoak dira, eta suburbano baten maiztasunak ditu gainera.

Eremu Funtzionalaren barnean, Tolosako geltokia da geratzeko gunerik garrantzitsuena –hirigunean bertan dago kokatuta–, eta baditu gainera Donostiarako zerbitzu zuzen batzuk eta ibilaldi luzeko beste batzuk ere Madril, Bartzelona, Levante eta Galiziarantz.

2.3.1.c. ERREPIDEZKO GARRAIORAKO EKIPAMENDUAK.

Lehenik eta behin esan behar da Lurralde Historikoaren jarduera ekonomikoan, errepidezko merkantzia garraioak oso garrantzi handia duela, lurraldeak, N-1 errepidez, nazioarteko komunikazio ardatzean duen kokapen estrategikoagatik.

Horri erantsi behar gaur egungo zertzeladetan trenbidez egiten den merkantzia garraioa ez dela aukera lehiakorra, bai ekintza-erradioagatik, bai sarea zaharkituta dagoelako edo hainbat disfuntzionalitate dituelako, bai antolaketa mailako akatsengatik, bai garraio politikagatik, etab.

Tolosaldearen egoeran, garraio ekipamenduari dagokionez eta lurralde mailako beste hainbat gaitan bezalaxe, oso eragin handia du Donostialdeko eremua hurbil egoteak eta Donostia - Irun - Baiona korridorearen jarraitasunak, muga puntua ere bertan dela. Tolosaren eta Bidasoako pasagunearen arteko distantzia 35 km ingurukoa da, eta Villabonatik Lasartera 5 km besterik ez dira. Hain zuzen ere, azken udalerrri honetan eraiki da garraio zerbitzurako ekipamendu bat, baina kontuan izan behar dira, halaber, Lanbarren (Oiartzun) eta ZAISAko (Irun) instalazio garrantzitsuak ere, are handitze lanak egin dituztela bertan.

Osterantzean, Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko Lurraldearen Arloko Planak gomendatzen du Adunako ibarrean *“garraioaren zerbitzurako poligono bat” antolatzea, N-1 errepideari eta Nafarroako autobiarri zuzenean lotuta*”.

Aurreko datu guztiak izanda, ondoriozta genezake garraioaren ekipamendua ez dela lehenetasuneko gaia Tolosaldeko lurralde eremuan. Dena den, zuzkidura horiek

ezartzeari buruzko behin betiko zehaztapenek –kontuan izanda lurzorua ere behar dutela, (3 edo 4 ha inguru 120 plaza antolatu ahal izateko)– azterketa sektorial zabalagoak behar dituzte, Lurraldearen Zatik Planari dagozkion lurralde eremu eta edukietatik baino haratagoko eskumenak dituzten eragile eta administrazioen esku-hartzeaz.

2.3.2. OINARRIZKO AZPIEGITURAK

2.3.2.a. SANEAMENDUA

Tolosaldeko lurraldeko hondakin uren saneamendu eta arazketaren egoerak azpiegitura-defizit handia izan du oraintsu arte, sistema egokirik ez zegoelako martxan, araztegi batekin (HUA) eta horrekin baterako kolektore nagusien sarearekin eta lehendik bazeuden sareekiko loturekin. Arazo oso garrantzitsua zen, Oria Erdiaren ibarreko asentamendu intentsiboen, hala egoitza nola industriakoen, kontzentrazio handiagatik, baina konpontzeko bidean dago jada, zeren eta Foru Aldundia eraikitzen ari baita Adunako Hondakin Uren Araztegia; eta eremu funtzionaleko azpi-arro nagusietako saneamendua ere eraikitzen edo azterketa eta proiektu fase desberdinetan dauka halaber.

Tolosaldera begira, hau Oria Erdiaren arro edo eremuan sartuta baitago, Aurrerapenean aurreikusitako eta jasotako eskemak, hasiera batean, hainbat arazketa maila edo eskema zeuzkan: soluzio orokor bat arro nagusiko eta Asteasuren arroko udalerrientzat (Legorreta, –ondoko Goierriko Eremu Funtzionalean–, Ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Hernialde, Anoeta, Irura, Villabona, Zizurkil, Asteasu eta Aduna), araztegia Adunako ibarreko sailetan jarrita, errekan behera dagoen Andoaingo industriagunetik eta hirigunetik hurbil, honetako urak ere arazteko; bigarren maila batean, Lizartza eta Amezketako udalerriek bere araztegiak zeuzkaten, Ugartetik hurbil kasu batean eta hirigunetik behera Araxesen ibarrean bestean, eta hirugarren maila bat beste herrigune txikiak jasotzen zituena zen, horientzat, hasiera batean, neurri eta garrantzi txikiagoko soluzio autonomoak aurreikusten ziren eta.

Gaur egun hau da Tolosaldeko lurraldeko etxeetako uren saneamendu eta arazketa egoera:

Adunako HUA industriagunetik hurbil eraikia eta martxan dagoela, kolektore orokorrak biltzen ditu Legorretako isurkinak –aldameneko Goierriko EFea–, eta Ikaztegieta, Alegia,

Tolosa, Hernialde, Anoeta, Irura, Villabona, Zizurkil, Aduna eta Andoainoak, Donostialdeko Eremu Funtzionalean. Era berean, Asteasuko arroaren saneamendua ere egina dago, eta Kontsortzioak arto horri lotu dio Larraul. Aurreikuspenen arabera, Orendain eta Baliarrain Oriaren interzeptagailuari lotuko zaizkio, Altzo bezalaxe (lotura hori 2011n egitea aurreikusi zen). Abaltzisketa eta Amezketa ere interzeptagailu orokorrari lotu zaizkio, eta Berastegiko arrorako kolektorearen proiektua idatzi da: horren arabera, kolektorea Berastegitik abiatuko da, eta Elduain eta Berrobiko urak bildu ondoren, Oriaren interzeptagailuari lotuko zaio. Leaburu Apattaerrekako industriaguneko saneamendu sareari lotuko zaio, eta Gaztelu eta Albiztur ere (aurreproiektua egina dago) Oriaren interzeptagailuari lotuko zaizkio. Bidania-Goiatzek badu bere arazketa sistema propioa, Orexak, Aldabak eta Lizartzak bezalaxe.

2.3.2.b. UR HORNIDURA

Hornidurarekin lotutako erronka nagusiak honakoak dira:

- Hornidura bermatzea.
- Hornitutako uraren kalitatea.
- Hornidura sareen eraginkortasuna.
- Hornidura sistemak ingurunean dituen eraginak minimizatzea.

Orain arte egindako lan teknikoek bi gauza bilatzen dituzte, hornidura sistemek erabateko bermea ematea eta Tolosaldeari hornitutako uraren kalitatea hobetzea.

Baliarrain eta Orendain artean dagoen IBIURko urtegiaren eta Ikaztegiako tratamendu estazioaren bidez egiten da, batez ere, edateko uraren hornidura Eremu Funtzionalean. Horrez gain, Oria Ertainean zehar udal ur-andelekin konektatzen den hornidurako sare orokorra dago.

Goierriko Eremu Funtzionalean dagoen Gaintzatik hornitzen dira Baliarrain eta Abaltzisketa, eta azken honetatik, Orendain.

Asmoa da Belauntzatik –Ibiurrekin lotua dago gaur egun– Berrobi, Elduain eta Berastegira ponpatzea, eta Ibarako depositutik Leaburu eta Gaztelu konektatzea. Alkizak modu autonomoan bideratu du bere hornidura, Bidania-Goiatz, Albiztur, Amezketa eta Lizartzak bezalaxe; horiek guztiak aztertzeo daukate Ibiurrekin konektatzeko aukera. Larraulek EUTE txiki bat dauka, baina Kontsortzioa Ibiurrekiko konexioa ari da aztertzen.

Era berean, Oriaren arroan hainbat hartune dago, hala nola Albizturko Salubita iturburua eta Lepasoro, Hernialde eta Elduaingo putzuak. Edonola ere, hartune horietako batzuetan hartzen den ura ez da gomendagarria herritarren hornidurarako, eta ur-emariari eusteko erabiltzera mugatu behar dira.

2.3.2.c. ARRISKUEN PREBENTZIOA

Dokumentu honetan, Ingurune Fisikoaren azterketari dagokion zatian, rak har ditzakeen zonei, higadura jasan dezaketen eremuei eta akuiferoak kutsa daitezkeen inguruei buruzko datuak jaso dira.

Lurralde antolamenduko erregulazio hidrológico-hidraulikoa ibai ibilguen uholde-azterketak egitean edota eguneratzean oinarritu da; beraz, ibilgu publikoen muga kartografia egitea aurreikusi beharko da, ibilgu horien zorpeneko edo kontrolerako zonak eta urak har ditzakeen eremuak ere kontuan hartuta; eta funtsezko eta derrigorrezko xedapen gisa jasoko da lehentasunezko fluxu-eremua zehaztea (9/2008 Errege Dekretua).

Azterketa horiek osatuz, honako hiru jarduketa hauek:

- Urpean geratzeko arrisku potentzial nabarmena duten eremuak identifikatzea.
- Arriskugarritasun eta arrisku mapak eguneratzea.
- Uholde arriskua kudeatzeko planak egitea,

2007/60/EE Artzpidiak xedatutakoari jarraituz eta Uholde arriskua alde aurretik ebaluatzeari buruzko 903/2010 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat.

IIBEn adierazi bezala, 2012ko urtarrilaren 11n EHAk argitara eman zuen Kantauri Ekialdeko Uholde Arriskuei buruzko Aurretiazko Ebaluazioa (UAAE). Azterketa horrek aipatzen bazuen ere zaila dela tarte bat uholde arrisku garrantzitsukotzat katalogatzera daramaten mailak zehaztea, Tolosaldeko Eremu Funtzionalean uholde arrisku potentzial garrantzitsuko eremutzat sailkatu dira Amezketa (Amezketa erreka), Lizartza (Araxes ibaia), Alegia-Altzo (Oria-Amezketa erreka), Tolosa-Ibarra (Oria-Zelai erreka) eta Villabona-Zizurkil-Aduna (Oria-Asteasu erreka)

UAAE fasean identifikatutako zonei begira, 2013. urte bukaera aldera arriskugarritasun mapak eta arrisku mapak egin ziren. Mapa horietan, aipatutako zonak mugatu eta beren arrisku-mailaren arabera sailkatu ziren (arrisku handia, ertaina, txikia), eta horietan

adierazten dira uholde batek herritarrengan, ondasun materialetan eta ingurumenean eragin ditzakeen kalteak. 2015-2021 zikloari dagokion Kantauri Ekialdeko mugape hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana urtarrilaren 20ko 20/2016 Errege Dekretuaren indarrez onartu zen. Plan horrek prebentziozko eta kaltea arintzeko neurri estrukturalak eta ez-estrukturalak aurreikusten ditu asentamendu seguruak bermatzeko, oraingo arriskua murrizteko eta lur gaineko ur berrien baldintza morfologikoak hobetzeko.

2.3.2.d. HONDAKIN SOLIDOAK

Tolosaldean sortutako hondakin solidoak, Gipuzkoa osoan sortzen direnen % 6 inguru, Sasietako hondakindegira eraman izan dira beti, Eremu Funtzionalak ez baitzuen horretarako azpiegitura espezifikorik.

Lurralde historiko osorako estrategia partekatu bat behar zela-eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak Hiri Hondakinen Plan Orokorra 2002-2016 idatzi zuen; horretan aurreikusten den eskemaren oinarrian honakoak daude: materialen gaikako bilketa, materia biodegradagarria konpostatzea, hondakinetan dauden materialak birziklatzea, eta bereizi gabe bildutako hondakinak eta beste tratamenduetako errefusak erraustea. Asmoa da errausketaren hondarrak (zepak) agregakin gisa erabiltzea errepideen eraikuntzan; eta errauskak, berriz, lurralde kudeatzaile homologatuek tratatzea.

2.3.2.e. AZPIEGITURA ELEKTRIKOA

- Lineak eta azpiestazioak.

Lurralde honetan zehar, Elgetatik sartzten den eta Irunen Frantziako sareari lotzen zaion korridore elektriko bat igarotzen da. Hego-ekialdetik sartzten diren linea guztiek Ezkio-Itsason egiten dute bat, eta elkarrekin jarraitzen dute Hernaniraino. Horiek hornitzen dituzte transformazio eta banaketako azpiestazioak. 380 eta 220 kV-eko eta 132 / 138 kV-eko lineak dituen garraioko eta banaketako enbor garrantzitsu batek zeharkatzen du Tolosaldea, Oria ibaiaren haranetik barrena. Berastegitik 132 /138 kV-eko beste linea batzuk Nafarroan sartzten dira. Transformazioko eta banaketako azpiestazioetatik erdi tentsioko (30 V) lineak ateratzen dira transformazioko eta erregulazioko aspiestazioetara, eta horietatik 13.2 kV-eko lineak ateratzen dira herriei zerbitzu egiteko.

Gaur egungo egoeran oinarrituta, behar besteko malgutasunez egiten zaio zerbitzu lurraldeari eta erantzuten zaie aurreikusten diren eskariei.

Maila txikiagoko eta konponbide tekniko errazeko arazo bat badago, zehazki garraio-dorreak izatea, zeren eta hasieran landa inguruetan bazeuden ere gaur egun hiri ingurunean txertatuta baitaude.

- **Parke eolikoak.**

Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Planaren arabera, Mandoegiko gailurrak, Leitzarango ekialdeko ertzean, lehentasunezko kokaleku dira parke eoliko posible bat ezartzeko.

Gatzume inguruan aurreikusten den parke eolkoa hurbil dagoen arren, Eremu Funtzionalaren mugez kanpo kokatuko da.

2.3.2.f. GAS AZPIEGITURA

Bergara-Irun gasbideak Tolosaldeko Eremu Funtzionalan haranaren ekialdeko goialdea du oinarri, Altzon, Belauntzan eta Villabonan ditu erregulazio-estazioak, eta egun dagoen gas naturalaren banaketa-sarerako abiapuntua da. Gas naturalaren gaur egungo banaketa-sarea enbor horretan oinarritzen da, eta industria-eremuei eta etxeke eta merkataritzako erabilerei egiten die zerbitzu presio ertainean.

Etorkizunerako joerari jarraiki, ugaritu egingo dira banaketa-sareak, bai industria-erabileren ingurukoak, bai etxeetakoak.

2.3.2.g. TELEKOMUNIKAZIOAK

Telekomunikazioen azpiegiturek funtsezko balio estrategikoa dute produkzio-sistemaren lehiakortasunerako. Eusko Jaurlaritzako Industria eta Ekonomia Sailak, hortaz ohartuta, EAeko Telekomunikabideak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana idatzi zuen 1994an. Horretan oinarrituta ari dira ezartzen telekomunikazioen sistema.

Ondorengoetara bil ditzakegu lurralde-eredua sortzeko proposatutako jardunak:

- Zuntz optikoaren bidezko loturak ezartzea EAeko hiriburuen artean, baita horien eta hurbileko hiriburuen artean eta Europako ISDNekin ere.
- Gasteizko eta Bilbo Metropolitarrako eta Donostialdeko eremu funtzionaletako zuntz optikoko eraztun digitalak egitea.
- Eremu funtzionaleko burutza guztiak zuntz optiko bidezko lotzea elkarren artean.

- Zentral digitalak sustatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko erabateko estaldura lortzeko antenak kokatzea.

Izaera ofizialeko jardun horietatik kanpo, zenbait enpresa pribatu azpiegitura hau instalatzeko eta garatzeko planak ari dira gauzatzen beren kabuz. Lurraldearen ikuspegitik, bi prozesuak Telekomunikabideak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren bidez koordinatzea litzateke onena, batez ere hartzaileak, antenak eta abar instalatzeari dagokionez.

2.4. ASENTAMENDU SISTEMA

2.4.1. LURRALDE EGITURA ETA HIRI EGITURA

a). **Tolosaldeko Eremu Funtzionala EA Eren lurralde egituran.**

Lurralde baten egitura orokorra eta organikoa oso baldintzatuta egoten da euskarri geomorfologikoaren formagatik, baina antolaketa funtzionalaren oinarritzko hiru kategoria urbanistikoek zehazten dute funtsean, honakoak baitira:

- azpiegitura kategoria, bereziki bide-komunikazioei dagokiena.
 - zuzkidurarena.
 - asentamendua, beste bi sistemetan oinarritutako bilbe gisa berau.
- EAE mailan, egitura orokorraren eta organikoaren analisiak ondoren ikusten den moduan laburtu ditzakegun ezaugarri batzuk erakusten dizkigu:

- Bide azpiegiturak

Memoria honetako 3.1 puntuan deskribatutako bide sarean bereizi egiten dira, batetik, nazioarte mailako komunikazio sistema handia eta, bestetik, EA Eren zeharkako barne egituraketarena eta erkidego hau Mediterraneoko ardatz estrategikoekin lotzekoa.

Bide azpiegitura hauek oso nabarmen baldintzatzen dute kostaldean, Donostia inguruan, eta Gipuzkoaren ipar-ekialdeko muturrean, Bidasoa Beherean, biltzen diren asentamenduen banaketa espaziala.

Alabaina, Oria Erdiaren haranak, Donostialdea eta Bidasoa Beherea osoaren hegoalderako berezko irteera dena bera, lurralde historikoko bide komunikazioetarako ardatz garrantzitsuena hartzen du, hiri kontzentrazio altuko esparru estu batean.

- Hornidurak.

Maila orokorrean, "hiriburutza" faktorea erabakigarria da, zeren eta komunikazioen kopuruari zein pisuari erreparatuta (administrazioa, osasuna, kultura, unibertsitatea, kirolak, etab.) ez baitago lurralde historikoetako hiru hiriburuekin lehia daitekeen ez eremu funtzionalik ez burutza-hiririk; izan ere, LAAekin bat etorriz, haiek hornidura-egitura sendoa itxuratu behar dute.

Tolosaldeari ere eragiten dio, noski, sistema oso honek, eta abantaila badu ere garraio zerbitzuei dagokienez posizio izugarri ona izatea hiriburuetan izan ohi denaren moduko hornidura maila batez –EAEko burutza-hiri gutxik dute horrelakorik–, Donostialdearekiko hurbiltasunak eta erlazio erraztasunak mendekotasun egoera ageriko bat sorrarazten diote, harekiko.

- Asentamenduak eta jarduerak.

Egitura organikoa osotasun bereiztezin bat da. Baldintza geografiko eta fisikoek laguntzen badute asentamendu sistemak, hornidurak eta azpiegitura historikoak kokatzen, horien garapenak elkarrekiko eragina erakusten du, eragin sinergiko bat alegia. Hau da, sistemetako bakoitzak besteak dinamizatzen ditu.

Printzipio honek garapen desberdina sorrarazten du, asentamendu handien alde. Hala, Donostialdeko eskualdea, proportzioan, modu biziago eta dinamikoago batez garatu da. 2016an 395.375 biztanle zeuzkan, eta oso gune garrantzitsuak ditu, hala nola Irun (59.673 bizt.) eta Errenteria (39.905 bizt.), 14.000 eta 20.000 biztanle bitarteko beste bost gunerekin batera. Tolosaldeak 2016an 46.969 biztanle zeuzkan, eta Tolosa-Ibarra multzoak 23.218 biztanle.

Donostiako eta beronen inguruko lurralde ezaugarri bereziek eragiten dituzten desberdintasun faktoreak, laburturik, honakoak dira:

- *Hiriburutzaren pisu ideologikoa.*
- *Hiriburutzaren pisu objektiboa.*
Kapital ekonomikoaren egoitza.
Administrazioen egoitza.
Ekipamendu eta zerbitzu zentralen kontzentrazioa.
Garraio terminal eta geltoki nagusien kontzentrazioa.
- *Unibertsitate irakaskuntzaren eta kulturaren kontzentrazioa.*
- *Ikerkuntza-jardueraren pisua.*
- *Merkataritza eta arrantza portuak.*
- *Industri eta produkzio jardueraren pisua.*
- *Handizkako komertzioaren eta kontsumoaren kontzentrazioa.*
- *Hirigintzako kalifikazioa duten eta jarduera ekonomikoetarako lurzorurako bideratuta dauden lurren eskaintza.*
- *Edozein asentamendu motatarako lurzoru huts egokiaren erabilgarritasuna.*
- Gainera, lurraldez gaindiko azterketa eta proposamenak, Europar Batasunean planteatzen diren erronkei begira, hiri espazio konplexu bat itxuratzerako bideratzen dira, eta horrek are tentsio handiagoa eragingo du Donostialdeko aglomerazioaren ipar-ekialderantz, hau da, Donostia - Baiona eurohirirantz.

Ondoko Urola Kosta eta Goierriko eremuei dagokienez, hauek eragin txikiagoa dute Tolosako eskualdearen funtzionalitatean, lehenaren kasuan batez ere, honen eta Tolosakoaren arteko komunikazioak zailak baitira. Goierriko eskualdeak (Beasain-Zumarragako Eremu Funtzionala) lehiakortasun handiagoko ezaugarriak ditu, kostaren dinamismotik urrunago dagoelako, zeharkako komunikazio-ardatz berrian (Beasain - Durango) kokatuta dagoelako, trenbide linea berriaren geltokitik hurbil dagoelako eta etorkizunean jarduera ekonomikoetara bideratutako Beasain-Zumarraga korridore sendoa izango delako.

- EAEko eta Gipuzkoako lurralde baldintza orokorren laburpena.

Ezaugarri fisikoak, egiturazkoak –bide sistema, hornidurak, asentamenduak– eta garapen igurikapenak direla eta, Tolosaldeari eragin egiten diote EAEko hiriburu sistemaren hiri-ahalmenak eta dinamismoak, Donostialdekoen kasuan batez ere. Hau erakargune sendoa da gaur egun, lurralde historikoaren beste inguruen kaltean agian.

Oria Garairako jasotzen diren zeharkako komunikazio-ardatza eta asentamendu estrategikoak (Goierriko Eremu Funtzionalako LZP) lehia gogorra dira, halaber, Tolosaldearen garapen baldintzetarako.

Zertzelada orokor horiek, ikuspegi integral batetik joz behintzat, jarduketa mekanismoak ezarri beharra eragingo lukete, batetik Tolosako eremu funtzionala ahalmenak bultzatzearen, ez baitira gutxi eta, bestetik, lurralde ezaugarri haiek izan ditzaketan alderdirik baliagarrienak bere probetxurako erabiltzen saiatzearen.

b). Eremu Funtzionalako esparru geografikoen desberdintasun orokorrak.

Tolosaldeko lurraldean hiru eremu orokor bereiz daitezke, geografia fisikoan eta giza asentamenduen intentsitate eta izaeran oinarriturik horretarako:

- Hiri munduari dagokiona, funtsean Oriaren korridoreak ordezkaturik; honetan daude eremu funtzionala udalerririk urbanizatuenak, Tolosa-Ibarra aglomerazioa buru dutela.
- Landa munduari dagokiona, oro har esanda albo-haranek eta haran nagusiko mazeletako neurri txikiko guneez osatua.
- Natur inguruneari dagokiona, honetan sartzan baitira Aralar eta Hernio-Gatzumeko mendiguneak eta horien inguruko mendiak, oso biztanle gutxikoak eta natur eta

paisaia aldetiko balio garrantzitsuak dituztenak berak.

Lehenago jada adierazi dugun moduan, asentamenduen banaketaren baldintzatzaile nagusiak lurraldearen egitura geomorfologikoa, Oria ibaiaren eta beronen ibaiadarren haranek eratzen duten korridore naturalaren forma, eta ibilguetatik hurbileko alubioizko lurretan zein haranak inguratzen dituzten mazela eta muinoetan malda txikiko lurzoru erabilgarri gutxi egotea dira.

Oriaren korridorean hiri garapenak duen intentsitatea aipatu behar da; honetan, egoitzaguneek –industri eremuekin eta hainbat bide-ardatzekin batera– ia-ia haran hondo osoa hartzen dute, iparreak Villabona eta Anoeta artean hutsik dauden lur batzuen salbuespenarekin eta orografia zailak –esaterako Tolosa eta Alegia artean– eragiten dituen etenekin. Asentamenduen sekuentziak, iparretik hegora, Aduna, Villabona, Zizurkil, Irura, Anoeta, Tolosa, Ibarra, Alegia eta Ikaztegieta hartzen ditu. N-1 errepidearen korridore honetan 38.376 biztanle dira, nahiz jarraitasun funtzionala, maila urbanoan, etenik dagoen, bide egiturari buruzko analisisian ikusi bezala, Villabona eta Iruraren eta Tolosa eta Alegiaren artean.

Biztanleriaren gainerakoa. 8.593 biztanle (% 18) haran nagusiko eta albo haranetako mazela eta muinoetan kokatuta dauden guneeetan; horietako batzuk oso neurri txikikoak dira (Orexak 114 biztanle ditu, eta Baliarrainek, Gazteluk eta orendainek 200 baino gutxiago), eta gehienak 500 biztanletik beherakoak.

Landaguneen atomizazioarekin batera, habitataren beste ezaugarri garrantzitsu bat hartu behar da aintzat. Etxe multzo txikiak edo baserri gisako etxe bakartu ugari izatea, paisaia landatar edo landazabaleko batean sakabanatuta, eta gehienetan + 200 m eta + 400 m bitarteko kotetan kokatuta; ia-ia etxerik ez dago 500 m-ko kotatik gora (haran hondoaren batez besteko kota 100 m ingurukoa da).

Hirugarren esparru geografikoa lurralde menditarra da, hau da, 500 m-ko kotatik gora dagoena; Hernio eta Aralarreko mendiguneetako mazalak eta gailurrak dira, baso gehienetan naturalak dituzte, eta goi lurretako larreak eta kareharrizko harkaiztiak daude bertan. Guztien artean oso paisaia ederra osatzen dute.

c). Hiri asentamenduen lurralde antolaketa. Bi azpieroak.

Lurralde egitura ez dago bakar-bakarrik ezaugarri fisikoen baitan; ezaugarri funtzionalek, horien artean dago bide eskema bera, indar egituratzaile izugarria dute. Aipatutako bost multzo hiritarrak, ardatzeko polo edo erakarguneen ondo-ondoko bide harremanen ondoriozkoak (Villabona, Irura-Anoeta, Tolosa, Alegia eta Ikaztegieta), beste modu batean bil daitezke, elementu hauek hartzen baditugu oinarri:

- autobiarene mendean ez dagoen hiriarteko bide sistema, dagoeneko aztertutako sistema horren bi etenekin batera (ez dira sartzen Anoeta-Irurako eta Ikaztegieta loturak, ahalmen egituratzaile txikikoak direlako).
 - hiri ekipamendu eta zerbitzu egunerokoen funtzioak.
 - industri asentamenduak eta laneko guneak.
- Lehen apartatuaren arabera –hiri eskalako harremana, pasoko bide sisteman oinarritzen ez dena– honako hiru multzo funtzional bereiz ditzakegu:
 - A.- Villabona, Aduna, Zizurkil, Asteasu, Larraul eta Alkizarekin: .(11.253 bizt.)
 - B.- Tolosa- Ibarra, Irura, Anoeta, Hernialde, Albiztur, Bidania-Goiaz, Belauntza, Berrobi, Elduain, Berastegi, Leaburu, Gaztelu, Lizartza, Orexa, Altzorekin.(31.896 bizt.)
 - C.- Alegiako poloa, Amezketa, Abaltzisketa, Orendain, Ikaztegieta eta Baliarrainekin.(3.820 bizt.)
 - Mendekotasun funtzional mailakatuaren printzipioan oinarriturik –mendekotasun hau hiri zerbitzuen prestaziotik, oinarrituriko horniduretatik eta garraio-loturetatik dator–, beste maila bat dugu gune primarioak maila handieneko erakarguneen inguruan biltzeari dagokionez. Bigarren maila izango da, seguruenik, adierazgarriena lurralde egituraren itxuraketari dagokionez, zeren eta lurraldeko funtzio eta erlazio nagusiak hartzen baititu. Tolosaldearen kasuan, bide haustura eta distantzia arazoek are nabarmenago egingo dituzte multzo desberdinen arteko aldeak.
 - Azkenik, bada lurraldearen hirugarren antolaketa orokor bat, industri eremuen egitura fisikoaren banaketan oinarriturik, eremu hauek ez baitute beste asentamenduekin zertan erlazionatuta egon. Tolosaldearen kasuan industri zonak, oro har, zuzenean lotzen zaizkio hiri egiturari, N-1 errepidearen Irura eta Villabona arteko zuzengunean izan ezik, honetan industri eremuetarako sarbideak

autobiarekin lotzen baitira, ia-ia zuzenean eta ia-ia horrekin bakarrik.

- Hainbat zalantza bada Irura bi azpieremuetako bati edo besteari lotzeko unean. Gure kasuan, eta Tolosako hornidura-egitura sendoa eremuko udalerrri guztietara iristen bada ere, are modu nabarmenago batez Villabona-Irura hiriarteko konexio horren etena dela eta, uste dugu Irura Villabonako eremuaren parte dela.

Aipatutako irizpide eta zertzeladen arabera, eta Tolosak burutza-hiri gisa duen maila – agerikoa baita– kontuan harturik, eremu funtzionalaren antolaketa polo edo erakargune bikoia genuke.

I. Alde batetik, iparrean, Villabonako poloaren inguruan egituratutako gunek multzoa bereizten da, Aduna, Zizurkil, Asteasu, Larraul, Alkiza eta Irurarekin; 13.003 biztanle ditu, eremu funtzional osoko biztanleriaren % 27,7. Multzo honetan, garrantzitsua den beste polo batetik –Andoain– hurbil baitago, iparreranzko tentsioak ikusten dira, nabarmen.

II. Hegoaldean multzo nagusia dago, 33.966 biztanlekoa bera (eremu funtzional osoaren % 72,3), Tolosa-Ibarra hiri bilbearekin –23.218 biztanle– eta udalerrri nagusiarekin –Tolosa, 19.041 biztanle–; azken hau eskualdeko ekipamendu garrantzitsu zenbaiten egoitza da, eta kalitate handiko eta hiri itxurako, are gehiago, halako hiriburu ukitu batez hornitutako itxuraketa espaziala du.

d). Lurraldearen egitura orokorrari buruzko laburpena eta konklusioak.

Tolosaldeko eskualdea pasoko eta dinamismo handiko ardatz batean dago, hiri- eta hornidura-pisu eta garapen-ahalmen handiko hainbat esparrutatik oso hurbil gainera, hauetakoak baitira, esaterako, Donostialdean, beronen ipar-ekialdeko muturrean eta Iparraldeko mendebaldeko ertzean kokatuak.

Esparru metropolitarraren indartsu horien hazkunderako joera ezagunak aukera ematen digu inguruko udalerrri txikiak horietan sartuko direlako hipotesia azaltzera; izan ere, azkenean periferiako auzo bihurtzen dira, eta sarritan galdu egiten dituzte bai eginkizun hierarkikoa bai hornidura-maila eta gizarte aglutinatzaile gisako ahalmena. Eredu honen aurreko alternatiba **polizentrikoa** da, honek hiri multzo eten eta hierarkizatua baitakar berekin, hainbat hiri-etenez osatua.

Tolosaldearen kasuan, haranaren egiturak Tolosaren zentraltasunetik “bereizitako polo” bat

detektatzen du, Villabonakoa zehazki, Andoaindik eta Donostialdearen hego-ekialdeko esparru irekietatik hurbil bera. Horrek halako tentsio funtzional bat eragiten du, iparrerantz, eta horrela sendotu egiten dira aipatutako hazkunde jarraitu baterako baldintzak, iparreko eremuek polo hori zurgatzeko aukerarekin batera.

Tolosaren hiri kalitatea, hornidura maila –biztanleriari dagokion mailatik gorakoa baita– eta egituraz eta maila fisikoan berezia den esparru batean bete ohi duen udalerrri nagusi eginkizuna direla eta, eredu polizentrikoa planteatzea komeni da (Donostialdeak seguruenik izango duen hazkunde etengabera begira), hasiera batean, eta horrek Tolosa-lbarra multzoak ekonomi, administrazio eta kultur mailan betetzen duen gidari eginkizuna indartzea eskatzen du.

Planteamendu honetarako, hobetu, sendotu, berritu eta, hala badagokio, ezarri egin behar dira Tolosa eskualdeko, are gehiago, alderdi batzuetan lurralde historikoaren mailako burutza-hiri gisa indartuko duten elementu guztiak. Beraz, kontua litzateke egun dagoen eredua, oso baliagarria bera, sendotzea eta hobetzea, eta horretarako, oro har, berriro bultzatu beharko litzateke erdigunea, Tolosaren inguru hurbilean ezarriz hurrena kulturarekin, ikerkuntzarekin, belaunaldi berriko produkzioarekin eta abarrekin lotutako jarduera bereziak; eta hobetu egin beharko lirateke hiri jarraitasunerako baldintzak Anoetako ibarrean, egun hutsik dagoen lurzoruan, hau modu integralean antolatuz. Horiez guztiez gain, zahartutako produkzio ehuna birstortu, landa eremuak –batez ere burutza-hiriaren ingurukoak– udalaz gaindiko zerbitzu eta ekipamenduz suspertu, eta Tolosaren hiriburutza eta dinamismoa indartzeko beste hainbat ekintza gauzatu beharko lirateke.

2.4.2. BIZITEGITARAKO LURZORUA: AZKEN ALDIKO EBOLUZIOA, ARAZOAK ETA ERRESERBAK

a) Etxebizitza-parkea eta familiaren neurria

Etxebizitza-parkeari eta beronen erabilerari buruz dagoen informazioak hainbat gabezia ditu, bai denbora-jarraitasunari bai fidagarritasunari dagokienez. Azkeneko errolda-eragiketek (2001eko eta 2011ko azaroari buruzkoak) hainbat kontraesan uzten dituzte agerian, bai horretarako ardura duten bi estatistika-institutuek zabalduetako emaitzen

artean, baita datuen barne koherentziari dagokionez ere^{*}. Bestetik, Eustatek eragiketa berri bat abiarazi zuen (Etxebizitzen udal Estatistika). Lehendabiziko operazioa 2010eko urtarrilaren 1ari buruzkoa da, eta 2013tik aurrera datuak urtez urtekoak dira (eskuragarri daude 2013ko, 2014ko eta 2015eko urtarrilaren 1eko emaitzak).

22. eta 23. tauletan eta 12. irudian garbi ikus daiteke etxebizitza familiarren parkeak Tolosaldean izan duen bilakaera, bai udalerrrika eta bai lurralde esparruari dagokionez. Taulek, halaber, etxebizitzaren batez besteko tamaina erakusten dute –gehieneko balioa Larraulen, 3,05 pertsona/etxebizitza, eta gutxienekoa Altzon, 2,40–; Tolosaldeko batez besteko balioa, 2,53.

Tolosaldeko etxebizitza familiarren kopurua % 42 hazi da 1991etik 2015era bitartean; hau da, urtean batez beste % 1,4ko bariazio-tasaren baliokidea. Hazkunde hori Gipuzkoan eta EAEn epealdi berean gertatutakoa baino zertxobait gehiago da. 23. taulan ikus daitekeen bezala, hazkundea handixeagoa izan da Villabona inguruan (% 56) eta 800 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan (% 52), Tolosa-Ibarrako hirigunean eta Tolosa inguruan hazkundea motelagoa izan da (% 36 eta % 37, hurrenez hurren). Udalerririkien batez besteko hazkundea baino askoz handiagoa izan da bai Villabonan (% 95) eta bai Tolosaldean, hau bere osotasunean hartuta (% 51).

Etxebizitza-parkearen okupazio nagusiaren tasak gorako bidea erakusten du oro har (% 78ko tasa 1991n eta % 83koa 2015ean), baina gorabehera batzuekin, eraikuntza-jardueraren zikloaren arabera. Laurogeita hamarreko hamarkadan eraikuntza moteltzearekin batera, okupazio nagusiaren tasa % 82ra igo zen 2001ean, baina milurtekoaren lehen urteetako boomak okupazio hori % 80ra murriztu zuen 2011n. Hauek dira 1991 eta 2015 bitartean beren okupazio nagusiaren tasa jaisten ikusi duten Tolosaldeko 3 udalerririk bakarrak: Orendain (% 63tik % 58ra, Lizartza (% 72tik % 68ra) eta Elduain (% 75etik % 73ra). Beste 4 udalerritan (Belauntza, Amezketa, Leaburu eta Abaltzisketa) hazkundea ez da iritsi 3 portzentaje-puntura.

^{*} Adibide gisa, honako kontraesanak ageri dira bi institutuek argitaratutako emaitzen artean: Eustaten arabera, 2001. urteari 291.291 familia-etxebizitza zeuden Gipuzkoan, eta horietatik 245.188 etxebizitza nagusiak ziren (okupazio nagusiaren tasa, % 84,2); aldiz, INEren arabera, 295.400 etxebizitza ziren, horietatik 242.708 etxebizitza nagusiak, eta % 82,2ko okupazio tasa. Institutu berak emandako informazioan ikus daitezkeen kontraesanen adibide gisa, **1900** aurretik Gipuzkoan zegoen etxebizitza kopurua aipa dezakegu. INEren arabera 21.274 etxebizitza 1991n, 40.509 etxebizitza 2001ean, eta 28.157 etxebizitza 2011n; bilakaera horrek datuaren fidagarritasun eskasa uzten du agerian. Txosten hau egiteko Eustatek argitaratutako informazioa erabiltzea erabaki dugu, informaziotik hurbilago dagoelako eta aldi gehiago hartzen dituelako (1996ko eta 2006ko etxebizitzaren estatistika eta 2013-15 udal seriea).

22. taula. Etxebizitza-parkea udalerrika (1991-2015).

Udalerria	Zona	Familia-etxebizitza				Okupazio nagusiaren tasa (%-tan)				Fam. tamaina
		1991	2001	2011	2015	1991	2001	2011	2015	2015
Abaltzisketa	1	93	121	155	157	67,7	68,6	71,0	70,7	2,87
Aduna	2	121	143	214	215	65,3	78,3	79,4	82,3	2,63
Albiztur	1	135	135	171	180	49,6	65,9	67,3	64,4	2,59
Alegia	1	644	760	826	832	74,2	75,4	80,8	81,5	2,62
Alkiza	2	85	117	157	164	67,1	70,9	81,5	78,0	2,73
Altzo	1	111	134	180	184	72,1	76,9	76,7	79,3	2,40
Amezketza	1	382	431	451	470	72,8	73,1	77,6	75,5	2,60
Anoeta	1	605	637	793	900	83,1	89,3	86,9	87,0	2,50
Asteasu	2	415	543	638	659	72,3	78,1	82,0	82,5	2,78
Baliarrain	1	35	44	58	65	65,7	65,9	75,9	80,0	2,85
Belauntza	1	93	131	139	132	76,3	72,5	74,8	78,8	2,52
Berastegi	1	410	529	553	556	62,0	62,9	69,8	70,5	2,67
Berrobi	1	206	225	279	279	77,2	84,9	80,3	81,7	2,64
Bidania-Goiatz	1	200	272	272	274	53,5	55,5	68,8	67,5	2,84
Elduain	1	76	90	128	126	75,0	72,2	69,5	73,0	2,66
Gaztelu	1	46	51	77	81	67,4	88,2	79,2	74,1	2,82
Hernalde	1	98	110	131	131	79,6	86,4	85,5	85,5	2,89
Ibarra	1	1.479	1.777	1.845	1.895	85,3	87,2	86,9	88,8	2,50
Ikaztegieta	1	130	173	204	206	74,6	72,8	80,4	80,1	2,93
Irura	2	306	435	753	747	69,3	84,4	83,0	86,3	2,57
Larraul	2	42	53	105	106	71,4	73,6	79,0	77,4	3,05
Leaburu	1	159	164	186	189	71,7	79,3	76,9	74,6	2,58
Lizartza	1	255	327	357	353	71,8	66,4	67,8	68,0	2,74
Orendain	1	64	71	101	113	62,5	67,6	63,4	57,5	2,92
Orexa	1	30	46	57	56	60,0	56,5	73,7	78,6	2,64
Tolosa	1	6.727	8.180	9.060	9.268	80,2	82,8	79,7	84,4	2,43
Villabona	2	1.949	2.397	2.767	2.768	79,0	88,1	81,5	82,6	2,51
Zizurkil	2	906	1.114	1.267	1.297	79,4	85,7	81,5	86,9	2,61
EF GUZTIRA		15.802	19.210	21.924	22.403	77,8	81,7	80,1	82,8	2,53


Iturria: Eustat (Biztanleria eta Etxebizitza errolda eta estatistika; Biztanleen udal estatistika).

Zona-kodeak Tolosa (1) edo Villabona (2) adierazten du. Letra etzan eta lodiz idatzitako udalerriak N-I errepidearen korridorean daude.

Erreferenziako data ez da berdina urte guztietan: martxoaren 1a 1991n, azaroaren 1a 2001 eta 2011n, eta urtarrilaren 1a 2015ean.

800 biztanletik gora dituzten 10 udalerrien artean Irurak eta Asteasuk bakarrik hazi duten beren etxebizitza-parkea % 50etik gora. Deigarria Irurak izan duen hazkundera, % 144 hazi baita 1991 eta 2015 bitartean (hau da, % 3,8 urtean). Bestetik, 800 biztanle baino gutxiago dituzten 18 udalerrietatik 7 udalerrik % 75etik gorako hazkundera izan dute; nabarmenena Larraul, % 144ko hazkundera izan baitu (hau da, % 4 urtean).

12. irudia. Etxebizitza-parkearen bilakaera lurralde esparruka (1991-2015)



Iturria: Eustat (Biztanleria eta Etxebizitza errolda eta estatistika; Biztanleen udal estatistika).

Oharrak:

Marren koloreak aurreikusitako lurralde esparruen isla dira: urdina (Tolosaldea), gorria (Tolosa ingurua / Villabona ingurua), beltza (N-I errepidearen korridorea / gainerakoa) eta berdea (800 biztanletik gorako udalerriak / 80 biztanletik beherako udalerriak). Kolore bakoitzaren goiko marra aipatutako lehen esparruari dagokio beti.

Marra punteatua (1981-2011) bosturteko errolda-eragiketei buruzko informazioari dagokio, eta marra jarraitua, berriz (2001-2015) biztanle eta etxebizitzaren urteko udal estatistikari.

23. taulan etxebizitza-parkeari buruzko informazioaren laburpen bat aurkezten da, analisi honetan erabili diren lurralde eremuei dagokienez. Villabona inguruan dinamismo handiagoa ikusten da, % 40tik gorako hazkundeaz, Tolosa inguruan % 37koa izan denean. Alabaina, azpimarratu behar da dinamismo hori ez datorrela burutza-gunearen portaeratik, 1991-2015 epean zehar eskualdeko udalerrri txikietako batez bestekoaren azpitik hazi baita (% 42 eta % 95 hurrenez hurren). Antzeko fenomenoak ikusten da Tolosa inguruan, honetan burutza % 36 hazi baita eta inguru horretako gainerakoan %40.

23. taula. Etxebizitza-parkea lurralde esparruka (1991-2016)

Lurralde esparrua	Familia-etxebizitza				Okupazio nagusiaren tasa (%-tan)				Etx. ald. % 91-15
	1991	2001	2011	2015	1991	2001	2011	2015	
EAE	773.615	877.855	1.018.794	1.039.136	81,3	85,1	84,5	84,9	34,3
Gipuzkoa	244.282	291.291	332.835	338.418	81,5	84,2	83,0	85,0	38,5
Tolosaldea	15.802	19.210	21.924	22.403	77,8	81,7	80,1	82,8	41,8
Tolosa ingurua	11.978	14.408	16.023	16.447	78,1	80,5	79,6	82,5	37,3
Villabona ingurua	3.824	4.802	5.901	5.956	76,8	85,2	81,6	83,7	55,8
Tolosa-Ibarra	8.206	9.957	10.905	11.163	81,1	83,6	80,9	85,1	36,0
Villabona-Zizurkil	2.855	3.511	4.034	4.065	79,1	87,4	81,5	83,9	42,4
N-len korridorea	12.867	15.616	17.729	18.128	79,9	84,1	81,3	84,7	40,9
Gainontzekoa	2.935	3.594	4.195	4.275	68,5	71,3	75,0	74,8	45,7
>800 bizt. udal.	13.823	16.803	18.953	19.392	79,2	83,1	81,0	84,1	40,3
<800 bizt. udal.	1.979	2.407	2.971	3.011	68,4	71,7	74,7	74,7	52,1

Iturria: Eustat (Biztanleria eta Etxebizitza errolda eta estatistika; Biztanleen udal estatistika).

Oharra: Erreferentziako data ez da berdina urte guztietan: martxoaren 1a 1991n, azaroaren 1a 2001 eta 2011n, eta urtarrilaren 1a 2015ean.

24. taulan okupazio nagusiaren tasaren eta familiaren neurriaren bilakaera ikus daiteke, lurralde esparruka. 13. irudian ikus daitezkeen bezala, Tolosaldeko familia-neurriaren portaera Gipuzkoa eta EAekoaren antzekoa izan da, bai magnitudean eta bai aldakuntza eritmoan. Tolosaldeko familiaren neurria gutxi gorabehera 2,53 pertsona/etxebizitza izan da 2015ean, oraindik ere zertxobait altuagoa Gipuzkoako eta EAeko batez besteko balioak baino (2,47 eta 2,46 hurrenez hurren).

Datu hauek 1981ekoekin alderatuta ikus daitezkeenez, Tolosaldean % 37 jaitsi da (4,02 pertsona 1981ean eta 2,53 pertsona 2015ean). Aldakuntza hori oso hurbil dago epealdi berean Gipuzkoan eta EAEn gertatutakoarekin (% -35 eta % -34 hurrenez hurren). Jaitsiera horrek esan nahi du familiaren neurri aldakorrek % 2,0ko jaitsiera izan duela urteko tasan (% 1,9 Gipuzkoan eta % 1,8 EAEn).

24. taula. Etxebizitza nagusiak eta familiaren neurria lurralde esparruka (1991-2015)

Lurralde esparrua	Etxebizitza nagusiak			Pertsonak /etxebizitza			Famil. neur. indizea
	1991	2011	2015	1991	2011	2015	1991=100
EAE	629.054	860.522	882.032	3,34	2,53	2,46	73,7
Gipuzkoa	199.009	276.407	287.575	3,40	2,55	2,47	72,6
Tolosaldea	12.296	17.567	18.559	3,54	2,62	2,53	71,4
Tolosa ingurua	9.359	12.752	13.571	3,51	2,61	2,50	71,3
Villabona ingurua	2.937	4.815	4.988	3,61	2,65	2,59	71,7
Tolosa-Ibarra	6.658	8.821	9.502	3,40	2,56	2,44	71,9
Villabona-Zizurkil	2.259	3.286	3.412	3,57	2,62	2,54	71,2
N-len korridorea	10.286	14.422	15.362	3,45	2,59	2,49	72,2
Gainontzekoa	2.010	3.145	3.197	3,99	2,76	2,71	67,9
>800 bizt. udal.	10.942	15.347	16.311	3,47	2,60	2,50	71,9
<800 bizt. udal.	1.354	2.220	2.248	4,03	2,74	2,72	67,5


Iturria: Eustat, Biztanleria eta Etxebizitza errolda (1991 eta 2011), eta Biztanleen eta Etxebizitzen udal estatistikak (2015)

13. irudian ikus daitekeen bezala, familiaren neurriaren etengabeko jaitsierak erritmo ezberdin samarrak izan ditu azken 35 urteotan. 1981-1991 aldian jaitsiera handia gertatu zen, eta are handiagoa, argi eta garbi, hurrengo hamarkadan (1991-2001), baina hortik aurrera beherakada nabarmen moteldu da. Moteltze hori bereziki handia izan da Tolosaldean, zeren eta Gipuzkoako batez besteko familia-neurria baino zertxobait baxuagoa izatetik 2001ean, 0,07 pertsona/etxebizitza altuagoa izatera pasa baita 2011n. Gero, 2011-2015 bosturtekoan, badirudi beherako bilakaera horrek Gipuzkoaren osotasunean antzemandakoaren ildo beretik jarraitu duela berriz ere.

Tolosaldeko Eremu Funtzionalean aintzat hartutako esparru ezberdinek konbergentzia garbia erakusten dute eskualdeko batez bestekorantz. Tolosa inguruak eta Villabona inguruak 1981ean zuten aldea, 0,17 pertsona, erdira murriztu da 2015ean. Konbergentzia hori are nabarmenagoa da 800 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan: eskualdekoaren batez bestekoarekiko 0,68 pertsonako aldea 1981ean, eta soilik 0,20 pertsonakoa 2015ean.

1991-2015 bitarteko epea hartuz gero aintzat, aurreko datuetatik ondorioztatzen da ezen etxebizitzaren eraikuntzaren erritmoa, Eremu Funtzionalean, 277 etxebizitza/urte ingurukoa izan dela azken 24 urteotan. Tolosa-Ibarrako hiri eremuan erritmo hori 124 etxebizitza/urte ingurukoa izan da, eta 51 etxebizitza/urte Villabona-Zizurkil eremuan.

13. irudia. Familiaren neurriaren bilakaera lurralde esparruka (1981-2015)



Iturria: Geuk egina Eustaten datuetan oinarrituta (Biztanleria eta Etxebizitza errolda eta estatistika; Biztanleen eta Etxebizitzen udal estatistikak).

Oharra: Marra punteatua (1981-2011) bosturteko errolda-eragiketei buruzko informazioari dagokio, eta marra jarraitua, berriz (2001-2015) biztanle eta etxebizitzaren urteko udal estatistikari.

b) Hirigintza-plangintzan barne hartutako etxebizitzaren aurreikuspenak

Plangintzako aurreikuspenei dagokienez, eta erantsitako taulatik ondoriozta daitekeen moduan, 2016ko abenduan 5.522 etxebizitza berri aurreikusten ziren; horietatik 4.174 hiri-lurzoruetan eta 1.348 urbanizatzeko gai diren lurzoruetan. Nabarmentzekoa lurzoru urbanizagarrian aurreikusitako etxebizitza kopuru txikia, kontuan izanik lurzoru libre guztiaren % 24 dela.

Azken 24 urteetako erritmoari jarraiki (277 etx./urte), eskaintza hori 20 bat urtean agortuko da.

25. taula. Hirigintza-plangintzan barne hartutako etxebizitza aurreikuspenak

UDALERRIA	Dauden etx.	AURREIKUSITAKO ETXEB. BERRIAK.			BABESPEKO ETXEBIZITZA BERRIAK		
		Hiri-lurzorua	Lurzoru urbanizagarria	GUZTIRA	Hiri-lurzorua	Lurzoru urbanizagarria	GUZTIRA
ABALTZISKETA	154	6	28	34	0	0	0
ADUNA	189	18	51	69	0	0	0
ALBIZTUR	184	17	29	46	0	9	90
ALEGIA	763	20	0	20	0	0	0
ALKIZA	173	0	0	0	0	0	0
ALTZO	159	2	32	34	0	18	18
AMEZKETA	553	115	66	181	12	30	42
ANOETA	904	24	258	282	0	104	104
ASTEASU	640	166	43	209	64	12	76
BALIARRAIN	60	2	0	2	0	0	0
BELAUNTZA	139	16	34	50	0	0	0
BERASTEGI	549	131	40	171	35	9	44
BERROBI	276	31	64	95	6	26	32
BIDANIA-GOITZ	280	63	10	73	20	0	20
ELDUAIN	104	28	0	28	0	0	0
GAZTELU	55	4	9	13	4	0	4
HERNIALDE	135	0	22	22	0	14	14
IBARRA	1780	305	0	305	135	0	135
IKAZTEGIETA	202	184	0	114	38	0	38
IRURA	810	77	300	377	0	90	90
LARRAUL	105	0	0	0	0	0	0
LEABURU	185	6	0	6	0	0	0
LIZARTZA	315	94	0	94	0	0	0
ORENDAIN	106	13	0	13	0	0	0
OREXA	44	6	0	6	0	0	0
TOLOSA	9.079	1.863	151	2.014	1.054	128	1.182
VILLABONA	2.582	502	137	639	211	111	322
ZIZURKIL	1.260	551	74	625	220	40	260
GUZTIRA	21.785	4.174	1.348	5.522	1.799	591	2.390

Iturria: Udalplan 2016 eta geuk prestatuak

Egungo egoeraren ondorioz, garapen berrietarako espazio-erabilgarritasunari dagokionez hurrena adierazi behar dugu:

- Tolosako eremuan eta, zehazki, Tolosako udalerrian, bizitegirako garapen berrietarako aukerak mugatuak dira benetan. Usabal Iparreko ibarreko aukera bazterturik, izan ere Udalak horniduretara bideratu baitzuen bere garaian, oso garrantzitsuak dira hirigune finkatuen edo honen ondoan kokatutako eraldatze jarduketak.

Eremu honetan, eta Gorostidi-Voith operazioa amaiturik, operazio edo jarduketa nagusiak honakoak dira: Laskorain edo San Esteban eremua ezen honetan 1.000 etxebizitza inguru eraikitzea aurreikusten da, eta horietatik 700 baino gehiago babes erregimenen batean sartutako etxebizitzak izango dira; lurramendi Pasealekua, 150 etxebizitza ingururekin, eta Papelera Amaro-ek okupatutako sailak 300 etxebizitza inguru eraikiz eraldatzea. Azken bi kasu horietan, eraiki beharreko etxebizitzetatik erdia babes erregimenen batean sartuta egotea aurreikusten da. Olarrainen aurreikusita dago beste 166 etxebizitza eraikitzea, eta horietatik 100 inguru babestuak izatea.

- Ibarako udalerrian garapen berrietarako aukerak baldintzatuta daude, erabilera primarioko hiri espazio huts ugari dagoelako; eta horiei dagokienez jarrera hartu beharra dago. Dirudienez, plangintza berritik ondorioztatzen denaren arabera, bete egingo dira pixkanaka.
- Villabonako eremuan, Villabona-Elbarrenako Hiri Eremu Integratuaren finkatze eta garatze desiratua, Zizurkilgo udalerriko garapenetan oinarriturik etorri beharko lukeena, ezinezkoa izango da, Papelera del Oria-ri dagokion eremua dela eta. Beraz, Aurrerapenak zioen ezen eremuko bizitegi-hazkunde intentsibo posibleak, izaera puntualeko garapen txikietatik edo industri eremuren baten eraldaketatik haratago, eta eredu orokorrik izan ezean, Papelera Salvadora-ren instalazioen erabilera bizitegi-erabilerara aldatzean oinarritzen zirela funtsean (jada garatua), edota Villabonako Udalak, antolamendua berrikusten duenean, bere garaian Sacem enpresak okupatu zituen lurzoruen erabilera –gaur egin industrialia– aldatzeari dagokionez hartzen duen erabakian. Hain zuzen ere, 2013an onartutako plangintzan bizitegira bideratu dira azkenean.
- Anoetako eta Iurako udalerriek, polo bien artean, eta funtzionalki horien mendean, daude, izaera intentsiboko bizitegi-garapen berrietarako aukera garbiak zeuzkaten; horietako lehenak Ikastolaren eta egungo hirigunearen arteko zonan, eta bigarrenak bere ipar partean daukan ibar zabalean, honen garapena partzialki gauzatu baita azken urteotan zehar.
- Eskualdearen hegoko partean, badirudi Alegiako hirigunea finkatzea komeni dela, hain zuzen bizitegi-garapen berrien eta dituen ekipamenduen birkalifikazioen bidez, bere inguruko udalerriekiko halako polo eginkizun bat berreskura dezan eta, horrela, Tolosa

hegoaldearen eta Goierriko Eremu Funtzionalaren artean sortzen den “hutsa” –neurri batean Alegiaren eta Tolosaren artean N-I errepideaz aparteko azpiegitura-euskarririk ez izatearen eraginez sortua– saihesten ahalegintzearren.

- Etxebizitza-sustapen publikorako, nolabaiteko babes publikoko lur erreserbei dagokienez, esan behar da 2005. urtera arte Tolosako udalerri bakarrik zegoela bere lurzoruen ehuneneko bat babespeko etxebizitzetarako gordetzer abehartua (17/94 Legearen indarrez). Baina udalerri hau, espazio-erabilgarritasun txikiko beste asko bezalaxe, bere hiri-bilbean sartutako industri-eremu zaharkituen eraldatze eta birsortzean ari zen oinarritzen bere garapena. Hala, Udalak berariaz besterik erabaki ezean, derrigorrez erreserbatu beharreko lurzoruen ehunekeko hori lurzoru guztiaren % 20 eskasean geratzen zen. EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea onartzeak neurri batean bakarrik konpondu du egoera hori, zeren eta lege horrek Ibarra, Villabona eta Zizurkilera zabaldu baitzuen obligazio hori.

c) Eskaeraren aurreikuspenak:

Egungo biztanleria-joerak eta 2.2.1.d) apartatuan jasotako bestelako proiektzio demografikoetan kontuan hartutako beste hipotesiak mantenduz gero, etxebizitza nagusiei dagokienez izango diren beharrak, hurrengo 16 urteetan, 3.500 etxebizitza* ingurukoak izango dira; horietatik 1.700 etxebizitza inguru lehen azpi-epekoak izango dira (2017-24) eta beste 1.800 etxebizitzak bigarrenekoak (2025-2032).

Amaitzeko, begi-bistakoa dirudien arren, komenigarria litzateke berriz ere azpimarratzea aipatu ditugun zenbatekoak balioespenak direla, bai demografiari dagozkionak, bai etxebizitzaren eraikuntzari dagozkionak. Balioespen horietan eragina izango dute barneko zenbait dinamika eta alternatibak, baita Eremu Funtzionaletako alderdi publiko nahiz pribatuek abian jarritako ekimen eta proiektuek ere (ekonomia-garapenaren, hiri-berrikuntzaren, higiezinen eskaintzaren eta abarren ingurukoek).

* Esan behar da soil-soilik biztanleriaren gorabeheretatik eta familiaren neurria murriztetik etorritako premia zehatzei buruzko datuak direla.

2.4.3. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA

a). Ezaugarri orokorrak.

Eskualdeko jarduera ekonomikoa, duela gutxi arte nagusiki industrian bildua, aldatzen ari da, eta zerbitzuen sektorea ari da biltzen, gaur egun enpleguaren % 60,9 hartzen baitu, eraikuntzak eta industriak % 36,7 hartzen dutela (portzentaia horiek % 55,6 eta % 43 ziren, hurrenez hurren).

Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko Lurraldearen Zatik Planak, bere aldetik, Tolosaldeko Eremu Funtzionalari buruz egindako analisisan, hainbat konklusio jasotzen ditu:

Duela gutxi arte garapen industriala Tolosa, Villabona eta Alegiako udalerrietarantz bideratu da.

Duela gutxi, baina, Tolosa eta Villabona saturazio espazialera iritsi direla, hirigintza eta industria garapena zabaldu egin da Oriaren haranaren ondoan kokatutako eskualdeko beste udalerrietara (Aduna, Zizurkil, Irura, Anoeta, Ikaztegieta, etab.), eta bizitegi hazkundera aldameneko Ibarra, Anoeta eta Zizurkilgo herrietara mugitu da.

Tolosaren industrializazio tradizionala papergintzaren sektorean zertu zen batez ere; sektore honek oso krisialdi sakona jasan du. Oraindik birmoldaketa prozesu batean gaude, eta honen bidetik enpresa tradizional batzuk behin betiko desagertuko dira, eta beste batzuk eraldatu, lekualdatze jarduketan bidez.

Eremu Funtzionalako jarduera ekonomikoaren sektorekako banaketa enpleguaren banaketan islatzen da: % 4 lehen sektorean, % 49 bigarren sektorean, eta % 47 hirugarren sektorean. Beraz, eskualdeko jarduera ekonomikoaren oinarri nagusia industriaren sektorea dela egiaztatzen da.

Eremu Funtzionalean ez dago enpresa handirik; industri ehunaren osagaiak neurri txikiko enpresak dira, metalezko eraldatuetan eta papergintzaren sektorean ari direnak berak.

Laburbilduz, eskualdeko industriaren arazoak Tolosako papergintzaren eta industriaren sektoreak duen birmoldatu beharrean biltzen dira, ezen instalazio zaharkituak dira, eta kasu askotan hiri bilbearen barnean gaizki kokatuak gainera. Enpresa batzuek handitu eta lekuz aldatu nahi badute ere, ezin zaie aukerarik eman Tolosako udal barrutiaren barnean, honek ez baitu industriadako lurzorurik. Tolosatik inguruko udalerrietarantz irteten ari dira enpresak. Eskualdean, epe laburrean, poligono berri bat sustatu beharra dago, lekuz aldatzea erabakitzen duten halako neurri bateko enpresak hartu ahal izango dituen bat.

Konpondu gabeko beste arazo bat Tolosako industrialdearen kokapenarena da; oso jarduketa interesgarria izango da, dauden lantegi txikiak hirigunearen barnean lekuz aldatzea ahalbidetearren.

Enpresak Oria Erdiaren haran nagusian zehar finkatu dira, funtsean, eta ia-ia modu jarraituan, eta bigarren mailako haranen hasieran, hala nola Berastegi (Berrobiraino), Araxes (Txaramaraino) eta Asteasun; eta horrek alubioizko sailen okupazio altu eta bereizi gabea ekarri du berekin, eta tarte hutsak gutxi izatea halaber. Ibai ondoko eremu lauen kolmatazioa, baita neurri txikikoen kasuan ere, bereziki bizia izan da Tolosa inguruan eta beronen hurbileko periferian, eta oraindik badira aipatzeko moduko pabilioi batzuk; industrietako horietako asko eta asko papergintzan aritzen ziren.

Beste ezarpen batzuk gauzatu dira Alegia, Ikaztegieta eta Lizartzan, kokapen ezaugarri bereberei jarraiki, haran tarte estu eta neurri txikikoak baliatuta. Are txikiagoak dira Elduain eta Amezketako asentamendu puntualak, Leaburuko kalifikazio batzuk eta Gaztelukoa. Aparteko aipamena behar dute Bidania-Goiatzeko industri asentamenduek; goi haranetan daude kokatuta, argi eta garbi landatarrak diren eta hirigintza aldetiko egokitasun zalantzazkoa duten inguruetan, akuiferoak kaltetzeko arrisku handiz, garapeneko korridore nagusietatik urrun eta, eremuko lurzoru eskasiari erantzunik emateke, inpaktu handia eragiten dute, inguruarekiko integrazio maila txikiagatik.

Unitate urbanistikoetako asko eta asko (poligonoetatik % 83) neurri txiki edo ertainekoak dira, 5 hektareatik gora egin gabe kasurik onenean; eta guztietatik ia-ia erdia (% 49) 2 hektareatik beherako unitateak dira.

Horrenbestez, Tolosaldean ere argi eta garbi ageri zaigu Gipuzkoako ohiko lurralde eredua, haran estuen okupazio lineal trinkoaz eta herri nagusien eta komunikazio korridoreen inguruko kontzentrazioez, bilbe nagusia jarduera ekonomikoetarako eremuek osatzen dutela, hiri-bizitegi guneen arteko continuum bat eratzeko joeraz.

Bestetik, gauza ohikoa da hiri hazkundearen eraginez garai batean gune nagusien aldirietan kokatuta zeuden industriak bizitegi-ehunaren barnean geratzea pixkanaka; horrek hainbat arazo eta zailtasun eragiten dizkie enpresei, handitzera, irisgarritasunera eta erabileren bateragarritasunera begira. Fenomeno honen eraginez –batez ere Tolosan gertatzen zen, Papelera Tolosana, Larramendi eta Laskorain, San Esteban eremuetan besteak beste– instalazioak tokiz aldatu beharra sortzen da, eta lurzoru hiritarrak birkalifikatzekoa, eta honek guztiak, bere aldetik, aldagetak ekarriko ditu egungo eremuan (ez bakarrik Tolosa eta Ibarra inguruetan), udalerrri horietan lurzoru egokirik ez dagoelako eta duten jarduera produktiboa mantentzera eta indartzera bideratutako estrategia egokiak ezarri behar direlako.

b). **Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren eskaintza orokorra, gaur egun.****26. taula. Hirigintza planean jarduera ekonomikoetarako lurzoruari buruz jaso diren aurreikuspenak.**

JARDUERA EKONOMIKOETARAKO KALIFIKATUTAKO LURZORUA									
TOLOSALDEKO EF	Azalerak Hiri-lurzorua			Azalerak Lurzoru urbanizagarria			Azalerak GUZTIRA		
	gordina	okupatua	hutsik	gordina	okupatua	hutsik	gordina	okupatua	hutsik
ABALTZISKETA	0	0	0	0	0	0	0	0	0
ADUNA	26,47	26,47	0	29,43	7,06	22,36	55,90	33,53	22,37
ALBIZTUR	3,6	2,8	0,8	0,5	0	0,5	4,1	2,8	1,3
ALEGIA	10,93	10,93	0	0	0	0	10,93	10,93	0
ALKIZA	0	0	0	0	0	0	0	0	0
ALTZO	4,02	4,02	0	0	0	0	4,02	4,02	0
AMEZKETA	3,8	3,8	0	3,6	0	3,6	7,4	3,8	3,6
ANOETA	11,4	10,4	1	0	0	0	11,4	10,4	1,0
ASTEASU	20,3	20,3	0	0	0	0	20,3	20,3	0
BALIARRAIN	0	0	0	0	0	0	0	0	0
BELAUNTZA	17,52	14,91	2,61	0,7	0	0,7	18,22	14,91	3,31
BERASTEGI	2,91	2,91	0	0	0	0	2,91	2,91	0
BERROBI	2,4	2,4	0	0	0	0	2,4	2,4	0
BIDANIA-GOIAITZ	5,45	4,61	0,84	0	0	0	5,45	4,61	0,84
ELDUAIN	2,7	2,7	0	0	0	0	2,7	2,7	0
GAZTELU	0,47	0	0,47	0	0	0	0,47	0	0,47
HERNIALDE	0	0	0	0	0	0	0	0	0
IBARRA	28,3	28,3	0	7,6	0	7,6	35,9	28,3	7,6
IKAZTEGIETA	5,66	5,66	0	1,8	0	1,8	7,46	5,66	1,8
IRURA	20,33	20,33	0	1,13	0	1,13	21,46	20,33	1,13
LARRAUL	0	0	0	0	0	0	0	0	0
LEABURU	6,16	5,21	0,95	1,08	0	1,08	7,24	5,21	2,03
LIZARTZA	9,72	9,72	0	0	0	0	9,72	9,72	0
ORENDAIN	0	0	0	0	0	0	0	0	0
OREXA	0	0	0	0	0	0	0	0	0
TOLOSA	54,49	41,55	2,39	2,39	0	2,39	56,88	41,55	15,33
VILLABONA	12,65	12,65	15,17	15,17	0	15,17	27,82	12,65	15,17
ZIZURKIL	17,8	16,5	4,94	4,94	2,15	2,79	22,74	18,65	4,09
GUZTIRA	267,08	246,17	68,34	68,34	9,21	59,13	335,42	255,38	80,04

Iturria: Geuk egina, UDALPLAN, 2016tik abiatuta

26. taulan islatzen den moduan, jarduera ekonomikoetarako bideratutako lurzoru kalifikatuen azalera orokorra, Eremu Funtzional osoa harturik, 335 ha ingurukoa da.

Detektatu den maila funtzionaleko lurraldearen azpi-banaketari dagokionez, industri lurzoru kalifikazioa duen azalera, laburturik, honakoa da:

5 hektareatik gorako eremuak honakoak dira:

- Apattaerreka poligonoa (Tolosa-Ibarra-Leaburu), 15 hektarearekin, eta Usabal (5 ha)
- Erribera (Aduna) eta Akolodi (Villabona) sektoreak, 21 ha eta 6 ha, hurrenez hurren.

Unitateko 2 hektarea baino gutxiagoko lurzoru hutsa duten beste eremuak –16 bat ha– 11 udalerritan banatzen dira, eta ez dira kontuan hartzeko moduko aktiboak lurralde eredurako edo erreserbak aurreikusteko edo zehaztapen adierazgarrietarako.

d). Asentamendu berrietarako egokia den eta kalifikatu gabe dagoen lurzoruaren gaitasuna.

Jarduera mota honetarako lurzoru egokitzat jotzen ditugu, –duela gutxiko instalazioen batez besteko tipologia mantentzeko hipotesia onarturik, betiere– malda txikiko sail irisgarriak, hiri eremuetatik urrun ez daudenak. Baldintza hauek zuzendu egin daitezke lurralde ereduaren beste oinarri batzuetan jasotako irizpideen bidez, esaterako egitura, asentamenduen hierarkia eta ingurumen ezaugarriak harturik aintzat. Eremuan ezaugarri hauek dituen lurzoru azalerari buruzko zenbatespen bat eginez gero, hainbat erreserba hartu behar ditugu kontuan:

28. taula. Hiri erabileretara edo jarduera ekonomikoetara bideratzeko egokia datekeen lurzoruaren erabilgarritasun fisikoa

Udalerria	Azalera GORDIN (ha.) zenbatetsia	Kalkulu zenbatespena gutxi gorabeh. azalera gordinaren % 70 (ha)	Erabilgarritasuna ereduko irizpideen arabera. (ha.)
<i>Villabona - Anoeta</i>	<i>24 ha</i>	<i>16</i>	<i>16</i>
<i>Asteasu</i>	<i>7 ha</i>	<i>5</i>	<i>5</i>
<i>Zizurkil</i>	<i>10 ha</i>	<i>7</i>	<i>-</i>
VILLABONAKo azpi-eskualdea	39 ha	28 ha	21
Ikaztegieta – Alegia	5,5 ha	4	4
Albiztur	5,5 ha	4	-
Bidania-Goiatz	10 ha	7	-
Berrobi – Elduain	5,5 ha	4	-
Berastegi	10 ha	7	-
TOLOSAko azpi-eskualdea	35 ha	26 ha	4 ha
GUZTIRA	74 ha	54 ha	25 ha

Kalkulu zenbatespenak –azalera gordinaren % 70– esperientzian oinarritzen dira, eta sail horien gainean beste hainbat faktorek eragiteko probabilitatean halaber; izan ere, faktore

topografikoak izan daitezke, hirigintzari lotuak (lehendik dauden elementuak, antolamenduaren gaineko afekzioak, ...), azpiegitura mailakoak (trenbidea, ...), edo arau arlokoak (ibaiertzak, ...). “Erabilgarritasun bideragarria” izango litzateke. Laburbilduz, Tolosaldeko industri lurzoruaren gaitasunak, gaur egun, ezaugarri hauek izango litzuzke:

29. taula. Tolosaldeko industri lurzoruaren gaitasuna

Azpi-eskualdea	Kalifikatu GORDINA	Kalifikatu okupatua	Kalifikatu HUTSIK	Kalifikatu BIDERAGARRIA	Ez kalif. POSIBLE A	HUTSIK GUZTIRA BIDERAGARRIA	GORDINA GUZTIRA BIDERAGARRIA	GORDINA GUZTIRA TEORIKOA
VILLABONA	148 (% 44)	105 (% 41)	43(% 54)	30	21	51	156	169
TOLOSA	187 (% 56)	150 (% 59)	37 (% 46)	24	4	28	178	191
GUZTIRA	335 (% 100)	255 (% 100)	80 % (100)	54	25	79	334	360

Datuak: UDALPLAN 2011 eta geuk prestatuak

Lurzoru hutsaren erreserba igo ahal izango litzateke, egungo 54 ha bideragarri horietatik (80 ha kalifikatu) 79 ha bideragarritara iritsiz, 25 hektareako irabazi batez alegia. Ereduko azalera bideragarri guztia 334 hektareakoa genuke, eta gordin teorikoa 360 hektareakoa. Azken horietatik, 20 bat hektarea oso azalera txikiko zati libre txikiak dira (0,5 eta 1,9 ha bitarteko zatiak), eta batzuek ez dute inolako bideragarritasunik. Errealismoaren bidetik joz, erreserba nagusiak ondoko esparru hauetan egongo lirateke:

Udalerria	Azalera (ha) huts kalifikatu bideragarria	Azalera (ha) huts kalifikatu GABEA	Azalera (ha) hutsa GUZTIRA
Aduna	21 [*]	-	21
Villabona-Anoeta	-	16	16
Asteasu-Zizurkil	-	5	5
Villabona	6	-	6
VILLABONAKo azpi-eskualdea	27	21 ha	48 ha
Alegia - Ikaztegieta	-	4	4
Ibarra	8	-	8
Tolosa	13	-	13
Berastegi	3	-	3
TOLOSAko azpi-eskualdea	24	4 ha	28 ha
GUZTIRA	51	25 ha	76 ha

^{*} Azalera huts kalifikatu bideragarrian sartu dira Adunako Erribera eremuan dauden eta uholde arazoak izaten dituzten lurzoru batzuk (11 ha inguru). Neurri txikiagoan bada ere, arazo bera erakusten dute Villabona-Anoetako ibarrean eta Alegia-Ikaztegieta dauden kalifikatu gabeko sail hutsek. Esparru horiek garatuko badira, jakina, aipatutako arazoa konpondu beharko da aurrez.

e). Jarduera ekonomikoetarako lurzoru eskaera eta kuantifikazioaren aurreikuspena.

• ***Hirigintza dimentsionatzearen arazoa.***

Jarduera ekonomikoak garatzera bideratzen den lurzoru beharrak halako zorroztasun batez ezartzeko zailtasunak, sistemaren konplexutasun eta arriskuek eraginak, agerikoak dira. Metodologiaren aldetiko erreferentziak ez dira zehatzak, nahiz diziplina urbanistikoari, azterketaren zertzelada zehatzei, alorkako analisei eta, beste hainbat faktoreren artean, lurzoru kontsumoaren joerei lotuta egon. Bestetik, ez da ahaztu behar ezen metodologian ezinbestekoa dela eremu funtzionaleko bertako eragile sozial eta ekonomikoen parte hartzea; baina, orain arte behintzat, horrek helburu orokorregiak besterik ez ditu eman.

Plangintzan jasotzen den asentamendu mota batek hirigintza aldetik izan behar dituen neurriak zehazteko unean, gure irizpideen arabera betiere, honako erreferentzia hauek jarraitu behar dira:

- I. Hirigintzaren teorian erabiltzen diren *indize teorikoak*.
- II. *Indize errealak*: indize teorikoak errealitate hurbilera egokituta.
- III. Arlokako datuak, gure kasuan Jarduera Ekonomikoetarako LAP.
- IV. Lurraldeari buruzko datuak, hala nola lurzoruaren erabilgarritasuna eta hirigintzako analisiak, lurralde ereduaren eginkizun, egitura eta beste hainbat faktoreekin batera.
- V. Plangintzako faktore “aleatorioak”.

I. *Indize teorikoak*

Analisi estatistikoetatik atera direlarik, indize edo estandar urbanistikoak batez besteko balioak dira (“estandarrik”), onargarri jotzen direnak berak esperientzia luze eta askotarikoetan oinarrituta. Oinarri finko batean aplikatu daitezke, normalean izaera demografikoko oinarri batean alegia, esaterako biztanleria, enplegua, ikasleak ... harturik aintzat, asentamendu motaren arabera. Industri lurzoruaren kasuan, ohiko parametroak biztanleria, dentsifikazio indizea edo sabai/enplegu erlazioa dira.

Indize teorikoen oztopo handiena izaera estatikoa izan ohi da, eredu “amaitu” eta “zuzen” batekiko, nolabait “ideal” baina esperientzia errealetan oinarritutako batetik korrespondentzia. Plangintzan aplikatzen direnean –izan ere plangintzak, definizioz, izaera dinamikoa du, faktore anitzekoa, eta zehaztasun faltaz betea da gainera– bakar-bakarrik premisa jakin batzuen erreferentzia teoriko gisa balioko dute, aldagarriak diren baina parametro desberdinak dituzten beste egoera batzuetarako.

Industri lurzoruaren plangintzan indize teorikoak aplikatzea ez da ohiko kontua izaten gure inguruan, bizitegirako erabileren kasuan izan ohi diren eskakizunez zeharo bestela alegia. Alabaina, lurzoru kalifikatu gehiegi edo gutxiegi izatearen arazoa, baliabide eskas baten, hots, lurzoruaren arrazionalizazioaren ikuspegitik, berdina da kasu bietan, eta zenbaitetan larriagoa gainera industri erabilerei dagokienez. Beharbada, horren guztiaren arrazoia gure lurraldean lurzoru eskasia izatea edota ekonomian, gai zeharo delikatu eta aldakorra izanik, ekimenik ez eragozteko borondatea izango da, edota udalen artean enplegu esportatzaile baino gehiago enplegu hartzaile izateko sortutako lehia, etab.

Edonola ere, azpimarratu egin behar da estandarrak erreferentzia balio hutsa duela, baina era berean baliagarria dela lurralde-ekintzen gaineko kontrol publikoak ezinbestekoa duen arrazionaltasunerako. Indize teorikoetako batzuek lotu egiten dituzte industri lurzoruaren neurri orokorra biztanleria osoaren neurriarekin, esate baterako, 60 m²/bizt.; beste batzuek, aldiz, hartzen duten enpleguarekin, esaterako 25 enplegu/ha. Balizko hauek orokorregiak dira, zeren eta ez baitute kontuan hartzen zonaren espezifikotasuna. Dena den, zifrak esperientzia erreal askotatik ondorioztatzen dira.

Tolosaldeko bigarren sektorean ari den biztanleriaren indizea aplikaturik –biztanleria osoaren % 18,35*–, 60 m²/bizt. hori 327 m²/bizt. edo 31 enplegu/ha bihurtzen da.

Hau da, erreferentziako kopuruak honakoak dira:

- 46.969 bizt. x 60 m²/bizt.282 ha.
- 8.620 enplegu 35 enplegu/ha izanik278 ha.

Azken batean, teorian “orekatua” genukeen egitura funtzional baterako behar “zorrotzak” lirateke, eta Tolosaldearen egungo egitura ikusirik (255 ha eta 31 enplegu/ha), egoera berezia erakusten digute, neurri batean defizitarioa.

Kontuan harturik plangintzak –denboran zeharreko garapenerako tresna izaki– bere lurzoru aurreikuspenak egiteko gehiago jo behar duela zehaztu gabeko erabilerak hartzen dituzten balizkoetara jarduera espezializatueta baino, interesgarria izango litzateke aztertzea ingurune zabal (era askotako jarduerak) eta hurbilekoetako indize orokorrak, izan daitezkeen joerekin batera, indize teorikoekiko desbideratzeak edota bat etortzeak zenbatesteko.

* 2006. urtean bigarren mailako sektorean eta eraikuntzan okupatutako biztanleriari buruzko datuak mantentzea erabaki dugu. Datu horiek 2011ra eguneratuko bagenitu, 7.330 enplegura jaitziko lirateke eta enplegu/ha ratioa 31tik 27 enplegu/ha-ra jaitziko litzateke, eta ondorioz, lurzoru premien gorakada. Ildo berari jarraituz, 60 m²/ha estandarra 2032. urterako aurreikusitako biztanleriari (49.500 biztanle) aplikatuta, premia horiek 297 ha-ra iritsiko lirateke.

II. Indize errealak.

Gure inguru geografikoan dauden jarduera ekonomikoen okupazio datuetatik ateratzen dira, behar beste zabalak, inolaz ere, espezializatutzat ez hartzeko.

Enplegu kop./ha erlazioa

EAE	ARABA	VITORIA-GASTEIZ	BIZKAIA	TXORIERRI DURANGO	GIPUZKOA	DONOSTIALDEA. H.M.	OARSOALDEA.
39	23	30	45	38 / 39	47	39	37

Datuak: Jarduera Ekonomikoetarako LAPekoak eta geuk prestatuak.

Aurreko datuetatik ondoriozta genezake, esaterako, lurzoru/enplegu ratioa handitu egiten dela lurzoru-erabilgarritasun handieneko lurraldeetan, asentamendurik modernoak eta espezializazio maila txikienekoak dituztenetan. Era berean, ikusten da jarduera berriek eta hirugarren sektorerako joera gero eta nabarmenagoak, indizeak igorarazten dituztela; eta enpresak gehiago egokitzen zaizkiola neurri desiragarriari, lurzoria erabiltzeko modua dutenean.

Horren ildotik, pentsa dezakegu joera dela enplegatu bakoitzeko lurzoru erreserba handiagoetara jotzea (25 enplegu/ha ratio teorikora hurbilduz horrela), are gehiago zehaztu gabeko edo espezializatu gabeko jardueretara bideratutako lurzoruak direnean.*

Horrela, eta egungo batez bestekoa 37 enplegu/ha denez, 31 enplegu/ha erlazioa – gutxienez– nahiko arrazoizkoa izango litzateke.

III. Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoria Sortzeko LAP.

Jarduera ekonomikoari buruzko aurreikuspenik berrienak Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoria Sortzeko LAPetik datoz; horiek, laburbildurik, eta Tolosaldeari dagokionez, honakoa jasotzen dute:

Konklusioak:

- *Jarduera ekonomikoetarako kalifikatutako lurzoria:..... 299 ha Okupatua: 182 ha / Librea:117 ha*
- *Eskaintza bideragarritzat konputa daitekeen lurzoru librea: (0,5 x 117) = 60 ha gutxi gorabehera.*
- *Azken 12 urtean (1990-2002) jarduera ekonomikoetarako kalifikatutako lurzoruaren igoera: 25 ha.*

Hazkunde erritmoa: 2 ha / urte.

Jarduera Ekonomikoetarako LAPek dioenez: *“Eskaera atxikia zurgatzeko eta etorkizunean izan daitekeen lurzoru eskaera endogenoa estaltzeko ... 16 urteko horizonte batean komeniko litzateke eremu funtzionalean lurzoru eskaintza bat aurreikustea, gutxienez Tolosa inguruan hazkunde endogenoaren erritmoari eustea bermatzeko eta Eremu Funtzionalaren iparreko partean lurzoru eskaintza osagarri bat sortzea ahalbidetzeko”.*

**ikus aurreko orrialdeko oharra.*

Alabaina, Jarduera Ekonomikoetarako LAParen metodologian ez dira zehazten beharren aurreikuspena ezartzea ahalbidetzen duten mekanismoak. Egiaz, faktore zailak eta arrazionalizatzen zailak dira tartean eta, horrenbestez, dokumentu horretan proposatzen den dimentsionatze zehatza gehiago izan daiteke, agian, lurzoru egokiaren erabilgarritasun erreala irizpideari jarraiki edo neurri egokiko eta sustapen publikoko unitateen aurreidiseinuaren ildotik egina, betiere helburu orokorren esparruaren barnean noski.

Jarduera Ekonomikoetarako LAPak Tolosalderako egiten dituen proposamenak:

- *Lurzoru libre kalifikatua, eskaintza bideragarritzat konputagarria (0,5 x 117 ha gutxi gorabehera):: 60 ha*
- *Jarduera ekonomikoetarako promozio publikoetarako lurzoru beharrak:30 / 45 ha.*
- *Planaren horizontean (2018) aurreikusi beharreko beste erreserba batzuk:30 / 60 ha.*
- *Planaren horizontean (2018) aurreikusi beharreko erreserba berriak guztira:.....**60 / 105 ha.** (82 ha)*
- ***Dimentsionatze orokorra Planaren horizontean (2018).* (182 + 120/165)**302 / 347 ha.** (325 ha)**
- *Lurzoru publikoa sortzeko proposamenak, Planaren horizontean (2018).*
Apattako poligonoaz gain (51 ha), hau garatzen ari baita, honakoak beharko lirateke:
 - Adunako ibarra: 15 eta 25 ha bitarte
 - Kokapen berria Tolosa-Ibarran: 15 eta 25 ha bitarte

LAPeko zifrak eta Tolosaldeko lurzoru erabilgarritasuna alderatuta, biak bateragarriak direla ikus daiteke.

- Erreserba berriak: 60 / 105 ha. (LAP) / 20 ha erabilgarri (LZP).
- Dimentsionamendu orokorra: 302 / 347 ha. (LAP) / 334 eta 360 ha posible bitarte (LZP).

IV. Lurralde datuak.

- Lurzoru-erabilgarritasuna: (ikus kapitulu honetako -c- puntua).

Udalerria	Azalera (ha) huts kalifikatua	Azalera (ha) huts kalifikatu GABEA	Azalera (ha) hutsa GUZTIRA
VILLABONAKo azpi-eskualdea	30	21 ha	51 ha
TOLOSAKo azpi-eskualdea	24	4 ha	28 ha
GUZTIRA	54	25 ha	79 ha

Gainerako datuek Lurralde Eredua definitzen dituzten faktoreak aipatu behar dituzte, hala nola egitura eta Eredua itxuratzerantz bideratzen diren ekintza estrategikoak.

Jakina, jarduera ekonomikoak ereduaren definizioaren parte dira; beraz, antolamenduaren beste faktoreekiko elkarrekintzan daude, eta ez dira haien ondorio hutsa. Alabaina, badira lurralde analitiko ateratzen diren lehentasunezko konklusio interesgarri batzuk. Irizpideetako batek Tolosa burutza-hiri gisa indartu beharra azpimarratzen du. Horrek eskatzen du haren inguruan mota horretako jarduerak bultzatzea, ahal den neurrian, eta, beraz, asentamendu bat komeni da, ahal delarik sortu berriko bat, orografiari egokitzeko modukoa beti.

Kontua litzateke hasteko, gutxienez, 20 ha inguruko eremu berri bat kokatzea; kopuru horretarako kontuan hartuko lirateke bai promozio estrategikoen hurbileko esperientziak (Donostia, Arrasate) eta bai aukera topografikoak.

Analisetako beste batek Irura-Villabonan hiri continuuma hausten dela azpimarratzen du, eta aukera dagoela hutsik dagoen esparruan zona berregituratzeko, eginkizun mistoak emanaz aprobetxamenduari (bizitegia - hirugarren sektorea - produkzio bateragarria, etab.), mota industrialetik –honen zentzu tradizionalan behintzat– kanpo.

Bestetik, lurzoru-erabilgarritasunaren tanteoak agerian uzten du erabiltzea zentzuzkoa izan daitekeen eremu hutsak ez direla, dirudienez, gehiegi; beraz, ereduari gehituko litzaizkioke behin-behinean, dimentsionamenduari buruzko analisiaren aurretik.

V. Plangintzako faktore aleatorioak.

Tresna baten, hots, Planaren izaera dinamiko eta irekiari dagozkio. Planak, izan ere, denboran zehar garatu behar du, eta ziurgabetasun eta zehaztugabetasun handia ezaugarri duten hainbat aldagai ditu, hala nola:

- *eskaeraren etorkizuneko erritmoak*
- *eskaintzaren malgutasuna, lurzoru kudeatzeko eta prestatzeko zailtasunak sortzen diren egoeretan.*
- *industrialarietako lurzoruak atxikitzea, handitzeak aurreikusita.*
- *industri lurzoru urbano zaharkitua birkalifikatzen ondorioztatzen den eskaera.*
- *ezaugarri bereziak dituen lurzoru publiko edo pribatuaren eskaera (belaunaldi berriko zentroak, berrikuntza eta ikerkuntzakoak, etab.).*
- *industria berriak erakartzeko politika, etab.*

Denbora-horizonte urrun samarreko batean asentamenduetara bideratu behar den lurzoruaren kuantifikazioaren zehaztasun falta hori are nabarmenagoa gertatzen da jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kasuan; horregatik, tresnek faktore objektiboagoetara jo dezakete, hala nola alorreko azterketa eta planetara, lurzoru-erabilgarritasunera edo intereseko industri unitateen gaineko esperientziara.

Gure kasuan, eta alorreko azterketarik ez dagoela –Jarduera Ekonomikoetarako LAPa salbuespena da–, lurralde datuak eta behar zehatzak erabiliko ditugu halaber, lurzoru-erabilgarritasunaren eta datu haien arteko alderaketatik ateratzen diren *eskaintzaren malgutasun* faktoreak deduzitzeko. Faktore horiek beste zehaztugabetasunak modu simple batez zurgatzeko balio dute. Eta erabilienak eta ezagunenak bizitegi lurzoruen kasuan erabiltzen direnak dira (esate baterako, eskaintzaren malgutasun faktoreak).

• **Lurzoruaren behin-behineko kuantifikazioa eta asentamenduen kokapena.**

Lurzoru beharren analisiak egungo datuak erabiltzen ditu, etorkizuneko proiektiorik gabe, hain zuzen detektatu den demografiaren geldialdiagatik; horrenbestez, erreferentziarik desfaboragarrienak edo lurzoru gehien kontsumitzen dutenak hartzen dira kontuan.

Laburbilduz, lurzoruaren dimentsionatzeari buruzko azterketak taula hau ematen du:

- Behar den lurzoru zehatza, estandarren arabera 280 ha Guztira (25 ha berri)*
- Behar den lurzoria Jarduera Ekonomikoetarako LAParen arabera 302 ha eta 325 ha bitartean Guztira (60 / 105 ha berri)
- Lurzoru posiblea erabilgarritasunaren arabera (LZP)..... 340 / 360 ha Guztira.....(25 ha berri)

Eskaintzaren malgutasun faktore maximoa, beharrezko lurzoru zehatzarekiko:

$$360 \text{ ha} / 280 \text{ ha} = 1,28$$

Eskaintzaren malgutasun faktore maximoa, egun okupatutako lurzoruarekiko:

$$360 \text{ ha} / 255 \text{ ha} = 1,41$$

Datu hauek aukera emango digute aipatutako lurzoru erabilgarriko eremuak, hau da, 25 bat hektarea berri, ereduari eransteko aukera onargarriztat jotzeko.

Lurzoru erreserba nagusiak haranaren ardatzaren iparreko partean daude, eta horrek hiri continuumaren berregituratze serio eta ezinbestekoa eskatuko du, Tolosan jarriz zentraltasuna, hain zuzen zatikatzea eta, honen ondorioz, iparreko poloen desplazamendu zentrifugoa saihesteko.

Ezarpen nagusiak honela banatuko dira:

Udalerria	Azalera (ha) huts kalifikatua	Azalera (ha) huts kalifikatu GABEA	Azalera (ha) hutsa GUZTIRA
<i>Oriaren ibarra, Aduna</i>	21	-	21
<i>Oriaren ibarra, Anoeta</i>	-	16	16
Apattaerreka (ToI-Ibar-Leab)	15	-	15
Tolosa-Ibarra hegoaldea.	-	20	20
GUZTIRA	36	36	72

* Gainera, edonola ere, lurzoruaren merkatuak modu eraginkorrean funtzionatzeko behar besteko lursailak izan beharko lituzke, eta etorkizuneko planei aurre egiteko moduko erreserbak eduki.

Adunako ibarra, 20 ha inguruko eremu bideragarriaz, produkzioarako industri ezarpenetarako egokiagoa dirudien erreserba bat da. Villabona eta Anoetako ibarra, Iruraraino, aldiz, 16 ha inguruko azalera bideragarria duela, funtsezko pieza bat da eskualdearen egituratze egokirako, eta ez da "industri poligono" huts gisa hartu behar. Kualifikazio altuagoa izango luke, erabilera eta egitura argi eta garbi hiritarretara, ahal izanez gero mistoetara, bideratuko balitz, bizitegiarekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoak bazterteke.

Neurri horiek osatzeko –eredua itxuratzeko egitura-operazio garrantzitsu baten parte izango lirateke–, Tolosa inguruan 20 ha inguruko lurzoru gordineko asentamendu garrantzitsu bat zertu behar da, derrigorrez orografia erraz bati lotuta egon behar ez duten tipologiekin bateragarriak diren erabileretarako.

Gainerako lurzoru huts bideragarriak edo kontuan hartzeko modukoak direnak, kalifikatuak zein kalifikatu gabeak, udal garapen arruntaren bidez jokoan sartuko den aktibo bat dira.

30. taula. Ereduaren behin-behineko ezaugarrien laburpena.

Azpi-eskualdea	Egun kalifikatua GORDINA	Egun kalifikatu okupatua	Egun kalifikatua HUTSIK	Egun kalifikatua BIDERAG ARRIA	Ez kalif. huts POSIBLEA	HUTS BIDERAG ARRIA GUZTIRA	GORDIN BIDERAG ARRIA GUZTIRA	GORDIN TEORIKOA GUZTIRA
VILLABONA	148	105	43	30	21	51	156	169 (% 44)
TOLOSA...	187	150	37	24	4 + 20	28 + 20	198	211 (% 56)
GUZTIRA	335	255	80	54	25 + 20	99	354	380 (% 100)

2.4.4. EKIPAMENDU KOMUNITARIOAK

Epigrafe honek lurralde-garrantzia duten hezkuntza ekipamenduen, osasunekoan, laguntzakoan, kulturalen, kiroltakoan, zibiko-administratiboan eta beste zenbaiten maila, zerbitzua, garapena, kokapena eta defizit garrantzitsuenak aztertzea du ardatz, elementu egituratzaileak, lurzoru kontsumitzen dutenak edo bere baitan hartzen dituen hiri-ingurunea birkualifikatzen dutenak baitira.

Gaur egun dauden udalaz gaindiko ekipamendu horiek dagokien planoan grafiatuta daude. Zorrozki udal eskalari dagozkion oinarrizko ekipamenduak, bestalde, alboratu egin dira eta, horrenbestez, ez daude planoan adierazita.

a). **Gaur egun dauden ekipamenduen zerrenda eta analisia.**

• **Hezkuntza ekipamendua**

- ***Haur Hezkuntza (3 - 6 urte, borondatezkoa) eta Derrigorrezko Lehen Hezkuntza (6 - 12).***

Aski ongi betetzen ditu tokiko mailako premiak.

Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Asteasu, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Ikaztegieta, Lizartza, Tolosa, Zizurkil eta Villabona lehen hezkuntzako ikastetxe publikoak dituzte.

Anoeta, Ibarra, Irura, Tolosa, Villabona eta Zizurkilek haur-hezkuntza eskaintzen duten ikastetxe pribatuak –Ikastolak edo ikastetxeak– dituzte.

Tolosa, Villabona eta Zizurkil, hainbat ikastetxerekin, haur-hezkuntzan eta lehen hezkuntzan eskaintza handiena duten udalerrriak dira.

- ***Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. DBH (12 - 16 urte).***

Gune handienetan dago:

- Alegia (1): Herniobea Institutua (publikoa)
- Anoeta (1): Anoeta Ikastola. (pribatua)
- Villabona (2): Aralar Institutua (publikoa)
Jesusen Bihotza Ikastola. (pribatua)
- Ibarra (1): Uzturpe Ikastola (pribatua)
- Tolosa (3): Orixe Institutua (publikoa)
Usabalgo Laskorain Ikastola eta Irukide Eskolapioak. (pribatuak)

- ***Batxiler Irakaskuntza (derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoa).***

Tolosan kontzentratzen da:

- Orixe Institutua (publikoa)
- Usabalgo Laskorain Ikastola. (pribatua)
- Irukide Eskolapioak. (pribatua)

- ***Lanbide Heziketako Irakaskuntza.***

Irakaskuntza hau –hainbat ikastetxe daude, halaber, aldameneko udalerrietan, hots, Beasainen eta, batez ere, Andoainen– honako ikastetxe hauetan ematen da:

- Tolosa (5): Orixe Institutua, erdi mailako LH. (publikoa)
Paper Eskola, goi-mailakoa. (publikoa)
Tolosaldea Goi-mailako Lanbide Heziketako Institutua. (publikoa)
Irukide Eskolapioak. (pribatua)
Inmaculada Concepcion Ikastetxea. (pribatua)
- Zizurkil (1): Fraisoro Nekazal Eskola.

- ***Musika Irakaskuntza:*** F. Mokoroa Musika Eskola (Tolosa)

- ***Hezkuntza Berezia.***

Tolosan kontzentratzen da halaber: Orixe Institutua eta Arans-gui

- ***Helduen Hezkuntza, HHE.***

Ikastetxe bat du Tolosan (Tolosako Helduen Hezkuntzako Ikastetxea).

Udalaz gaindiko hezkuntza-ekipamenduak Bigarren Hezkuntza, Batxilerra, Lanbide Heziketa, Musika Irakaskuntza eta Hezkuntza Berezia hartzen ditu bere baitan, eta honakoak dira bere egoitzak:

- Tolosa: 8 Orixe Institutua. Laskorain Ikastola. Irukide Eskolapioak.
Paper Eskola LHI. Tolosaldea GLHBI.
Inmaculada Ikastetxea.
Musika Eskola eta Arans-Gui
- Villabona: 2 Aralar Institutua. Jesusen Bihotza Ikastola.
- Alegia: 1 Herniobea Institutua
- Anoeta: 1 Anoeta Ikastola.
- Ibarra: 1 Uzturpe Ikastola

Udalaz gairako intereseko ikastetxeen instalazioen kokapenak adierazten du Tolosa zeinen garrantzitsua den kopuruari (8 ikastetxe), aniztasunari eta mailari dagokienez.

Ekipamendu mota hau –kirol eta kultur espazioekiko osagarritasun handiagora zuzendutako kokapen-irizpide batzuk alde batera utzita– oro har onargarritzat jotzen da. Dena den, batxilergo ikastetxe baten falta sumatzen da Villabonan, baita eskualdearen ezaugarri sozioekonomikoetara egokitutako unibertsitate-irakaskuntzaren presentzia handiagoa ere.

- Osasun ekipamendua

Tolosaldeko Eremu Funtzionalean ospitalez kanpoko 15 zentro daude, maila desberdinetako osasun-laguntza eskaintzen dutenak:

- Zentro periferikoak:
Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Berastegi, Bidania-Goiatz, Irura eta Lizartza.
- Alegia eta Ibarako kontsultategiak.
- Villabonak osasun-zentro bat du.
- Tolosak zerbitzu publikoaren zati handiena kontzentratzen du:
Eskualdeko osasun-zentroa.
Anbulatorioa. Larrialdietako zerbitzua eta mutua-laguntzako zentroa.

Santa Maria de la Asuncion Klinika, Tolosako zentro pribatua, eskualdeko ospitale-ekipamendu bakarra da. Bestalde, eskualdeari hurbil duen Donostia inguruko zerbitzu publikoak (Ospitaleak) dagozkio.

- Laguntza ekipamendua.

Laguntza-sareak elkarteak, laguntzak eta zerbitzuak antolatu eta integratzen ditu hainbat alorretan: gizarteratzea, boluntariora, adineko pertsonak, familia, emakumea, droga-mendekotasunak, urritasunak, etab.

EUSTATen arabera, Tolosaldean laguntza arloko 85 elkarte, zerbitzu eta instalazio daude (eguneko zentroak, egoitzak, zentro okupazionalak, etab.). Alor honetan, adineko pertsonentzako laguntza-eskaera soziala gero eta handiagoa da, etxeko laguntzako eta bestelako zerbitzuak barne hartzen dituenak. Horrek ezarpen fisikoaren eta egitura funtzionalaren premia garrantzitsua sortzen du, lurralde antolakuntzan kontuan hartu behar dena.

Ekipamendu nagusiak eguneko zentroak eta egoitzak dira. Horien artean, instalazio publiko edo itundu garrantzitsuenak adieraziko ditugu:

- Tolosaldean itundutako eguneko zentroak.
 - Villabona: *Santiago egoitza (4 plaza)*
 - Tolosa: *Udalaren eguneko zentroa (12 plaza)*
Ama Maria Josefa (40 plaza)
 - Zizurkil: *Fraisoro egoitza (25 plaza)*

- Tolosaldean itundutako egoitza mistoak.
 - Villabona: *Santiago egoitza (32 plaza)*
 - Tolosa: *Gerontologia zentroa (64 plaza)*
Yurreamendi egoitza (165 plaza)

- Tolosaldean itundutako egoitza lagunduak.
 - Zizurkil: *Fraisoro egoitza (70 plaza)*

Alor honetan, adineko pertsonentzako laguntza-eskaera soziala gero eta handiagoa da, etxeko laguntzako eta bestelako zerbitzuak barne hartzen dituenak. Horrek ezarpen fisikoaren eta egitura funtzionalaren premia garrantzitsua sortzen du, lurralde antolakuntzan kontuan hartu behar dena.

Lurralde-egituraren arabera, komenigarria da zerbitzu-eskaintza nagusiak -tokiko

ezinbesteko zuzkiduren kaltetan izan gabe- Villabonako eta Tolosako polo nagusietan kontzentratzea, Tolosakoan batik bat, burutza-hiriaren hurbileko landa-ingurune ederrean ezarpen periferikoak gauzatzeko aukera baztertu gabe.

- Kultur eta gizarte ekipamendua.

Kultur ekipamendurik garrantzitsuena, egoitza Tolosan duen Gipuzkoako Artxibo Orokorra da.

Kultur ekipamenduaren eskaintza, oro har, uda-izaera duten kultur etxe eta liburutegi batzuek osatzen dute. Kultur etxeak eta liburutegia daude Alegia, Asteasu, Belauntza, Villabona, Ibarra, Irura eta Tolosan. Kultur etxerik ez duten udalerrri txiki batzuek badute udal liburutegia (Aduna, Albiztur, Anoeta, Ikaztegietza, Lizartza...).

Tolosan kontzentratzen da, halaber, eskualdeko ekipamendu ludiko kultural urria, hala nola Leidor zinema-antzokia eta zezen-plaza; era berean, burutza-hirian instalatzen dira kultur zentro erregionalak.

Museoei dagokienez, Tolosak Txotxongiloaren Museoa du (TOPIC), eta Larraulek museo etnografiko bat.

Gizarte ekipamenduan erretiratuen etxeak –udalerrri handietan daude, hala nola Anoetan, Asteasun, Villabonan, Ibarra, Iruran eta Tolosan– eta zentro eta lokal soziokulturalak (Tolosa, Asteasu) eta gazteenak (Irura) sar daitezke.

Ekipamendu soziokultural horrek kultur ekintzaren oinarrian dauden egiturazko gabeziak azaltzen ditu, hots, ekimenei, eskariari eta dinamizazioari lotuak, kultur eta aisia ohitura oso estandarizatuak dituen gizartearen arazoak hain zuzen ere. Era berean, adierazpen artistiko eta eszenikoko, arte plastikoetako, antzerkiko eta dantzako zentro babestuen falta sentitzen da.

- Ekipamendu zibiko-administratiboa.

Tolosako Lehen Auzialdiko Auzitegia da maila handieneko ekipamendu zibiko-administratiboa. Horri loturik ulertzen dira abokatuen eta prokuradoreen elkargoen ordezkariak.

Gainerako ekipamenduak Suhiltzaile Zerbitzua eta Ertzaintza dira. Tolosan kokaturik,

eremu funtzional osoko kontingentziaz arduratzen dira.

- Kirol ekipamendua.

Eskualdeko kirol ekipamenduak Usabal eta Berazubi konplexuetan (Tolosa) –estadioa, futbol-zelaia, kiroldegi estalia eta igerilekuak– eta Villabonako kiroldegian –igerileku eta guzti– kontzentratzen dira batik bat.

Gainerako kirol ekipamenduak tokikoak dira; dena den, azpimarratu beharra dago instalazio aski garrantzitsuren batzuk ere badaudela.

Ikastetxeei loturikoez bestelako instalazioak honakoak dira:

- Futbol zelaiak.
Alegia (Elorri), Villabona (Arratzain), Tolosa (Berazubi eta Amarotz), Zizurkil (Elbarrena).
- Kiroldegiak.
Villabona eta Tolosa.
- Pabiloi estaliak edo tamaina txikiko kiroldegiak.
Alegia, Anoeta, Ibarra, Ikaztegieta, Zizurkil.
- Igerilekuak.
Villabona (Kiroldegia), Tolosa (Usabal eta Berazubi).
- Pilotaleku estaliak.
Baliarain, Gaztelu eta Orendain ez beste udalerrri guztiek pilotaleku estalia dute, eta gune batzuek, gainera, aire zabaleko pilotalekua edo arkupea dute.
- Beste instalazio batzuk.
Zizurkil (Hipika). Hernialde (Eskalada-murrua).

Tolosaren eta, zati batean, Villabonaren kasuetan izan ezik, esan daiteke instalazioak zatikatuta eta sakabanatuta daudela eta instalazioen arrazionalizazio, handiagotze eta hobekuntzaren bat behar dela, lurraldeko biztanleriari oro har zerbitzu egokia egin ahal izateko.

- Hainbat ekipamendu.

Ohiko tipologia sailkatzen ez diren beste ekipamendu batzuk:

- Tolosa: Zuloaga gazte-aterpetxea (Natura Eskola).
- Amezketeta: Igaratzako aterpea.
- Zizurkil: Aberetxe aterpea.

- Merkataritza eta zerbitzu ekipamendua.

Merkataritzan, ostalaritzan eta garraioan diharduten Tolosaldeko 1.688 establezimenduetatik, 893 (% 53) Tolosa-Ibarra aglomerazioan daude eta 308 (% 18) Villabona eta Zizurkilen.

Banketxeek, aseguruak eta zerbitzuak 529 establezimendu dituzte eskualdean, eta gehienak Tolosa-Ibarran kokatzen dira (380 / % 72), baina batez ere Tolosan (341 / % 64).

Tolosan eta Lizartzan hotelak daude, baina eskaintza oso apala da kopuruari, edukierari eta kategoriari dagokienez. Landa-turismoko ostalaritzaren eskaintza handiagoa da, 18 landa-etxetan banatua Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alkiza (2), Amezketan, Asteasu (3), Berastegi, Villabona-Amasa (3), Bidania-Goiatz, Leaburu eta Zizurkilgo (3) udalerrietan. Eskaintza honi Larraul eta Bidania-Goiatzeko ostatuak gehi dakizkioke.

Oro har, merkataritza ekipamenduaren alor honetan Tolosak erabateko nagusitasuna du, saltoki handietara jo gabe mantendu eta indartu behar dena. Gauza bera gertatzen da zerbitzuen alorrean, hor ere nagusi baita, turismo ostatuan gabeziak baditu ere. Landa-turismoa aukera bikaina da, inguruko paisaia eta natura kalitate handikoa baita.

- Enpresa ekipamenduak.

Enpresentzako zerbitzuak sortzea industria-ehunaren lehiakortasuna hobetzeko tresna ezin hobea da, Tolosaldeko egitura ekonomikoa dinamizatzeko eta aldatzeko formula nagusietako bat eta hirugarren sektoreko enplegu berrien iturri.

Zerbitzu aurreratuenek beren logikagatik beragatik hirigune garrantzitsuenetan instalatzeko joera izango badute ere, industria eta zerbitzuak elkarri hurbiltzea eta beren artean sinergiak sortzea ahalbidetzen duten aukera asko eta asko daude. Testuinguru horretan, garapen-agentziek (Tolosaldea Garatzen) ekimen horien alde egin behar dute, hori baita enpresa-ehuna dibertsifikatzeko formula.

b). Tolosaldeko ekipamenduen balorazio orokorra.

Tolosaldeko zuzkidura-egituran, oso nabarmena da –gainerako kokalekuetan baino gehiago– Tolosaren burutzaren garrantzia; bertan metatzen dira eskualde mailako ekipamenduak, eta toki mailakoak lurraldearen gainerakoan daude banatuta.

Haatik, Tolosaren kasuan, bertako biztanle-kopuruagatik dagokion lerrunaz harantzagoko zeinuak agertzen dira, eta fenomeno hori ez da ohikoa gure hiri-komunitateetan. Oinarrizko ekipamenduez gain, era askotako beste zerbitzu batzuek –hala nola erakundeen eta profesionalen ordezkariak, alkoholiko anonimoen elkarteak eta albaitaritza-klinikak– aglomerazio handiagoei dagokien eskaintzaren aniztasuna erakusten dute.

Tokiko ekipamenduak orokorrean nahiko onargarriak dira –gabeziaren bat hauteman bada ere–; ez da, beraz, baliabideen bikoiztasuneko edo arrazionalizazio-gabeziako arazo berezirik hauteman, beste eremu funtzional batzuetan ez bezala.

Balorazio orokor positibo horren aurrean -azpimarratu beharra dago, berriz ere, burutza-hiriaren maila bat datorrela bere ekipamenduen maila orokorrarekin-, hainbat defizit adierazi behar da, baita eskualde mailako ezarpen jakinen baten komenigarritasuna ere: Batxilergoko ikastetxe bat Villabonan, zentzuzko kirol ekipamendua, edo jarduera artistikorako instalazioak, adibidez.

Adierazitakoaz gain, Tolosaldean –Gipuzkoako beste eremu batzuetan bezalaxe– bainu, aisialdi eta atsedenerako instalazioen eskaintza oso urria da. Igerileku gutxi batzuk baino ez daude, eta jendeak hurbileko eremuetako hondartza kongestionatuetara jo behar du. Hain beharrezkoak diren "hondartzak" edo barrualdeko bainu-eremuak eta beren aisia-ingurunea –hamarkada batzuek geroztik normaltasun osoz daude Europako hainbat herrialdeetako kostarik gabeko udalerririk askotan, oso negu epelak ez dituztenetan gainera–, ingurune fisikoan babes-irizpide zorrotzekin kokatuz gero, zuzkidura estrategikoak izango lirateke eremu funtzionalerako ez ezik, lurralde historiko osorako ere. Tolosaldeak ingurumen eta paisaia-eremu bikainak ditu politika komenigarri horren zati bat garatzeko.

2.5. TOLOSALDEKO EREMU FUNTZIONALEAN GARATU BEHARREKO LURRALDE POLITIKAREN GILTZARRIAK, ERREFERENTZIAK ETA ARDATZ NAGUSIAK

2.5.1. LURRALDE ANTOLAMENDUKO EREDUA OSATZEKO GILTZARRI ETA ERREFERENTZIAK

LA Aetako erreferentziak

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan adierazten diren zehaztapen, irizpide eta orientabide orokorrez gain, eta 22. kapituluan (Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak aplikatzeko arauak) berariaz aditzera ematen direnez gain –"Lurraldearen Zatik Planak (Zehaztapenak eta dokumentazioa)" epigrafean islatu direnak, alegia–, honako erreferentziak adierazi zituen Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen garapen-esparruan landutako **oinarri kontzeptualen** dokumentuak (Lurraldearen Zatik Planak idazteko orientabide gisa idatzitakoak) Tolosaldeko Eremu Funtzionalaren lurralde-esparrua osatzeko:

"...Tolosaldeko Eremu Funtzionalak azken urteotan ahultasun demografikoa eta ekonomikoa azaldu duenez gero, garrantzi handikoa da eremu funtzional horretako gainbehera ekonomikoa bereizgarria gelditzea, lurralde-ikuspuntutik. Hala, Gipuzkoako lurralde eredua mantenduko da, Donostia-Beterriko Eremu Funtzionalan jardueren metatzea areagotu gabe.

Jarduera turistikoak eta bizitegi-jarduerak, eta bertako ekonomian hirugarren sektorearen gero eta garrantzi handiagoa, funtsezko elementuak dira Tolosako garapen ekonomikoan, sozialean eta lurralde arlokoan, betiere Euskal Autonomia Erkidegorako Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek planteatutako eskema orokorraren barruan.

- *Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek Tolosako hazkunde hautakorra sustatzea proposatzen dute. Hiriaren hazkunde hori hiriaren baitan egin beharko da, hiri arloko birgaitzean eta berritzean oinarrituta, eta ez horrenbeste espazio berrien hirigintza-garapenean.*
- *Tolosa-Ibarra eremuan hiri-ehunak berritzeko eta morfologikoki berrosatzeko eragiketak egingo dira; Villabona-Zizurkil eremuan, aldiz, hiri-berrikuntzako jardunak egingo dira. Horiek izango dira proposatutako lurralde-eredua finkatzeko funtsezko elementuak. Hiri-industriaren zati bat lekualdatzen saiatuko da, batez ere ingurumenean eta hirian bertan eragin kaltegarririk handiena duena, eta birkualifika daitezkeen kokalekuetan dagoena.*

- *Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek Adunako ibarrean jarduera ekonomikorako eremu bat sortzea proposatzen dute.*
- *Tolosa eta Ibarako udalerrietan, eta Villabona eta Zizurkilgo udalerrietan, plangintzak bateragarri egiteko mekanismoak aplikatuko dira.*
- *Bigarren bizitegiaren garapena sustatuko da. Bigarren bizitegia aurretik dauden hiriguneetan edo inguruko eremuetan oinarrituko da, batez ere lurralderako sarreragune jotzen direnetan.*
- *Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan proposatzen diren aisialdi-eremuen artean, honakoak daude Tolosaldeko Eremu Funtzionalaren barruan: Murumendi, Aralar, Amasa Mendi-Belabieta eta Gaztelu. Era berean, Albiztur, Bidania-Goiatz, Amezketa eta Abaltzisketa jotzen dituzte Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek lurralderako sarreragunetzat.*
- *Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako ekipamendu-sistemaren antolamendu-proposamenei dagokienez, Tolosa-Ibarran eskualde mailako zuzkidura sistemak integratzeko borondatea nabarmendu behar da.*
- *Lurraldearen Antolamendurako Artezpideek Eremu Funtzional honetarako egiten dituzten babes-proposamenen artean, Aralarko Parke Naturala eta Leitzarain ibaiaren biotopo babestua aipatzen dira.*

Lurralde antolamenduko eredia osatzeko giltzarriak

Adierazitako erreferentziak kontuan hartuta, eta hainbat epigrafetan zehar jorratu den informazio-sintesia eta balorazioa laburbilduz, antzemandako alderdi ahulak, problematikak edo disfuntzionaltasunak gainditzeko eta eremu funtzionalaren lurralde antolamenduko eredia osatzeko zereginari aurre egiterakoan funtsezkotzat jotzen diren lurralde-alderdiak adieraziko ditugu jarraian.

- *Oro har Oria ibaiaren haranaren eta Hernio eta Aralar mendiguneen presentzia bereizgarri duen egitura geomorfologikoa, erliebe orokor menditsua eta aldapa handiak dituena. Zirkunstantzia horiek eta lurzoru lau urria (lurzoruen % 90ek % 20tik gorako aldapa du eta % 70ek % 30etik gorakoa) oinarri-oinarrizkoak dira gaur egungo okupazioa argitzeko eta etorkizuneko erabilera-ahalmena zehazteko.*

- Natur ingurunearen eta landa munduaren presentzia sendoa, gaur egungo lurraldearen okupazioan ageri dena bera; izan ere, ikuspegi naturaletik, ageri-agerikoa da landa munduaren erabateko nagusitasuna, % 90 baita, erabilera urbano, azpiegitura eta abarretara bideratutako azalera % 3 pasatxo besterik ez den bitartean. Are gehiago, eremu funtzionaleko 14 udalerrri EAeko Garapen Iraunkorrerako Planean (2000-2006) sartuta zeuden, 2. helburuko landa eremu gisa. Aurrekoarekin bat etorritik eta kontrastatuz, biztanleria haran hondoetan kontzentratzen da, batez ere haran hondo nagusian, eremu funtzionaleko biztanleriaren % 81 baino gehiago hartzen baitu bere baitan, lurraldearen gainerakoaren hutsune erlatiboarekin kontrastatuz.
- Antzinatek esku-hartzeak ugari gauzatuak ingurune fisikoa, mendetan zehar degradazio garrantzitsuak jasandakoa. Degradazio horiek oinarrizko bi ezaugarri dituzte, naturaltasunaren atzeratzea eta poluzio maila igotzea, eta horien isla airearen, uren eta lurzoruen kalitate galeran eta aipatu guztien suntsipenean islatzen dira, are modu bizkorragoan gainera azken garai honetan, giza jardueraren ondorioz batetik, honek gero eta lurzoru gehiago behar izan baititu bere garapenerako, eta erabileren intentsitateagatik bestetik. Hala eta guztiz, oraindik aberatsa da natur, paisaia-ingurune eta kultur ondarea, eta honek oso erakarmen handia ematen dio Eremuari, aisialdi, turismo eta atsedenearekin lotutako zerbitzu prestazioaren esparruan aukera zabala eskainiz horrenbestez.
- Donostia-Beterriko eremu funtzionalarekin muga egiten duen lurralde-kokapena. Eremu funtzional horrek, bere biztanle-masa garrantzitsua (Tolosaldekoa baino 9 bider handiagoa), zuzkiduren, jarduera ekonomikoen eta zerbitzuen kontzentrazioa, kalifikatutako lurzoruen eskaintza eta garapen berrietarako espazio-erabilgarritasuna direla-eta, eragin handia du Tolosaldearen egitura-ezaugarrietan eta garapen-itxaropenetan, eta indar handiko erakargune gisa konfiguratu da, eremu funtzional osoan eragina duena, baina batez ere Villabona gunen duen iparraldeko zatian.
- Lurraldearen egiturak neurri handian baldintzatzen du sistema erlazionala, errepidearen zeharo mendean baitago, ahulune ugari eta desfasetuta dagoen trenbide sare batez gainera. Honetan, Oriaren korridorea lurralde historikoko azpiegitura garrantzitsuenen euskarria ez ezik, estatuaren eta Europaren gainerakoaren arteko oinarrizko konexioen zati garrantzitsua da, eta horren berorren eraginez zeharo saturatuta dago. N-I autobia aurretik zegoen hiriarteko

ardatzaren errepide-tarte batzuen gainean eraiki zen, tarte horiek ordezkatu gabe. Hala, eten egin ziren eskualdea egituratzen zuten hiriarteko konexioak, eta, halaber, zatikatu egin zen hiriarteko ardatz horretan oinarritzen zen hirigune txikietara iristeko tokiko sarea. Hortaz, eremu funtzionala desartikulatzeke elementu garrantzitsuak gaineratzen ditu, eta kokalekuen sistemaren kohesioa murrizten du.

- Asentamendu sistema, Tolosak burutza-hiri gisa duen lerrun agerikoa hor badago ere bi polo izatea duena ezaugarri: Tolosa-Ibarrako hiri eremua batetik, eta Villabona-Elbarrena hiri eremua bestetik. Bi hauetan biltzen da biztanleriaren % 70, kokapen estrategikoa dute eskualdea zeharkatzen duen bide-ardatz nagusiaren gainean, eta gai dira, halaber, beste udalerrien polo izateko, modu orekatu batez. Ez daude, baina, behar beste egituratuta, eta demografi-atzeratze epe luze bat jasan duten landako udalerrri asko ere badituzte, hauetako gehienek zailtasunak dituztela oinarritzko zerbitzuetan zentzuzko eskaintza bati eusteko gutxieneko masa kritiko batera iristeko.
- Tolosa-Ibarrako hiri eremuak 23.000 pasatxo biztanle ditu. Hiri eremu hori errealitate funtzionala den arren, bere lerruna sendotu behar da, batez ere inguruko eremu funtzionalak burutzen eta hiriguneen aldean duen tamaina kontuan izanik. Horretarako, bertako guneak integratzeko baldintzak hobetu beharko dira eta inguruko udalerriekin eta landa-eremuekin egoki artikulatu. Bestalde, Villabona-Elbarrena hiri-eremuak metatze-arazo handiak ditu, baita lurzorua gabezia larriak ere. Lurzoru hori nahi bezala finkatzeko eta garatzeko oztopoak daude, hiri-bilbearen barruan enpresa batzuk baitaude kokatuta. Pixkanaka egin beharko zaio aurre enpresa horiek lekuz aldatzeari.
- Bi kokaleku horien artean hutsik dagoen ibar garrantzitsua dago. Bi burutzetako gune dentsifikatuenak deskongestionatzeko baliagarriak izango diren bizitegi, zuzkidura eta jarduera ekonomikoen hazkunde berriak hartzeko ahalmenaz harantzago, ibar horren garapenak eremu funtzionalako bi poloak suspertzeko eta hobeto egituratzeko elementuak eskaini ditzake.
- Hirigintza, arkitektura eta ingurumen arloan, dudarik gabe, balio handia duten landa izaerako kokaleku kopuru handia dago. Kokaleku horien iraupena bermatu beharko da, eta, horretarako, hiri eremuetako bizitegi-eremuetatik bestelako bizitegi-eremuetara alternatiboak egin ahal izango dira bertan. Horrenbestez, landa-kokaleku horiek hiri eremuen ezinbesteko osagarri dira.

2.5.2. LURRALDE POLITIKAREN ARDATZ NAGUSIAK

Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko lurralde garapenerako politikak bateratu egin behar ditu, modu harmonizatu batean, natura eta landa ingurunearen eta jarduera primarioen babes, kontserbazio eta hobekuntza, eta bere egitura ekonomikoaren beharrezko sendotze eta aniztea eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eta EAEren lurralde sisteman txertatutako hiri- eta azpiegitura-garapen koherente eta antolatua.

Natur eta landa ingurunearen kontserbazioa eta hobekuntza

Ingurune fisikoa eta natur baliabideak, gizarteari eskaintzen dizkioten zerbitzuak eta betetzen dituzten eginkizunak direla eta, gero eta garrantzi handieneko faktoreak dira.

Aralarreko Parke Naturala, Leitzarango biotopoa, Hernio-Gatzume, Oria eta Araxeseko BILak eta Jazkugañe eta Basabe eta Atxulondo-Abalotzeko Interes Naturalistikoko Eremuak dira elementu nabarmenetako batzuk, naturaren, produkzioaren, paisaiaren eta kulturaren ikuspegitik baliabide baliotsu ugari dituen lurralde batean; eta horien guztien mantentze eta hobetzea bermatu behar da, eskualdearen garapen iraunkorrera begira.

Baina eremu hauek babestera bideratutako ekintzak beste jarduera sorta batez osatu behar dira, lurraldeko beste alderdietan zertu beharreko batez alegia. Izan ere azken hauen bidez, eremu horiek babes-uharteak izan beharrean, lortu behar da eremu horiek guztiak eta kokagune duten lurralde-euskarria egituratzea.

Helburu hori lortzeko, baina, ezinbestekoa da honakoa:

- a) Airearen eta uren kalitatea, lurzoruen babesa eta biodibertsitatea mantentzea bermatzea.
- b) Landaretza eta habitat interesekoak dituzten beste eremu guztiak babestea, ekosistema berezi adierazgarrietako formazioekin, nekazaritzarako balio handieneko lurzoruekin eta paisaia garrantzitsuenekin batera (azken hauen artean euskal baserriarena azpimarra daiteke).

- c) Korridore ekologiko sorta bat sortzea, garrantzi handieneko eremu aipatuak lotzeko.
- d) Degradatuta dauden elementu, prozesu eta espazio edo guneak hobetzea, leheneratzea edota birgaitzea (arreta berezia jarritz kokapen topografiko berezian dauden baso naturaletan, ibai ekosistemetan, ibai eta ibaiertzetan).
- e) Baliabideak eta hauen eginkizunak oro har babestera zuzendutako neurriak hartzea, kasuan kasuko erabilerak eta jarduerak lurraldearen harrera-ahalmenera egokituz, modu haztatu batez, giza jarduerak eta, bereziki, hiri erabilerak horien guztien gainean eragiten duten presio gero eta handiagoa orekatzearren.
- f) Baliabideen erabilera mugatzea eta baliabideen erabilera eraginkorra bultzatzen duen politikak proposatzea.
- g) Azkenik, erabiltzen ez diren edo gutxiegi erabiltzen diren natur baliabideen balioa aintzatestea, naturaren babesa eta herritarrek lurraldeaz gozatzea harmonizatuz.

Oinarri ekonomikoa sendotzea eta dibertsifikatzea

Tolosaldearen hazkundera industri garapen sendo batean oinarritu da tradizionalki, papergintzaren eta galdaragintzaren sektorearen indarrean. Sektore horiek biak heldutasunera iritsiak dira, eta horien gainean planteatzen da European gero eta integrazio maila handiagokoa den eta, oro har, globalizaziora jotzen ari den ingurura egokitzeko erronka. Gainera, sektore teknologikoen edo berrikuntza-prozesu intentsiboak garatzen dituztenen ordezkartza txikia da, horietan ari diren enpresak bezalaxe, eta trakzio-entresa handirik ez izateak erreferentziako eredurik ez egotea dakar berekin.

Faktore horien guztien eraginez, eta erantsita, gainera, lurraldearen ezaugarriak, ezen industri jarduerarik hartzeko moduko lurzoru laueta dagoen eskariari gehitu egin behar zaio Donostialdea hurbil eta erraz komunikatzeko moduan dagoela eta horrexek erakartzen duela enpresentzako zerbitzu-eskaintza nagusia, Tolosaldeak lehiakortasun galera etengabeko egoera bati egin behar dio aurre.

Gaur egun, egoera hau ahal den neurrian arintzeko, lurralde garapenerako politikak lanpostuak sortzeko neurriak bultzatu behar ditu, eta jarduera ekonomikoaren elementu nagusien eta enpresen beharren arteko egokitze handiagoa. Neurri horiek, Tolosaldearen kasuan, eta orain arte erredaktatu diren plan estrategikoei edota lehiakortasun planek agerian laga duten moduan, eskualdean dagoeneko finkatuta dauden enpresen arteko lankidetzak sustatzea eskatzen dute, egun duten maila teknologikoa hobetzeko eta lan-eskuaren prestakuntza egokia ziurtatzeko. Horren paraleloan, egitura ekonomikoa dibertsifikatzea sustatu behar dute, hirugarren sektoreko jarduerak garatuz oro har eta, bereziki, zerbitzuen sektorean, turismoaren sektore garatuago baten aldeko apustua egitearekin batera.

Prozesu hau gauzatu ahal izateko, behar besteko lurzoru eskaintza sortu behar da, enpresa ekimen endogenoak mantentzeko eta ekimen berriak erakartzeko. Eremu funtzionaleko erliebeak berak ezartzen dituen mugek baldintzatu egiten dute helburu hori; horrenbestez, behar beste lurzoru kalifikatzea eta prestatzea izango da eskualdearen hazkunde mantendua baldintzatuko duten erronketako bat. Muga horiek direla eta, egokia dateke sektore-espezializazioa eta espazio-erabilgarritasunari eta lurraldeak duen harrera-ahalmenari egokitutako tipologia sustatzea, hau da, okupazioan eta lurzoruaren erabileran zentzuz eta neurritz eta inguruarekiko errespetuz jokatzeko.

Osterantzean, ingurune naturalaren babesak eta horri loturiko laketa eta aisiako landa-jardueren garapenak eginkizun benetan garrantzitsuak bete dezakete, halaber, udalerritxikietarako dibertsifikazio ekonomikoko elementu gisa, eta eskualdeaz kanpoko eskaria erakartzeko faktoreak izan daitezke, bereziki ondoko Donostialdeko Eremu Funtzionalean sortutako aisia-eskaria erakartzeko.

Hiri eta azpiegitura garapen koherente eta antolatua, EAEko lurralde sisteman txertatua

EAEko lurralde sistemaren barnean, Tolosaldeko eskualdea igarotze- eta harreman-ardatz batean dago, dinamismo handiko batean alegia, eta hiri eta hornidura mailako pisu handiko eremuetatik oso hurbil gainera, Donostialdea baitago alde batean eta, indar txikiagoz bada ere, Goierri bestean. Eta sistema honek guztiak eragina du Tolosaldean.

Eremu funtzionaleko egungo asentamendu sistemaren ezaugarri nagusia -Tolosak burutza-hiri gisa duen pisu agerikoa hor badago ere- bi lurralde esparru izatea da; horietako baten gunea Tolosa-Ibarrako hiri eremua da, eta bestearena Villabona-Elbarrenakoa. Esanaz gain, hiru hiri-maila daude, biztanleriaren neurriaren, zerbitzu eskaintzaren eta eskualde mailako pisuaren arabera. Lehen mailan, burutza-sistemako hirigune aipatuak sartzen dira; bigarren mailan neurri ertaineko gunek sartzen dira, hau da, 1.000 eta 2.000 biztanle bitarteko udalerrriak edo lehenen hiri esparru periferikoetan kokatuak; eta hirugarren mailan landa eremuak ditugu, biztanleria txikiko udalerrri kopuru handi batez –gehienak 500 biztanletik beherakoak dira– eta argi eta garbi landatarrak diren guneez.

Lurralde analisiak, besteak beste honakoa erakusten zuen:

-Tolosako hiriaren zentraltasuna ahultzea eta duen maila funtzionala pixkanaka-pixkanaka gelditzea, Donostiaren alde.

-Villabona inguruan tentsio funtzionala, iparrerantz, desegituratzeko eta Donostialdeak zurgatzeko arriskuaz.

-Landa eremuen dependentzia harremanak burutzekiko, oinarritzko zerbitzu eta hornidura sorta zabal bati dagokionez.

-N-1 errepidearen saturazioa eta hiri-ardatz egituratzailearen (Villabona-Irura, Tolosa-Alegia) haustura, hauekin batera bide eta harreman egituran datozen arazoekin eta asentamenduen polarizazio funtzionala areagotzearekin batera.

-Lurzoru lauetan eskasia eta jarduera ekonomikoetarako lurzoru erreserbarako aurreikuspenetan defizita epe ertainera begira; honen bidetik, mugak eta zailtasunak iritsiko dira egungo enpresak hazteko eta enpresa berriak ezartzeko.

Zirkunstantzia horiek guztiek lagundu egiten dute burutza eta multzo osoa ahultzen, eta hiri sistema osoa desegituratzea eragiten dute.

Gainera, udal eta sektore plangintza sistemari berez darizkion mugak erreferentziako lurralde esparru komunik eza bihurtzen dira, eta helburuak finkatzeko koordinazio falta, ikuspegi estrategikorik eta proposamenak prestatzeko eta garatzeko sinergiarik ez

izatearekin eta jarduketa estrategikoak programatzeko eta kudeatzeko gabezia ugarirekin batera, hain zuzen esparru politiko eta administratibo egokirik ez egoteagatik.

Asentamendu sistema antolatua, koherentea eta integratua lortzeko, Tolosaldearen ezaugarri eta dinamika horiek direla eta lehen-lehenik, eta maila orokorrean, onartu egin behar da eremu funtzionalek eta hauetako burutzek betetzen duten eginkizuna, oinarrizko piezak baitira lurralde antolamendurako programak ezartzeko; gainera, eredu polizentriko eta hierarkizatu baten alde egin behar da, horretan tarteko eskalako burutzek eginkizun garrantzitsua bete izan baitute bai hornidura-maila gisa bai gizarte-aglutinatzaile egoki gisa, Gipuzkoako lurralde eredu babestera begira. Izan ere, Gipuzkoako lurralde ereduaren ezaugarria jarduerak eta funtzioak lurraldeko eskualdeetan zehar modu orekatu batean banatuta egotea da. Bigarrenik, eta barne mailan oraingoan, lurraldearen egituraketa sendoago bat lortu behar da, orientazio, zehaztapen eta arrazionalizazioarako jarraibide zenbait sartuz egungo ereduko mugikortasun eta asentamendu sistemen antolaketan; jarraibide horiek, zehatz esanda, honakoak dira:

-Udalerrien arteko osagarritasun funtzionala bultzatzea, eremuan diren udalaz gaindiko lurzoru baliabide eta komunitatearen intereseko ekipamenduen antolaketan batez, eta lurraldearen ahalmen eta potentzialtasunak harturik betiere oinarri.

-Egungo burutza sistema sendotzea, burutzen arteko osagarritasunaren eta harremanen ikuspegitik baitago sortuta; horrela, burutza bien maila igotzea lor daiteke, eta horretarako jarraitu eta hobetu egin behar dira Tolosa eta Ibarra eta Villabona-Elbarrenako guneen arteko egitura eta formako integrazio prozesuak, horietako bakoitza bere inguru hurbilarekin egituratzekoekin batera.

-Tolosa-Ibarra multzoak betetzen duen gidari eginkizuna eta eginkizun ekonomiko, administratibo eta kulturala sendotzea eta berriro bultzatzea. Horretarako, hobekuntza, berrikuntza eta, hala badagokio, Tolosako hiria eskualdeko burutza gisa bultzatzen eta lurraldeko neurri ertaineko hirien sisteman duen tokia sendotzen duten elementu guztien ezarpen berrira bideratu behar dira ekintzak.

-Bi burutzen arteko egituraketa sendotzea eta hobetzea. Horretarako, konpondu egin behar dira Oriaren hiri-ardatzeko funtzionaltasunaren jarraitasunaren etenak, kanpo eta barne loturarako bideak erabat bereiziz eta Villabona hegoaldetik Tolosa iparrerrainoko esparrua goitik behera antolatuz.

-Landa eremuak lurralde antolamendurako prozesuan txertatzea, horien garapen ekonomikoa eta demografia aldetiko finkatzea bultzatzen duten proposamenak erabiliz, udalaz gaindiko zerbitzu eta ekipamenduak jarriz eta kasuan kasuko poloarekiko egituratze egoki bat jorratuz.

3. TOLOSALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE ANTOLAMENDUA

3. TOLOSALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE ANTOLAMENDUA

Lurralde Antolamenduaren Europar Kartak, definizio bat ematen duenean, esaten du *“antolamendua gizarte osoaren politika ekonomiko, sozial, kultural eta ekologikoaren espazio-adierazpena dela, eta helburu nagusi dituela eskualdeen garapen ekonomikoa, bizi-kalitatearen hobekuntza, natur baliabideen kudeaketa arduratsua, ingurumenaren babeseta eta, azkenean, lurraldearen erabilera arrazoizkoa”*. Eta politika horien emaitza lurralde-sistema ireki bat da, maila bakoitzeko lurralde-unitateen arteko erlazioak garatzen direla eta unitate hauek goragoko mailakoetan txertatzen direla.

Sistema honen osagaiak, berriz, honakoak genituzke: ingurune fisikoa edo sistema naturala lurralde-euskarri gisa, biztanleria eta honek garatzen dituen jarduerak, asentamendu sistemetan eta elkarrekin erlazionatzeko erabiltzen duten komunikazio sisteman islatzen direnak berak, eta, azkenean, gizartea antolatzen eta egituratzen duten instituzioak, hauen funtzionamendua arautzen duen lege eta administrazio esparruarekin batera.

3.1. ANTOLAMENDURAKO OINARRIZKO PRINTZIBIOAK, IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK.

Lurralde Antolamenduaren Europar Kartak adieraziarekin bat, eremuko biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko eta biztanleen integrazio ekonomiko eta kultural handiagoa lortzeko, eremu funtzionaleko LZPak funtsezko jotzen ditu printzipio batzuk, horiek arautuko baitituzte helburu operatiboen definizioa, irizpideen aplikazioa eta antolamendurako zehaztapenak:

Printzipio orokorrak **garapen iraunkorra** eta lurraldearen **erabilera arrazionala** dira.

Aipatu lehenak eskatzen du ingurumenaren babesari eta natur baliabideen kudeaketari lotutako alderdiak zein garapen ekonomiko eta sozialari dagozkionak –garapena, betiere, eremuko biztanleen bizi-kalitatea areagotzea dela ulertuta– modu integratuan kontuan hartzea; eta bizi-kalitatearen areagotze horri muga bat ezartzen dio, mantentzea etorkizuneko belaunaldiek bere beharrak ase ahal izateko gaitasuna.

Bigarrenak, lurraldearen erabilera arrazionalari lotuak, berekin dakartza honakoak:

- Lurraldeak hartzen duen erabilera eta funtzio multzoa aztertzea.
- Baliabideen ustiapenerako mugak badirelako ideia onartzea.
- Lehengaietan eta energian iraunkortasun eta aurrezki irizpideak jarraitzea.
- Lurraldeak jarduerak kokatzeko duen ahalmena errespetatzea.

Azken batean, modu harmonizatu batean bateragarri egitea natur eta landa ingurunearen eta lehen sektoreko jardueren babesa eta hobekuntza, hiri-, ekonomia- eta azpiegitura-garapen koherente eta antolatu batekin.

Ikuspegi operatibotik, agiri honetako 2.5.1 eta 2.5.2 puntuetan jasotzen diren lurralde politikaren giltzarri eta erreferentziak eta garapen ardatzak hartzen ditu Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko LZPak, antolamendurako irizpideen oinarritzat. Horietan, izan ere, eremuko berezitasun fisikoei eta ingurumenari lotuei buruzko oinarritzko alderdiak ukitzen dira, lurraldearen definizioan (egungoan zein etorkizunekoan) parte hartzen duten elementuen ezaugarriak, azpiegituren eta asentamenduen elementuak bere arazo, potentzialtasun eta lurralde sistemako posizioarekin, eta biztanleriari eta alderdi sozioekonomikoari buruzko aurreikuspen eta helburuak, faktore horiek osotasun lotu eta integratu baten elementutzat hartzen baititu; eta, horrenbestez, honako antolamendu irizpide eta oinarritzko helburuak planteatzen ditu:

- Lurraldea organikoki egituratzea, ingurune fisikoari lotutako sistemak eta intentsitate txikieneko lurralde-sistemak, intentsitate handieneko hiritarrekin eta erlazionalekin batera, ordena sistemiko batean integra daitezten.
- Eremu funtzionaleko ingurumenaren eta paisaiaren kalitatea babestea, hobetzea eta balioz hornitzea, bi kontzeptu horietan ingurune naturala ez ezik, ingurune eta paisaia hiritarrak ere barne hartuz, gaur egungo eta etorkizuneko balioak baitira.
- Asentamendu sistema orekatu bat itxuratzea, udalerrien arteko osagarritasun funtzionalean eta maila desberdinen hierarkia integratuan oinarriturik, populazioaren, harrera-ahalmenaren, lurralde-egiturako posizioaren eta jardueraren intentsitatearen arabera, eta burutza-hiriaren (Tolosa) maila eta erakarmena areagotuz, baina tarteko hirien jarduerak ere bultzatuz eta, antolaketa neurri egokiak eta esku-hartze politikak jorraturik, gun txikien eta landa eremuen sistemaren integrazioa ahalbidetuz.
- Eskualdeak bizitegi erabilerarako duen erakarmena handiagotzea, hiri-berritzea,

etxebizitza politika egokia, hornidura eta zerbitzu eskaintzaren hobekuntza eta inguruaren kalitatearen igoera baliaturik horretarako.

- Lurzoru baliabideen antolaketa, batez ere jarduera ekonomikoetara bideratuen kasuan, eskualde mailan, lurraldeak eskaintzen dituen ahalmen eta potentzialtasunetan oinarriturik, plangintza kontrolatu, behar bezala dimentsionatu eta ongi gauzatu batez.
- Udal mailaz gaindiko eta eremurako intereseko hornidura komunitarioen antolaketa, Tolosaren funtzionalitatea bultzatuz eta sendotuz, bere eragin eremuko biztanleriari zerbitzuak eskaintzeko eginkizunean.
- Komunikazio sistema bat itxuratzea eta garatzea, inguruko eremu funtzionalekiko komunikazioa bermatzeko eta eremuaren egituraketa sendotzeko, ereduko oinarrizko elementuen arteko harreman funtzionalak hobetzen dituzten konexioak eginda.

Helburu horiek lortzeko, LZPak bere egiten du LAAetan finkatutako diziplina-plangintza eta erreferentzia gisako eredu bat eta zenbait estrategia, irizpide, arau eta ekintza zehatz proposatzen ditu. Horiek guztiak direla bide egin ahal izango dugu gaur egungo egoeratik proposatutako lurralde eredurako bidea.

Gauzatze programak, lau urteko etapatan banatu dugunak, egin beharreko ekintza estrategikoak biltzen ditu eta berorrek ezartzen du horiek planak irauten duen bitartean gauzatzeko erritmoa eta ordena, lurralde eredua lortzeko bidean.

3.2. TOLOSALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO LURRALDE EREDUA

Azaldutako irizpide eta helburuetan oinarrituta planteatzen da eredia –horiek ere xede izan beharko dituzte udalen garapen plangintzek eta alorreko planek–. Eta lurralde eta hiri garapenei lotutako oinarrizko zehaztapenak eta Tolosaldeko Eremu Funtzionala eraginpean hartzen duten politika sektorialak definitzeko eta arautzeko erreferentziako esparrutzat hartu behar da.

Eredua eremu funtzionaleko lurraldearen antolamenduaren laburpena da –Lurraldearen Zatikoa Plana formulatzean formalki zehaztu beharko dena–. Izan ere, eduki fisikoen zein funtzionalen oinarrizko kontzeptuen definizioaren eta sistematizazioaren bitartez ezartzen da, hau da, ingurune geografikoari buruzko oinarrizko kontzeptuen definizioaren eta sistematizazioaren bitartez –balio eta erreferentzia den aldetik eta jardueren euskarri den aldetik– eta jarduerari beraiei buruzko oinarrizko kontzeptuen definizioaren eta sistematizazioaren bitartez –jarduerak multzo homogeen handietan berezita–.

- **Ingurune fisikoa.**
- **Asentamenduak.**
- **Azpiegiturak,** hauen barnean Garraio eta Komunikazio sistema funtsezko alderdia dela.

Eredua, alabaina, ez da mugatzen aipatutako sistema horiek lurraldean jartzera; oso bestela, modu integral batez hartzen ditu, eta horien arteko harreman organikoak antolatzen, horrenbestez beste goragoko sistema bat ezarriz, **Lurraldearen Egitura Orokorra**, lurralde ereduaren definizioaren laugarren osagai kontzeptuala, lurralde antolaketaren eta lurralde-zehaztapen funtzionalen gaineko ikuspegi zabal eta koherente batez -are eskualdeaz gaindiko ikuspegi batetik- eta, era berean, oinarrizko edukien beste esparruak ere modu integratu eta sintetiko batez bilduta.

Eredua osatzeko, esparru eta elementu jakin batzuetan eragiteko jarduerak identifikatu eta proposatu dira. Guztiarekin, ekintza estrategikoak osatu eta eskualdeko lurralde-egituratzea hobetu egiten da.

Eredu hau garatzeko, Lurraldearen Zatikoa Planak, lehen aipatuz gain, bere egiten ditu LAAetako eta Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategiako irizpideak eta

arteztarauak, eta estrategia orokor batzuk planteatzen ditu halaber. Horiek, lurraldeari dagokionez, hierarkizatze prozesuak, berrorekatzea (bizi-kalitate baliokide gisa ulertua berau) eta osagarritasuna jasotzen dituzte, eta baita behar bezala dimentsionatutako lurzoru eskaintza bat izatea bermatzea ere, detektatzen diren beharrekiko koherentziaz betiere; eta, ingurumenari dagokionez, lurzoru babestea, kontserbatzea, hobetzea eta bertan zertzen diren erabilerak arrazionalizatzea, aurreko erabilerak eta lurraldearen harrera-ahalmena hobeto egokituz, baliabideen kontsumo bereizi gabea mugatuz, eta baliabideen erabilera eraginkorra eta hirigune eta landaguneetako ingurumen eta bizi kalitatea hobetzea bultzatzen duten politikak eta ereduak proposatuz.

Lurralde ereduaren konfigurazioak eremuko esparruen, kokalekuen eta funtzioen integrazioa, osagarritasuna eta oreka ditu oinarritzko xedetzat, betiere balio hiritarrak eta ingurune fisikoarenak errespetatzeko, babesteko eta hobetzeko irizpideari jarraiki. Horrek, hiri balioen eta ingurune fisikoaren babesa eta hobekuntzaz gain, sistemen antolamendu arrazionala eskatzen du, hala asentamenduena nola erlazioena, eta horrenbestez, egitura orokorraren definizioa. Tolosaldearen kasuan, ingurunea gizatiartzeko prozesu historiko luzea dela-eta, dagoeneko definituta dagoen egitura fisiko-funtzional sendoan oinarritzen da.

Lurralde-analisiak kontraste nabarmena azaltzen zuen haran hondoko dentsitate handiko bide-kanalen eta kokalekuen -azpiegitura-kanal sendo batean oinarrituta lerrokatuak- eta haran ertzeko dentsitate txikiagoko esparruen eta bigarren mailako zeharkako ardatzen artean, egitura-arazo hirukoitza azpimarratuz: hiri-ardatz egituratzailean (Villabona-Irura eta Tolosa-Alegia) dauden hausturak, iparraldeko Donostialdeko eskualdearen gero eta erakarpen handiagoak Villabonan sortutako tentsioa eta kokalekuen arteko erlazio funtzionalen polarizazioa. Zirkunstantzia horiek, hiri sistema osoaren desartikulazioa eragiteaz gain, bere burutza-hiria eta, horrenbestez, multzo osoa ahultzen laguntzen dute.

- Ereduak lurralde-ikuskerako funtsezko ideia bat, printzipioa eta helburua aldi berean, hartzen du abiapuntutzat. Horren arabera, beharrezkotzat jotzen da lurralde historikoaren **antolakuntza multipolarra**, Gipuzkoako hiriburuaren - bitarteko hirietako energien ahalezko xurgatzailea- makrozefalia posiblea zuzentzearen alde eginez, bitarteko hiri horiek nortasun historiko eta kultural propioa duten bigarren mailako zentro aktibo gisa mantenduz eta indartuz, lurralde-sistema orekatuagoaren ezinbesteko bitarteko erreferenteak dira-eta.

- Eremu funtzionaleko ereduaren egitura orokorrak mantendu eta indartu egingo du haranaren hondoko kokalekuen eta bide-kolektoreen esparru handien –Ori ibaiaren ardatz sendoa– eta guneak barreiatuta kokatzen diren lurralde muinotar eta menditarrean –bigarren mailako haranekin– daudenen arteko aldea.
- Alabaina, eskema orokor horretan Lurraldearen Zatik Planak arrazionalizazioko irizpide, orientabide eta zehaztopen garrantzitsuak sartzen ditu, erabilerak eta lurralde eta hiri ahalmenak orekatuko dituen ikuskera sistemikoak integratutako lurzoru-kategoria handiak bereizteko. Horretarako, ingurune naturala eta paisaia babesteko elementu handiak, bertako lurzoruaren kategoriak, erlazio sistemaren eta kokalekuen sistemaren antolakuntza –landa eremuetan kokatutakoak hiri eremuetako intentsitate handienekoekin konekta eta osa ditzaten– eta lurraldeko ekipamendu handiak identifikatuko ditu.

Azken finean, egitura "gogorra", Oriaren ardatzeko arrain-hezur handia, zeharkako adarrekin, ingurumen eta paisaia aberastasunez betetako lurralde baten erreferentzia integratzailea da.

- Hiri eta lurralde-integrazioko irizpideak eta hiri-mailak igotzekoak oinarri hartuta, ezinbestekoa da Oriaren hiri-ardatzaren jarraitutasun funtzionalaren etenei konponbidea aurkitzea. Horretarako, ereduaren zehazten diren ekintzak erabiliko dira eta ezinbestekoa izango da, behintzat, kanpoko eta barneko konexioko bide-kanalak erabat bereizteko jardunak gauzatzea (gaur egun gainjarrita daude zenbait puntutan) eta Villabonako hegoaldeko muturraren eta Tolosako iparraldeko ertzaren artean dauden esparruak osoan antolatzea, hiri-jostura osatuz.

Berregituraketa horrek hiri sistema indartu egingo du, inolako zalantzarik gabe, eta lagungarria izango da, halaber:

- Donostialdearen erakarpenaren ondorioz eremu funtzionalaren iparraldean sortzen diren tentsioak eta ardatza barreiatzeko joerak geldiarazteko.
- Burutzako hiriaren maila areagotzeko, sistema argituz eta haren zerbitzuak eta aukerak hobetuz.
- Inguruko hirigune txikiak eta landa-eremuak eremu funtzionaleko egitura organikoan barne hartzeko, zerbitzu hobeak hurbiltzearen.

- Tolosak duen burutza-hiriaren maila mantentzea eta, ahal den heinean, eskualdeaz gaindiko hiriburu izateraino areagotzea –antolamendu-zehaztapen eta esku hartzeko politika egokien bitartez– da ereduak definitzen duen lurralde-egituraren beste osagai nagusietako bat.
- Aurrekoaren osagarria dugu, eta aldi berean ereduaren egitura orokorra definitzen duten funtsezko alderdietakoa, asentamendu politika, guneen arteko osagarritasun funtzionalean oinarritua, lurraldearen harrera ahalmena eta egungo ehun eta asentamendu aniztasuna kontuan harturik modu orekatuan bil ditzan bai jardueren banaketa antolatua –lurraldean hiri-erabilerak inolako egiturarik gabe sakabanatzea saihestuz– bai gune txikiak atzera hornitzeko eta dinamizatzeko ekintzak, betiere horien integrazio hobea bultzatzeko eta sistemari koherentzia handiagoa emateko.
- Ekintza urbanizatzaileak sustatzea –birkualifikazioa, bere eskalara egokitutako berrekipamendua, barneko hobekuntza estrukturala eta espaziala, erabileren dentsifikazioa edo, hala badagokio, deskongestioa, desoreka-egoerak konpontze aldera, hirietako eta ibaietako ertzen eta hiri arteko josturen tratamendua, bizitegiarekin bateragarriak diren erabileren nahastea zuhurtziaz sartzea, etab.– irizpide komunak dira, edozein mailatako udalerrien hiri-izaera berresteko politika sendo batera begira.
- LZParen antolaketaren egitura orokorrak, lehen adierazi dugun moduan hiri- eta lurralde-integrazio irizpideetan oinarrituak, bide azpiegituren hierarkizazioa jasotzen du halaber, horien erlazio funtzioen eta zerbitzua emandako guneen mailaren arabera, eremu funtzionaleko behar espezifikotara egokitua, eta tokiko sarbide sare nagusiaren gainean identifikaturik maila handieneko hiri sistemaren egitura-ardatzak, hain zuzen "hiribideak" edo "zumardiak" definituta eremuen izaeraren arabera, eta oinezko eta txirrindularientzako ibilbide argiak jasoz eta ahalbidetuz, hauen eta gaitasun handiko garraio-sistemen arteko lotura eraginkorrekin batera.

3.2.1. EREDUAREN IRUDIKAPEN GRAFIKOA

Ereduaren edukiak hiru plano-multzotan adierazi dira grafikoki eta Lurralde Ereduaren Eskema izeneko plano orokorrean laburbildu dira.

Lehenengo multzoa ingurune fisikoari dagokio eta bi planok osatzen dute (01.1 eta 01.2). Horiek grafikoki islatzen dituzte esparru honi dagozkion lurralde-proposamenaren alderdirik esanguratsuenak. **Ingurune fisikoa antolatzeko erreferentziak eta Ingurune fisikoaren antolamendua** izeneko plano horiek Ereduko antolamendu-kategoriak eta baldintzatzaile gainjarriak eta Babestu, Hobetu edota Leheneratu beharreko eremuak islatzen dituzte.

Bigarren multzoa eredu azpiegiturei dagokie eta plano bakar batek osatzen du. Lehen planoan, **Garraio sarea eta bide-komunikazioak** izeneko 02.1 plano horretan, behar bezala hierarkizatuta islatzen dira sareak eta sistema osotasunean ulertzeko ezinbestekoak diren bestelako elementuak. Lauki baten bidez nabarmendu dira planaren berariazko proposamenak dituzten esparruak. Bigarrean, 02.2 planoan, **Oinarrizko Zerbitzu Azpiegiturak** izenekoan, horien trazadura eta elementu nagusiak adierazi ditugu: hondakin uren araztegiak, urtegiak eta biltegiak, zabortegeak eta abar.

Hirugarren plano-multzoak (03, 04 eta 05) Ereduak kokaleku-sistemaren gainean egindako proposamena adierazten du. **03** zenbakia duen planoan, **Kokalekuen sistema: bizitegi-lurzoruak, industrialak eta zuzkiduretakoak** izenekoan, sistemako guneak kategoriatan banatzen dira, eta oro har adierazi egin dira espazioen okupazioaren ezaugarriak. Gainera, Garapen Berriak egiteko Eremu Nagusiak definitu dira, horien zonifikazio orokorraren bidez. Bizitegi-lurzoruen kasuan, gomendatutako erabileren intentsitateak adierazi dira. Bestalde, hiriarteko korridoreen izaera ere proposatzen da, ereduak garapen berriek euskarri izateko ematen dien ahalmenaren arabera, eta grafikoki islatu dira hiri-etenak eta erreserba espazialen eremuak.

04 zenbakia duen planoan, **Udalaz gaindiko ekipamenduen eta espazio librearen sistema** izenekoan, hirikoak, eskualdekoak nahiz azpi-eskualdekoak islatzen dira, egindakoak nahiz aurreikusitakoak, baita ingurune naturaleko ekipamenduak eta espazio libreak ere (azken horiek ingurumen ibilbideen sareak eta jolas eta aisialdi eremuek osatzen dute).

05 zenbakia duen planoak, **Plangintzarako irizpide orokorrak eta hiri garapenerako esku-hartze estrategikoak** izenekoak, interes estrategikokotzat jotako hirigintzako jarduketak eta hiri-plangintzarako irizpide orokor nagusiak biltzen ditu. Horiek harremanetarako sistemaren (ezaugarri bereziak dituzten sarearen zatien) nahiz garatu beharreko lurzoru-erabilera eta -politiken ingurukoak dira. Hona eragiketa horiek: industria-lurzoruei dagokienez, izaera estrategikoko ekonomia-jardueretarako eremu berriak eta jarduera nagusiak, eta bizitegitarako lurzoruei dagokienez, hazkunde selektiboko udalerrriak, lehentasunezko intereseko udalerrriak eta etxebizitza babestuetarako jarduera osagarriak, izaera alternatiboko bizitegitarako eskaintzen kokaleku izateko proposatutako udalerrriak, dentsitate txikikoak, eta abar. Horrez gain, hiri eta landa birkualifikazioko eragiketa nagusiak identifikatzen dira (Hiri eremuak transformatzeko eta biziberritzeko eragiketak, birgaitzekoak, babestekoak nahiz lurralderako sarreraguneetako eragiketa bereziak), aldi berean udal plangintzak koordinatzeko eta bateragarri egiteko esparruak adieraziz.

06 zenbakia duen planoak, **Lurralde ereduaren eskema** izenekoak, aurreko planoen edukien laburpena islatzen du.

3.3. INGURUNE FISIKOA, LURRALDE EREDUAREN OINARRIA ETA EUSKARRIA.

Ingurune fisikoan planteatutako oinarrizko lurralde egiturak, diogun moduan, lurraldean garatzen diren erabilera eta jardueren eta lurraldeak berak duen harrera-ahalmenaren artean egokitzapen maila altuagoa lortzea du xede, betiere balio ekologikoak, paisajistikoak, produkziokoak eta zientifiko eta kulturalak mantentzea eta hobetzera begira, honekin guztiarekin batera aintzat hartuz bertan garatzen diren jardueren erregulazioa, iraunkortasuna bermatzeko moduan, eta jarduteko neurriak eta ildoak proposatuz, eremu edo elementu degradatuak leheneratzeko edo birgaitzeko, erabiltzen ez direnak balioesteko eta eragile sozioekonomikoen ingurumen portaera hobetzeko.

3.3.1 ANTOLATZEKO IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK

Lurraldearen Zatik Planean prozesu horri aurre egiteko helburuak eta irizpideak, garapen-plangintzek ere erabili beharko dituztenak, honako hauek dira:

- Eremu funtzionaleko intereseko naturguneen babes eraginkorra ziurtatzea eta horien arteko konektagarritasuna bermatzea.
- Gaur egun dauden baso autoktonoen masa handiak babestea, horien kalitate ekologikoari eusteko eta, hala badagokio, hobetzeko, horien azalera handitzea ahalbidetuz.
- Fauna eta flora basatiko espezien kontserbazioari laguntzea, dibertsitate genetiko eta dagokien habitaten babesa bermatuz; arreta berezia jarriko da espezie mehatxatuen gainean.
- Landaredi-estaldurari eutsiko zaiola edo/eta hori hobetu egingo dela bermatzea, materialen desplazamenduak gertatzeko arriskua dagoen zonaldeetan, bertan eragin kaltegarria izan dezaketen jarduerak kokatzea saihestuz.
- Drainatze sare naturala hobetzea edota mantentzea, erriberako ekosistemen kalitatea bezalaxe, horietan eragiten duten faktoreei (alterazio, isurketa eta abarri) arreta eskainiz.
- Lur azpiko baliabide akuiferoen kalitateari eustea edota hori hobetzea eta horiek gehiegi ustiatzea eragozteko, horretarako hiri-isurketak nahiz nekazaritza eta abeltzaintzakoak kontrolatuz.

- Harrera-ahalmenarekin bateragarri ez diren jarduerak direla-eta degradatutako lurzoruak leheneratzea sustatzea (utzitako harrobiak eta hondakindegia, meatze-inguruak eta higadura-arriskua duten zonaldeak).
- Multzo paisajistiko baliotsuak eta kultur ondarea babestea.
- Nekazaritzako jarduerak eta balioak mantentzea bermatzea, eta kalitate handieneko lurrak babestea.
- Orain arte erabili ez diren edo nahikoa aprobetxatu ez diren baliabide naturalak aktibatzea sustatzea, landa-ingurunea garatzeko eta baliabide naturalak zentzuz erabiltzeko estrategia orokorraren barruan.
- Atsegin hartzeko eta turismorako erabilera modu antolatuan sustatzea, ekipamendu ludiko eta kulturalen bidez. Ondare natural eta kulturean oinarritutako ekipamendu horiek lurraldearen erabilera sustatuko dute.

3.3.2 INGURUNE FISIKORAKO ANTOLAMENDU EREDUA

Ingurune fisikoa antolatzeko estrategia horren isla espaziala den lurralde eredua lurzoru urbanizaezina harrera-ahalmenaren arabera (erabilera arrazionalako ahalmena, bilakatzeko ahalmena, hobekuntza naturala eta zaintza) definitutako hainbat sektore homogeneotan zonifikatuz gauzatzen da. Sektore horietako bakoitzari erabileren arautze espezifikoak aplikatzen zaio, bere ezaugarrien arabera, betiere erabilera arrazionala jorratzeko bidean, iraunkortasuna lortzeko metodotzat.

Kategoria horiek definitzeko –proposamen moduan ulertu behar dira–, ondorengo eskemari jarraitu zaio:

- **Babestu, hobetu edota leheneratu beharreko garrantzi handiagoko eremuak.**
- **Ingurune fisikoaren kategorizazio orokorra.**

3.3.2.a. Garrantzi bereziko eremuak.

Balio naturalistikoa, ekologikoa, paisajistikoa eta zientifikoa dela eta garrantzi handien duten esparruak, eta nekazaritza-interesa eta interes hidrologikoa dutenak zein narriatuta daudenak, berariaz babesteko eremutzat jotzen dira eta, bakoitzaren ezaugarrien arabera, **babestu, hobetu edota leheneratu beharreko eremutan** bereizten dira.

Ondoren ikus daiteke ingurunea babesteko, hobetzeko edota leheneratzeko kategorien zerrenda:

- **Babestu beharreko eremuak.**

Ondorengo azpiegiturak definitu dira:

- Natur intereseko eremuak

Kategoria honetan barne hartzen dira EAeko Naturgune Babestuak (Parke Naturalak, Biotopo Babestuak eta Zuhaitz bereziak), Natura 2000 Sarea, Interes Naturaleko Espazioak eta eremu funtzionaleko intereseko beste eremu batzuk. Honakoa da Goierriko eremu funtzionalari dagokionez azpiegitura horretan barne hartutako eremuen zerrenda:

- Naturgune babestuak: Aralarko Parke Naturala, Leitzarango biotopoa. Zuhaitz bereziak: AS13 Albizturko Douglas izeia eta AS23 Altzoko pagoa.
- Natura 2000 Sarea: ES2120011 Aralarreko BIL, ES 2120013 Leitzarano ibaiko BIL, ES 2120008 Hernio-Gatzumeko BIL, ES 2120005 Oria Garaiko BIL, ES 2120012 Araxes ibaiko BIL.
- Interes naturalistikoko eremuak eta beste enklabe interesgarri batzuk: Jazkugañe eta Basabe eremua, Murumendi, Atxulondo-Abalotz, Orexaran erreka.

“Beste barrendegi interesgarri batzuk” kontzeptupean Orexaran edo Basabe erreka dago, Araxes ibaiaren adarra berau eta muturluze piriniarraren kudeaketa planean interes bereziko eremutzat hartua; aipatu espezia Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan dago sartuta, galtzeko arriskuaren kategorian zehazki. Era berean, erreka hori Araxeseko BILen sartzeko proposamen bat dago.

- Interes zientifiko-kulturaleko eremuak eta guneak.

Kategoria honen barruan daude Interes geologikoko eremuak eta guneak, interes arkeologikoko guneak eta interes paleontologikoa edota arkeologikoa duten kobazuloak.

Interes geologikoko eremu eta puntuen artean, bere ezaugarri geologiko edo geomorfologikoak direla eta didaktika edota zabalkuntzaren ikuspegitik interesgarriak diren espazio eta elementuak daude.

- Interes geologikoko eremuak: Aralar, Hernio-Gatzume.
- Interes geologikoko lekuak eta guneak: 7 gune dira eta “Gipuzkoako interes geologikoko guneak” (GFA) bilduman jasota daude.

P-1 Hernio-Gatzumeko kareharrizko mendigunea.

P-2 Bidaniko poljea.

P-3 Albizturko lapiazak

P-4 Salubitako iturburua

P-5 Uzturre mendia

P-6 Berastegiko sakonunea

P-7 Aintzergako hondoratzeak

eta, horietaz gain, “EAEko Geodibertsitatearen Estrategia 2020”an jasotakoak.

- Tolosaldeko Eremu Funtzionalaren barnean bada, halaber, interes arkeologikoko elementu sorta garrantzitsu bat ingurune naturalean.

Monumentu megalitikoak eta haitzuloak: Gipuzkoako Karta Arkeologikoan eta Ondare Kulturalaren Zentroaren ondare-katalogoetan jasotakoak.

- Nekazaritza edota ingurumen intereseko eremuak.

Kategoria honetan sartu dira **1.1 planoan** planoan Nekazaritza-babeseko eremutzat sailkatu diren eremuak. Hain zuzen ere, lehen sektoreko produktibitateko potentzialtasun handiko edota ingurumen-balio handiko eremuak dira.

- Zizurkil eta Elizmendiko guneen artean dagoen esparrua, Berastegiko, Aintzergako eta Bidania-Goiatzeko haran garaiak, Altzoko sakonunea, Bedaioko ibarra. Orendain eta Abaltzisketa arteko muinoak eta mazelak.

- Interes hidrologikoko eremuak.

Kategoria honetan sailkatu dira, lur gaineko urei dagokienez, urtegiak, ibai-ibilguak eta babes-lerroak, EAeko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeako Lurraldearen Arloko Planean ezarritako zonakatzearen eta adarkatzearen arabera; lur azpiko urei dagokienez, akuiferoen urrakortasunaren inguruan arrisku handia edo oso handia duten eremuak.

- **Hobetu edota leheneratu beharreko eremuak.**

Ondorengo hiru azpikategoriak bereizi dira:

- Ekosistemak hobetzeko eremuak

Interes naturaleko eremuen kategorian barne hartu ez diren baso naturalak eta horietan sortzen diren zuhaixka formazioak barne hartzen dira kategorian honetan. Baso naturalek eta zuhaixka-formazioek duten kokapen topografikoa eta potentzialtasuna kontuan hartuta, aurreko kategorian sailkatzen dira batzuetan.

- Baso-kontserbazioko eremuak

Kategoria honetan sartu dira **01.1** planoan, Ingurune Fisikoaren antolamendua izenekoan, adierazitako eremuak, gaur egun malda handiko, sakonera gutxiko eta/edo higadura jasateko arriskua duten lurzoruetan baso-masa handiak jasaten dituztenak.

- Erabiltzen ez diren meategiak, harrobiak eta zabortegek

Halabeharrezkoa da eremu hauen ingurumen-baldintzak leheneratzea. Eredua etorkizunera egindako proiektio bat dela kontuan hartuta, gaur egun oraindik erabiltzen diren ustiapenak kategorian honetan sailkatzen dira, izan ere, ustiapen-lanak behin amaitu eta gero, eremu horiek leheneratu egin behar dira.

3.3.2.b. Ingurune fisikoaren kategorizazioa

Kategorizazioaren helburu nagusiak dira, hirigintza-plangintzan landa-lurzoruaren kalifikazioa egiteko erabili diren izenak eta definizioak homogeneousatzea alde batetik, eta, bestetik, berau antolatzeko irizpide orokorrak zehaztea eta bertako erabilerak eta jarduerak arautzea.

Horrenbestez, aipatutako kategorizazioa erreferentzia bikaina da, lurzoru ez urbanizagarriaren erabilerak arautzeko garapen-plangintza lehenesten den lurralde-ereduarekin bateragarri egiteko.

Azpimarratzekoa da, beraz, antolamendu kategoriek berez duten proposamen izaera.

Ondorengo antolamendu kategoria orokorrak definitu dira:

- Babes berezia.
- Ingurumen-hobekuntza.
- Basoa
- Nekazaritza eta abeltzaintzako eremua eta landazabala.
- Mendietako larreak.
- Lur gaineko uren babesa.

LAAen antolamendu kategoriak eta irizpide horiek Tolosaldeko Eremu Funtzionalaren lurralde-proposamenera egokitzeko, funtsean, “erabilera-bokazio definitu gabea” kendu da. Irizpide, helburu eta irtenbide orokorren dokumentuan jasotakoaren arabera, eremu funtzionalaren berriazko ezaugarrien ondorioz (lurraldearen % 70 baino gehiagok % 30eko malda du, eta gainerako % 30ean erabileren presioa eta lehia oso handiak dira). Gainera, “Basoa” kategoria bi kategoriatan banatu da: “kontserbaziorako basoa” eta “produktzioarako basoa”. Eta “Nekazaritza eta abeltzaintzako eremuak eta landazabala” kategoriaren barruan nekazaritzarako edota ingurumenerako interesa duten eremuak mugatu dira.

Babes berezia

Kategoria hau aplikatzen zaie ondo kontserbatutako bertako basoak dituzten eremuei, ekosistema bereizgarrien aztarnak dituzten eremuei, eta, oro har, ikuspuntu ekologikotik, zientifikotik, kulturaletik, paisajistikotik, lehen sektoreko ekoizpenetik edo alderdi horietatik guztietatik balio handieneko elementuak dituzten eremuei.

Kategoria horretan sartzen dira interes naturalistikoko eremuen eta espazioen zerrenda irekia jasotzen duen Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako 21. kapituluko 3. eranskinean proposatutako espazioak, hau da, Jazkugañe eta Basabe —mugaketa berria proposatzen da hego-ekialdean, eremu funtzionalaren mugekin bat etorritz—, Atxulondo-Abalotz eta Murumendi espazioak. Azken bi horiek funtsean Donostia-Beterriko eta Goierriko eremu funtzionaletan daude, baina lehenengoaren burutza eta bigarrenaren ipar-ekialdeko muga Lurraldearen Zatik Plan honen esparruan barneratzen dira.

Era berean, kategoria honetan sartzen dira Aralarko interes geologikoko eremua (izen bereko parke naturalean sartua) eta lehen dagoeneko aipatu eta dagokien planoan zerrendatzen diren interes geologiko, arkeologiko edota paleontologikoko hainbat gune.

Kategoria horri dagozkion eremuetan, gizakiaren esku-hartzea mugatuko da, eta eremuak ustiatzen badira, ingurunearen balioak kontserbatzera eta zaintzera egokitu beharko dira ustiapen-prozesuak.

Kategoria horren mugapena honakoetan oinarritu da: Euskal Autonomia Erkidegoko landaredia mapan, Euskal Autonomia Erkidegoko espazio natural garrantzitsuen zerrenda irekian, Gipuzkoako mapa geomorfologikoan, Gipuzkoako interes geologikoko eremuen eta guneen mapan eta Gipuzkoako karta arkeologikoan.

Ingurumen-hobekuntza

Kategoria hau aplikatuko zaie aurreko kategorietan barne hartzen ez diren baso naturalei, aurreko kategoriako eremuetan aldaketa itzulezinak jasan dituzten esparruei, zuhaixka-eta sastrakadi-formazioetako beste barrendegi batzuei -aurreko formazioez inguratuta daudenean-, eta, balio handiagoko eremuen ondoan izanik, kalitate maila handiagoetara jotzeari onuragarri irizten zaion beste lurzoru batzuei.

Esparru horietan kontserbatzeko eta birsortzeko esku-hartzeak egingo dira, eta ekosistema funtzional interesgarriak leheneratzeko askotariko jarduerak garatuko dira. Izan ere, ekosistema horiek, batzuetan, egoera topografikoagatik eta ahalmenagatik, babes bereziko kategoriara pasa daitezke.

Kategoria hori mugatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko landaredi-maparen informazioa erabili da, batez ere gazte-fasean edo degradatuta daudenen baso naturalena. Kokalekuagatik baso natural bihur daitezkeenak, batik bat, hartu dira aintzat.

Kategoria honetan sartzen dira, halaber, leheneratu beharreko eremu degradatuak ere, hala nola erabiltzen ez diren meategiak, harrobiak eta zabortegiak.

Lur gaineko uren babesa.

Kategoria honetan sartzen dira lur gaineko drainatzearen sare nagusia, errekek, ibilguak, eta urbazterrak, baita ibai-ibilguetan sortzen diren ekosistemak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean arautzen diren babes-zerrendetako ekosistemak ere.

Eremu horietan uren kalitatea kontserbatzea bultzatu beharko da, eta ibilguak eta urbazterrak aldatzea edo okupatzea saihestu beharko da. Hori dela eta, mugatu egingo dira erabilerak, okupazioa eta ustiapena, eta lehentasuna emango zaie birsortze jardueri.

Nekazaritza eta abeltzaintzako eremua eta landazabala

Nekazaritza-ahalmen handieneko lurzoruak biltzen dira kategoria honetan. Lurzoru horiek bat egiten dute malda txikieneko mazelako edo haranetako lurzoru sakonetako baratze-erabilerarako lurzoruekin eta larreekin. Haatik, presioa areagotu ahala, lur malkartsuagoak eta haran hondoetatik gero eta urrunagoak hartzen dira.

Lurraldearen Zatik Planak % 30etik beherako malda duten mazalak sartzen ditu kategoria honetan, baita malda hori gainditzen duten baina gizakiak oso landuta dituen larreetarako erabili ohi diren eremuak ere.

Kategoria honetako eremuak nekazaritza eta abeltzaintzara bideratzea bateragarri da gaur egun bertan barne hartutako lur-zati horietako batzuetako baso-erabilerarekin eta hostozabalen basotxo edo unada batzuk izatearekin. Hostozabalen arboladi horien zaintza plangintza-tresnek babestu behar dute.

Kategoria hau mugatzeko kontuan hartu dira landaretza-mapa, klase agrologikoen mapa, nekazaritza-lurzorua zaintzeko irizpideen mapa (Gipuzkoako Foru Aldundia), eta Nekazaritza eta Basoak Antolatzekeo Lurraldearen Arloko Plana.

Azpimarratzekoa da ezen, kategoria honi dagokion azaleraren % 50 inguru VI 2 azpiklasekoa dela (% 30etik gorako maldak), erabiltzeko unean hauskortasun handikoak diren lurzoruak, eta landa munduaren dinamika sozioekonomikoaren eraginez abandonatzen badira higadura arazoak sor daitezke. Beraz, horrelakorik gertatuz gero baso ustiapenera bideratzea komeniko litzateke.

Kategoria honen barruan, nekazaritzarako edota ingurumenerako duten interes handia dela eta eutsi eta zaindu beharreko lurzoru batzuk mugatzen ditu Planak. Esparru horien mugak 01.1 Babestu, Hobetu edota Leheneratu beharreko eremuak izeneko planoan daude jasota.

Arreta berezia jarri beharko da balio agrologiko handieneko lurzoruak betetzera bideratzen diren eraikuntza-prozesuak eta azpiegituren ezarpen-prozesuak kontrolatzeko, eta nekazaritza-eremuen zatitzea edo uharte moduan geratzea eragingo duten prozesuak kontrolatzeko ere bai.

Basoa

Kategoria honetan, egungo erabileragatik edo ezaugarriengatik (malda, arriskua, arroen babesa, etab.) baso-erabilerako joera duen lurraldea jasotzen da, bi azpikategoria bereiziz:

Baso-erabilera babeslea edo kontserbaziokoa

Baliabideen aprobetxamenduaren gainera honako beste funtzioak nagusi dituzten baso-eremuak biltzen dira kategoria honetan: basoa eragile higatzaileetatik edo irristatze-arriskuetatik babesteko funtzioa, baliabide hidrikoak erregulatzeko funtzioa, edo balio ekologikoa eta paisajistikoa erregulatzeko funtzioa.

Lurraldearen Zatiko Planak, kategoria honetan, malda handiko (% 50etik gorakoa) eta sakonera txikiko lurak jasotzen ditu, edo malda txikiagokoak izan arren higadura-prozesuak –sarritan arraseko mozketek eraginak– bizkortu direla ikusi den zonak.

Malda eta plubiometria handiko zona hauek antolatzeko irizpidea, higadurak jarduera bizia duela eta lurzoruen eboluzioa eragozten duela, egungo landare-estaldura mantentzea da, eta zona horietako erabilera eta maneietan arreta muturreraino eramatea, suteak aurreikustearekin eta baso politika arrazionala garatzearekin batera, betiere kontserbazioa izanik horren xede.

Aurreko irizpidea berretsirik geratzen da lurzoru hauek lurraldean duten tokiagatik, zeren eta kasu askotan eremurik kalteberenen mugetan daudela horiek babesteko eginkizuna bete baitezakete.

Produkzioarako basoa

Baso-bokazioa izanik (aurreko kategorian sartzen ez diren % 30etik gorako maldako lurak) baliabideen produkzio aprobeitxamendurako xedatzen diren eremuak sartzen dira kategoria honetan.

Baso-masak antolaturik ustiatuko dira, eta masa horien ekoizpen jarraituari eutsiko zaio, jardun-irizpide gisa.

Kategoria eta azpikategoria horiek mugatzeko irizpideak honakoen ondoriozkoak dira: Euskal Autonomia Erkidegoko landaretza-maparen ondoriozkoak, nekazaritza eta abeltzaintzako maparen ondoriozkoak, eta higatzeko arriskua duten eremuen baldintzatzaileen ondoriozkoak.

Mendiko larreak

Goi-larreetako eremuei dagokie kategoria hau, baita historikoki bertako basoari irabazitako mendiguneetako gailur-eremuei ere –urte-sasoiko abeltzaintza-ustiapen intentsiboa dutenei–. Eremu horiek asko baloratzen dira ikuspuntu paisajistikotik eta kulturaletik. Batez ere Aralarren daude.

Abeltzaintza-jarduera eustera bideratu beharko da bertako antolamendua.

Kategoria hori mugatzeko kontuan hartu dira Euskal Autonomia Erkidegoko landaretza-mapa eta Gipuzkoako klase agrologikoen mapa.

Baldintzatzaile gainjarriak

Azalera mota desberdinak bereizteko, bakoitzean eragina duten baldintzatzaileak hartu dira kontuan. Izan ere, azalera horietan gara daitezkeen jarduera jakin batzuk mugatu behar dira, arriskutsuak izan daitezkeelako. Honako lau baldintzatzaile hauek hartu beharko dira aintzat:

Akuiferoak poluitzeko arriskua duten eremuak

Lurpeko akuiferoak kargatzeko eremuak dira. Dagozkion planoetan argi islatu dira zein diren lurpeko akuiferoak poluitzeko arrisku handiena duten eremuak (urakortasun handia edo oso handia). Azalera horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Akuiferoen Urrakortasun Mapan mugatu dira.

Eremu horietan poluitzaileak lurzorura isur ditzaketen jarduerak kokatzea saihestuko da, edota poluitzaile horiek, gutxienez, lurpeko urak poluitzeko arriskutsuak ez direla bermatu beharko da.

Higatzeko arriskua duten eremu higagarriak

Ezaugarri litologikoengatik eta erliebikoengatik higadura-fenomenoak agertzeko aukera handiak dituzten eremuak dira.

Dagokion kartografian jasotzen dira, berariaz, % 50etik gorako malda edo lurzoru sakonera txikia duten eremuak eta higadura-prozesuak bizkortu direla ikusitakoak, Gipuzkoako Azterketa Edafologikoaren Erabilera Gomendioen Mapari dagozkionekin batera.

Eremu hauetako irizpide orokorra zuhaitz-estaldura mantentzea edo babestu beharreko elementutzat sailkatzea izango da.

Urpean gera daitezkeen eremuak

500 urteko itzulera-epe estatistikoa duten uraldietan urak hartuko lituzkeen maila

teorikoek mugatutako eremuak dira. Kalkulu horretan, azterketa geomorfologiko, hidrologiko eta hidraulikoez gain kontuan hartzen dira bai uraldi historikoak eta bai uraldi horiei buruzko dokumentu edo ebidentzia historikoak.

Oro har, uraren zirkulazio librea bermatuko da, uraren zirkulazioa etetea eta buxatzea saihestuz, eta uholdeen eraginpean egon daitezkeen instalazio, azpiegitura eta pertsonen gaineko kalteei aurrea hartu beharko zaie.

Naturgune babestuak

Honakoak dira: Natura 2000 Sarea, Aralarko parke naturala, Leitzarango biotopoa eta gorago aipatutako zuhaitz bereziak.

Korridore ekologikoen sarea (diseinatzeko)

Korridoreen sare bat sortu nahi da (ibaietakoak, basoetakoak, nekazaritzakoak, eta abar), Eremu Funtzionaleko interes natural handieneko espazioen artean, hala nola hurbileko inguruko beste eremu funtzionalekiko lotura ekologikoak ahalbitzeko eta, hartara, bertako flora eta fauna ondarean kontserbatuko dela ziurtatzeko.

Korridoreen sare hori garatzeko, lurralde-mailako konektagarritasuna hobetuko duten jarduerak sustatu behar dira, eta bertan egiten diren erabilerak eta jarduerak arautu behar dira, lurraldearen funtzionaltasuna bermatzeko.

LZPak egindako aurreikuspenen arabera, korridore ekologiko horiek definitzeko eta diseinatzeko dokumentu sektorialak edota LZPren garapen dokumentuak erabiliko dira.

3.3.3. ERABILEREN ETA JARDUEREN ARAUTZEA: ANTOLAMENDU MATRIZEA

Antolamendu Kategoriak-Jarduerak zerrendaren arauketa antolamendu matrize baten bidez egiten da. Honek adierazten du zein diren bultzatu beharreko jarduerak, onargarriak edo debekatuak, edota antolamendu eratorriak arautu beharrekoak.

Aintzat hartzen diren bost erabilera-mota handiak honakoak dira:

- Ingurumen-babesa.
- Aisia eta astialdia.
- Lehen sektoreko baliabideen ustiapena.
- Azpiegiturak.
- Eraikuntza-erabilerak.

Tresna hauek izanik, eta lehen azaldu bezala, ingurunea kontserbatzeko eta kalitatea mantentzeko helburuak jasoz, Lurraldearen Zatik Planak epe luzeko lurralde diseinu bat planteatzen du, udal plangintzarentzako erreferentzia gisa, okupazio, erabilera eta natur baliabideen ustiapen iraunkorarekin bateragarri.

3.3.4. EKINTZA POSITIBOKO NEURRIAK: JARDUERA PROPOSAMENAK

Ondoren jardun-proposamen batzuk izango ditugu mintzagai eta zenbait iradokizun egingo ditugu gai honen inguruko eskumena duten sailek ingurune fisikoa behar bezala antolatzeko egoki irizten dituzten programa, plan, proiektu eta jardunak garatu eta gauzatu ditzaten. Lortzen diren emaitzak agiri honen plangintzan eta araudian barne hartuko dira, hala badagokie. Besteak beste, honakoak kontuan hartuko diren alderdiak:

- **ONDAREA KONTSERBATZEKO ETA INTEGRATZEKO PLANA.** Plan honek barne hartzen ditu EAEko ekosistema bereziak, basoko bizitza eta dibertsitate ekologikoa babesteko, berreskuratzeko eta leheneratzeko jarduera guztiak, funtsezko ziklo ekologikoak eta kultur ondarearenak.

Besteak beste, ondorengo planak garatu dira banaka zein integratuta:

Baso naturalak kontserbatzeko eta berreskuratzeko plana.

Basoko espezie mehatxatuen plana.

Ondare zientifiko-kulturalaren plana eta Naturako elementu bereziak babesteko plana.

Korridore ekologikoen plana.

Leku paisajistiko baliotsuak babesteko plana.

Habitatak berreskuratzeko plana.

Hobetu edo berreskuratu beharreko eremuak eta hainbat ingurune degradatu zaharberritzeko plana.

Leheneratze paisajistikoko plana.

Lur gaineko sare hidrologikoa berreskuratzeko plana.

- NATUR BALIABIDEAK ERABILTZEKO PLANA. Natur baliabideen (baliabide hidrikoak, nekazaritzako eta arrantzako jarduerak, basokoak eta bestelakoak) antolamenduarekin eta ustiapenarekin erlazionatutako jarduera guztiak barne hartu dira bertan, bai eta horiek ingurumenean eragiten dituzten inpaktuekin eta arriskuekin erlazionatutakoak ere (lurzoruen higadura eta babesak, uholdeen prebentzioa, eta abar).
- ASKOTARIKO JARDUERAK SUSTATZEKO PLANA. Bertan barne hartu dira Eremu Funtzionalaren lurralderako landutako hainbat programa osatzeko jarduera guztiak.
- INTERPRETAZIO, IKERKETA ETA ADMINISTRAZIO PLANA, lurraldearen gaineko ingurumen-hezkuntzarekin eta ikerketa zientifikoarekin erlazionatutako jarduerak, eta horiek ezagutzera emateko jarduerak barne hartzen ditu plan honek.

3.4. ERLAZIO ETA ZERBITZU SISTEMAK: EREDUAREN OINARRIZKO AZPIEGITURAK

Eremu Funtzionaleko Ereduren azpiegituren helburuetako bat merkantzia, energia, informazio eta jakintza truke beharrei eta pertsonen beren jardura ekonomiko eta sozialak garatzeko dituzten mugikortasun eta erlazio beharrei erantzutea da, eta oinarrizko zerbitzuen kalitatea bermatzea. Beraz, garraio eta komunikazio sistemak eta oinarrizko azpiegiturak funtsezko elementuak dira lurralde proposamenean.

Helburu horiek lortzeko, beharrezko lurzoru erreserbak egin behar dira, hain zuzen horietan finkatzearen etorkizuneko azpiegiturak. Beraz, ezinbestekoa da erreferentzia hau eta honek euskarri dituen irizpideak, garatzeko uneko irizpideekin batera inolaz ere, kontuan hartzea egiten diren plangintzetan, bai hirigintzakoetan bai alorkakoetan, hain zuzen antolamendu integratu eta koordinatu baten ondorioak aprobetxatzearen.

Hori guztia dela-eta, Ereduren hurrengo eduki-blokean aurkeztu egiten dira eremu funtzionaleko komunikazio eta garraio sistemaren eta oinarrizko azpiegitura nagusien antolaketari buruz LZPak jasotzen dituen irizpide, helburu eta proposamen behinenak.

3.4.1. ERLAZIO SISTEMA

3.4.1.a Garraio eta komunikazio sistemaren ezaugarri orokorrak

Bide sistemaren egitura funtsezko elementua da, ez bakarrik kanpo eta barneko ezinbesteko konexioak bideratzeko, baizik eta produkzio sistemaren operatibitate handiagoa, sistemako elementu desberdinen arteko lurralde integrazioa eta bertako biztanleen kohesio soziala lortzeko.

- Eremu Funtzional honek mugikortasun-tasa altua du: berezkoa duen eremuaren barruko mugikortasunaz gain, bere kokapen geografikoa dela-eta sortzen den pasaerako mugikortasuna hartu behar da kontuan.

- Eremu Funtzionaleko asentamendu sistemaren egitura geomorfologikoak, honen ezaugarria haran nagusietako hondoen okupazio lineala da, izugarri baldintzatzen du egitura funtzionala.

- Oriaren ardatzaren bide-eragin zeharo indartsua bereizgarri izanik, ardatz hori garraioa kontzentratzeko esparru nagusia da, eta sistema osoak horrexen inguruan grabitatu du; horrenbestez, sistemaren antolaketa errazagoa da.

- Gaur egun lurraldeko garraio publikoen sistemako osagaiak ETS/Euskotren, Adif/Renfe eta Trenbide Sare Berria dira –gaur egun eraikitzen ari dira–; horiez gain, errepidezko merkantzia garraioa dago, eta autobus zerbitzu publikoa halaber hainbat mailatan, honek hiri maila, hiri ingurukoa, eskualdea eta eskualdez gaindikoa hartzen ditu.

Tolosaldeak ez du ETS/Euskotren-en trenbide sarerik.

Egungo garraio sistemaren oinarriko bi ezaugarriak honakoak dira:

- Eskumenen banaketa instituzionala
- Errepidearen erabateko nagusitasuna, beste aukera guztien gainean.

Adif/Renfek aldiriko zerbitzuak eta ibilbide luzeko zerbitzu batzuk egiten ditu gaur egun. Trenbide-sare berriak ez du geltokirik aurreikusten eskualdean, eta merkantzia mota batzuk garraiatzea ahalbidetuko du.

Baliteke aldiriko garraioaren kudeaketa Eusko Jaurlaritzaren esku geratzea, eta honi gehituz gero Trenbide Sare Berria abian jartzea -berekin ekarriko baitu Renfeko linearen ibilbide ertain eta luzeko tarteak desagertzea-, sistemaren berregituratze bati ekiteko aukera sortu beharko litzateke, aldiriko zerbitzua indartzeko eta Renferen lineari errentagarritasun handiagoa ateratzeko merkantzia garraioari dagokionez.

Bidaiarien garraio publikoko sistemari dagokionez, Tolosa eskualdeko errepideko komunikazioen zentro nagusia ez ezik, eskualdeaz kanpoko linea batzuen bitarteko geralekua da, batez ere Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa eta estatuko beste zenbait gune lotzen dituzten lineetakoak. Eremu Funtzionaleko gune txikien arteko bide-komunikazioek zerbitzu-maila onargarria dute eta Tolosan dute erreferentziako gune nagusia. Baldintza horiek guztiak bultzatu egin behar dira.

Errepideko garraioaren ekipamenduei dagokienez, Tolosaldeak Euskal Autonomia Erkidegoko komunikazio sare orokorraren barruan duen kokapena, zerbitzuak sortzen dituen gunerik ez izatea, eremuaren ertzetan dauden izaera estrategiko handiagoko beste

nodo batzuen hurbiltasuna eta jarduera-mota honetarako lurzoru-premia handiak direla-eta, Tolosaldeak ez du mota honetako aurreikuspen estrategikoak egiteko berriazko baldintzarik, tokiko izaera hutsekorik ez bada.

3.4.1.b Garraio eta komunikazioen sistema antolatzeko irizpideak eta helburuak

Garraio eta Komunikazio Sistema orokorrean harturik eta Eremu Funtzionalaren egituratze erabateko eta integralean duen eginkizuna gogoan izanda, helburu orokor hauek planteatzen zaizkio:

- Eremu Funtzionala kanpoko ardatzetan integratzea, hiriburuen euskal sistemarekin, inguruko eremu funtzionaletako burutzekin eta indartzen ari diren produkzio-espazioekin dituen loturak indartuz eta hobetuz.
- Burutza, hirigune eta landaguneen eta, oro har, sistemako elementu guztien arteko egituratze eta harremana bultzatzea.
- Gaur egungo garraio eta komunikazio sistema hobetzea, ondorengo irizpideak kontuan hartuta:
 - Administrazioek, garraio-politika komun bati jarraituz, modu koordinatuan egitea sistemaren plangintza eta antolamendua.
 - Intermodalitatea oinarrian duen garraio-politika bat garatzea.
 - Garraio publikoari lehentasuna ematea:
 - Garraio publikoaren instalazioak eta ekipamenduak hobetzea.
 - Trenbidearen erabilera sustatzea salgaiak garraiatzeko.
 - Garraiobide ez-motordunak edota ingurumena gutxiago irauten duten garraiobideak sustatzea.
 - Automobil pribatuaren erabilera mugatzea.

Aurreko paragrafoetan adierazitako helburu orokorren baitan, ondoren adierazitakoak izango dira esku hartzeko irizpideak:

- Artikulazio handiagoa lortzea errepide sistemako elementuen artean, pasoko eta agitazioko trafikoak pixkanaka bereiziz, eta Kanpoko Sarbide Sare Orokorren, hiri-sarearen eta tokiko lehen mailako sarbide sarearen arteko harremana hobetuz.
- Errepide sareen funtzio aniztasuna sustatzea, batez ere Tokiko Sarbide Sare Nagusian. Horrela, hiri sistemak erlazionatzeko eta egituratzeko dagokion funtzioa indartuko da, hiri garapenak eragiteko espazio-ahalmenarekin batera, eta dagokion sektorean trafiko-bide hutsaren kontzepzioa gainditu, batez ere hiri-zeharbideetan.
- Oinezko eta txirrindularientzako hiriarteko sarbide sare bat itxuratzen eta garatzen laguntzea, ahalmen handiko garraio publikorako sistemekiko konexio eraginkorrak ahalbidetuz, esate baterako Adif/Renferen trenbide-linearekin, hiriarteko autobus-lineekin eta abarrekin.
- Sarearen funtzionaltasun integrala osatzea, sistemarako halabeharrezkoak diren zerbitzuen bitartez, hala nola autobus-geltokiak, truke-zentroak, garraiorako ekipamenduak edota sistemako beste hainbat elementu ezarriz.
- Kasuan kasuko azterketak egin eta, horiek kontuan hartuta, azpiegitura-ezarpenak zentzuz kokatzeko, lurraldeko zerbitzuak integratzeko eta optimizatzeko estrategiak jarraituko dira, ubideak, sareak eta trazadurak metatuko dira, afekzioen ekonomia jarraituko da eta diseinu kualifikatuak eta ingurunera egokituak egingo dira.

3.4.1.c Bide Garraio eta Komunikazioen Sistemaren eredu integrala.

Garraio eta Komunikazio Sistemaren osagaiak sareak dira, bai bide sareak bai trenbide sareak, eta horiekin batera hainbat elementu focal dira, hala nola autobus geltokiak, merkantziatarako truke-guneak eta garraiorako ekipamenduak, guztiak funtsezkoak alegia sistema modu orokorrean ulertzeko.

Komunikazio eta Garraio sareak, Ereduaren oinarrizko elementua izateaz gain, eskualdeko egitura berriaren oinarrizko egitura dira, zeren eta, sistemako alderdien eta

hauen eta kanpoaren arteko irisgarritasuna eta konexioa ahalbidetzeaz gain, eskualdeko multzoaren integrazio funtzionala ahalbidetzen baitute.

Ikuspegi honetatik, lurraldearen gaineko ikuspegi integral bat jasotzean sektore balio hutsetik goragoko balioa hartzen dute. Hori dela-eta, osagai dituen komunikabideen antolaketa hierarkiko eta funtzionala –hurrengo marretan azaltzen da honen kategorizazioa– ez dator bat sektore sailkapenekin.

02.1 planoan, Garraio eta Komunikabide Sarea izenekoan, jaso da komunikazio eta garraio sare nagusi bakoitzaren trazadura, behar bezala hierarkizatuta guztia, bakoitzeko elementu adierazgarrienekin (loturak, geltoki nagusiak, aldirietakoak eta geralekuak, etab.) eta lehen aipatutako beste hainbat elementu fokalekin batera.

Errepide sarea

Kategoria hauek ditu:

- Kanpoko sarbide sare orokorra. (Autobide, autobia eta errepide nagusien sarea)
- Tokiko sarbide sare nagusia
- Lurraldeko sarbide sare osagarria. (Eskualdeko sarea)
- Tokiko bigarren mailako sarbide sarea
- Landaguneetarako tokiko sarbide sarea.

Kanpoko sarbide sare orokorra.

Eremu Funtzionala kanpoaldearekin edota Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuen sistemarekin, hurbileko erkidegoekin eta inguruko eremu funtzionaletako burutzekin konektatzen duten korridoreek osatzen dute.

Sare honetako osagaiak dira N-1 autobia (Irun-Altsasu) eta A-15 autobia (Andoain-Irurtzun).

Tokiko sarbide sare nagusia

Ahalmen handiko eta ibilbide luzeko bideen eta tokiko bideen arteko maila funtzionaleko bideek osatzen dute. Eskualde barruko egituratzaileen eginkizuna betetzen dute.

Honako errepide-tarte hauek osatzen dute sare hau:

- N-1 errepide zaharraren hainbat zatik osatzen duten bidea, hiri-zeharbideak eta GI-3610 errepidea (Villabona-Aduna) barne, honek luzetara igarotzen baitu Oria ibaiaren ardatza, Adunatik Ikaztegiara.
- GI-2130 errepidea (Berrobi-Tolosa), Ibarako saihesbidea, GI-2135 errepidea (garai bateko N-130, Tolosa-Lizartza), GI-2631 errepidea (Villabona - Asteasu).

Lurraldeko sarbide sare osagarria (eskualdeko sarea).

Hurbileko eremu funtzionalekiko erlazioa osatzen du. Kasu askotan eskualdeko paisaia-errepide bihurtu dira.

Honako errepide-tarte hauek osatzen dute sare hau:

GI-2130 (Berastegi-Urto-Leitza), GI-2135 (garai bateko N-130, Lizartzatik Nafarroara), GI-2133 (Alegia-Amezketeta-Ordizia), GI-2634 (Tolosa-Albiztur eta Errezilerako eta Urola ibaiaren haranerako adarrak), GI-2631 (Asteasu-Aia).

Tokiko bigarren mailako sarbide sarea

Buruzetatik urrutien dauden gunek eta ingurune hurbileko hirigunek konektatzen dituzten bide-tarteei dagokie.

Honako errepide-tarte hauek osatzen dute sare hau:

GI-3282 (Villabonatik Zizurkilerako sarbidea), GI-3630 (Asteasu-Alkiza-Anoeta), GI-3072 (Alegia-Altzo-Txarama), GI-3670 (Alegia-Orendain-Abaltzisketa).

Landaguneetarako tokiko sarbide sarea

Honako bide-tarte hauek osatzen dute sare hau:

Asteasutik Larraulerako sarbidea, Anoetatik Hernialderako sarbidea, Tolosatik edo Ibaratik Urkizu, Leaburu, Gaztelu, Belauntza eta Izaskunerako sarbideak, Albizturtik Santa Marinarako sarbidea, Alegiatik Aldaba eta Altzorako sarbideak, Ikaztegietatik Baliarrainerako sarbidea, Ugarte-Bedaio tarteak, Lizartzatik Orexarako sarbidea, Villabonatik Amasarako sarbidea.

Tokiko bigarren mailako sarbide sarearen eta landaguneetarako sarbide sarearen arteko aldea, funtsean, zera dugu, lehena trazadura osoen zatia izatea eta bigarrenak, berriz,

aurrekotik edo maila handiagoko beste komunikabide batzuetatik zintzilika dauden muturren itxura izatea.

3.4.1.d Garraio eta komunikazio sistemarako proposamenak

Errepide sarea

- N-1 autobiaaren hobekuntza, soilik eremu funtzionaletik beretik landu behar ez den estrategia baten bidez, eta bidearen beraren gainean esku hartuz. Hau da, eremu funtzionala gainditzen duen estrategia bat jorratu behar da, horretan sartuz, nagusiki, honako ekintza hauek (batzuk dagoeneko gauzatuta daude):

- Ibilbide luzeko bide alternatibak, A-8ren eta Maltzaga - Gasteiz autopistaren (bidesariak mugatzen du) ahalmena hobetearren.

- Merkantzia-garraioaren pisu handiagoa trenbide sarean.

- Irurako eta Benta Haundiko hiri-hausturak jostea, eta N-1 errepiderako loturak eta bidegurutzeak berrantolatzea eta sarrerak kontrolatzea Villabona eta Irura artean, udalerrri arteko trafikoak, are industrialak ere, autobia sartzea saihestuz

- Eskualdearen egituratzea hobetzea, batez ere bi herri nagusien artean, eta barne egitura egokitzea, hiri-loturako egitura berri bat sortuz Villabona-Irura-Anoeta-Tolosa ardatzeko esparru estrategikoan; horrek berekin ekarriko lituzke honakoak:

- Andoain-Villabona lotura hobetzea eta egungo GI-3610 Aduna - Villabona errepidea egitura ezaugarri eta ezaugarri funtzional berrietara egokitzea.

- Egungo N-1 errepidetik Oria ibaiaren ezkeraldera sartzeko aukerak sortzea Villabona parean.

- Villabona-Anoeta arteko ibaiaren ezkeraldetik zeharreko bide lotura garatzea, eta lotura hau irisgarritasunaren udal sare nagusian txertatzea.

- Oria ibaiaren ertz bien arteko konexioak hobetzea, LZPn adierazitako hainbat zubi eta zaldain eraikiz horretarako.

- Gaur egun hautsita dagoen Tolosa eta Alegia arteko hiri-jarraitutasuna berreskuratzea. Horretarako esku-hartze egokiak gauzatuko dira autobia goiko bidea handiagotzeko eta beheko bidea tokiko sarbide sare nagusian integratzeko,

oinezkoen eta txirrindularien trafikoko funtzionala eta ingurumenaren aldetik duina garatzeko aukera emanez.

- Berastegi - Tolosa - Azpeitia - Elgoibar zeharkako ardatz historikoaren ezaugarri tekniko eta funtzionalak hobetzea, batez ere Tolosaren eta Nafarroako autobidaren Berastegitik zeharreko loturaren kasuan, LAAek oinarrizko irizten diote eta.
- Ibarra bako saihebidetia osatzea, Tolosa-Ibarra hegoaldeko esparru estrategikoaren eta aipatutako loturaren antolamenduan integratuz.
- Elbarrenako saihebidetia egitea.
- Txirrindulari eta Oinezkoentzako Ibilbide Sare bat sortzea, hiriarteko bat zehazki, hala egokituz gero izango duen hornidura-eginkizunaz gain, ereduaren bide-egitura osoaren parte izan dadin.
- Ereduko antolamenduan "hiri-zentraltasuneko ardatz" izendatzen direnak –tokiko sARBIDE sarekoak– egitura antolatzen duten oinarrizko elementutzat jotzea, trazadurako eta josturako ekintza egokien eta espazioko eta diseinuko tratamenduen bitartez, ahal den heinean "hiribide" izaera ematearren.

Ardatzak: Benta Haundi, Tolosa, Anoeta, Irura, Villabona eta Aduna. Eta Villabona-Tolosa tartea Oria ibaiaren ardatza antolatzeko eragiketari integratuko da.

Villabona-Asteasu, Tolosa-Txarama eta Alegia, Ikaztegieta, Lizartza eta Berrobiko zeharbideak.

- "*Hiriarteko artikulazioko ardatz*" izendatzen direnak –tokiko sARBIDE sarekoak– konexioko bide-elementutzat jotzea, oinezkoek eta txirrindulariek atseginez eta segurtasunez erabiltzeko moduko "zumardien" gisakoak, beren diseinua ibilbidearen ahalmen fisikora egokituz.

Ardatzak: Ibarra-Berrobi, Lizartza-Txarama, Benta Haundi-Alegia, Alegia-Ikaztegieta eta Ikaztegieta-Legorreta.

- Tokiko sARBIDE sarea eta landaguneetako sARBIDE sarea hobetzea.
- Ingurune naturaleko landa-bideen eta oinezkoen ibilbideen sare kapilarra sortzea, lurraldeko irisgarritasun eta erlaziorako sare erabilgarria osatuz.

Trenbide sarea

- Proposatutako Trenbide Sare Berria zerbitzuan sartzeak aukera eman behar du Irun - Legazpi linearen zerbitzuak eta maiztasunak zabaltzeko eta hobetzeko, eta trenbidezko merkantzia garraioa indartzeko. Horrek guztiak, izan ere, oso eragin positiboa izango du eremuan, Villabona-Anoeta-Tolosa ardatzaren hiri maila hobeturik eta N-1 errepide saturatuko trafikoa arintzetik etorriko baita. Eragin horiek biak ereduaren helburu garrantzitsu jotzen dira.

- Geltoki intermodal bat egitea Tolosan, autobus zerbitzu guztiak, hala eskualdekoak nola eskualdetik kanpokoak, hartzeko.

- Renferen trazadura aldatzea Villabona/Zizurkil eta Anoetako geltokien artean.

Aldatze proposamen honek eskatzen du egungo trazaduraren 2.500 m inguru luze desbideratzea eta ondoren berreraikitzea (beharrezko azterketak beharko dira); baliteke trazadura berria neurri batean edo osoan tunel gisakoa izatea.

Proposatutako aldaketak hobekuntza agerikoak izango lituzke ardatza egituratzeko eta Villabona-Anoeta ibarra antolatzeko. Zalantzarik gabe, esku-hartze hau giltzarria da Villabona eta Tolosa arteko hiri continuumaren eraikuntza erabat eraginkorra izan dadin, zeren eta horrela desagertu egingo bailitzateke eremua berreskuratzeko eta goitik behera aprobetxatzeko hesirik garrantzitsuenetako bat.

3.4.2. OINARRIZKO AZPIEGITURAK

Lurralde Eredurako proposatzen diren oinarrizko zerbitzu-azpiegituren sistemak bat datoz, oro har, arloko administrazioen aurreikuspen eta jardunekin, edo ontzat ematen dituzte behintzat.

3.4.2.a Saneamendua

Tolosaldeko lurraldeko hondakin uren saneamendu eta arazketaren egoerak azpiegitura-defizit handia zuen duela gutxi arte, ez baitzuen sistema egokirik martxan; hau da, ez zuen araztegi bat (HUA) eta horrekin batera kolektore nagusien sarea hartzen zuen azpiegiturarik, lehengo sareekiko loturez hornitua. Arazoa –eta arazo garrantzitsua, inondik ere, Oria Erdiaren ibarreko asentamendu intentsiboen, hala egoitza nola industriakoen, kontzentrazio handiagatik– konpontzeko bidean dago jada, zeren eta Foru Aldundiak dagoeneko Hondakin Uren Araztegia eraiki baitu Adunan; eta Eremu Funtzionaleko azpi-arro nagusietako saneamendua ere eraikitzen edo azterketa eta proiektu fase desberdinetan dauka halaber. LZPak helburu du Eremu Funtzionaleko hirigune guztien saneamendu sarea betetzea.

Hau da, gaur egun, Tolosaldeko lurraldeko etxeetako hondakin uren saneamendu eta arazketaren egoera:

Adunako HUA eraikia eta martxan dago jada, industrialdetik hurbil. Kolektore orokorrak udalerrri hauetako isurkinak biltzen ditu: Legorreta –aldameneko Goierriko EFean–, Ikaztegieta, Alegia, Tolosa, Hernialde, Anoeta, Irura, Villabona, Zizurkil, Aduna eta Andoain –hau Donostialdeko Eremu Funtzionalean–. Era berean, Asteasu ibaiaren arroako saneamendua ere egina dago, eta Kontsortzioak horretan sartu du Larraul. Orendain eta Baliarrain Oriaren interzeptagailuari lotzea aurreikusten da, Altzoren kasuan bezalaxe (lotura-obra 2011rako aurreikusita zegoen). Abaltzisketa eta Amezketa, era berean, interzeptagailu orokorrari lotu zaizkio, eta Berastegiren arrorako kolektore baten proiektua erredaktatu da. Honek, Berastegitik abiatuak Elduain eta Berrobiko urak jaso eta Oriaren interzeptagailura eramango ditu. Leaburu Apattaerreka industrialdeko saneamendu sareari lotuko zaio; eta Gaztelu eta Albiztur ere Oriaren interzeptagailuari lotuko zaizkio (aurreproiekua badago jada). Bidania-Goiatzek bere arazketa sistema dauka, Oresak, Aldabak eta Lizartzak bezalaxe.

3.4.2.b Ur hornidura

Hauek dira hornidurarekin lotutako erronka nagusiak:

- Horniduraren bermea
- Hornitutako uraren kalitatea
- Hornidura sareen eragimena
- Hornidura sistemak sor ditzakeen ingurumen ondorioak minimizatzea.

Gaurdaino egin diren lan teknikoak hornidura sistema egokiak bilatzera zuzendu dira, erabateko bermea izango duten eta Tolosaldean hornitutako uraren kalitatea hobetuko duten sistemetara, hain zuzen.

Baliarrain eta Orendain artean dagoen IBIUR urtegiaren bidez, batez ere, egiten da edateko uraren hornidura Eremu Funtzionalean. Urtegiaren gain, Ikaztegiaren ura tratatzeko estazioa eta Oria Ertainean zehar udalaren ur-andelekin konektatzen den hornidura sare orokorra daude.

Gaintzatik –aldameneko Goierriko Eremu Funtzionalean– hornitzen dira Baliarrain eta Abaltzisketa; eta hemendik, Orendain.

Asmoa da Belauntzatik –Ibiurrekin lotua dago gaur egun– Berrobi, Elduain eta Berastegira ponpatzea, eta Ibarako depositutik Leaburu eta Gaztelu konektatzea. Alkizak modu autonomoan bideratu du bere hornidura, Bidania-Goiatz, Albiztur, Amezketa eta Lizartzak bezalaxe; horiek guztiak aztertzeke dute Ibiurrekin konektatzeko aukera. Larraulek EUTE txiki bat dauka, baina Kontsortzioa Ibiurrekiko konexioa ari da aztertzen.

Era berean, Oriaren arroan hainbat hartune dago, hala nola Albizturko Salubita iturburua eta Lepasoro, Hernialde eta Elduaingo putzuak. Edonola ere, hartune horietako batzuetan hartzen den ura ez da gomendagarria herritarren hornidurarako, eta ur-emariari eusteko erabiltzera mugatu behar dira.

3.4.2.c Arriskuen prebentzioa

Dokumentu honetan, Ingurune Fisikoaren azterketari dagokion zatian, urak har ditzakeen zonei, higadura jasan dezaketen eremuei eta akuiferoak kutsa daitezkeen inguruei buruzko datuak jaso dira.

Lurralde antolamenduko erregulazio hidrologiko-hidraulikoa ibai ibilguen uholde-azterketak egitean edota eguneratzean oinarritu da; beraz, ibilgu publikoen mугen kartografia egitea aurreikusi beharko da, ibilgu horien zorpeneko edo kontrolerako zonak eta urak har ditzakeen eremuak ere kontuan hartuta; eta funtsezko eta derrigorrezko xedapen gisa jasoko da lehentasunezko fluxu-eremua zehaztea (9/2008 Errege Dekretua).

Azterketa horiek osatuz, honako hiru jarduketa hauek:

- Urpean geratzeko arrisku potentzial nabarmena duten eremuak identifikatzea.
- Arriskugarritasun eta arrisku mapak eguneratzea.
- Urpean geratzeko arriskuaren kudeaketa planak egitea, 2007/60/EE Arteztaruan jasotako xedapenei jarraituz eta uholde arriskua ebaluatzeari buruzko 903/2010 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat.

IIBEn adierazi bezala, 2012ko urtarrilaren 11n EHAk argitara eman zuen Kantauri Ekialdeko Uholde Arriskuei buruzko Aurretiazko Ebaluazioa (UAAE). Azterketa horrek aipatzen bazuen ere zaila dela tarte bat uholde arrisku garrantzitsukotzat katalogatzera daramaten mailak zehaztea, Tolosaldeko Eremu Funtzionalean uholde arrisku potentzial garrantzitsuko eremutzat sailkatu dira Amezketa (Amezketa erreka), Lizartza (Araxes ibaia), Alegia-Altzo (Oria-Amezketa erreka), Tolosa-Ibarra (Oria-Zelai erreka) eta Villabona-Zizurkil-Aduna (Oria-Asteasu erreka).

UAAE fasean identifikatutako zonei begira, 2013. urte bukaera aldera arriskugarritasun mapak eta arrisku mapak egin ziren. Mapa horietan, aipatutako zonak mugatu eta beren arrisku-mailaren arabera sailkatu ziren (arrisku handia, ertaina, txikia), eta horietan adierazten dira uholde batek herritarrengan, ondasun materialetan eta ingurumenean eragin ditzakeen kalteak.

2015-2021 zikloari dagokion Kantauri Ekialdeko mugape hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana urtarrilaren 20ko 20/2016 Errege Dekretuaren indarrez onartu zen. Plan horrek prebentziozko eta kaltea arintzeko neurri estrukturalak eta ez-estrukturalak aurreikusten ditu asentamendu seguruak bermatzeko, oraingo arriskua murrizteko eta lur gaineko ur berrien baldintza morfologikoak hobetzeko.

3.4.2.d Hondakin solidoak

Arreta berezia merezi duen arazo bihurtu dira hiri hondakinen etengabeko gehikuntza, eta hondakin horiei eman beharreko tratamendua eta kudeaketa.

Lurralde historiko osorako estrategia partekatu bat behar zela-eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak Hiri Hondakinen Plan Orokorra 2002-2016 idatzi zuen; horretan aurreikusten den eskemaren oinarrian honakoak daude: materialen gaikako bilketa, materia biodegradagarria konpostatzea, hondakinetan dauden materialak birziklatzea, eta bereizi gabe bildutako hondakinak eta beste tratamenduetako errefusak erraustea. Asmoa da errausketaren hondarrak (zepak) agregakin gisa erabiltzea errepideen eraikuntzan; eta errauskak, berriz, lurralde kudeatzaile homologatuek tratatzea.

Foru Aldundiak, halaber, Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko azpiegituren LAP onartu zuen 2009an (24/2009 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa).

3.4.2.e Azpiegitura elektrikoa

- Lineak eta azpiestazioak

380 eta 220 kV-eko eta 132 / 138 kV-eko lineak dituen garraioko eta banaketako enbor garrantzitsu batek zeharkatzen du, Tolosaldea, Oria ibaiaren haranetik barrena. Berastegitik, 132 /138 kV-eko beste linea batzuk Nafarroan sartzen dira. Transformazioko eta banaketako azpiestazioetatik erdi tentsioko (30 V) lineak ateratzen dira transformazioko eta erregulazioko azpiestazioetara, eta horietatik 13.2 kV-eko lineak ateratzen dira herriei zerbitzu egiteko. Gaur egungo egoeran oinarrituta, behar besteko malgutasunez egiten zaio zerbitzu lurraldeari eta erantzuten zaie aurreikusten diren eskariei.

Problematika txiki bat hauteman da, hasiera batean landa eremuetan kokatzen ziren, baina gaur egun hiri-ingurunean dauden garraio-dorreak ageri dira. Horrenbestez, arrazionalki antolatu beharko dira, eta horietako batzuk lekuz aldatzea bideragarria ote den aztertu.

- Parke eolikoak

Energia eolikoaren LAParen arabera, parke eolikoak ezartzeko lekurik hoberena Mandoegiko gailurrak lirateke, Leitzarango ekialdeko ertzean.

3.4.2.f Gas azpiegitura

Bergara - Irun gasbideak Oria ibaiaren haranaren ekialdeko goialdea du oinarri, eta Altzon, Belauntzan eta Villabonan ditu erregulazio-estazioak. Gas naturalaren gaur egungo banaketa-sarea enbor horretan oinarritzen da, eta industria-eremuei eta etxeko eta merkataritzako erabilerei egiten die zerbitzu presio ertainean.

Industria-erabileretarako zein etxeko erabileretarako banaketa-sareak gehitzeko joera aurreikusten da etorkizunerako. Dena den, gaur egungo sareek -bateg ere banatzaile nagusiak, beste egitura batzuekin itxuraz inolako erlaziorik izan gabe trazatu ohi dira-eta bat etorri beharko dute hiri-egiturekin, eta beren trazan integratu, bideei dagokienez batik bat.

3.4.2.g Telekomunikazioak

Telekomunikazio-azpiegituren ezarpena Euskal Autonomia Erkidegoko Telekomunikabideak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean oinarrituko da. Plan horrek honako jardun hauek planteatzen ditu:

- Eremu funtzionaleko burutza guztien arteko zuntz optiko bidezko konexioa erdiestea.
- Zentral digitalak indartzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko erabateko estaldura lortzeko antenak kokatzea.

Ekimen horiez gain, beste enpresa pribatu batzuek beren hargailuak, antenak eta abar instalatzeko planak garatzen dituzte. Euskal Autonomia Erkidegoko Telekomunikabideak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren bitartez ekintza horiek guztiak koordinatzea proposatzen du Lurraldearen Zatik Plan honek.

3.5. ASENTAMENDU SISTEMA

3.5.1. ANTOLAMENDU OINARRIAK ETA EREDUA

3.5.1.a Asentamendu sistemaren karakterizazio orokorra

LZParen helburuetako bat asentamendu sistema koherente eta integratua lortzea da.

Aurreko kapituluetan agerian geratu den moduan, egungo Asentamendu Sistemaren ezaugarria esparru honetan argi eta garbi polo eginkizuna betetzen duen hiri eremu bat egotea da, Tolosa-Ibarra zehazki; eta eremu funtzionalaren iparreko partean bada beste hiri zona bat ere, identitate propioz eta halako garrantzi maila batez, Villabona-Elbarrena hain zuzen, nolabait Irura, Alkiza, Larraul, Asteasu, Zizurkil eta Adunako gunetarako polo gisa.

Hiri eremu hauek biak, duten neurri funtzionala, eskualdea zeharkatzen duen bide ardatz nagusiaren gaineko kokapena eta polotzat dituzten guneeiko posizioa direla eta, gai dira bere eragin eremuetako bakoitzean buru izateko, modu orekatu batez; horien ezaugarri berezietako bat izaera polinuklearra da.

Bigarren maila batean, aipatutako guneen ondoan edo, batzuetan, horien periferian, neurri ertaineko beste gune batzuk daude, hiri izaerakoak nabarmen, 1.000 eta 2.000 biztanle bitarteko edo, kasu batzuetan, gutxiagoko udalerriei dagozkienak berak; hauen protagonismoa aurrekoena baino askoz txikiagoa da, eta eremua orekatzeko duten indarra baliatu egin behar da, kasu batzuetan, garapen prozesu berrien bidez.

Azkenean, hirugarren mailan, landa eremuak ageri dira. Horietan biztanleria gutxiko –500 biztanletik beherakoak gehienetan– udalerrri kopuru handi bat dago, eta zeharo gune landatar batzuk. Hauen neurria dela eta, aipatu lehenekiko mendekotasun harremanak sortzen dira, ezinbestekoak gainera zerbitzu eta zuzkidura sorta zabal bati dagokionez; alabaina, hirigintza, kultura eta ingurumenaren aldetiko balio handiko guneak dauzkate, eta horiek guztiak mantentzea bermatu behar da.

3.5.1.b Asentamendu sistema antolatzeko irizpideak

Lurraldearen Zatik Planak kokalekuei buruz ematen dituen zehaztapenek, logikoki, Ereduaren egitura orokorraren definizioa zuzentzen duten irizpide berberei erantzuten diete –hots, sistemaren integrazioa eta koherentzia– eta, besteak beste, helburu eta oinarritzko egitura-proposamen berberak biltzen dituzte.

Era berean, sistemaren maila desberdinetan bildutako estrategia batzuk planteatzen dituzte, sistemak berak ematen dituen aukerak modu eraginkor batez baliatzeko.

Planak burutzei dagokienez egiten duen proposamena egungo sistema sendotzean oinarritzen da. Sistema hau, izan ere, burutzen arteko osagarritasun eta harremanaren ikuspegitik dago sortua, hain zuzen bien maila eta goragoko mailako zuzkidurak hartzeko duten potentzialtasuna areagotzearen eta, Tolosa-Ibarraren kasuan bereziki, hirugarren sektoreko zerbitzuak eta jarduerak ezartzea ahalbidetzearen, lurraldeko erdi mailako hirien sisteman duen kokapena indartzeko modu gisa.

Osagarritasun eta harreman eskema orokor honen barnean, batetik Tolosa-Ibarrako gunea eta bestetik Villabona-Elbarrenakoa egituratzeko prozesuak jarraitzea eta hobetzea proposatzen da, eta burutzen arteko egituratze funtzionalari bultzada sendoa ematea halaber.

Bi gunek handienak, hots, Tolosa-Ibarra (23.218 biztanle) eta Villabona-Zizurkil (8.703 biztanle), hiri sistema egituratzen duen Oria ibaiaren ardatzaren aurkako bi muturretan daude, baina haustura nabarmena dago Villabona eta Irura artean eta ibar huts garrantzitsua bi kokalekuen artean, Tolosaraino naturaltasunez jarraitzen duena, nahiz eta estuagoa izan, Oria ibaian eta urbazterretan zehar. Ardatz honen hiri-ahalmena handi samarra da, jakina.

- Villabona eta Anoetaren arteko hiri-segidari, eta Tolosaraino, luzapena ematea lortzeak, kokalekuak hegoalderantz indartuz eta kualifikatuz, lehenaren joera sakabanatzaileak murriz ditzake, bi burutzen arteko jardueren pultsazioa ezarri, eta maila handiagoko hiri continuuma lortu. Horrek eragin sinergikoak izango lituzke sistemaren gainerakoan eta gunek txikietan, eta gaur egungo polarizazio bortxatua saihestuko luke.

- Tolosako jarduera produktiboak, bizitegikoak eta zuzkidurakoak sustatzea, hiriaren zeregin zuzentzailea berretsiz eta areagotuz, estrategia horren ezinbesteko osagarria da.

Ereduak, horrenbestez, lurralde antolakuntza argitzea lortu nahi du eta ildo horretan, hiri nagusien eta bigarren mailakoen sistema indartzeaz gain, lurralde desorekak zuzentzea izan behar du helburu.

Ereduak proposatzen duenari jarraiki, desorekak zuzentzeko, burutzekin ondo erlazionatuta dauden eta horiek baino harrera-ahalmen handiagoa duten beste zonalde batzuk sustatu behar dira, bizitegien eta ekonomia-jardueretarako lurzoruen hazkundera erraztuko duten garapen berrien ekintza selektiboen bidez. Ekintza horiekin batera, ordea, birkualifikatzeko, berrekipatzeko eta hobetzeko beste ekintza batzuk gauzatu dira, eremu funtzionaleko herriguneeen arteko integrazio eta osagarritasun handiagoa lortzeko.

Hazkunde selektiboko ekintza horien artean, azpimarratzekoa da Villabona-Anoeta ibarra ekonomi, bizitegi eta hornidura lurzoru berriak garatzeko esparru estrategikotzat jotzea, asentamendu ereduaren konfigurazio orokorrean duen garrantzi berezia eta, bere lotura-funtzioaren bidez, bi burutzen arteko harremanak indartzeko egingo duen ekarpena direla eta.

Berrorekatzeko estrategia horrek, ordea, herrigune hiritarrak ez ezik landaguneeak ere hartu behar lituzke bere baitan. Horretarako udalerrri horien potentziala aprobetxatuko duten eta lehen sektorearen alternatiba izango den enplegu eskaintza sortuko duten garapen-prozesu berriak sortzen lagunduko duen politika integral bat jarri behar da abian, Euskal Landarako Plan Estrategikoan oinarritutakoa. Planak estrategia hori garatu ahal izateko proposatzen dituen oinarrizko elementuak honakoak dira:

- Landako guneean bizitegi eskaintza alternatiboa sortzea.
- Kultur eta ingurumen zerbitzuak landa garapenerako politikan txertatzea, esparru horietan hainbat ingurumen ekipamendu eta ibilbide sortzeko proposamenaz eta eremu horietan sartutako hiriguneeetako batzuk, Lurralderako Sarguneeen Sistema (LSS) deituak, sendotuz, hiri izaerako ekipamendu eta oinarrizko hainbat zerbitzu eskaintzeko zentro gisa.

- Telekomunikazioak garatzea eta garraio publikoaren eskaintza hobetzea, eremu hauek asentamendu sistemaren barnean modu eraginkorrago batez sartzeko modu gisa.

3.5.1.c. Asentamendu sistemaren eredu integrala

Asentamendu eredua itxuratzeko oinarria aipatu estrategien garapena eta horiek zehazten dituzten jarduketarako proposamenen definizioa dira, bat baitatoz antolamenduaren helburu espezifikoekin; eta, ildo horretatik, alderdi hauek jasotzen dituzte:

- **Udalerrien kategorizazioa.**

Ereduak hiri eremuak identifikatzen ditu, eta biztanle-kopurua, zerbitzuen eskaintza eta eskualdean duen adierazgarritasuna hartzen du aintzat. Hirien gaur egungo hierarkia onartzen duen arren, eta horien kohesioa eta funtzioak indartzearen, honako kategorizazio hau ezartzen du:

- Burutza-sistemaren hiriguneak, Tolosa-Ibarra da burutza nagusia eta Villabona-Zizurkil (Elbarrena), azpiburutza. Bi burutza horietan kontzentratzen da Eremu Funtzionaleko biztanleriaren ia % 70.
- Tamaina ertaineko udalerrietako guneak, hiri-kontzentrazio handien inguruko hiriguneak dira. Asteasu, Anoeta, Irura, Alegia, Ikaztegieta, Amezketa, Berrobi eta Lizartza dira.
- Landa-esparruetako guneak, landa izaerako udalerrietako guneak dira, oro har, haran nagusiko eta bigarren mailakoetako inguru ez oso garaietako muino leunetan kokatuak. Multzo horretan Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alkiza, Altzo, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Larraul, Leaburu, Orendain eta Orexa guneak eta udalerrri horietako edo beste handiago batzuetako beste landa-auzo batzuk sartzen dira.

Bizitegi-kokalekuen eta jarduera ekonomikoen arloko lehentasuneko zehaztapenetan eta ekintzetan islatzen da hierarkia hori -horietan soilik ez bada ere-, betiere eredurako ezarritako printzipio, irizpide eta helburu orokorrak betez.

- **Okupazioaren ezaugarri orokorrak eta etorkizuneko garapenak antolatzeko lurralde-irizpideak.**

Ereduak lurraldearen lehen kategorizazio bat ezartzen du, esparru hiritarren eta landatarren artean, azken hauetan biztanleguneak kokatuz, eta lehenetan bereiziz hiri esparru garatuak –bai erabilera nagusia bizitegia den esparruak bai jarduera ekonomikoetakoak–, lehentasunezko garapen eremuak -hauek erabilera orokor nagusien arabera bereizten dira- eta plangintza orokorreko hiri inguruko eremuak; azken hauetan, oro har, hazkunde mugatuak aurreikusten dira, bereziki hornidura izaerakoak. Ereduak ezartzen duen lurraldearen kategorizazioaren hirugarren alderdi aipagarria hiri garapenik gabeko esparruak adieraztea da (Hiri Garapenik gabeko Korridoreak eta Erreserba Espazialak).

Eta ereduko edukiak dira, halaber, ondoko zehaztapenok:

- Eraldaketa, birsortze edota birgaitzearen gai izan beharreko tokien zehaztapena. horien andeapena eragozteko edo erabat edo bere baten bestelakoak izanezko erabileretarako berreskuratu ahal izateko.
- Bizitegirako lurzorua antolatzeko irizpideak.
- Eremu funtzionaleko plangintzak eskaini behar duen etxebizitza kopuruari buruzko hirigintzako parametroen zenbatespena.
- Etxebizitza babesturako lurzorua dimentsionatzeko proposamena.
- Babes publikoaren erregimenen batean sartzen den etxebizitzaren inguruko lehentasunezko eta jarduera osagarrietarako udalerrien definizioa.
- Jarduera ekonomikoetarako lurzoru eskaintzaren dimentsionamendu orokorra eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren antolamendu eta kokapenerako lurralde irizpideak.
- Administrazioak ekintza espezifikoko bat gara dezakeen lurralde esparruak, bai bizitegi lurzorukoak bai jarduera ekonomikoetarako lurzorukoak.
- Interes komuneko ekipamenduen -hiri-izaerakoan nahiz landaguneetan edo ingurune naturalean daudenen- kokapenaren definizioa.
- Eragiketa estrategikoak.
- Beren plangintzak bateragarri bihurtu behar dituzten udalerrien zehaztapena.

3.5.1.d. Proposamen estrategikoak

Ereduaren oinarrizko helburuetako bi egungo burutza sistema indartzea eta finkatzea eta horien arteko harreman eta egituratze funtzional handiagoa lortzea dira.

Helburu horiek lortzeak garrantzi berezia du eredia itxuratzeko unean, are gehiago, ereduaren jarduera-ildo estrategikoetako bat da.

Burutzen egituraketa funtzionala: Villabona-Anoeta ibarraren antolamendua

Lehentasunezko helburua betetzeko, hau da, Tolosa-Ibarrako eta Villabona-Elbarrenako hiri eremuak lotzeko, lurralde proposamenak eragiketa integratu sorta bat jasotzen du; horiek garatzeko, Villabona-Anoetako ibarra eta honen Tolosarainoko jarraipena burutzei dagozkien asentamenduen arteko lotura funtzionalizat hartzen da, eta hiri izaerako garapen potentzialetarako -bizitegi gisako zein jarduera ekonomikoetarako- esparru estrategikotzat.

Gauzak horrela, ibarra eta honen Tolosarainoko jarraipena antolatzea proposatzen da, betiere ondoko irizpide eta helburu orokorreari jarraiki:

- Eremuaren berregituraketa bultzatzea, burutzen integrazio funtzionalaren bidez.
- Villabona eta Tolosa arteko hiri ehunak berrantolatzea, egun dauden garapenak antolatuz eta bizitegi eta jarduera ekonomikoetarako espazio berriak proposatuz.
- Villabona eta Anoetako udalerrriak esparru estrategikotzat hartzea hiri izaerako garapen potentzialetarako, bai bizitegirako eskaintza bai jarduera ekonomikoetarako espazio eskaintza areagotuz.
- Esparrua antolatzeko, hiri izaerako espazio-egituraketa sendoko irizpideak jarraitzea, ibaiertzak eta ur-ibilguak eta ingurumen- eta eraikuntza-kalitate maila altua errespetatuz.

Analisi fasean adierazitako arazoak zuzentzeko eta berrantolaketa orokorrerako gutxieneko oinarriak ezartzeko beharrezko esku-hartze estrategikoak honakoak dira:

- Egungo N-1 errepidetik Oria ibaiaren ezkeraldera (Villabona-Anoeta ibarra) sartzeko aukerak hobetzea.
- Villabona-Anoeta arteko bide lotura garatzea, eta lotura hau tokiko sarbide sare nagusian txertatzea. Villabona - Anoeta arteko ibaiaren ezkeraldetik zeharreko bide

lotura garatzea, eta lotura hau irisgarritasunaren udal sare nagusian txertatzea.

-Renferen egungo trazadura aldatzea Villabona-Zizurkilgo eta Anoetako egungo geltokien artean.

-Bere potentzialtasunerako desegokiak diren erabilerak dituzten sailak eta esparruak birkalifikatzea.

-Esparru horietan hiri eta ingurumen kalitate altuko antolamendua eta tratamendua gauzatzea, besteak beste

-Bide egitura antolatu, hierarkizatu eta tratatuz.

-Ibaiertzak berreskuratuz eta bazter espazio izatetik erabilera berrietarako ardatz bihurtuz, udalerrion arteko harremanen egituratzaile.

-Burutza-hiriaren maila berriarekin bat datozen ezaugarriak dituzten erabilerak emanez, betiere udal eskalakoekin lehian sartzeko: eskualdeko hornidurak, beharrezko berritze ekonomikorako jardueri lotutako jarduerak, hala nola hirugarren sektorekoak, etab., erabilerak nahastuz eta bizitegiari berari leku garrantzitsua emanez.

-Lotura berriak egitea Oria ibaiaren alde bien artean (LZPak adierazten ditu), esparruari ahalik eta irisgarritasun handiena ematearren.

-Aldirietarako trenbidea indartuz, garraio kolektibo metropolitarrak gisa, eta egun dituen instalazioak modernizatuz.

-Elbarrena eta Anoeta arteko komunikabidea, honek Tolosaraino duen luzapenarekin batera, argi eta garbi hiri ardatz kontsideratuz, eta hau, ahal den tokietan, oinezkoentzako pasealeku, espaloi, bizikleta bide eta lorategi-zerrendaz hornitutako bide zuhaizdun baten antzera diseinatuz.

Tolosa-Ibarrako eta Villabona-Elbarrenako guneak egituratzea eta burutza indartzea.

Tolosa-Ibarra multzoa Eremu Funtzionaleko maila goreneko eremua da. Tolosaldearen garapena suspertzeko eta bertako ekonomia dibertsifikatzeko, garrantzitsua da hiri eremu hau bultzatzea eta egun duen maila mantentzea, are goratzea, ahal izanez gero.

Helburu hori lortzeko, egungo konurbazioko guneen arteko integrazioa hobetu behar da, eta hirugarren sektorearekin eta zerbitzuekin lotutako jarduera ekonomikoetarako lurzoru eskaintza indartzea (eskualdeko industri parkea, ikerkuntza zentroak, hirugarren sektoreko ekipamenduak, etab.).

Tolosa-Ibarra hegoaldeko esparruak, N-1 errepidearen, Ibarra egungo gunearen eta saihebidetaren jarraipenaren artean dauden lurzoruei dagokienak, bere kokapena, neurria eta bide azpiegiturekin duen erlazioa direla-eta erabilera potentzialtasun handiko lurzoruak hartzen ditu, esangura espazial eta funtzional handiko eta egituratze-ahalmen sendoko lurzoruak; beraz, esparru hori antolatzea eta berronitzea eta erabilera politika egoki bat garatzea alderdi garrantzitsuak dira aipatu diren helburuak lortzeko. Ildo horretatik hainbat jarduketa planteatzen dira, honakoak:

- Egitura-hobekuntza eta hiri loturen berrantolaketa Tolosa eta Ibarra artean.
- Ibarra hirigunearen eta proposatutako saihebidetaren trazaduraren artean dagoen lurralde esparrua birkalifikatzea, eraldatzea eta antolatzea.
- Esparruaren mugarritze eta antolamenduak hiri eremu periferikoak hartuko ditu bere baitan -egituraketa eta kualifikazio funtzional eta espaziala aintzat hartuz-, baita udalaz gaindiko espazio libreetara eta zuzkiduretara zuzendutako beste eremu batzuk ere. Era berean, Apattako poligonoa txertatzeko bidea jorratuko du.

Villabona-Elbarrenaren kasuan, esku-hartze proposamenak hartzen duen lurralde esparrua aipatu udalerriek Oria ibaiaren ezkerrean duten bategiteari dagokiona da, hain zuzen Papelera del Oria enpresak Zizurkilen eta Sacem-ek Villabonan dituzten instalazioen artekoa.

Hiri inguru bat da, gaur egun gutxi erabilia. Gainera, inguruak potentziala badu ere udalerrri bien arteko egituratze funtzionala hobetzeko eta Elbarrenako guneak dituen egitura-zehaztasunik ezaren arazoa konpontzeko, egun hartzen dituen erabilerak ez dira horretarako oso egokiak.

Epe luzerako jarduketa bat da, noski, aipatu enpresetako lehenaren jardueren garapen prozesuari egokitu. Eta jarduketari ekiteko esparruaren antolamendu orokorra harturik ere abiapuntu, zatika heldu ahal izango litzaioke.

Esku-hartze proposamenek hainbat gauza jaso beharko lukete:

- Villabona eta Elbarrena arteko lotura berrantolatzea eta Elbarrena-Anoeta-Tolosa ardatzaren egituren txertatzea.
- Villabona-Zizurkil geltokiaren ingurua eraldatzea.
- Ibaiertza pixkanaka leheneratzea.
- Esparrua birkalifikatzea eta duen potentzialtasunaren araberako erabilera politika bat garatzea.

3.5.2. BIZITEGI LURZORUA

Eremu funtzionaleko bizitegitarako lurzorua antolatzeko LZParen proposamenarekin, jarduerak, udal mailakoak zein arlokoak, orientatzeko beharrezkoak diren lurralde-irizpideak eta kuantifikazioak eskaintzea bilatzen da, eskaintza orekatua, tamaina egokikoa eta askotarikoa egiteko. Era berean, eraldatzeko eremu nagusiak eta lehentasunez garatzeko eremu nagusiak identifikatzea bilatzen da, antzemandako arazoak konpontzeko eta aurretik azaldutako helburu orokorrak erdiesteko.

3.5.2.a Bizitegirako lurzorua antolatzeko lurralde irizpideak

Eskualde mailan udalerrietako bakoitzak duen pisu demografikoaren erreprodukzio sistematikoan beste ezertan oinarritzen ez den bizitegi garapenerako egungo ereduaren aurrean, eta alde batean utziz beste lurralde kontsiderazio, espazio-erabilgarritasun edo lurraldearen harrera-ahalmen batzuk, LZP honetako antolaketa-ereduak asentamenduei eta, zehazki, bizitegi lurzoruari dagokionez jasotzen dituen helburu eta irizpideek lehentasuna dute egungo garapenaren eraldaketa kualitatiboan eragitea, hain zuzen eremu saturatuetako tentsioak arinduz, harrera-ahalmen eta egitura- eta ekipamendu-baldintza onak dituzten tarteko udalerrien garapena bultzatuz eta, azkenik, landa inguruen bideragarritasuna eta dinamismoa suspertuz.

Lehen definitutako hiru hiri mailetakako bakoitzari lurralde-irizpide bereiziak egokituko zaizkio, gaur egungo garapen-motaren, lurzoru-erabilgarritasunaren eta antzemandako problematiken arabera.

Bizitegi-intentsitate handieneko esparruen hautua bat dator hiri continuum indartua konfiguratzeko ereduaren helburuekin. Kasu gehienetan, Tolosa-Ibarra eta Villabona-Zizurkil hiri eremuetan eta Villabona - Anoeta korridore estrategikoan kokatzea aurreikusten da.

- **Burutza-sistemaren hiriguneak.**

Udalerrri hauetan, non eremu funtzionaleko hazkunde intentsiboak kokatuko baitira, espazio dentsifikatuena deskongestionatzeko jardunak eta hiri-berrikuntzako eragiketak lehenetsi beharko dira, garapen berrien aurrean. Hiri-berrikuntzako eragiketa horiek espazioak birkualifikatzeko eta berrerabiltzeko eragiketak hartu beharko dituzte beren baitan. Horrez gain, gaur egungo hiri-egitura hobetu beharko dute, ehuna berriz osatzeko eta hiri-piezen eta udalerrrien arteko integrazio morfologikoa eta funtzionala berreskuratzeko eta hobetzeko esku-hartzeen bitartez. Jardun horiek, hala balegokio, elkarren artean eta lehendabizikoekin koordinatutako garapen berriko eragiketekin osatuko lirarteke.

- **Tamaina ertaineko udalerrietako edo hiri-esparruetako guneak.**

Ekimenak beren hazkunde endogenoa bera konpontzera bideratuko dituzte, horretarako hiriguneak formalizatu, egituratu eta finkatuz eta bertan garapen gehigarri txikiak integratuz.

Esparru hauek, kasu jakin batzuetan, ereduko biztanleria-orekaren helburua betetzen lagun dezakete, kongestionatuta dauden eremuetako garapen berrien zati bat hartuz, betiere lurzoru-erabilgarritasuna, irisgarritasuna eta beste zenbait baldintza kontuan hartuta.

- **Landa-esparruetako guneak.**

Udalerrri hauek biztanleriaren banaketa orekatuagoa -eta, horrenbestez, landa-esparruetako baldintzen hobekuntza- defendatzen duen lurralde estrategiaren parte izan ahal izango dira, eremu urbanizatuenetako eskaintzaren ordeko bizitegi-eskaintzaren bitartez, biztanleria-tamainara eta gaur egun dauden azpiegituren eta zuzkiduren mailetara egokitutako intentsitateko eta dentsitate txikiko hazkundeekin.

Garapen horiek dimentsionatze egokia eskatzen dute, gaur egun dagoen egituraren eta morfologiaren oinarritzko mantentzea, egokitze tipologikoa eta bere hirigintzako balioak, kulturalak, arkitektonikoak, ingurumenekoak eta paisaiari dagozkionak bermatzeko beharrezkoak diren baldintzak.

Mota honetako guneak asko direla eta hauen eta eremuko gunerik urbanizatuen arteko distantzia txikia dela ikusirik, LZP honek lehentasuna ematen dio sakanabaketa irizpideari, ulertuz betiere proposatzen den soluzioak aukera emango duela egitura eta tipologia aldetiko integrazio handiago eta hobe baterako.

Dentsitate txikiko eskaintza kategoria honetan sartutako udalerrietan edo dentsifikazio handiagoa duten beste udalerrri batzuen landaguneetan garatuko da, ez beste inon. Eta burutzen sistemako herriguneez ezingo dituzte mota horretako garapen berriak proposatu, oro har. Azken horien kasuan, mota horretako hazkunderak onartuko dira, maila puntualean, baldin eta hiri garapenaren ertzean edo mugekin erlazionatutako arazoak badira.

Eremu funtzionaleko esparru dentsifikatuenetatik hurbil daudenez, Lurraldearen Zatiko Planak berriaz jotzen ditu Aduna, Altzo, Belauntza, Leaburu eta Hernialdeko guneak hiri eremuen ordeztako habitataren eskaintza garatzeko bereziki egokitzen.

3.5.2.b Bizitegitarako asentamendu sisteman esku hartzeko moduak

Hirigune desberdinetako bizitegi arloko proposamenek berezitasun jakin batzuk dituzte, ereduaren helburuak eta eraginpeko esparruen eta esku-hartzeen gainean eragina duten ezaugarriak eta baldintzak zein diren. Beraz, honako jardun-kategoria hauek bereiz daitezke -elkarren baztertzailak izan gabe- bizitegi-garapeneko esparruei eta moduei dagokienez:

1. Babesteko eta birgaitzeko eragiketak.

Mota honetako esku-hartzeak ez dagozkio Lurraldearen Zatik Planaren ereduari soilik, izan ere ia hitzez hitz sartzan baitira administrazioak aurrera eramaten dituen programetan (Birgaitzeko laguntzak etxebizitza-politikaren barnean, etab.; gune garatuenetako hirigune guztiei, bizitegi-zona andeatuei eta landa eremuetako herriguneei eragiten diete oro har).

Dudarik gabe, degradatutako bizitegi-eremuak birgaitzeak, hirigune historikoetakoak izan ala ez, badu zerikusia etxebizitza-politikarekin, baina baita hiriguneak birkualifikatzea eta indartzea aintzat hartzen duten ereduaren helburuekin ere.

Tolosaldeko kasuan, bereziki azpimarratzen dira Tolosa eta Alegiako udalerrietako alde zaharrei dagozkien jardunak.

Lurralde ereduko kokalekuen sisteman landaguneak suspertzeko, hierarkizatzeko eta integratzeko helburuei dagokienez, interes handikotzat jotzen dira gunek horiek *babesteko eta birgaitzeko eragiketak*, bertako biztanleen bizi-maila hobetzea eta kulturarako eta lurraldeaz gozatzeko balioa duten elementuak bezala beren erakargarritasuna areagotzea ahalbidetuko duten beste ekipamendu-ekintza batzuekin konbinatuta.

2. Hiri eremuak transformatzeko eta biziberritzeko eragiketak.

Hiri-transformazioa esparru osoen eta tamaina jakin batekoen -urbanizatuak zein urbanizatu gabek- gaineko esku-hartzeei dagokie. Beren azaleragatik, eredura egokitzen ez direlako eta izaera nabarmen hiritarreko inguruneetan edo barrendegietan daudelako, edo horietatik hurbil daudelako, erabilera-ahalmen handiko eta hiri-konfigurazio eta egituraketako lurzoruak izaten dira.

Hiri eremuak biziberritzeak tamaina txikiagoko esparruak edo esparru puntualak hartzen ditu eraginpean, gehienetan beteak izaten dira, eredurako nabarmenki desegokiak eta biziberritzeko ahalmena nabarmentzen dutenak.

Eremu zaharkituak, finkatuak edo beteak direnean, ereduari komeni bazaio erabilera aldatu egiten da; tratamendu berbera dagokie helburu egokia ez dutela irizten zaien gutxi garatutako eremuei edo garatu gabekoei.

Aurrerapenean Papelera Salvadora, Gorostidi eta Papelera Tolosana-ri dagokienez jasotzen diren eremuez gain, gauzatuta baitaude jada, esparru hauek proposatzen dira:

- Zizurkil. (Etorkizuneko biziberritzea: Papelera del Oria-ren eremua)
- Elbarrena mendebaldea. (Saihesbide berriko lotunearen eta hirigunearen arteko esparruaren transformazioa).
- Villabona-Anoeta. (Sacem eremua eta Oriaren ibarreko hutsunea transformatzea)
- Tolosa. (Laskurain eremuaren transformazio integrala)
- Ibarra:..... (Ibarrako lehen sektoreko erabilerako hiri-hutsuneak transformatzea)

3. Garapen berrietarako jarduketa nagusiak.

Lehenago esandakoa gogora ekarriz, datozen urteetako hazkundera gaur egun plangintzak barne hartzen dituen lurzoruetara bideratu beharko da funtsean. Zentzu horretan, herrigune garatuetan edo lurzoru urbanizagarrietan garatutako jarduerak barne hartzen dira.

03 planoan, *Asentamendu sistemak: okupazio orokorraren ezaugarriak, bizitegi, industria eta hornidurarako lurzoruak* izenekoan, adierazi da lurzoru horien artetik garrantzitsuenak zein diren (etxebizitza kopuruari dagokionez).

Gehienbat okupatu gabe dauden edo transformazio integralekotzat jotzen diren eremuak dira. Hirigune nagusien inguruan egon ohi diren eremu horietan konpondu beharko lirateke garapen berriko premia gehienak. Hiria indartzeko eta bizitegi-parkea erreserbatzeko aktibo garrantzitsua osatzen dute. Bizitegiak hainbat tipologiaren bitartez gauza daitezke:

- Dentsitate handiko bizitegia(Laskurain).
- Dentsitate ertaineko bizitegia (Ibarrako ibarra, Anoeta hegoaldea, Irura mendebaldea, Elbarrena mendebaldea).
- Bizitegi mistoa Villabona-Anoetako ibarra. Tolosa-Ibarra hegoaldea.

Erabilera mistoetako eremu horiek oso eginkizun garrantzitsua betetzen dute eredia konfiguratzeko, zeren -tamainaren, kokapenaren eta oinarrizko antolamendu-dukien arabera- garrantzi funtzional eta espazial handiko esparruak baitira.

Bereziki, Villabona-Anoetako ibarreko hutsunea jarduera bateragarrien (bizitegia, hirugarren sektorea, produkzio garbia, zuzkidura...) egoitza estrategiko gisa aintzat hartzen da. Honetan, kontuan hartzeko moduko osagaia da etxebizitza, maila kuantitatiboan -ez ordea eskusiboa-, eta baita hiri konfigurazioaren elementu erabakigarria ere.

Aitzitik, Tolosa-Ibarrako hegoaldeko esparruan bizitegiak beste baldintza batzuk izan behar lituzke, kuantitatiboki eginkizun askoz ere apalagoa eta proposamen nagusien -jarduera ekonomiko selektiboak, ikerkuntza-jarduerak, zuzkidurak, etab.- mendekoa beti. Dena den, erabilerak eta bilbeak anizten lagundu dezake, eta komeni diren hiri-lotura eta -jarraitasunak garatzen halaber.

3.5.2.c Bizitegi asentamenduen ereduaren beste alderdi batzuk

- Hazkunde selektiboko udalerriak.

Udalerrri batzuetan, modu selektiboan, Lurraldearen Zatik Planak modu esplizituan adierazten du bizitegi-lurzoruari dagokion bokazio zehatza. Kasu horietan, planteatutako lurralde ereduaren inplikazioz, udal plangintzaren nahitaezko erreserben ondorioetarako, bilakaera demografikoaren joeren edo erabili ohi diren beste kalkulu-parametro batzuen arabera espero zitekeena baino guztizko etxebizitza-kopuru handiagoa iradokitzen da. Etxebizitza-kopuru horren kuantifikazioa Lurraldearen Zatik Planak proposatzen dituen koordinatutako hainbat jardunek bermatzen dute.

Hazkunde selektiboko aurreikuspen horiek honako udalerrri hauetan sartuko dira:

- *Villabona*
- *Zizurkil*
- *Anoeta*
- *Ibarra*
- *Tolosa*

- Ordezko habitatak.

Mota honetako kokaleku berriek hazkunde selektibokoan antzeko funtzioa dute, baina beren tipologia dela-eta, lehentasunez landa eremuetako guneetan

antolatzea eskatzen dute, beren egitura, morfologia eta tipologiara egokitutako dimentsionatze egokiaren bitartez eta inguru horietan dauden kultura- eta lurralde-balioak bermatuz.

Eremu funtzionaleko esparru dentsifikatuenetatik hurbil daudenez, Lurraldearen Zatiko Planak berariaz jotzen ditu lehentasunekotzat Aduna, Altzo, Belauntza, Leaburu eta Hernialdeko gunek.

3.5.2.d Bizitegitarako lurzoruaren eskaintza kuantifikatzea udal plangintzan

Lurzoru-eskaintza ongi dimentsionatua eta dibertsifikatua lortzea funtsezko alderdia da biztanleria mantentzeko.

Tolosaldeko udalerrri bakoitzerako bizitegi lurzoruaren erreserbak kuantitatiboki balioztatzeko, lurzoru horrek hartu behar dituen etxebizitzaren kopurua eta udal plangintzak proposatzen duen bizitegien dentsitate maila hartuko dira abiapuntutzat. Horretarako, Lurraldearen Zatiko Plan honetatik zenbait iradokizun planteatzen dira kasu jakin batzuetan.

Erabilitako metodologia

Eremu funtzionaleko udalerriek errespetatu behar duten bizitegi lurzoruaren eraikitzearen ahalmenaren kuantifikazioa da Lurraldearen Zatiko Planak ekiten dion alderdietako bat. Kuantifikazio hori egiteko, LAAetan zehaztutako metodologia erabili da funtsean, urtarilaren 19ko 4/16 Dekretuan jasotako bizitegi-kuantifikazioari buruzkoa.

Tolosako Eremu Funtzionaleko 28 udalerrrien bizitegi-ahalmenaren kuantifikazioaren abiapuntuan zenbatespen bat dago, plangintza-epe baterako etxebizitza-beharren zenbatespena alegia. Eta horretarako oinarria etxebizitza-eskaerak izango duen portaera aurreikusgarria da, biztanleriaren bilakaeran, familiaren neurrian, bigarren etxebizitzaren eskaeran, etxebizitzaren merkatuan nahi ez diren tentsioak saihesteko beharrezko marjinetan eta hutsik dauden etxebizitzaren berreskurapenean oinarritua. Lurraldearen antolamenduan interes bereziko den elementu osagarri bat indarrean dagoen lurralde ereduari beharrezko iritzitako zuzenketak sartzea da, betiere hainbat helburu eta baldintzatzaile direla eta (nahi ez diren desorekak, muga fisikoak, azpiegituretatik ondorioztatutako baldintzatzaileak, etab.) egokiak badira.

Udalerrri bakoitzeko bizitegi-beharren zenbatespena egin ondoren, bizitegi-ahalmena


kalkulatzen da, hau da, udalerrri bakoitzak bere hirigintzako plangintzan gauzatzeko duen bizitegi lurzorurako kalifikazioak jaso behar duen etxebizitza kopururako muga onargarriak zein diren. Horretarako, harrotze-koefiziente bat aplikatzen zaie epe planifikaturako aurreikusten diren bizitegi-beharrei, eta horrela ateratzen da kontuan hartutako plangintzaren indarraldiaren hasieran gauzatzeko dagoen lurzoru kalifikatuaren bizitegi-ahalmena. Gauzatzeko dagoen lurzoru kalifikatuaren eta bizitegi-eraikuntzarako lurzoru eskaeraren arteko halako lasaiera edo marjina bat behar da, eta behar horrexeri erantzuten dio aipatutako harrotzeak, hain zuzen ere merkatu honetan nahi gabeko ixte edo estutzerik sor ez dadin baina, aldi berean, udalerrriaren garapen urbanistikoa distortsiona dezakeen gehiegizko eskaintza saihestuz.

Dokumentu honek aurkezten duen kuantifikazioa 2017-2032 (biak barne) bitarteko 16 urteei buruzkoa da.

Lehendabiziko alderdi bezala esan behar da dokumentu honetan islatutako kuantifikazioek balio erlatiboa dutela, izan ere udal bakoitzak bere udal plangintza aldatzen duenean egin beharko dira udal kuantifikazioak, eta hemen oro har proposatzen diren balizkoak eguneratu egin beharko dira denbora igaro ahala eta informazio berria eskuratzen den heinean –bigarren etxebizitzekin eta etxebizitza hutsekin zerikusia duten alderdietan, bereziki– izan ere arlo hauetan daukagun informazioa ez baita oso fidagarria.

Erlatibotasun horren barruan egin dira segidan azalduko ditugun hainbat esplorazio. Horiek, funtsean, honako hauetan dute eragina: geroko proiektzioa egiteko kontuan hartu den erreferentzia-aldia, aurreko aldi hori zatitzearen ondorioz atera diren azpi-aldien haztapena egiteko modua, eta familiaren batez besteko neurria. Horrela, iraganeko joerak identifikatzeko erabili diren biztanleriari eta etxebizitzari buruzko zifrak homogeneoak dira, eta proposatzen den proiektzioa egiteko denboraldi egokia hartzen dute, identifikatutako joerak aztertutako aldagaien portaera islada dezaten, urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretuaren eranskinean adierazi bezala, eta Biztanleria eta Lurraldea kapituluaren azalduko joerekin bat etor daitezten, etorkizuneko eszenatokitian batez ere. Era berean, Eremu Funtzionaleko udalerrietako bakoitzaren bizitegi beharrak zehaztea ahalbidetzen duten osagaien artean sartu da aurreko berreskuratzea, baina dekretu horretan etxebizitza hutsen parkea berreskuratzeko helburu kuantitatiboak errespetatuz betiere.

- Erantsitako grafikoan ikus daitekeen bezala, Tolosaldeko eta Gipuzkoa osoko **biztanleriaren** bilakaera moderatua baina kulunkaria izan da azkeneko 3 hamar-urtekoetan (1986-2016). Nolanahi ere, urteko bariazio-tasa % -0,4 (gutxiengoa) eta % 0,5 (gehiengoa) artean mantendu da azkeneko 6 bosturtekoetan. 2025 eta 2033 epealdiari begira, hainbat aukera analizatu dira eskualdeko biztanleriari buruzko proiektzioak egiteko erreferentziako denborartarte bat aukeratzeko. Eta analisi horretan kontuan hartu den oinarrizko hipotesia da hazkunderik handieneko epealdia (2002-2009) salbuespen bat izan dela, eta etorkizun hurbilerako ez dela aurreikusten indar horretako suspertze ekonomiko edota demografikorik. Berehalako etorkizuna, dirudienez, gehiago hurbilduko da Gipuzkoarako grafikoan azkeneko bosturtean ikusten den inflexiora.




Erantsitako taulan ikus daiteke erreferentziako epealdia zatitzetik ateratako hiru azpialdietarako (88-96, 96-06 eta 06-16) haztapan kasuetatik ondorioztatu den urteko bariazio tasa (%-tan). Azkeneko 4 lerroek erakusten dute 2025eko eta 2033ko urtarrilaren 1era begira Gipuzkoako eta Tolosaldeko biztanleriarentzako kasu bakoitzean atera den proiektzioa.

Pisua hamar-urteka	1,1,1	1,2,3	2,3,4	0,0,1
EAE tasa	0,06	0,13	0,11	0,26
Gipuzkoa tasa	0,10	0,19	0,16	0,35
Tolosaldea tasa	0,19	0,37	0,31	0,68
Gipuzkoa 2025	717.300	723.200	721.300	733.400
Gipuzkoa 2033	723.300	734.600	730.900	754.200
Tolosaldea 2025	47.800	48.500	48.300	49.900
Tolosaldea 2033	48.500	50.000	49.500	52.700

Kontraste bezala, Eustatek 2014an egindako proiektzioa erabil daiteke, askoz ere ezezkorragoa benetan. Gipuzkoak 680.000 biztanle izango lituzke 2025ean, hau da, 1986-2016 tasa erabilia baino 37.000-53.000 pertsona gutxiago. Hala ere azpimarratu behar da 2016rako proiektatutako biztanleria (703.000), 2016ko urtarrilaren 1ean benetan zegoen biztanleria (710.000) baino 7.000 pertsona gutxiago dela.

Hori ikusita, eta Biztanleria eta Lurraldea kapituluaren planteatu diren etorkizuneko eszenatokiekin bat etorriz, Tolosaldeko LZPan erabaki da 1986-2016 epealdia mantentzea erreferentzia gisa, 2, 3 eta 4 haztapenarekin (zaharretik berrienera), epealdia zatituta atera diren hamar-urtekoetako bakoitzeko proiektzioak egiteko.



- **Familiaren neurriaren** bilakaerak, bai Tolosaldean eta bai Gipuzkoa osoan, bi fase bereizi izan ditu 1981 eta 2015 bitartean. Lehen fasean (1981-2001) familiaren neurria bizkor murriztu zen Gipuzkoan, 3,82 pertsona/etxe izatetik 2,75era jaitsi zen (4,02tik 2,74ra Tolosaldean). Bigarren fasean (2001-2015) familiaren neurriak beherantz jarraitu zuen baino erritmo askoz ere motelagoan; 2,47ra jaitsi zen Gipuzkoan, eta 2,53ra Tolosaldean. 800 biztanletik beherako udalerrietan ez da jaitsierarik izan 2010 eta 2015 bitartean.

Profil hori ikusita, zentzuzkoagoa eta zuhurragoa dirudi 2025 eta 2033rako familiaren neurria proiektatzeko orduan bigarren faseko bilakaera erabiltzea. Erreferentziako epealdiak 15 urte hartzen ditu; beraz, horixe har daiteke gutxienerako epealdizat LZParen helburu diren 16 urteetarako proiektzioa egiteko.

Bestetik, garbi dago udalerrri batzuen eta besteen iraganeko bilakaera ezin dela erabili familiaren neurria proiektatzeko, izan ere Tolosaldeko udalerrri gehienak oso-oso txikiak baitira. LAAen aldaketan (urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretua) proposatzen den murrizte tasa familiaren neurriaren zati aldagarriaren % 1,5ekoa da, eta hori, 2001-2015 epealdian EAErako behatutako tasa bera da. Gipuzkoari eta Tolosaldeari buruzko tasak % 1,3 eta % 1,0 dira hurrenez hurren.

Ondoko taulan ikus daitezke bariazio-tasa ezberdinak 2015ean Tolosalderako behatutako datuari aplikatuta aterako liratekeen balioak.

Aplikaturako tasa (%)	2015	-1,5		-1,3		-1,0	
		2025	2033	2025	2033	2025	2033
Gipuzkoa	2,469	2,264	2,120	2,292	2,164	2,336	2,233
Tolosaldea	2,526	2,315	2,166	2,345	2,211	2,391	2,283

Hori ikusita, zentzuzkotzat jo dugu Tolosaldeko LZPari begira kontuan hartutako hiru tasen batez bestekoa erabiltzea, hau da, % 1,3ko murrizte tasa, alegia.

- Etxebizitza hutsen parkearen berreskuratze desiragarriari gagozkiola, egia da parke hori berreskuratzeak bizitegi-ahalmenak murriztu egingo lituzkeela, baina aldi berean zuzeneko eragina izango luke bizitegien premian (izan ere, behar horien zati bat berreskuratze horren bitartez beteko litzateke, bizitegi berriak eraiki beharrik gabe). Horregatik, kontzeptualki, egokiago da bizitegi beharrak kalkulatzeko kontuan hartu beharreko osagaietan sartzea berreskuratze hori.

Gaurkoz gaur etxebizitza hutsari buruz dauden datuak urriak direnez, eta ez oso fidagarriak, Tolosaldeko LZPea erabaki da helburu gisa planteatzea 2011n antzemandako etxebizitza hutsen parkearen (eskura dagoen azkeneko datua) portzentaje bat berreskuratzea. Eremu Funtzionalean gaur egun dagoen bizitegi-parkearen % 2 izango litzateke gutxienez.

Azaldutakoa oinarritzat harturik, hauek dira 2017-2024 epealdirako aurreikusi diren etxebizitza beharrak zenbatesteko unean kontuan hartu diren osagaiak:

A1. Biztanleriaren bariazioagatikoko beharrak. Honetarako oinarria 2016ko biztanleriaren proiektzioa da, betiere 1986-2016 epean izandako bariazio-tasa aplikatuta, eta hamar urteko epeak gorantz haztatuta (2/9 1986-1996 eperako; 3/9 1996-2006 eperako; eta 4/9 2006-2016 eperako). Ateratzen den bariazio-tasa negatiboa baldin bada, magnitudea erdira murrizten da

A2. Familiaren neurriaren aldaketagatiko beharrak. 2015ean ikusitako familiaren batez besteko neurriaren proiektzioa egiten da, urteko % 1,3ko murrizte tasa bat aplikatuta aldagai horren zati aldagarriari (hau da, unitatearekiko soberako parteari).

B1. Bigarren etxebizitza beharrak, etxebizitza nagusietan izandako bariazioari lotuak. Osagai honek proiektatzen du aurreikusitako bigarren etxebizitzaren eskaera, erabilera nagusiko parkearen hazkunderari lotuta emango dena. Jakin badakigunez datu hori ez dela oso fidagarria, "ad hoc" zenbatespena egin dugu 2011ko eta 2001eko datuetan oinarrituta (2011ko tasa onartu egin da, 2001ean behatutakoa gainditzen duenean izan ezik; horrelakoetan, 2001 eta 2011ko balioen batez bestekoa erabili dugu). Dena den, bigarren etxebizitzaren koefizienteari 1,25eko balioa eman zaio gehienez.

B2. Aurreikusi den bigarren etxebizitzaren koefiziente bariazioa. Koefiziente honetan ez da aldaketarik aurreikusi; horregatik, osagai horren balioa deuseza da Eremu Funtzionaleko udalerrri guztietan.

C1. Parkearen hazkunderari lotutako etxebizitza hutsen gaineko aurreikuspena. Osagai hau, berez, etxebizitza merkatuak modu eraginkorrean funtzionatzeko behar duen marjina da, eta urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretuan proposatutako koefizientea aplikatuta ateratzen da. Koefizientearen balioa udalerrriaren neurriaren araberakoa izaten da, % 4 eta % 8 bitartekoa (1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien kasuan), udalerrian dauden etxebizitza nagusien eta bigarren etxebizitzaren beharrei aplikatuta.

C2. Etxebizitza hutsen parkea berreskuratzea. Osagai honek etxebizitza-beharren gutxitzea jasotzen du, plangintzaren hasieran hutsik zeuden etxebizitzak berreskuratzearen ondorioz. Helburua da hutsik dauden eta berreskura daitezkeen etxebizitzaren % 10 okupatzea planeatutako epealdian zehar (hau da, etxebizitza hutsen kopuru garbia, merkatuaren funtzionamendu eraginkorrerako behar den marjina dela-eta). Helburu hori 2011ko azaroan hutsik zeuden etxebizitzaren parkeari aplikatu zaio, eta ahalmenaren gainean duen efektua eskualdeko parkearen % 2,9 da.

LEZ. Lurralde ereduaren zuzenketen inplikazioak. Osagai honek jasotzen du LZPak udalerrri bakoitzarentzat bultzatzen dituen lurralde-zuzenketen eragin haztatua,

betiere plangintzaren indarraldiaren barnean (2017-2024 epea oraingo zenbatespenean).

Bizitegi-kuantifikazioaren bigarren pausua da, kasuan kasuko udalerriri dagokion harrotze-faktorea aplikatzea (koefiziente hori 2,2 eta 3,0 bitartean aldatzen da udalerriko biztanleria murriztu ahala), eta urtarrilaren 19ko 4/2016 Dekretuan zehaztutako metodologiak planteatzen dituen muga osagarriak betetzen direla egiaztatzea.

31. taulan bizitegi beharrak aurkezten dira, behar horiek kalkulatzeko erabili diren osagaietan bereizita eta Lurralde Ereduari dagokion osagaien zuzenketarik egin gabe; eta

32. taulan aurkeztzen dira Ereduan inolako zuzenketarik egin ezean udal plangintzan kontuan hartu beharko liratekeen gehieneko eta gutxieneko bizitegi-ahalmenak.

33. taulan, etxebizitza beharrak eta hasiera batean zortzi urteko epean kalifika daitekeen gehieneko lurzorua ageri dira, aurreko taulan jasotakoak hain zuzen; baita gaur egun dauden lurzoru kalifikatuko erreserbak eta 2016ko bizitegi parkea ere. Azken kasu horretan bereizi egin dira hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarrian dauden etxebizitzak eta lurzoru urbanizaezinean daudenak.

31. taula. Bizitegi beharrak udalerrika (1. epea)

Municipio	Necesidades residenciales totales	Componentes						
		CMT Cor. Mod.	A1 Var. Pob.	A2 Tam. Fam.	B1 V. Secun.	B2 V. Coef.Vs.	C1 V. Vac.	C2 Rec. Parq.
Abaltzisketa	13	0	5	8	1	0	1	-2
Aduna	38	0	23	12	2	0	3	-2
Albiztur	8	0	1	8	1	0	1	-3
Alegia	55	0	14	44	1	0	4	-8
Alkiza	23	0	12	9	1	0	2	-1
Altzo	11	0	3	9	0	0	1	-2
Amezketeta	9	0	-8	23	0	0	1	-7
Anoeta	81	0	27	51	1	0	6	-4
Asteasu	72	0	32	37	3	0	5	-5
Baliarrain	13	0	9	4	0	0	1	-1
Belauntza	1	0	-3	6	0	0	0	-2
Berastegi	42	0	17	27	4	0	3	-9
Berrobi	16	0	2	15	0	0	1	-2
Bidania-Goiatz	24	0	7	13	4	0	2	-2
Elduain	4	0	0	6	0	0	0	-2
Gaztelu	7	0	3	4	0	0	1	-1
Hernalde	10	0	2	8	0	0	1	-1
Ibarra	84	0	-18	106	1	0	5	-10
Ikaztegieta	26	0	14	12	0	0	2	-2
Irura	325	0	257	46	6	0	22	-6
Larraul	22	0	14	6	1	0	2	-1
Leaburu	3	0	-4	9	0	0	0	-2
Lizartza	10	0	-2	16	1	0	1	-6
Orendain	6	0	3	5	0	0	1	-3
Orexa	8	0	5	3	0	0	1	-1
Tolosa	585	0	155	490	23	0	33	-116
Villabona	199	0	61	147	4	0	13	-26
Zizurkil	101	0	30	74	2	0	7	-12
Tolosaldea	1.796	0	661	1.198	56	0	120	-239

32. taula. Bizitegi-ahalmena udalerrika, LEZ gabe (1. epea)

Municipio	Necesidades residenciales totales	Capacidad residencial máxima	Parque udalplan 2016	Máxima Capacidad Res. Parque en %	Capacidad residencial mínima	Limitación
Abaltzisketa	13	39	154	25	20	A
Aduna	38	95	189	50	48	
Albiztur	8	24	184	13	12	
Alegia	55	154	763	20	77	
Alkiza	23	69	173	40	35	B
Altzo	11	33	159	21	17	
Amezketeta	9	55	553	10	28	
Anoeta	81	227	904	25	114	
Asteasu	72	202	640	32	101	A
Baliarrain	13	30	60	50	15	
Belauntza	1	20	139	14	10	
Berastegi	42	118	549	21	59	
Berrobi	16	48	276	17	24	C
Bidania-Goiatz	24	72	280	26	36	
Elduain	4	20	104	19	10	
Gaztelu	7	21	55	38	11	
Hernalde	10	30	135	22	15	A
Ibarra	84	218	1.780	12	109	
Ikaztegieta	26	78	202	39	39	
Irura	325	405	810	50	203	
Larraul	22	53	105	50	27	A
Leaburu	3	20	185	11	10	C
Lizartza	10	32	315	10	16	B
Orendain	6	20	106	19	10	C
Orexa	8	22	44	50	11	A
Tolosa	585	1.404	9.079	15	702	A
Villabona	199	517	2.582	20	259	
Zizurkil	101	283	1.260	22	142	
Tolosaldea	1.796	4.309	21.785	20	2.160	

Oharra: Hauek dira azkeneko zutabeen jasotako mugak:

- A: Gehieneko ahalmek ezin du gainditu hasierako parkearen % 50.
- B: Hasierako parkearen % 10era iristen ez den gehieneko ahalmena ez da aintzat hartu.
- C: Gehieneko ahalmek txikiena 20 etxebizitzakoa da.

33. taula. Beharrak, gehieneko bizitegi-ahalmena eta egungo egoera.

Udalerrria	Bizitegi-beharrak	Gehieneko bizitegi ahalmena	Dauden erreserbak Udalplan 2011	Udalplan 2011ko parkea		
				HL+LU	Ez-urban.	Guztira
Abaltzisketa	13	39	34	50	104	154
Aduna	38	95	69	103	86	189
Albiztur	8	24	46	96	88	184
Alegia	55	154	20	715	48	763
Alkiza	23	69	0	81	92	173
Altzo	11	33	34	88	71	159
Amezketeta	9	55	181	424	129	553
Anoeta	81	227	282	854	50	904
Asteasu	72	202	209	463	177	640
Baliarrain	13	30	2	33	27	60
Belauntza	1	20	50	95	44	139
Berastegi	42	118	171	326	223	549
Berrobi	16	48	95	231	45	276
Bidania-Goiatz	24	72	73	160	120	280
Elduain	4	20	28	83	21	104
Gaztelu	7	21	13	11	44	55
Hernialde	10	30	22	48	87	135
Ibarra	84	218	305	1677	103	1780
Ikaztegieta	26	78	114	159	43	202
Irura	325	405	377	802	8	810
Larraul	22	53	0	61	44	105
Leaburu	3	20	6	53	132	185
Lizartza	10	32	94	226	89	315
Orendain	6	20	13	49	57	106
Orexa	8	22	6	29	15	44
Tolosa	585	1.404	2014	8461	618	9.079
Villabona	199	517	639	2.363	219	2.582
Zizurkil	101	283	625	1.093	167	1.260
EF Guztira	1.796	4.309	5.522	18.834	2.951	21.785

Etxebizitza-beharrak kalkulatzeko proposatzen den metodologiaren analisia eginda, eta behar horiek, zortzi urteko lehen epe batean gehienez kalifika daitekeen lurzorua, eta gaur egun dauden lurzoru kalifikatuko erreserbak begiratu eta alderatuta, honako hau adierazi dezakegu:

- Eremuko udalerrri txikietan –landa izaerakoak diren, etxebizitza asko lurzoru urbanizaezinean dituzten eta hirigune txiki samarra duten horietan–, hasierako parke osoari A muga aplikatzeak honako ondorioa dakar: muga hori aplikatuta ere, gehieneko ahalmen hori hiri-lurzoruko eta lurzoru urbanizagarriko parkearen % 92 da Adunaren kasuan, % 91 Baliarrainen, % 87 Larraulen eta % 76 Orexan. Gauza bera esan daiteke muga horren pean ez dauden beste hainbat udalerriren kasuan ere; esate baterako, Alkiza (% 85), Gaztelu (ia % 200), eta gutxiago bada ere, Hernialde (% 62).
- Udalerrri jakin batzuen kasuan, lurzoru kalifikatuaren erreserbak handiagoak dira lehen 8 urteetako gehieneko ahalmena baino (Albiztur, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Ibarra, Ikaztegieta, Lizartza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil); are gehiago,

horietako batzuetan gainditu egiten dute LZParen beraren horizonte-eperako ahalmena, Albiztur, Amezketza, Belauntza, Berrobi, Elduain, Ikaztegieta, Lizartza eta Zizurkilen zehazki.

- Aitzitik, Irurak ez du garapen berrietarako zentzuzko aukerarik, gaur egun kalifikatuta dauden lurzoruez aparte. Beraz, plangintzako egungo harrera-ahalmenaren eta egindako proiektio eta zenbatespenetatik ateratzen denaren arteko aldea beste udalerri batzuek zurgatu beharko dute.

Azaldutakotik abiatutik, LZParen proposamenaren muinean hainbat premiari erantzutea dago: eskualde mailan, beharren kopuru orokorrari erantzutea; horretarako, udalerri txikiei –horietako asko landa izaerakoak eta etxebizitza-parkearen zati handi bat lurzoru urbanizaezinean dutenak*– muga berri bat aplikatzea proposatzen da ezen, honen arabera, gehieneko ahalmena ezin da izan “hiri-lurzoruko parkeari” dagokion hasierako parkearen % 70 baino handiagoa; eta era berean, izaera orokorreko zuzenketa batzuk egitea, lehen azaldutako LZParen helburu orokorreari egokituak:

“Burutza sistema eta burutzen arteko egituratze funtzionala sendotzea, Villabona-Anoeta-Tolosa ardatzaren antolamendu integralaren bidez”.

Bestetik, landa izaerako udalerri txikiei eta eremu urbanizatuenei atxikitako harrotze-mailen arteko aldeak, halako lurralde oreka bat ahalbidetzeko eginkizuna betetzen du.

Horren guztiaren ondorioz, eta Ereduan oinarriturik, honako hazkunde selektibo/zuzenketa hauek planteatzen dira:

Villabona	80 behar
Zizurkil	20 behar
Anoeta	40 behar
Tolosa	40 behar
Ibarra	40 behar

Hazkunde horiek konpentsatu egiten dira Ereduan oinarriturik Irura (-200 behar), Aduna (-15 behar) eta Larraul (-5 behar) udalerrietarako ezarritako zuzenketekin.

Ondoko tauletan ageri da 2017-2024 eperako plangintzako beharrei eta gehieneko eta gutxieneko ahalmenei buruz, eta Eremu Funtzionaleko udalerrietarako, LZPak egiten duen proposamena.

* Muga hori 800 biztanle baino gutxiago dituzten eta beren bizitegi parkearen % 30 behintzat lurzoru urbanizaezinean duten udalerriei aplikatzen zaie.

34. taula. Bizitegi beharrak udalerrika (1. epea)

Municipio	Necesidades residenciales totales	Componentes							
		CMT		A1	A2	B1	B2	C1	C2
		Cor. Mod.	Var. Pob.	Tam. Fam.	V. Secun.	V. Coef.Vs.	V. Vac.	Rec. Parq.	
Abaltzisketa	13	0	5	8	1	0	1	-2	
Aduna	23	-15	23	12	2	0	3	-2	
Albiztur	8	0	1	8	1	0	1	-3	
Alegia	55	0	14	44	1	0	4	-8	
Alkiza	23	0	12	9	1	0	2	-1	
Altzo	11	0	3	9	0	0	1	-2	
Amezketeta	9	0	-8	23	0	0	1	-7	
Anoeta	121	40	27	51	1	0	6	-4	
Asteasu	72	0	32	37	3	0	5	-5	
Baliarrain	13	0	9	4	0	0	1	-1	
Belauntza	1	0	-3	6	0	0	0	-2	
Berastegi	42	0	17	27	4	0	3	-9	
Berrobi	16	0	2	15	0	0	1	-2	
Bidania-Goiatz	24	0	7	13	4	0	2	-2	
Elduain	4	0	0	6	0	0	0	-2	
Gaztelu	7	0	3	4	0	0	1	-1	
Hernialde	10	0	2	8	0	0	1	-1	
Ibarra	124	40	-18	106	1	0	5	-10	
Ikaztegieta	26	0	14	12	0	0	2	-2	
Irura	125	-200	257	46	6	0	22	-6	
Larraul	17	-5	14	6	1	0	2	-1	
Leaburu	3	0	-4	9	0	0	0	-2	
Lizartza	10	0	-2	16	1	0	1	-6	
Orendain	6	0	3	5	0	0	1	-3	
Orexa	8	0	5	3	0	0	1	-1	
Tolosa	625	40	155	490	23	0	33	-116	
Villabona	279	80	61	147	4	0	13	-26	
Zizurkil	121	20	30	74	2	0	7	-12	
Tolosaldea	1.796	0	661	1.198	56	0	120	-239	

35. taula. Bizitegi ahalmena udalerrika (1. epea)

Municipio	Necesidades residenciales totales	Capacidad residencial máxima	Parque udalplan 2016	Máxima Capacidad Res. Parque en %	Capacidad residencial mínima	Limitación
Abaltzisketa	13	35	154	23	18	D
Aduna	23	69	189	37	35	
Albiztur	8	24	184	13	12	
Alegia	55	154	763	20	77	
Alkiza	23	57	173	33	29	D
Altzo	11	33	159	21	17	
Amezketeta	9	55	553	10	28	B
Anoeta	121	339	904	38	170	
Asteasu	72	202	640	32	101	
Baliarrain	13	23	60	38	12	D
Belauntza	1	20	139	14	10	C
Berastegi	42	118	549	21	59	
Berrobi	16	48	276	17	24	
Bidania-Goiatz	24	72	280	26	36	
Elduain	4	20	104	19	10	C
Gaztelu	7	20	55	36	10	D
Hernialde	10	30	135	22	15	
Ibarra	124	322	1.780	18	161	
Ikaztegieta	26	78	202	39	39	
Irura	125	350	810	43	175	
Larraul	17	43	105	41	22	D
Leaburu	3	20	185	11	10	C
Lizartza	10	32	315	10	16	B
Orendain	6	20	106	19	10	C
Orexa	8	20	44	45	10	D
Tolosa	625	1.500	9.079	17	750	
Villabona	279	725	2.582	28	363	
Zizurkil	121	339	1.260	27	170	
Tolosaldea	1.796	4.768	21.785	22	2.389	

A: Gehieneko ahalmenak ezin du gaintitu hasierako parkearen % 50.

B: Hasierako parkearen % 10etik beherako gehieneko ahalmena ez da kontuan hartzen.

C: Gehieneko ahalmenik txikiena 20 etxebizitzakoa izango da.

D: Gehieneko ahalmena ezin da izan hasierako hiri-lurzoruko parkearen % 70 baino handiagoa, 800 biztanle baino gutxiago dituzten eta parkearen % 30etik gora lurzoru urbanizaezinean duten udalerrietan.

Izapidetze-fasean dagoen LAAen berrikuspenean ezarritakoarekin bat etorrituz, eta EAEko Lurralde Antolaketako Batzordearen txostenari jarraikiz, Eremu Funtzionalaren udal planeamenduek ez dute bizitegitarako gutxieneko ahalmen bat aurreikusi beharrik izango, eta inguruabar hori bigarren aldiari ere aplikatzen zaio.

Segidan bi taula aurkezten dira, “Bizitegi-beharrak udalerrika” eta Bizitegi-ahalmena udalerrika”, bigarren aldiari dagozkionak biak ere. Eta taula horien helburu bakarra da etorkizunean gara daitekeen plangintza ilustratzea.

Hori horrela,

- Mantendu egin dira biztanlerian aurreikusitako bariozioak, familiaren neurriaren bariozioa, bigarren etxebizitzaren eskaera, eta etxebizitzaren parkea hazteari lotuta aurreikusi diren etxebizitza hutsen kopurua.
- 2025ean izango den parkea kalkulatzeko, lehen aldiaren hasierako parkeari aldi horretako bizitegi-behar guztiak erantsi zaizkio.
- Behar horiek hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian beteko direla pentsatzen da.
- Eta pentsatzekoa da lurzoru urbanizaezineko parkea bere horretan mantenduko dela.
- Etxebizitza hutsen parkearen berreskuratze efektua lehen aldiari dagokionaren erdira murrizten da, bigarren aldi honek zailtasun gehiago baititu berez.

Berrito ere esan behar da, eta oraingo honetan are arrazoi gehiagorekin, kuantifikazio hauek erlatiboak direla. Lehen aldiko kuantifikazioei buruz eman ditugun arrazoiari erantsi beharko genieke oraingo kuantifikazioak sorburutik urrunago daudela (eta ondorioz, emaitzek desbideraketa esponentziala izan dezaketela), eta martxan dagoen Lurraldea Antolatzeko Artezpideen berriksupen prozesuan doikuntzak eta hobekuntzak egin daitezkeela. Bestetik, ez da ahaztu behar 2025-2033 aldirako plangintzak, esate baterako, erabilitako erreferentzia-aldia (1991-2021) ere aldi berean sartzea eskatuko lukeela, erabilitako koefizienteak kalkulatu eta egokitzearekin batera.

Jarduketa horretan planteatutako Ereduko zuzenketen helburua, jakina, Irurako udalerrian bete gabe dauden beharrak inguruko udalerriek zurgatzea da, lehen aldiari bezalaxe, eta gainera, burutzen sistema orokorra sendotzea Villabona-Anoeta-Tolosa ardatzaren antolamendu integralaren bidez.

36. taula. Bizitegi beharrak udalerrika (2. epea)

Municipio	Necesidades residenciales totales	Componentes						
		CMT Cor. Mod.	A1 Var. Pob.	A2 Tam. Fam.	B1 V. Secun.	B2 V. Coef.Vs.	C1 V. Vac.	C2 Rec. Parq.
Abaltzisketa	14	0	5	8	1	0	1	-1
Aduna	27	-15	25	13	2	0	3	-1
Albiztur	10	0	1	8	1	0	1	-1
Alegia	62	0	15	46	1	0	4	-4
Alkiza	27	0	14	10	1	0	2	0
Altzo	12	0	3	9	0	0	1	-1
Amezketeta	12	0	-9	23	0	0	1	-3
Anoeta	182	90	31	56	1	0	6	-2
Asteasu	81	0	35	40	3	0	5	-2
Baliarrain	16	0	11	4	0	0	1	0
Belauntza	2	0	-3	6	0	0	0	-1
Berastegi	50	0	18	28	4	0	4	-4
Berrobi	18	0	3	15	0	0	1	-1
Bidania-Goiatz	25	0	7	13	4	0	2	-1
Elduain	5	0	0	6	0	0	0	-1
Gaztelu	8	0	3	4	0	0	1	0
Hernalde	11	0	2	8	0	0	1	0
Ibarra	142	50	-19	109	1	0	5	-4
Ikaztegieta	31	0	16	13	1	0	2	-1
Irura	30	-350	300	51	7	0	25	-3
Larraul	21	-5	17	7	1	0	2	-1
Leaburu	4	0	-4	9	0	0	0	-1
Lizartza	12	0	-3	16	1	0	1	-3
Orendain	9	0	4	5	0	0	1	-1
Orexa	11	0	7	3	0	0	1	0
Tolosa	722	40	168	507	24	0	35	-52
Villabona	381	150	67	157	5	0	14	-12
Zizurkil	156	40	33	78	2	0	8	-5
Tolosaldea	2.081	0	747	1.252	60	0	128	-106

37. taula. Bizitegi ahalmena udalerrika (2. epea)

Municipio	Necesidades residenciales totales	Capacidad residencial máxima	Parque mado 2025	Máxima Capacidad Res. Parque en %	Capacidad residencial mínima	Limitación
Abaltzisketa	14	42	167	25	21	
Aduna	27	81	212	38	41	
Albiztur	10	30	192	16	15	
Alegia	62	174	818	21	87	
Alkiza	27	73	196	37	37	D
Altzo	12	36	170	21	18	
Amezketeta	12	56	562	10	28	B
Anoeta	182	510	1.025	50	255	
Asteasu	81	227	712	32	114	
Baliarrain	16	32	73	44	16	D
Belauntza	2	20	140	14	10	C
Berastegi	50	140	591	24	70	
Berrobi	18	54	292	18	27	
Bidania-Goiatz	25	75	304	25	38	
Elduain	5	20	108	19	10	C
Gaztelu	8	20	62	32	10	D
Hernalde	11	33	145	23	17	
Ibarra	142	369	1.904	19	185	
Ikaztegieta	31	93	228	41	47	
Irura	30	94	935	10	47	B
Larraul	21	55	122	45	28	D
Leaburu	4	20	188	11	10	C
Lizartza	12	36	325	11	18	
Orendain	9	27	112	24	14	
Orexa	11	26	52	50	13	D
Tolosa	722	1.733	9.704	18	867	
Villabona	381	991	2.861	35	496	
Zizurkil	156	437	1.381	32	219	
Tolosaldea	2.081	5.504	23.581	23	2.758	

A: Gehieneko ahalmenak ezin du gaintitu hasierako parkearen % 50.

B: Hasierako parkearen % 10etik beherako gehieneko ahalmena ez da kontuan hartzen.

C: Gehieneko ahalmenik txikiena 20 etxebizitzakoa izango da.

D: Gehieneko ahalmena ezin da izan hasierako hiri-lurzoruko parkearen % 70 baino handiagoa, 800 biztanle baino gutxiago dituzten eta parkearen % 30etik gora lurzoru urbanizaezinean duten udalerrietan.

Horren guztiaren ondorioz, eta Ereduan oinarriturik, honako hazkunde selektibo/zuzenketa hauek planteatzen dira:

Villabona	150 behar
Zizurkil	40 behar
Anoeta	90 behar
Tolosa	40 behar
Ibarra	50 behar

Hazkunde horiek konpentsatu egiten dira Ereduan oinarriturik Irura (-350 behar), Aduna (-15 behar) eta Larraul (-5 behar) udalerrietarako ezarritako zuzenketekin.

3.5.2.e Nolabaiteko babes publikoa duten etxebizitzetarako lurzorua dimentsionatzeko proposamena.

LALak LZPetarako egiten dituen zehaztapenen artean sustapen publikoko zein pribatuko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko erreserbatuko diren lurzoru-azalaren kuantifikazioa dago, edo etorkizunean beren azken prezioa berariazko araupeketaz mugatu dakiekeen beste edozein eratakoak egiteko.

Babes erregimenen batean sartzen den etxebizitzaren gaiari dagokionez, hainbat kontsiderazio egin behar dira:

-‘Behar’ kontzeptua ez da objektibatzen erraza.

-Beharrak asetzeak ez du esan nahi horietarako eraikuntza berriak behar direnik.

-Pentsatzekoa da ezen, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea indarrean sartu zelarik, babes publikoko erregimenen batean sartzen diren etxebizitzetarako lurzoru erreserbak egiteko obligazioa berariaz araututa dagoela lege horretako 80.etik 82.era bitarteko artikuluetan; beraz, printzipioz, indarrean dagoen legedira jotzea ezartzen da, automatikoki.

-Eremu Funtzionalak 28 udalerrri ditu, eta horietatik lau bakarrik daude -eremu funtzionaleko biztanleriaren % 70 inguru hartzen dute- legez behartuta etxebizitza babesturako lurzorua erreserbatzeko (Tolosa, Ibarra, Villabona eta Zizurkil). Eta ez dago alokatzeko hornidura-bizitegirako lurzoru erreserbak egiteko obligazioa duen udalerririk.

Eremu funtzionalean babes erregimenen batean sartuta dauden etxebizitzetarako lurzoru erreserbak 2.400 etxebizitza babesturentzat dira (Tolosan 1.182 etxebizitza babestu, Villabonan 322, Zizurkilen 260, Ibarra 235, Anoetan 104, Alegian 90 eta Iruran beste 90), eta alokatzeko 18 bizitegiarentzako erreserbak dira hornidura-lurzoruetan; hau da, Eremu Funtzionalaren 2017-2024 eperako bizitegi-ahalmenaren % 43.

Eusko Jaurlaritzaren ondareari dagokionez, Tolosako Amaroze eremuko 156 etxebizitza babestu eta Alegiako 18 hornidura-bizitegi dira.

Begi-bistakoa dirudi Eremu Funtzionalean etxebizitzaren arazoa konpondu nahi bada, etxebizitza berriak sustatu baino zerbait gehiago egin beharko dela. Horrela, arrazoizkoa dirudi administrazioak jarraitu beharko duen jardura-estrategiaren bitartez, modu egokian konbinatu beharko direla gaur egungo etxebizitza-parkearen optimizazioa - birgaitze-jarduerak, etxebizitza hutsak merkaturatzeko jarduerak eta etxebizitza erabiliarekin beharrak asetzeko jarduerak- eta udalerrri horietako batzuetan geratzen diren lurzoru eskasetan prezio mugatuko alokairuko etxebizitzaren eskaintza; izan ere, horrela bakarrik lortuko da etorkizunera begira sortzen diren beharrak asetzeko etxebizitza publikoen ondare bat osatzea eta erabili ahal izatea.

LZPak proposatutako lurralde-helburuak betetzeko, etxebizitzaren sustapen publikoa zein pribatua egiteko lurzoruaren politikak oso garrantzitsuak direla kontuan hartuta, kasuan kasuko LAPek adierazitako ekintza zehatzak, agente publikoek eta pribatuek garatu beharrekoak, LZPan proposatutako eredu indartzerazuzenduko dira. Xede horrekin, ondorengo irizpideak jarraituko dira:

- Hirigintzako plangintzan lehentasuna eman behar zaio egoitza-parkearen hazkundeari, betiere barne berrikuntzan eta lehendik dauden bilbe eta azpiegiturak aprobetxatzean oinarriturik hirigintzako birsortze, berritze eta birgaitze prozesuen bidez, garapen berrietarako jarduketara espantsiboak sistematikoki programatzera jo beharrean.
- Degradatutako bizitegi-eremuak birgaitzeak, hirigune historikoetakoak izan ala ez, badu zerikusia etxebizitza-politikarekin, baina baita hiriguneak birkualifikatzea eta indartzea aintzat hartzen duten eremu funtzionalean proposatutako lurralde ereduaren helburuekin ere.

- Bizitegi-intentsitate handieneko esparruen hautua bat dator hiri continuum indartua konfiguratzeko ereduaren helburuekin. Kasu gehienetan, Tolosa-Ibarra eta Villabona-Zizurkil hiri eremuetan eta Villabona-Anoeta korridore estrategikoan kokatzea aurreikusten da.

- Hiri eremu integratu hauetan, bereziki aipatuetakoa lehenean, bildu beharko dira alokairura bideratutako jarduketak gehienak (hornidura-bizitegiak eta Alokabide eta Bizigune programak); saltzeko etxebizitza babestuak, horrelakorik behar bada behintzat, banaketa zabalagoa onartzen du.

- Tolosa-Ibarra esparruan, eta zehazki udalerrri horietako lehendabizikoan, badira lurzoru kalifikatuaren erreserbak (Laskorain iparra/San Esteban, Olarrain eta Papelera Amarozen eza hauek, 1.000 etxebizitza babestu ingururekin, esparruko eskaintzaren parte handiena hartzen dute); eta Ibarra udalbarrutiak, maila orokorrean, epe ertain/luzerako erreserbak ditu. Esparru honetako hirigintzako estrategiak, beraz, gaur egun dauden lurzoru baliabideen administrazio egokia behar du, eta aipatutako erreserbak gauzatzen joan behar da pixkanaka.

Beraz, administrazioaren lehenbiziko lana plangintza burutzea eta Papelera Amarozen (hau bere ondarekoa baitu) dagozkion eraikuntza-prozesuak abian jartzea izango da, San Esteban eta Olarraingo prozesuak bultzatzearekin batera.

Aurreikusitako beste eraikuntza prozesuak aurrera eramateko eta etorkizuneko beste plan batzuen jarraipena bermatzeko bestelako lurzoru beharrak, kalifikatutako beste lurzoruetatik etorriko dira.

- Villabona-Elbarrena inguruan, Villabonako Papelera Salvadora-ri dagokion esparrua eraldaturik eta Zizurkilaren Papelera del Oria-ren egungo kokapena mantendu dela, Villabona-Elbarrenako Hiri Eremu Integratuaren finkatze eta garatze komenigarria, aipatu azken guneko saihasbidearen trazadura erabaki ondoren, Pesus Plaza eta Fraisoro Errota eremuen garapenean biltzen da nagusiki epe laburrean, 150 etxebizitza babesturekin, eta Ihartza eta Errotakoen garapenean epe ertain/luzera begira.

- Dagoeneko kalifikatuta dauden lurzoru hauen garapenetik at, eta eremuan gaur egun garapen berrietarako dauden mugak kontuan hartuta, Administrazioak horretan zertu behar duen jarduerak, gure iritziz, eremu berriak sartzera jo behar du, horietan

bideratu ahal izatearren, hain zuzen ere, garapen berrietarako dauden behar gehienak. Ildo honetatik, Lurraldearen Zatik Planarentzat Villabona-Anoeta ibarra aktibo garrantzitsua da sendotze urbanora begira, eta horretan etxebizitza kontuan hartzeko moduko osagaia da, kopuruari begiratuta, ez baina bakarra, eta hiri itxuraketaren baldintzatzailea halaber.

- Esparru honetako lurzoru-erreserbak, epe labur/ertainera erabiliko ez direnak, aukera bikaina dira Administrazioarentzat, Eremu Funtzionalean bizitegitarako lurzoruaren ondarea osatzen joateko.

- Etxebizitza babesturako beste jarduketak horretarako kalifikatuta dauden Anoeta, Irura eta Alegiako udalerrietako lurzoruaren garatuko dira.

- Udalerrri horietan guztietan eta burutzen inguruko tamaina ertaineko beste hainbatetan, gaur egun etxebizitza babesturako lurzoruaren erreserbatzeko legezko betebeharrak ez dutenetan, jarraituko den oinarritzko estrategia izango da kasuan kasuko udalekin hitzartze prozesuak ezartzea, hartara, gehien garatuta dauden udalerriek egiten duten eskaintza osatuko duen eskaintza osagarri bat sortzeko. Abiaraziko diren jardueren tamaina eta gauzatzea, udalerrri bakoitzean aurreikusitako eskaerarentzat eta hiri-egiturarentzat egokia izango da.

- Landa izaera duten udalerrietan, familia berriak sortzeko erritmo geldoa dela eta, etxebizitzaren sustapen publikora bideratuko diren lurzoruaren garapen-maila baxua izango dela aurreikusi da, hortaz, proposatutako jarduerak eskaera antolatu batera zuzenduko dira asistematikoki.

Irizpide hauetan oinarriturik, eta etxebizitza babestua sustatzeko lurzoru erreserben egungo eta etorkizuneko egoera kontuan harturik, Lurraldearen Zatik Planak proposatzen du Villabona, Zizurkil (Elbarrena), Anoeta, Irura, Tolosa, Ibarra eta Alegiako udalerriak lehentasunezko intereskotzat jotzea sustapen publikoko etxebizitzetarako lurzoruaren hirigintzako antolaketa, sustapen eta kudeaketarako.

Asteasu, Berrobi, Amezketa eta Ikaztegietako udalerriak intereskotzat jotzen dira jarduketara publikoak garatzeko, eta horietan etxebizitza babesturako jarduketak aurreikusten dira, lehenengo osagarri gisa.

Erdi urbanoak eta landatarrak diren beste udalerrietan, hots, Aduna, Larraul, Alkiza, Hernialde, Belauntza, Elduain, Berastegi, Leaburu, Gaztelu, Altzo, Oresa, Albiztur, Bidania-Goiatz, Baliarrain, Orendain eta Abaltzisketan, etxebizitza babestura bideratutako lurzoruen garapen txikia aurreikusten da; ez da, baina, egokitasun jarduketarik garatzeko aukera baztertzeko.

Oinarrizko irizpide horiek aintzat hartuta, Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzekeo LAPak proposatuko ditu lurzoruen kokapena, banaketa eta tamaina, bai eta esku hartzeko lerro estrategikoak ere, dagokion departamentuaren etxebizitza-politika eta Eremu Funtzionaleko lurralde antolamendurako eredu bateragarri egiteko.

3.5.3. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA.

3.5.3.a Irizpide eta helburu orokorrak

Lurraldearen Zatik Planaren dokumentu honetako eskualdearen analisi sozioekonomikoan aditzera eman den bezala, Tolosaldeko hazkundea papergintzaren eta galdaragintzaren sektoreak ardatz izan dituen industria-garapen handian oinarritu da. Izan ere, jarduera horiek erronka handi bati egin behar diote aurre, gero eta handiagoa den Europako integrazioari eta globalizazioari.

Lurraldea garatzeko politikak bultzatu egin behar ditu lanpostu berriak sortzeko neurriak. Tolosaldearen kasuan, eta epe laburrari dagokionez, horrek eskatzen du industriari laguntza sendoa ematea, kooperaziorako formulak sustatuz, berrikuntzaren enpresa-kultura indartuz eta hezkuntzan eta giza baliabideetan ahaleginak biziagotuz.

Bestalde, eremu funtzionalean bizi izan den jarduera ekonomikoa hirugarren sektorerako eramateko prozesuak aurrera jarraituko du seguruenik etorkizun hurbilean. Hori dela-eta, eskualdeak gaur egun produkzio-jarduera tradizionalen garapena bere egitura ekonomikoaren dibertsifikazioarekin uztartzeko zeregina planteatu behar du, eta hirugarren sektoreko jarduerak oro har eta bereziki Tolosaldean gaur egun gutxiegi garatuta dagoen zerbitzu sektorekoak garatzea da horretarako bidea.

Horretarako, jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskaintza eskuragarria eta eskualdeko gaur egungo zein etorkizuneko produkzio-sistemaren premietara egokitua izatea berebiziko garrantzia duen faktorea da enpresa-ekimen endogenoak mantentzeko eta

beste berri batzuk erakartzeko.

Eremu funtzionalaren erliebeak berak eta ingurune naturalaren etengabeko presentziak - eskualdeko ondare komunaren zati zeharo garrantzitsua- ezartzen dituzten mugak direla eta, egokia izan daiteke espazio-erabilgarritasunari eta lurraldearen harrera-ahalmenari egokitutako espezializazio sektoriala eta tipologia egokia sustatzen saiatzea, hots, lurzorua neurritz okupatu eta erabiltzen duena eta ingurunea errespetatzen duena.

3.5.3.b Jarduera ekonomikoetarako lurzorua antolatzeko eta kokatzeko lurralde irizpideak

Gaur egungo ereduaren ezaugarriek, produkzio asentamenduei dagokienez, neurri handian baldintzatuko dituzte jarduera-arlo horretan eredia definitzeko irizpideak.

Gogoan izan dezagun, jarduera ekonomikoetara zuzenduta dagoen edo egon litekeen lurzoruari dagokionez, eremu funtzionalak honako berezitasun hauek dituela:

- Industriako instalazioek edo pabiloiek oso intentsitate handiarekin okupatzen dute erdiko kanala edo Oria ibaiaren haranaren alubioizko hondoa, tamaina ertain edo txikiko lurzoru-unitateen bitartez. Halaber, zeharkako haran hondoetan dauden beste eremu batzuk ere okupatzen dituzte, tamaina txikikoak gehienak halaber.
- Hirigintza-kalifikazioa (335 ha) eta 80 hektarea inguruko lurzoru-erreserbak, baina benetako lurzoru-eskaintza askoz ere txikiagoa da (54 ha inguru).
- Lurzoru-mota honen lurralde antolakuntza aski desegituratuta dago, bai lurzoruari berari bai bizitegi-eremuekiko eta bide-egiturarekiko erlazioari dagokionez, eta hori arazo benetan larria da lurraldea artikulatzeko eta sektorea garatzeko.
- Hiri-esparru irisgarrien inguruetan erabilgarri dagoen beste hainbat lurzoru libreren epe ertainerako arrazoizko ahalmenak 40/50 ha inguruko azalera hartzen du, eta Oriaren ibar hutsetan (Villabona-Anoeta) eta Tolosaren hegoaldean kokatzen da batik bat.

Industri jarduerak eta ezarpenak oso garrantzitsuak dira eskualdea itxuratzeko, lurzoru kontsumo egiturazko, funtzional eta fisiko-espazialaren eta ingurumenean eta lurraldean duen eraginaren ondorioz. Hori dela eta, jarduera ekonomikoetarako lurzoru politika eta industri azpiegituren sustapen publikorako politika faktore izugarri garrantzitsua dira eredu definitzeko, eta partaidetza erabakigarria izan behar dute LZPan ezarritako lurralde-definiziorako helburu orokorrak lortzeko. Beraz, hainbat irizpide jarraitu beharko dituzte, honakoak:

- Eremu funtzionalean, haran nagusitik kanpo, lurzoru lau gutxi izatea, haran estuak eta komunikazio korridoreak baitaude, oso baldintzatzaile sendoa da lurralde ereduarentzat; horrenbestez, dagoen lurzoru behar bezala administratu behar da, eta zaharkituak edo degradatuak dauden eremuak arintzeko, biziberritzeko eta leheneratzeko prozesuak lehenetsi, LZPeko ereduari eta irizpideei jarraituz.
- Gaur egungo kalifikazioak errespetatzea, ereduak transformatzeko eta erabilera aldatuta biziberritzeko esparru gisa seinalatzen dituenak eta dimentsionatze txikiagatik eta harrera-ahalmen urriko lurzoruetan kokatzeagatik -forma desegokiko eta dimentsio txikiko alubioi-lurzoruetan- argi eta garbi deskalifikatu eta babestu behar liratekeenak izan ezik.
- Morfologia fisikoarekin bat etortzea eta ingurune fisikoaren babesa errespetatzea. Horrek esan nahi du babestu egin beharko direla baldintza topografiko onargarriak dituzten eremuak, baina -eremuak edo inguruak ingurumen-kalitate handikoak direlako, edo ardatz nagusitik edo hiriguneetatik eta produkzio-eremu nagusietatik urrun dauden esparruetan kokatuta daudelako- hiri garapenez kanpo geratu behar luketenak, Lurraldearen Zatiko Planaren garapen-horizontean behintzat.
- Asentamendu berrietan lehentasuna emango zaio tamaina handiko edo ertaineko eragiketa gutxiago egiteari, tamaina handiagoko alubioizko lurzoruen gaineko esku-hartze txikien, natur ingurumenean etengabe inpaktuak eragiten dituztenen, kaltetan.
- Hain zuzen ere, haranen hondoetan dauden zerrenda estu eta lauen gaineko esku-hartzeak deskalifikatu eta eragotzi behar dira. Ez dira ukituko eta ibaien eta errekaen alboan bereizketa-zerrenda, deskongestio-eremu eta ingurumen-babeseko zerrenda gisa utziko dira.

- Ekonomia-jardueretarako plangintzako eremuek eta unitateek gutxienerako tamaina jakin bat gainditu beharko dute eta gaur egun badauden garapenen ondoan proposatuko dira, hartara, hazkunde sakabanatuak eragozteko, izan ere, lanpostuak sortu beharrean, lurraldearen narriadura dakarte hazkunde sakabanatuak.
- Asentamenduak aukeratzeko aipatutako irizpideez gain, kontuan hartuko dira hiri-diseinua komunikazio-egituran integratzeko irizpidea -oinezkoen eta txirrindularien ibilbideak, espaloiak eta zuhaiztiak zainduz-, eraikin, urbanizazio zein ertzak diseinatzea eta ingurumenarekiko erlazioa.
- Jarduera ekonomikoetarako erabiltzeko modukoak diren eremuak (Villabona-Anoetako eta Tolosa-Ibarra hegoaldeko esparruak batik batik) hiri-ereduaren egituratze sendo eta kualifikatuan integratzea.
- Zerbitzu sektorearekin zerikusia duten jarduera ekonomikoak lehenestea (ez da baldintza baztertzailerik).

Gaur egun arte jasandako industria-garapenaren intentsitatearen arabera, edo eremuak korridoreei garapen berrien euskarri gisa egozten dien potentzialtasunaren arabera, planean udalerririk kategorien arabera antolatu dira eta esku hartzeko estrategia askotarikoak proposatu dira (antzemandako arazoak eta korridoreei dagokien funtzioa hartu dira kontuan estrategia horiek lantzeko).

Lehentasunezko intereseko udalerririk: Komunikazio-korridore nagusietan kokatutako udalerririk dira. Bertan daude, gaur egun, industria-ezarpen gehienak edo kokapen egokia eta edukiera-ahalmena dela eta garapen berrietarako potentzialtasun handikoak dira.

Talde honetan daude Aduna, Zizurkil, Asteasu, Villabona, Irura, Anoeta, Tolosa, Ibarra, Alegia eta Ikaztegieta.

N-1 errepidean zehar kokatutako udalerririk gehienek asetze-maila altua eta garapen berrietarako aukera urriak kontuan hartuta, planak garapenak egun esparru horietan kalifikatuta dauden lurzoruetara mugatzeko proposamena egiten du, planaren indarraldiak irauten duen bitartean. Horrela, beraz, gaur egun beteta dauden lurzorurik

hobetzeko eta hutsik daudenak garatzeko oinarrizko politika bat jarraitu beharko da.

Villabona-Elbarrena eta Tolosa-Ibarrari dagozkien burutzetan, esku hartzeko estrategiak bateratu egin behar ditu, denboran, Hiltegia eremua eta Tolosan tokiko izaera handiagoa duten eremuak eraldatzeko eta birsortzeko jarduketak, Zizurkilgo Paper fabrika bezala (azkeneko hau epe ertain-luzera begira), eta jarduera ekonomiko eta hirugarren sektoreko jardueretarako eremu berrien garapena.

Asteasuko haranean eremu berriak kalifikatzeko baldintzatat ezarri beharko litzateke Elbarrenako saihesbidea eraikitzea.

Hazkunde motela izan duten udalerrien kategoriaren barruan, bestalde, ekonomia-jarduerako hiri eremuetan integratuta dauden tamaina ertaineko udalerriak sartu dira, garapen-aukera garbirik ez edukitzeagatik eta ia asetuta egoteagatik, garapen intentsibo berrietarako egokitzat jotzen ez direnak.

Kategori horren barruan sartuko lirateke, halaber, etorkizunean egingo diren korridoreen inguruan kokatutako zenbait udalerrri eta landa eremu batean egon eta asentamendu finkaturen bat duten udalerriak.

Hazkunde moteleko udalerrietan, jada badauden eremuak finkatzeko eta hobetzeko politika jarraitzeko proposamena egiten da. Era berean, bertako hazkundera gaur egun kalifikatuta dauden lurzoruetara mugatzeko proposamena egiten da.

Kategoria honetan Altzo, Amezketeta, Belauntza, Bidania-Goiatz, Leaburu eta Lizartzako udalerriak daude.

Amaitzeko, hirugarren multzo batean, garapen txikiko udalerriak sailkatu dira. Planak egindako proposamenaren arabera, hirigintza-plangintzak mugatu beharko du ekonomia-jardueretarako lurzoruaren kalifikazioa hiri izaerako jardueretarako izatea.

Kategoria honetan Abaltzisketa, Albiztur, Alkiza, Baliarrain, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Larraul, Orendain eta Orexako udalerriak daude.

3.5.3.c Esparru estrategikoak eta lehentasuneko garapenekoak

Honako antolamendu-esparru nagusi hauek bereiz daitezke, lurralde ereduaren konfigurazio eta garapen integralerako esparru estrategikotzat:

- **Apattaerreka. 15 ha**

Izen bereko ibarrari dagokion lurralde esparrua, Tolosa eta Ibarako udalerrietan kokatua. Tolosaldeko LZParen Aurrerapenaren erredakzioaren esparruan proposatu zen honetarako kalifikazioa.

Gutxi gorabehera 15 hektareako azalera du, eta 55 hektarea hartzen dituen sustapen publikoko Apattaerrekako Eskualdeko Poligonoaren bigarren fasea da, poligonoa osatzekoa.

- **Adunako ibarra. 21 ha gutxi gorabehera.**

Industria-erabileretarako hirigintza-baldintza aproposak dituen espazio huts kalifikatu handiena da, baina espazio horren zati handi batean uholde-arazoak izaten dira, eta hori derrigorrez konpondu beharreko gauza da eremua bere osotasunean garatuko bada.

Aurreikusitako industria- eta azpiegitura-lurzoru guztien integrazioa ez ezik, aldameneko hiri eremuena, ibaietako ertz eta pasealekuena ere aintzat hartu behar du antolamenduak, ikuspegi zabalagotik begiratuta eta espazioaren eta urbanizazioaren kalitate-irizpideak aplikatuta.

- **Villabona-Anoetako ibarra. 40 ha gutxi gorabehera**

Esparru honek funtsezko eginkizuna du eremu funtzionalaren egituraketan eta, horrenbestez, ezinbestekoa izango litzateke trenbidea mendebalderantz desbideratuz hobeto aprobetxatzeko modua aztertzea.

Bere helburu funtzionala ez da inolaz ere industriako produkzio-aprobetxamenduetara mugatu behar, egitura-integratioko espazio estrategikoa baita. Hori dela-eta, kokatu beharreko erabilerek bizitegia eta zuzkidurak zerbitzu-

sektoreko jarduera ekonomikoetarako eremu bereziekin konbinatu behar dituzte lehenetsunez, baina betiere lehen erabilerekin bateragarriak direla.

Esparruaren ahalmena adierazgarria izan liteke harrera-espazioa arrazionalizatuko balitz, zeren seguruenik irabazizko sabaiko 160.000 m² inguruko kopuruetara irits bailiteke: 1.000 etxebizitza inguru eta 70.000 m² sabai jarduera ekonomikoetarako, 30.000 m²-tik gorako espazio libreak, plazak eta parkea, eta 20.000 m²-ko zuzkidura-sabaia, dagozkien garaje-plaza eta lur gaineko aparkalekuekin.

Esku hartzeko irizpideek esparruaren antolamendu integrala hartu behar dute aintzat, ardatzaren argitasun eta jarraitutasun estrukturala lehenetsiz, N1 autobikiak sortzen duen etena konponduz eta Anoeta hegoaldeko eranskina eta Tolosa iparraldeko ertza bera barne hartuz -benetan garrantzitsua burutza-hiria behar bezala konektatzeko-, hala hiri-egitura sendo eta kualifikatua sortuko baita. Halaber, ibai-bazterrei tratamendu egokia emango zaie.

- **Tolosa-Ibarra hegoaldeko esparrua. 50 ha gutxi gorabehera. (20/25 ha)**

Esparru hau antolatzeko irizpideak era askotakoak dira, zerbitzu sektorearekin zerikusia duten jarduera ekonomikoen egoitza estrategiko gisa ez ezik -eskualdeko industria-parkea, ikerkuntza-zentroak eta horiekin guztiekin erlazionatutako unibertsitate-sukurtsalak-, Tolosa eta Ibarra arteko hiri-konexioak osoan berrantolatzeko, Apattaerrekako poligonoa hiri-egituran txertatzeko eta, are gehiago, Ibarako hirigunearen beraren sakabanatze eta zehaztugabetasun estrukturalako arazoak konpontzeko aukera gisa ere aintzat hartzen baita.

Hori guztia dela-eta, esku-hartzeak ezin dira inolaz ere bakartuta edo puntualki planteatu. Izan ere, komenigarria izango litzateke Lurraldearen Zatik Planaren eremuan aurreikusitako parke eta zuzkiduren perimetroko eremuak antolamendu-esparruan integratzea, Apattaerrekarekiko lotura-ertzak alde batera utzi gabe.

3.5.3.d Ereduaren dimentsionamendu orokorra

Dokumentuaren informazio alderdian azaldu den moduan, egungo egoeraren ezaugarri nagusia lurzoru kalifikatuaren 335 ha eta 80 ha huts egotea da; horien guztien artean,

baina, eta hainbat zertzelada tarteko, 54 ha inguru besterik ez dira bideragarritzat jotzen.

Planaren horizontean jarduera ekonomikoetarako lurzoru beharrak behar besteko zehaztasunez aurreikustea zaila denez, dimentsionamenduaren halako haztapen batzuk egitera jo dugu, eskualde-hiriaren neurriaren, sektore jardueraren, demografiaren aurreikuspen eta etorkizuneko joeren, azken aldian eskaerak izandako batez besteko erritmoaren eta beste hainbaten arabera. Datu horien guztien arteko kontrasteak 25 hektareako eta 50 hektareako behar zorrotzen* arteko urkila bat ematen du.

Osterantzean, jarduera ekonomikoetarako lurzoru publikoa sortzeko LAPek -honek ez du Adunako Erriberako poligonoa (22 ha) jasotzen egun dauden lurzoruen artean- 65/115 hektareako urkila batean kokatzen ditu aipatutako behar horiek; Tolosalderako egiten duen kuantifikazio orokorra 310/350 hektareakoa da 2020ra begira, eta lurzoria sortzeko jarduketa publikoei dagokienez honako jarduketa hauek planteatzen ditu:

- Apattako eskualdeko poligonoa.
- Eskualdeko industrialde berria Adunako ibarrean (15/25 ha)
- Eskualdeko industrialde berria Tolosaldean (15/25 ha)

Ondoren bi taula aurkezten dira, planean kontuan hartutako ezarpen nagusiak eta Ereduaren dimentsionamendu orokorraren laburpena azaltzearen hurrenez hurren.

Ezarpen nagusiak honela banatuko dira:

Udalerria	Azalera (ha) huts kalifikatua	Azalera (ha) huts kalifikatu GABEA	Azalera (ha) hutsa GUZTIRA
Aduna	21	-	21
Oriaren ibarra, Anoeta/Villabona	-	16	40 ** (16)
Apattaerreaka (Tol-Ibar-Leab)	15	-	15
Tolosa-Ibarra hegoaldea	-	20	50 * (20)
GUZTIRA	36	36	126 (72)

** Beste jarduera batzuekin partekatutako beharreko lurzoria

* Ikus 125. Orrialdeko oharra. Gainera, edonola ere, lurzoru merkatuak modu eraginkorrean funtzionatzeko behar beste lurzoru beharko litzateke, eta etorkizuneko planei aurre egiteko moduko erreserbak eduki.

38. taula. Ereduaren dimentsionamendu orokorraren laburpena

Azpi- eskualdea	Egun kalifikatu GORDINA	Egun kalifikatu okupatua	Egun kalifikatua HUTSIK	Egun kalifikatu BIDERAGA RRIA	Ez kalifik. huts POSIBLEA	HUTS BIDERAG ARRIA GUZTIRA	GORDIN BIDERAG ARRIA GUZTIRA
VILLABONA	148	105	43	30	21	51	156
TOLOSA.	187	150	37	24	4 + 20	28 + 20	198
GUZTIRA	335	255	80	54	25 + 20	99	354

Gainerako erreserbak (26 ha baino gehixeago) 2 ha inguruko eremuetan eta txikiagoetan banatzen dira. Horietako batzuk industria-pabiloiak ezartzeko (baita edozein urbanizazio-motatarako ere) ezaugarri fisiko edota ingurumen-ezaugarri desegokiak dituzten espazioetan daude.

LZPko proposamenak 354 hektare bideragarriko dimentsionamendu orokorra ezartzen du, 100 ha huts pasatxo direla datorren 16 urteetan jarduera ekonomikoetarako lurzoru politika garatzeko esparrua.

Ereduan, ezarpen estrategikoetarako ezaugarri onak dituzten hiru eremu behintzat aurreikusten dira: Adunako ibarra, Villabona-Anoetako ibarra, Apattaerreaka eta Tolosa-Ibarraren hegoaldeko ingurua. Gainera, neurri ertaineko (5 ha) lurzoru libreko poltsa txiki batzuk jasotzen ditu Villabona, Asteasu, Tolosa eta abarretan; horiek ere erabil litezke, prestatu, urbanizatu, eskaini eta jarduera sustatzeko.

Oro har erreserbek, 100 ha ingurura iristen diren eremu libre txikiez, behar besteko marjina ematen dute, gure iritziz, Planaren horizontean eskaeraren ezaugarri aldakorretara egokitzeko eta lurzoru publikoa sortzeko politika finkatzeko.

3.5.4. UDALAZ GAINDIKO EKIPAMENDU SISTEMA ETA ESPAZIO LIBREAK

LALek dioenaren arabera, udalaz gaindiko hiri izaerako ekipamenduen antolaketak LAP maila izango du. Izan ere, kasu batzuetan eta ekipamendu jakin batzuei dagokienez, antolaketa horren lurralde eraginak gainditu egiten du eskualde bakoitzaren esparrua. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren sailen edo foru aldundietako departamentuen eginkizuna izango da lurraldearen arloko plan horiek garatzea.

Bestalde, 6/94 legeak, turismoaren antolamenduari buruzkoak, turismoko baliabideak eta azpiegiturak antolatzeko bi plangintza-tresna aurreikusten ditu: Lurraldearen Arloko Plana eta Eskualdeko Plan Estrategikoak, hain zuzen ere. Lehenengoari dagokio turismo-baliabideak antolatzea eta EAEko Turismo Garapeneko Eredua definitzea; eta, bigarrenari dagokio, berriz, eskualde mailan garatzea, betiere eskualdea turismo-eskualdetzat sailkatu eta ondoren.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, gaur egunera arte sail bakoitzak dagozkion ekipamenduak antolatu ditu, bakoitzak bere lurralde-hipotesiak eta sektore izaera hutseko irizpideak eta helburuak aplikatuta.

Alabaina, lurraldea erabiltzeko jarraibideak definitzeko orduan elementu egituratzaile eta kalifikatzailea izaki, Ekipamendu Sistemaren Antolamendua lurralde eredua konfiguratzeko garrantzi handiko tresna da.

Hori guztia dela eta LZPak, antolamendu tresna integratua izaki, erreferentziazko esparru orokor bat eskaintzen die aurreko guztiei, eta lurraldean garatzen diren prozesuen gaineko ikuspegi integratzailea, alorreko politikak planteatzen diren lurralde helburuetan txertatzeko eta jarduera hitzartu eta programatu orori darizkion sinergiak baliatzeko.

Tolosaldeko Ekipamendu Sistemaren diagnostikoa, bere berezitasun guztiekin, hiri ertainen sistemako beste eremu funtzional guztien eta hiri ertainen sistemako burutzen diagnostikoaren antzekoa da, eta ezaugarri hauek ditu:

- Lurralde banaketa orekatua, izaera lokaleko ekipamenduak lurraldean oso banatuta daudela eta udalaz gaindikoak nagusiki burutzetan biltzen direla.
- Eremuko udalerrietako askoren neurri txikia dela eta, ez da bikoiztasun arazorik ez ekipamenduen arteko osagarritasun falta apartekorik detektatzen (beste eremu funtzional batzuetan ohikoak dira); dena den, udalerrri txiki horien mendekotasuna agerikoa da, gune handiekiko, oinarrizko hainbat zerbitzuri dagokionez.
- Hirugarren sektoreko ekipamenduari eta gizarte ekipamenduari dagokienez gabeziak, eta, esparru batzuetan, burutzek osatzen dituzten Hiri Eremu Integratuen mailari legokiokeen ekipamendurik eza.
- Ekipamenduak banatzeko parametroak landa ingurunearen ezaugarri

espezifikoetara ez egokitzea; ondorioz, landa ingurunean dauden hornidura eta azpiegiturak eskas geratzen dira.

3.5.4.a Lurralde irizpideak eta helburuak

Aipatu testuinguruan, eta adierazitako muga eta disfuntzionaltasunetatik abiatuta, LZPak planteatzen duen Eremu Funtzionaleko Ekipamenduen eta Espazio Librean Sistemak honako irizpide eta helburuak ditu oinarri:

- Berrekipamenduko eragiketa berrietarako esku-hartze irizpide orokorrak eta esparru egokiak adieraztea -hutsune nagusien arabera eta ikuspegi orokorretik-, proposatutako beste ekintza batzuekin eragin sinergikoak lortzearen.
- Ekipamenduen banaketa orekatuaren bidez ahalbidetzea hirigune nagusiek, ertainek eta landa inguruan dauden txikiek osatzen duten hiri sistemaren kohesioa.
- Burutza-sistemako hiriguneen integrazio formal eta funtzionala bultzatzea, birkalifikazio estrategiak baliatuz, hiri-eginkizun berriak atxikiz eta eginkizunok duten maila igoz.
- Landa-eremuetako eta ingurune naturaleko ekipamenduak integratzea, landa-eremuen garapenaren aldeko estrategia orokor baten barruan, horien gainbehera saihestearren, hainbat ekimen hartuz bere baitan: ingurumenaren babesa eta hobekuntza, irisgarritasunaren hobekuntza, lurralde-berrekipamendua eta, hala badagokio, bizitegi-eskaintza.

Arrazionaltasuna, hierarkizazioa, osagarritasuna eta, kasu jakin batzuetan, zentraltasun eta kualifikazio espaziala bezalako irizpideei erantzun behar die ekipamenduen antolamenduak eta kokapenak.

Edukiek hainbat eduki dituzte integratuta, gune txikiak eta landa-inguruan kokatutakoak berrekipatzerako, aisiaren kulturak sorrarazi dituen premia berriak asetzerako eta, azkenik, ingurune naturalaren eta paisaiaren balioak gizarte-aktibotzat jotzerako eta lurraldearen erabilera estentsibo, bigun eta kontrolatuarekin bateragarri egitera bideratuak.

3.5.4.b Ereduko ekipamenduak

Izaera orokorrarekin, Ereduak hiri-ekipamenduak eta natur inguruneko ekipamenduak bereizten ditu. Guztiak 04 planoan ikus daitezke, Udalez gaindiko Ekipamenduen eta Espazio Libreen Sistema izenekoan.

Hiri ekipamenduak.

Multzo honetakoen kasuan, lurralde mailan garrantzi handia edota garrantzi funtzional handia duten ekipamenduak bereizten ditu Ereduak, kokatzen diren lurzoruaren kontsumitzaile gisa edo kokatzen diren ingurunearen birkalifikatzaile gisa, eta hezkuntza, kirol, osasun-laguntza eta kulturako ekipamenduak bereiziz horien artean.

Gaur egungo egoeraren analisisian ikusi den bezala, Eremu Funtzionalean mota honetako ekipamenduen maila onargarria bada ere, badaude eskari jakin batzuk, eta horietako asko neurri handiagoan dagozkio gizarte-politikari eta zerbitzuen antolakuntzari lurzoruaren alderdiei baino.

Lehenengoan artean, dena den, Lurralde Eredua definitzeko pisu handi samarra duen gabeziaren bat antzematen da, esate baterako, osasun-laguntzaren alorrean, Eskualdeko Ospitale bat edo, behintzat, espezialitate zentrorik ez izatea, gaur egungo eskaintza pribatuari nahikoa ez dela irizten baitzaio.

Bigarrenen artean, gizarte laguntzaren arloan, hirugarren adinarentzako zuzkidurak zabaltzeko beharra planteatzen da, eremuan eta, bereziki, landako biztanleriaren kasuan ikusten den zahartze maila orokorra dela eta. Aipatutako zerbitzuen kasuan, LZPak ez du kokapen zehatzik aurreikusten. Gainera, egoitza-plazez gain, etxeko arretako zerbitzuak ere barne hartzen dira. Guztien kasuan, eta landa ingurunean bereziki, esku hartzeko irizpideen artean, horrelako politika baten pertsona onuradunak dagokien ingurunean bertan laguntzeak duen garrantzia azpimarratuko da.

Kirolari dagokionez, Berazubi estadioak eta azken urteotan Usabalen eta Villabonan hurrenez hurren prestatutako instalazio berriek gaur egungo eskariak asetzen dituztela dirudi, baina ongizatearen eta aisiaren gizarte baten helburua aintzat hartzen badugu eta, batez ere, ekonomiaren alorrean gurearen parekoak diren beste herrialde batzuetan dauden ekipamenduak ikusita, guztiz logikoa izango litzateke beste konplexu bat gaitzea

-egunero aritzeko eta entrenatzeko pentsatua lehiarako baino gehiago- Tolosako erdigunearen eta Oria ibaiaren ardatz estrategikoaren artean dauden esparruetan.

Hezkuntzaren eta lanbide-heziketaren arloko eskariak plangintzan zentratzen bide dira instalazioetan edo lurzoruan baino gehiago. Ildo honetatik, planaren bitartez gaur egun ekoizpen-ekimen berrietara lotutako prestakuntza-zentroak eta I+G zentroak zabaldu, sustatu eta hobetu nahi dira.

Merkataritza eta banaketaren arloari eragiten dio, ez dago zalantzarik, Donostialdean martxan jarritako salgai handien kopuru handiak. Hori dela eta, azken urteotan galdu egin du indarra, eta horrekin batera Tolosaren zentraltasuna ere ahulduta geratu da.

Tolosaren hiriburutza-maila mantentzeko eta areagotzeko helburuekin bete-betean bat dator merkataritza garatzeko eta hobetzeko planak egitea, merkataritza-egiturak modernizatzeko eta egoera berrira egokitzeko, European alor honetan jorratzen ari diren eredu berriei jarraiki; izan ere, badirudi ezen egungo zentraltasuneko zonak finkatzera jotzen dutela, betiere alde zaharrak eta hurbileko espazioak biziberritzeko estrategiarekin bat eginik, merkataritzak eginkizun garrantzitsua betetzen baitu espazio horiek guztiak finkatzeko unean.

Gaur egun, kultura eta aisia oinarrizko alderdiak dira hiri eremuen baloraziora begira, eta elementu interesgarriak halaber Tolosaren betiko zentraltasuna sendotzen lagundu dezaketen planak garatzera begira. Zentzu horixe izango lukete kultur instalazioen eskaintza arrazionalizatzeko eta modernizatzeko ekimenek; izan ere horiek, esate baterako, liburutegi zentralizatua eta ikasteko espazioak izango lituzkeen zentzora bidera litezke, edo dantza eta antzerkia praktikatzeko eta esperimentatzeko zentzora, edo eremu funtzionalaren mailako beste batzuetara, herrian egiten diren eta hiriguneko hirugarren sektorea indartzen laguntzen duten era askotako lehiaketa eta ekitaldi kulturalen euskarri izan daitezten.

Landa eremuetako eta natur inguruneko ekipamenduak eta azpiegiturak.

Ekipamendu berrien bidez lurraldea birkalifikatzeko estrategia bat ezin da, noski, hiri eremuetara mugatu, eta landa ingurura ere iritsi behar du, lehenaren osagarri gisa. Hasteko, landa ingurunean dauden guneen ezaugarri eta beharretara egokitutako zuzkidura landu behar du.

Bigarrenik, hirietako biztanleriak landa ingurunean aisialdia garatzeko jarduera eta espazio gero eta gehiago eskatzen dituela baliatuta, eta landa garapenerako programekin bat eta horiek ezartzen dutenaren ildotik, eremuko beste baliabide endogeno batzuk (natur ondarea, arkeologikoa, historikoa eta kulturala) erabiltzera bideratutako estrategia bat planteatzen da, elementu horiek ekonomia dibertsifikatzeko baliabide-iturri berriak sor baititzakete, lurraldean lehen sektoreko jarduerak zein biztanleria bera mantentzea bermatzen laguntzearekin batera.

Tolosaldea oso balio paisajistiko handiko eskualdea da. Parke natural bat du, ingurumen kalitate handi-handiko Leitzaranen harana, ia-ia gizaki arrastorik gabea eta hiri eremuetatik oso hurbil dagoena bera, eta baita ondare balio ukaezinekin beste hainbat elementu ere, eta horiek guztiak baztertu ezindako baliabidea eta aukera dira, zonaren ekonomia dibertsifikatzera begira.

Landa ingurunea dinamizatzeko estrategia honek -barnean hartzen ditu, halaber, turismoa eta lurraldeaz disfrutatzea- hotel eskaintza handitzea eta espezializatzea eskatzen du, oinezkoentzako bide eta ibilbide berriak sortzea, egun daudenak hobetzea eta seinaleztatzea, eta laketerako eremuak handitzea, hierarkizatzea eta antolatzea.

Jolas-eremuak eta ingurumen ibilbideen sarea dira lurralde berrekipamendurako proposamenaren oinarritzko elementuak.

Aisialdiko eremuak.

Aisialdiko eremuak dira ingurune naturaleko aisia eta atsedenerako eskaintzaren erreferentziako elementu. Beren ezaugarrien arabera honako tipologia hauek dituzte: Eskualdeko jolas-eremuak, jolas- eta aisialdi-eremuak, eta espazio naturalak eta beste barrendegi interesgarri batzuk.

- Eskualde mailako aisialdiko eremuak

Eremu hauek biztanleriaren berehalako aisia- eta jolas-eskariak asetzea dute xede eta, horrenbestez, gutxieneko egokitzapena eta ekipamendua behar dute. Kategoria honetan Leitzaran harana sartzen da; bertan, orain hasi dira kultura eta jolas ekimenak gauzatzen eta ingurunearen babesa aintzat hartu beharko dute.

- Aisialdi eta atsedenerako eremuak

Lurraldeko gunee berezietan kokatzen dira, gehienetan eremu funtzionala mugatzen duten mendien gailurrak lotzen dituzten lerroetan. Eremu hauetan paisaiari begiratzea eta natura ezagutzea eta horretaz gozatzea dira jarduera nagusiak.

Ia-ia ez dute azpiegiturarik ez ekipamendurik, harrera-zonan biltzen baitira nagusiki, eta horretatik abiatzen diren desplazamenduak eremuaren ingurumen ezaugarrietara egokitu behar dira.

Honako eremu hauek dira kategoria honetakoak:

- *Erroizpe-Uli*, ekialdean, Berastegi eta Lizartza artean.
 - *Uzturre-Txaragan*, Tolosaren ipar-ekialdean.
 - *Urdalar-Ipuliño*, Berastegitik iparraldera.
 - *Ezkatxu*, iparraldeko muturrean.
 - *Hirumuino-Zarate*, Asteasuren ipar-mendebaldean.
 - *Intxur*, mendebaldean, Albiztur ondoan.
- Naturaguneak eta beste enklabe interesgarri batzuk

Erabileren intentsitateari begiratuta, hirugarren mailari dagozkio esparru hauek, baina gero eta bisitari gehiago erakartzen dituzte eta, horrenbestez, turismo-jarduera espazio hauen babes eta kontserbazioarekin bateragarriak diren mailetan mantendu behar dira.

Kategoria honetakoak dira: Aralarko parkea, Hernio-Gatzume, eta Jazkugañe eta Basabe.

Ingurumen ibilbideen sarea

Herrigune nagusiak lurralderako sarreraguneekin eta proposatutako jolas-eremuekin lotzen dituen ibilbideen sistema integratua da. Interes naturala, paisajistikoa, historikoa, ondarekoa eta jolaserakoa duten lurraldeko elementuak lotzen ditu sistema horrek.

Sare honetan honakoak sartzen dira -ibilbide gehiago sartzeko irekita dago-: tokiko sarbide sare nagusiko oinezkoen pasealekuak eta "bidegorriak", tokiko bigarren mailako sarbide sarearen gaineko ibilbide bigunak, landa-bideak, bidezidorrak eta bidexkak. Behar diren ekintzak sinpleak dira: egokitzea, garbitzea, seinaleztatzea, etab.

Natur inguruneko beste ekipamendu batzuk.Udalaz gaindiko parkeak.

Izaera hiritarragokoak eta batik bat hirigune nagusien –Tolosa-Ibarra eta Villabona-Zizurkil– kanpoaldean kokatuta, erabilera intentsiboagora egokitutako ekipamenduak behar dituzte.

Lurralderako sarreraguneetako ekipamendu bereziak.

Guneak lurraldearen balioekin zerikusia duten eta turismo erabilerari lotuta dauden kultura, ingurumen eta aisia arloko jardueren euskarri gisa betetzen duen eginkizunari dagozkion ekipamendu-eragiketak bereziak.

Honakoak jotzen dira halakotzat:

Alkiza, Bidania-Goiatz, Berastegi, Amezketa eta Abaltzisketa.

Lurraldeko sarreragune berezietako azpiegitura bigunak.

Instalazio eta zerbitzu txiki eta zainduak izango dira, ingurune naturalaren gertuko bide saretik hurbil dauden guneetan edo oinezkoentzako ibilbideetan kokatuak, hala nola Larraitz, Urto, Amezketa-San Martin, Bidania-Errezil eta Andazarraten daudenak.

Bainu, aisia eta atsedenerako eremuak.

Eskualdeaz gaindiko instalazioak, "barrualdeko hondartzen" moduan sortuak, paisaiako lehentasuneko lekuetan kokatuak baina organikoki horri lotuak eta ikusmoldez neurritsuak.

Hainbat kokapen aukera posible planteatzen dira Bidania-Goiatz eta Amezketako inguruetan.

3.6. ERAGIKETA ESTRATEGIKOAK ETA PLANGINTZAK BATERAGARRI EGITEA.

LZP hau garatzeko tresnen estrategiak eta programak orientatzeko helburuarekin (Udal Hirigintza Plangintza eta plan bereziak funtsean), eta Arloko Planak orientatzeko helburuarekin, ondorengo lerroetan adierazi dira proposatutako eredia erdiesteko beharrezkoak diren jarduera estrategikoak. Era berean, jarduera horiek guztiak edo agiri honetan proposatutako beste jarduera batzuk behar den bezala garatzeko udalerrietako plangintzetan egin beharreko egokitzapenak adieazi dira.

3.6.1. ERAGIKETA ESTRATEGIKOAK

Zentraltasunak indartzeko eragiketa orokorrak

Tolosa-Ibarra gunearen lerruna mantentzeko eta igotzeko, bi ekintza mota osagarri proposatzen dira, bai burutzak eremuaren testuinguruan duen zentraltasuna sendotzeko bai egungo konurbazioko guneen artean egitura-integrazio formal egokia lortzeko, bai Gipuzkoako hirien sisteman lortu nahi den lerrunaren araberako hiri-eginkizunak hartzeko.

- Villabona-Anoeta ibarraren antolaketa, jardun integratu multzo baten bidez. Jardun multzo hori hiri eta ingurune kalitate altuko espazio bat lortzera dago bideratuta, azpiegitura-euskarri berritu batean zehar betiere, burutzen arteko espazio funtzionala egituratu, burutzen arteko harremana bultzatu eta Tolosa-Ibarraren zentraltasuna sendotzearen.
- Tolosa-Ibarra gunea suspertzea, horretarako eraldatze, esparru urbanoetarako birsortze eta hornidura eta zerbitzuak atzera zuzkitzeko ekintza konbinatuak baliatuta. Ekintza hauen artean nabarmendu egiten da Tolosa-Ibarrako hegoaldeko esparruaren eraldaketa eta antolaketa integratua, honen egituraketa eta kalifikazio funtzional eta espaziala jasoz horretan; izan ere, hirugarren sektoreko jarduera ekonomikoak, zerbitzukoak eta antzeko beste batzuk hartzen baditu ere nagusiki, hiri eremu periferikoak ere hartzen ditu. Beste ekintza batzuk udal mailaz gaindiko espazio libre eta hornidura-espazioetara bideratu beharko liriateke.

Erlazio sistema.

- Gaur egun N-1 autobioako igarotze-trafikoak eta hiriguneetara eta industria-eremuetara sartzekoak elkarren gainean jartzen dituen bide sistema argitzea, bi sistemak bereiziz, bide sistema orokorra eta hiriarteko konexiokoa alegia.

Bi jardun mota eskatzen ditu horrek:

- N-1 errepidearen gaineko esku-hartzeak, gutxienez loturak eta bidegurutzeak berrantolatzeke eta N-1erako sarbideak kontrolatzeko Villabona eta Irura artean, bidearen beraren zabaltzeko aukera baztertu gabe.
- Hiriarteko konexio sistema berri bat proposatzea, egungo hiri jarraitasunaren hausturak konpontzea jasoz horretan.

Bigarren proposamena garatzeko, LZPak estrategikotzat jotzen du Aduna-Ikaztegieta ardatza berreskuratzea, honek hiri-erlaziorako betetako eginkizunekin batera; eta, horretarako, ekintza hauek proposatzen ditu:

- Egungo N-1 errepidetik Oria ibaiaren ezkeraldera sartzeko aukerak hobetzea.
 - Villabona-Anoeta arteko ibaiaren ezkeraldetik zeharreko bide lotura garatzea, eta lotura hau tokiko sarbide sare nagusian txertatzea.
 - Tolosa-Alegia hiri jarraitutasuna berreskuratzea.
- Tokiko sarbide sare nagusiko komunikazio-bideak pixkanaka eraldatzea eta hiri jarraikortasun ardatz bihurtzea, burutzen eta inguruko herriguneen arteko konexioak indartzeko. Hiri zentraltasuneko ardatz edo hiri arteko artikulazio-ardatz bihurtuko dira, bakoitzari dagokion esparruaren arabera.
 - Txirrindulari eta Oinezkoentzako Ibilbide Sare bat sortzea, hiriarteko bat zehazki, ereduaren bide egitura osoaren parte izan dadin.
 - Berastegi-Tolosa-Azpeitia-Elgoibar zeharkako ardatz historikoaren baldintza tekniko-funtzionalak hobetzea, eta bereziki Tolosaren eta Nafarroako autobioaren arteko Berastegin zeharreko konexioa hobetzea eta Ibarra eta Elbarrenako saihezbideak osatzea, Tolosa-Ibarra Hegoa eta Villabona-Elbarrena esparru estrategikoen antolaketan txertatuz horiek, hurrenez hurren.

- Trenbide sare berria eraikitzea.
- Adif-Renferen trazadura hobetzea Villabona-Zizurkil geltokiaren eta Anoetakoaren artean, hiri egitura berrian txertatzearen Villabona-Anoetako ibarreko espazioak.
- Tolosan geltoki intermodal bat egitea.

Lurzoru politika. Jarduera ekonomikoak.

- Adunako ibarreko espazio hutsak jarduera ekonomikoetara zuzendutako lurzoru gisa garatzea, kalitateko, integrazioko eta hiri jarraitutasuneko irizpideei jarraiki eta urbazterretako ingurumen-balioak errespetatuz. Irizpide berberak jarraitu beharko dira esparruaren iparreko parteko HUAren kasuan.
- Apattaerreka eremuaren sustapen publikoko eskualdeko poligono gisako garapena burutzea.
- Villabona-Anoetako ibarreko esparru hutsa garatzea, bizitegiarekin bateragarriak diren erabilera mistoak sartuz eta zerbitzu sektoreari eta zuzkidura publikoei lehentasuna emanaz.
- Tolosa-Ibarrako hegoaldeko esparrua garatzea, zerbitzu sektoreko erabilerak sartuz, lurzoruaren baldintzetarako tipologia aproposak erabiliz eta ingurumen-kalitateko irizpideak gehituz, bere hiri-integrazioa alde batera utzi gabe.

Lurzoru politika. Bizitegi-erabilerak.

- Villabona-Anoetako ibarreko esparru hutsa, erabilera mistoko lurzoruei dagokiena, garatzea, hiri konfigurazioaren elementu nagusi gisa, eta nagusi eginez horretan -ez ordea modu eskusiboan- bizitegi-erabilera.
- Villabona, Zizurkil, Anoeta, Ibarra eta Tolosako udalerriak hazkunde selektiboko udalerrizat hartzea.
- Villabona-Elbarrena multzoa eta Tolosa, Ibarra, Anoeta, Irura eta Alegiako udalerriak babespeko etxebizitzak garatzeko lehentasuneko interesekotzat jotzea.

Ekipamendu eta espazio libreen sistemak.

- Tolosa-Ibarra burutza birkalifikatzeko eta duen lerruna igotzeko berrekipamendu jardunak.
- Lurraldera sartzeko guneetako berrekipamendu jardunak.
- Aisialdi eta atsedenerako eremuak eta Ingurumen Ibilbideen Sare Nagusia.

Oinarrizko zerbitzu-azpiegituren sistemak.

- Saneamenduari, edateko uraren hornidurari eta telekomunikazioei buruzko arloko planak eta proiektuak gauzatzea, LZPeen uholdeak prebenitzeko adierazita dauden gainerako jarduketak bezalaxe.

Ingurune fisikoa.

- Babestu, hobetu edota leheneratu beharreko eremu berri gisa definitutako esparruak, gaur egungo naturgune babestuen osagarri izango direnak, deklaratzeko edo mugatzea.
- LZP honen garapenerako planak, ekintza positiboko neurritzat hartuak eta Ingurune Fisikoan Jarduteko Proposamenetan adieraziak, prestatzea, dagozkien programa eta ekintza osagarriekin batera.

3.6.2. PLANGINTZAK BATERAGARRI EGITEA

Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko lurralde ereduaren biltzen diren proposamen guztiak antolatzean, honako udal plangintzak eta plangintza bereziak egingo dira bateragarri:

- Tolosako eta Ibarako hiri-plangintza

Bi udalerrri hauen hegoaldeko esparruaren antolaketarako.

Lurzoruen kalifikazio generikoa, proposamen tipologikoak, ekipamendu eta bide trazadurak, Tolosa-Ibarra hiri-konexioen berrantolaketa, Apattako poligonoaren integrazioa, bideratzeak, etab.; hauek guztiak dira Tolosa-Ibarra hiri eremuaren integrazioarako eta burutza-hiria sendotu eta duen lerruna igotzeko funtsezkoa den esparru bat formalizatu eta kohesioz hornitzeko koordinatu eta bateragarri egin behar diren elementuetako batzuk.

- Villabona eta Zizurkilgo hiri-plangintza

Villabona eta Elbarrena arteko lotura berrantolatzeko eta Aduna-Elbarrena-Anoeta-Tolosa ardatzaren egituraren txertatzeko, Villabona eta Zizurkil udalerrriak Oriaren ezkerrean lotzeko, Villabona-Zizurkilgo geltokiaren ingurua eta udal mailaz gaindiko parkea eraldatzeko, eta Fraisoro ingururako.

Lurzoruen birkalifikazio orokorra, esparru eraikien integrazioa, lehen mailako banaketa-sarearen eta toki mailako bide sarearen trazadurak eta loturak, tipologia eta erabilera proposamenak, ibaiertzak leheneratzea eta tratatzea, bideratzeak, etab.; hauek guztiak elkarrekin aztertu beharreko alderdietako batzuk dira, bateragarri egin beharreko batzuk, gaur egun gutxiegi erabiltzen den hiri espazio bat birkalifikatzeko eta berreskuratzeko, oso garrantzitsua baita bai Elbarrena auzoko egitura-definizioz ezaren arazoak konpontzeko bai hirigune biak pixkanaka egituratzeko.

- Villabona, Zizurkil, Anoeta, Irura eta Tolosako hiri-plangintza

Oria ibaiaren ardatzean garapen estrategikoko esparrua antolatzeko.

Villabona-Anoetako ibarraren antolaketak -esparru honetan sartzen dira Oria ibaiaren ezker aldeko haran hondoko lurzoruak eta aldameneko lurzoruak eskatzen du Zizurkil, Villabona, Anoeta eta Irurako udalerrietako plangintzak koordinatzea; era berean, Tolosako udalerriak parte hartzea ere komeni da.

Aipatutako udalerrietako plangintzak koordinatu behar dira, makina bat alderdi definitu nahi bada: lurzoruen erreserba, errepide-azpiegitura nagusietarako egokitzapena, tokiko sarbide sare nagusiaren kontzepzio eta izaera unitarioa, etorbideekin, espaloi eta oinezkoak-txirindulariak batera ibiltzeko esparruekin, zortasunekin, ibaiertzen tratamenduekin, eta abar.

- Asteasu eta Zizurkilgo hiri-plangintza

Aiztiondo haranean aurreikusten diren kokalekuak eta azpiegiturak antolatzeko.

ERANSKINA

MONUMENTU MEGALITIKOAK ETA HAITZULOAK

Albiztur	Hernalde
613 Aitzetako haitzuloa.	590 Aizkoateko haitzuloa
583 Beondegi I haitzuloa.	Lizartza
584 Beondegi II haitzuloa.	081 Axurdarioko trikuharria
643 Beondegi III haitzuloa.	Tolosa
653 Kobaldeko haitzuloa.	079 Añiko trikuharria
Alkiza	Villabona
218 Itxuraingo tumulua.	188 Itxupeakako tumulua
642 Belako Arcaísta I haitzuloa.	Zizurkil
603 Belakum II haitzuloa.	128 Zarateko Bentako trikuharria
604 Belakum III haitzuloa.	610 Lepasoroko haitzuloa
589 Olatzazpiko haitzuloa.	Enirio-Aralar mankomunitatea
666 Zopite I haitzuloa.	056 Aranzadiko trikuharria
667 Zopite II haitzuloa.	057 Arraztarangañako trikuharria
Altzo	184 Arrubiko monolitoa
080 IPagoaundiko tumulua.	180 Atauru Gañeko monolitoa
Amezketá	070 Baiarrateko trikuharria
077 Larrondoko tumulua.	073 Beaskin tumulua
078 Urritzako trikuharria.	208 Beaskin I harrespila
582 Urdanaize Azpiko haitzuloa.	076 Igaratzako tumulua
Asteasu	186 Igaratza II harrespila
122 Otagaingo trikuharria.	187 Igaratza III monolitoa
123 Otagaingo trikuharria.	075 Igaratza I-ko trikuharria
Belauntza	074 Igaratza H-ko trikuharria
586 Sorginzuloko haitzuloa.	212 Irazustako Lepoko monolitoa
Berastegi	058 Jentillarri monolitoa
146 Abade Kurutzeko harrespila*	059 Jentillarri trikuharria
083 Beibatariko tumulua.	069 Labeoko trikuharria
082 Gorosmendiko trikuharria.	185 Ontzanburuko tumulua
Elduain	210 Pagabe I tumulua
142 Altxistako harrespila.	211 Pagabe II tumulua
143 Altxistako trikuharria.	181 Pontoa I tumulua
085 Basaburuko trikuharria	182 Pontoa II tumulua
086 Belabieta Txikiko trikuharria	206 Pontoa III tumulua
144 Etzelako harrespila.	207 Pontoa III tumulua
183 Etzela M-ko harrespila.	055 Saltarri monolitoa
013 Etzelako Arritxuak harrespila.	061 Supitaitz monolitoa
145 Etzelako Txokoko tumulua *.	065 Uelogoena I-ko trikuharria
087 Loako trikuharria	064 Uelogoena H-ko trikuharria
214 Loa I tumulua	062 Uidui trikuharria
084 Moako tumulua	060 Uidui II trikuharria
141 Otsolepoko trikuharria	063 Zearragoenako trikuharria
Leaburu-Gaztelu	595 Aitzbitarte II haitzuloa
079 Añiko trikuharria	596 Aitzbitarte III haitzuloa
585 Txispiriko haitzuloa	597 Aitzbitarte IV haitzuloa
	598 Aitzbitarte V haitzuloa

* (desagertua edo ez aurkitua)

C DOKUMENTUA

EKONOMIA ETA FINANTZA AZTERKETA
ETA GAUZATZEKO PROGRAMA

EKONOMIA ETA FINANTZA AZTERKETA

EKONOMIA ETA FINANTZA AZTERKETA

Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planaren xedea, behin eta berriz adierazi den moduan, LAAek jasotzen duten lurralde eredua Tolosaldeko eskualdean interpretatzea, definitzea eta garatzea da. Horretarako hainbat estrategia, irizpide, arau eta ekintza proposatzen ditu, egungo egoeratik proposatzen den lurralde eredurantz jo ahal izatearren.

Dokumentu honen xedea Planean jasotzen diren jardura estrategikoen balorazio ekonomikoa egitea eta horiek parte hartzen duten eragileei esleitzea da.

Ez da batere lan erraza lurraldearen zatiko planak proposatutako jarduketa-multzoaren finantza-kostuak zehaztea. Zeregin horrek hainbat zailtasun ditu, ondoren azalduko ditugun arrazoiak direla medio.

Batetik, planak bere baitan bildu ditu jada programatuta dauden, aztertzen ari diren eta zenbaitetan gauzatzen ari diren hainbat azpiegitura eta zerbitzuren inguruko jardunetako batzuk. Hori dela eta, zaila da zehaztea horiek planari egozteko egokia den edo ez. Bestetik, proposatutako ekintzetako askok LZP honen ezaugarriak dituen plan batean nekez adieraz daitekeen sakontasun eta garapen maila eskatzen dute. Bada, begi bistakoa da erabat beharrezkoak direla agiri honetan proposatzen diren ekintzetako batzuk (adibidez, ingurune fisikoari begiratuta, babesteko, kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak, leku babestuetan lurzorua erosteko premia, programa pilotuen egokitasuna, ekimen pribatuaren parte hartzearen maila eta abar) zehaztuko dituzten lurralde planak eta garapen programak.

Alabaina, bada adieraztea komeniko litzatekeen beste alderdi bat ere: batetik, proposatutako jardunetako askok harremanak dituzte beren artean eta askotan batzuek besteen mendeko izaten dira eta, bestetik, horietako gehienek sail baten baino gehiagoren (eta batzuetan hainbat administrazio erakunderen) esku-hartzea eskatzen dute (bizitegitarako edo ekonomia-jardueretarako lurzoruen multzo handiak sustatzeko, adibidez, bideragarritasun orokorraren, zerbitzu azpiegituren eta abarren inguruko lanak egin behar izaten dira). Horrenbestez, arazo bat planteatzen da, sail baten edo beste baten gainean zein mailatan ezarri behar diren ezartzeko unean. Egoera hori are konplexuagoa da ekimen pribatuak parte hartzen duenean, horrelakoetan ez baitira denak ekarpen publikoak izaten (Villabona-Anoetako ibarraren antolamendurako

proposamenaren kasua paradigmaticoa da horri dagokionez, ugariak eta garrantzitsuak direlako eragiketa hori gauzatu ahal izateko egin beharreko lanak).

Hori guztia kontuan izanik, komenigarria litzateke azterlan honetako emaitzak “gutxi gorabeherako zenbatekoen ordenatza” jotzea.

Ondorengoak izan dira ekonomia eta finantza azterketa prestatzerakoan kontuan izan ditugun irizpideak:

- Oro har ekimen pribatuak ordainduko dituen ekintza edo eragiketak bakarrik adieraztea erabaki dugu (horri dagokionez salbuespen direnak ondoren adieraziko ditugu), nahiz eta inbertsioetako batzuk lehenengoetatik abiatuta ekimen pribatuak egin ditzakeen eragiketei egotzi.
- Gainera, proposatutako antolamendurako lurralde eremuan barne hartutako jardun guztiak adieraztea erabaki dugu, horiek programatuta eta, horrenbestez, baloratuta egon edo gauzatu aritu. Horrelakoetan, izartxo (*) bidez adierazi ditugu eragiketa horiek eta zuri utzi dugu balorazioei eskainitako tartea. Horixe da Aralarreko parkearen, Leitzarango biotopoaren eta BILen kasua, eta Hernio-Gazume, Oria ibai eta Araxes ibaiarena ingurune fisikoari dagokionez; trenbide sare berriarena eta ekintza puntual batzuen garraio eta komunikazio sistemari dagokionez, eta Apataerrekako poligonoaren handitzearena jardura ekonomikoetarako azpiegiturei dagokienez.
- Horixe bera egin dugu azpiegiturei eta zerbitzu sareei dagozkien planen kasuan ere. LZPa osorik egin ditu bere eta ez du horien alternatiba garrantzitsurik proposatu.
- Kasu batzuetan ezinbestekotzat jo da planak eta garapen programak egitea, nahiz eta horiek ez diren ondorioztatzen izapideak egiteko aldian dauden lurraldearen arloko planetan. Kasu horietan balorazioa goren mugako partida gisa egin da (hori da, besteak beste eta ingurune fisikoari dagokionez, ibaien eta erreken ertzak babesteko, kontserbatzeko, erabiltzeko, interpretatzeko eta ikertzeko plan, proiektu eta programen kasua).

- Nolabaiteko babes erregimenen bat duten etxebizitzaren sustapenarekin zerikusia duten eragiketei dagokienez, eta biztanleria garatzeko, horren ongizatea lortzeko eta berorri eusteko helburuak lortzeko garrantzi handiko jardun direla kontuan hartuta, aurreikusitako jardun guztiak baloratu ditugu, horiek ekimen publikoak nahiz pribatuak gauzatu (bereiz adierazi ditugu ordea). Erabaki horren xedea bikoitza da; batetik, eragiketa horien zenbateko osoaren berri ematea (bide horretatik LAPari edo etxebizitza bideratzeko planei dagozkien eta, horrenbestez, dokumentu honetan baloratu ez diren etxebizitza-politikaren beste jardun batzuk konpentsatu dira) eta, bestetik, ekarpen pribatuaren ehunekoak edo zenbatekoak ezagutzea, ekimen pribatuak arlo honetan izan dezakeen dinamismo eza jardun publiko handiagoaren edo bestelako neurrien bidez orekatu ahal izateko erreferentziaren bat izate aldera.
- Antzeko arrazoiketa aplika diezaiekegu ekonomia-jardueretarako industri azpiegiturak sustatzeko eragiketei. Kasu honetan, gainera, kontuan izan dugu jardun horiek garrantzi estrategikoa dutela ereduaren konfigurazio orokorrerako eta burutzen arteko artikulazio funtzional handiagoa lortzeko.
- Amaitzeko, aipatzekoa da ondoren aurkeztuko ditugun ekonomia eta finantza azterketa eta gauzatzeko programa egiterakoan ez dela kontuan hartu zenbait inbertsioen itzultze-zikloa.

Irizpide horiei jarraikiz, proposatutako ekintza eta eragiketa guztiak hiru kapitulutan bildu ditugu. Horiek bat datoz memorian zehar erreferentzia gisa erabili ditugun esparru espazialekin (ingurune fisikoa, azpiegiturak eta asentamenduak).

Jarduerak azpibanatzeko eskema bat dator Memorian jarraitu denarekin. Ingurune naturaleko ekipamenduak Ingurune Fisikoari buruzko atalean sartu dira.

- **ADMINISTRAZIO BAKOITZAREN ESKUMENAK.**

Beharrezko aurrekontu aurreikuspenak ezarri ahal izatearren, azterketak zehaztu egiten du, partida orokor bakoitzaren kasuan, zein administrazioek hartu beharko luketen bere gain finantzaketa, akatsik izan ezean behintzat.

- EJ: Eusko Jaurlaritza.
- FA: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- AZ: Administrazioa zentrala.
- Ud: Udalak.
- Op: Beste operadore elkartu batzuk.

KOPURUAK MILIOIKA eurotan.

INGURUNE FISIKOKO EKINTZAK	2017 - 2032	
A Parke Naturalak, biotopo babestuak eta Natura 2000 Sarea		
1. * Aralarko parkea	-	
2. * Leitzarango biotopoa.	-	
3. * Hernio-Gazumeko BIL	-	
4. * Araxeseko BIL	-	
5. * Oria ibaiko BIL	-	
A GUZTIRA	-	
B Interes naturalistikoko espazioak (lurzorua erostea, babesteko planak eta ekintzak)		
6. Jazkugañe eta Basabe.	2.00	FA
7. Atxulondo-Abalotz.	0.45	FA
8. Murumendi.	0.10	FA
9. Orexaran erreka.	0.45	FA
B GUZTIRA	3.00	
C Beste ekintza batzuk		
10. Babesteko, kontserbatzeko, hobetzeko, erabiltzeko, interpretatzeko, ikertzeko eta abarretarako plan, proiektu eta programak	2.00	FA
11. Ekosistemen ingurumen hobekuntza, lur gaineko sare hidrologikoa berreskuratzea eta paisaia leheneratzea.	8.00	FA/EJ
12. Korridore ekologikoen sarea.	4.00	FA/EJ
C GUZTIRA	14.00	
A-B-C GUZTIRA	17.00	

NATUR INGURUNEKO EKIPAMENDUAK	2017 - 2032	
A Aisia eremuak (eskualdeko parkeak). Lurzorua erostea, planak eta egokitzea.		
1. Leitzarango aisialdi eremua	3.00	FA
A GUZTIRA	3.00	
B Jolas eta aisialdi eremuak. Lurzorua erostea, planak eta egokitzea.		
2. Belkoingo eremua	0.40	FA/Ud
3. Ezkatzuko eremua	0.80	
4. Hirumuño-Zarateko eremua	0.80	FA/Ud
5. Intxurreko eremua	0.60	FA/Ud
6. Erroizpe-Uliko eremua	1.20	FA/Ud
7. Urdalar-Ipuliño eremua	1.20	FA/Ud
8. Uzturre-Txaragango eremua	1.00	FA/Ud
B GUZTIRA	6.00	
C Ingurumen ibilbideen sarea		
9. Tokiko bigarren mailako sarbide sare eta landa herriguneetarako sarbide sarea egokitzea.	8.00	FA/Ud
10. Oinezkoentzako ibilbideak seinaleztatzea eta egokitzea	2.00	FA/Ud
C GUZTIRA	10.00	
A-B-C GUZTIRA	19.00	

Oharra: *: Programatuta dauden edota gauzatzen ari diren eragiketak.

GARRAIO ETA KOMUNIKABIDEEN SAREKO ERAGIKETAK	2017 - 2032	
A Kanpoko sarbide sare orokorra		
1. * Loturak eta bidegurutzeak berrantolatzea eta N-1 errepiderako sarbide kontrolatu gabeak kentzea.	5.00	FA
A GUZTIRA	5.00	
B Tokiko sarbide sare nagusia		
2. GI-3610 eraldatzea eta hobetzea Aduna eta Villabona artean.	2.00	FA
3. Egungo N-1 errepidetik Oria ibaiaren ezkeraldera sartzeko aukerak.	5.00	FA
4. Elbarrena - Anoeta bide lotura.	5.00	FA/Ud
5. Villabona - Irura oinezko eta txirrindularientzako lotura eskuin ertzetik.	2.00	FA
6. Oriaren ertzetako loturak hobetzea.	4.00	FA
7. Tolosa - Alegia hiri jarraitutasuna berreskuratzea.	5.00	FA
8. Ibarako saihebidia	6.00	FA
9. Elbarrenako saihebidia	22.00	FA
10. Hiri zentraltasuneko ardatzak	5.00	FA/Ud
11. Hiriarteko artikulazio ardatzak	12.00	FA
B GUZTIRA	68.00	
C Tokiko bigarren mailako sarbide sarea eta gainerako bide sareak		
12. Beste bide sareak	10.00	
C GUZTIRA	10.00	
GUZTIRA A-B-C. Errepide sarea		
D Trenbide sarea		
13. * Trenbide sare berria	-	
14. Renferen trazadura aldatzea Zizurkil eta Anoeta artean	71.00	AZ/EJ
15. Aldirietako trenbide sareko geltokiak hobetzea	2.00	AZ/EJ
D GUZTIRA	73.00	
E Beste esku-hartze batzuk		
16. Autobus geltokia Tolosan	4.00	FA/Ud
E GUZTIRA	4.00	
A-B-C-D-E GUZTIRA	160.00	

AZPIEGITURAK ETA ZERBITZU SAREAK	2017 - 2032	
A * Saneamendua	-	FA
B * Ur hornidura	-	FA
C * Energia elektrikoa	-	EJ
D * Gasa	-	EJ/FA
E * Hondakin solidoen tratamendua	-	FA
F * Telekomunikazioak	-	EJ/FA
G * Obra hidraulikoak. Uholdeen prebentzioa	-	EJ/FA
GUZTIRA		

Oharra: *: Programatuta dauden edota gauzatzen ari diren eragiketak.

1. jarduketan, plangintzaren koordinazioaren erantzukizuna EJri dagokio, eta eraikuntza eta kudeaketa FAri.

ASENTAMENDU SISTEMAKO EKINTZAK	2017 - 2032	
A Etxebizitza babestuen jarduketak		
1. 950 etxebizitzatarako lurzorua kudeatzea eremu funtzionaleko udalerrietan (Eusko Jaurlaritza)	8.50	EJ
2. Beste eragile batzuek 600 etxebizitzatarako lurzorua kudeatzea	5.50	Bestelako ak
3. Alokatzeko 350 etxebizitzatarako lurzorua prestatzea eta eraikitzea (Eusko Jaurlaritza eta elkartutako eragileak)	28.00	EJ
4. Saltzeko 450 etxebizitzatarako lurzorua prestatzea eta eraikitzea	36.00	EJ
5. Beste eragile batzuek (udalek, ekimen pribatuak eta abarrek) 750 etxebizitzatarako lurzorua prestatzea eta eraikitzea	62.00	Ud/Op
A GUZTIRA	140.00	
B Ekonomia-jardueretarako azpiegiturak sustatzeko jarduketak		
6. *Apattaerreka poligonoko lurzoruaren kudeaketa eta urbanizazioa	17.00	EJ/FA/Ud
7. Villabona-Anoetako ibarreko poligonoko lurzoruaren kudeaketa eta urbanizazioa	24.00	EJ/FA/Ud
8. Tolosa-Ibarra hegoaldeko inguruko poligonoko lurzoruaren kudeaketa eta urbanizazioa	26.00	EJ/FA/Ud
9. Apattaerrekaren eraikuntza	12.00	EJ/FA/Ud
10. Villabona-Anoetan industri eraikuntza	25.00	EJ/FA/Ud
B GUZTIRA	104.00	
C Ekipamenduak		
11. Kultur zentro integratua Tolosan	10.00	FA/Ud
12. Eskualdeko ospitalea/Espezialitate zentroa	6.00	EJ
13. Kirol ekipamendua Villabona-Anoetako ibarrean	2.50	FA
14. Irakaskuntza	1.50	EJ
15. Lurraldeko sarreraguneetako jarduketa bereziak	6.00	FA/EJ
16. Zehaztu gabeko beste ekipo batzuk	10.00	FA/EJ
C GUZTIRA	36.00	
A-B-C GUZTIRA	280.00	

EKINTZEN ETA ERAGIKETEN LABURPENA	2017-2032
Ingurune fisikoa	17
Natur ingurunekeo ekipamendua	19
Komunikazio eta garraiorako sistema	160
Etxebizitza babestuen jarduketak	140
Ekonomia-jardueretarako azpiegiturak sustatzeko jarduketak	104
Hiri berrekipamenduko jarduketak	36
GUZTIRA	476

Oharra: *: Programatuta dauden edota gauzaten ari diren jarduketak.

EJ Eusko Jaurlaritza
 FA Foru Aldundia
 AZ Administrazioa zentrala
 Ud Udala
 OP Beste operadore batzuk

GAUZATZEKO PROGRAMA

GAUZATZEKO PROGRAMA

Gauzatze programak bildu egiten ditu egin beharreko ekintza estrategikoak, eta planak irauten duen bitartean horiek gauzatzeko erritmoa eta ordena ezartzen du.

Bertan gainera, ekonomia eta finantza azterketan adierazitako oharrak baliagarri izatearekin batera, aipatzekoa litzateke agiri honen (batez ere alderdi teknikoetan oinarritutakoa denaren) aurreikuspenen izaeratik eratorritako beste bat, izan ere, bertan ez dira kontuan izan aurrekontuen inguruko faktoreak eta beste zenbait alderdi politiko eta ekonomiko, zalantzarik gabe administrazioko sail edota erakundeen artean hitzarmenak egiteko prozesuak eskatuko dituztenak, besteak beste, proposatutako ekintzak eragileen artean banatzeko, horien kudeaketa eta plangintzako tresnak testuinguru berri honetara egokitzeko eta, beharrezkoa balitz, lurraldea antolatzekeo tresna berriak sortzeko.

Aurreikuspen horiek gogoan hartuta, gauzatzekeo programa lau urtekeo alditan banatuta aurkeztuko dugu, LALak zehaztutakoari jarraikiz. Horretarako, planaren iraupen aldirako (16 urterako) aurreikusitako jardunak lau azpi-alditan programatu ditugu.

Esan berri dugun guztia kontuan izanik eta agiri honetan jaso ez diren ekintzak sor daitezkeela nahiz plana aplikatzerakoan desfaseak gerta daitezkeela aurreikusita, gauzatzekeo programa hau gutxienez zortzi urtetik behin berrikustea proposatzen da.

KOPURUAK MILIOIKA eurotan.

INGURUNE FISIKOKO EKINTZAK	2017 2020	2021 2024	2025 2028	2029 2032	2033 2036
A Parke Naturalak, biotopo babestuak eta Natura 2000 Sarea	-	-	-	-	-
1. * Aralarko parkea	-	-	-	-	-
2. * Leitzarango biotopoa.	-	-	-	-	-
3. * Hernio-Gazumeko BIL	-	-	-	-	-
4. * Araxeseko BIL	-	-	-	-	-
5. * Oria ibaiko BIL	-	-	-	-	-
A GUZTIRA					
B Interes naturalistikoko espazioak (lurzorua erostea, babesteko planak eta ekintzak)					
6. Jazkugañe eta Basabe.	0.50	0.50	0.50	0.50	2.00
7. Atxulondo-Abalotz.	0.20	0.25	-	-	0.45
8. Murumendi.	0.10	-	-	-	0.10
9. Orexaran erreka.	0.20	0.25	-	-	0.45
B GUZTIRA	1.00	1.00	0.50	0.50	3.00
C Beste ekintza batzuk					
10. Babesteko, kontserbatzeko, hobetzeko, erabiltzeko, ikertzeko, interpretatzeko eta abarretarako plan, proiektu eta programak	1.00	1.00	-	-	2.00
11. Ekosistemen ingurumen hobekuntza, lur gaineko sare hidrologikoa berreskuratzea eta paisaia leheneratzea.	2.00	2.00	2.00	2.00	8.00
12. Korridore ekologikoen sarea.	1.00	1.00	1.00	1.00	4.00
C GUZTIRA	4.00	4.00	3.00	3.00	14.00
A-B-C GUZTIRA	5.00	5.00	3.50	3.50	17.00

NATUR INGURUNEN KOPURUAK	2017 2020	2021 2024	2025 2028	2029 2032	2033 2036
A Atsedeen eremuak (eskualdeko parkeak), lurzorua erostea, planak eta egokitzapena					
1. Leitzarango aisialdi eremua	0.75	0.75	0.75	0.75	3.00
A GUZTIRA	0.75	0.75	0.75	0.75	3.00
B Jolas eta aisialdi eremuak. Lurzorua erostea, planak eta egokitzapena					
2. Belkoaingo eremua	0.20	0.20	-	-	0.40
3. Ezkatzuko eremua	0.20	0.20	0.20	0.20	0.80
4. Hirumuño-Zarateko eremua	0.20	0.20	0.20	0.20	0.80
5. Intxurreko eremua	0.15	0.15	0.15	0.15	0.60
6. Erroizpe-Uliko eremua	0.30	0.30	0.30	0.30	1.20
7. Urdalar-Ipuliño eremua	0.30	0.30	0.30	0.30	1.20
8. Uzturre-Txaragango eremua	0.25	0.25	0.25	0.25	1.00
B GUZTIRA	1.30	1.60	1.40	1.40	6.00
C Ingurumen ibilbideen sarea					
9. Tokiko bigarren mailako sarbide sare eta landa herriguneetarako sarbide sarea egokitzea.	2.00	2.00	2.00	2.00	8.00
10. Oinezkoentzako ibilbideak seinaleztatzea eta egokitzea	0.50	0.50	0.50	0.50	2.00
C GUZTIRA	2.50	2.50	2.50	2.50	10.00
A-B-C GUZTIRA	4.85	4.85	4.65	4.65	19.00

Oharra: *: Programatuta dauden edota gauzatzen ari diren eragiketak.

GARRAIO ETA KOMUNIKABIDEEN SAREKO ERAGIKETAK	2017 2020	2021 2024	2025 2028	2029 2032	2033 2036
A Kanpoko sarbide sare orokorra					
1. * Loturak eta bidegurutzeak berrantolatzea eta N-1 errepiderako sarbide kontrolatu gabeak kentzea.	-	3.00	2.00	-	5.00
A GUZTIRA	-	3.00	2.00	-	5.00
B Tokiko sarbide sare nagusia					
2. GI-3610 eraldatzea eta hobetzea Aduna eta Villabona artean.	1.00	1.00	-	-	2.00
3. Egungo N-1 errepidetik Ori ibaiaren ezkeraldera sartzeko aukerak.	-	5.00	-	-	5.00
4. Elbarrena – Anoeta bide lotura.	-	3.00	2.00	-	5.00
5. Villabona – Irura oinezko eta txirrindularientzako lotura eskuin ertzetik.	-	1.00	1.00	-	2.00
6. Oriaren ertzetako loturak hobetzea.	2.00	2.00	-	-	4.00
7. Tolosa - Alegia hiri jarraitutasuna berreskuratzea.	-	-	5.00	-	5.00
8. Ibarako saihezbidea	3.00	3.00	-	-	6.00
9. Elbarrenako saihezbidea	11.00	11.00	-	-	22.00
10. Hiri zentraltasuneko ardatzak	2.00	1.00	1.00	1.00	5.00
11. Hiriarteko artikulazio ardatzak	3.00	3.00	3.00	3.00	12.00
B GUZTIRA	22.00	30.00	12.00	4.00	68.00
C Tokiko bigarren mailako sarbide sarea eta gainerako bide sareak					
12. Beste bide sareak	2.50	2.50	2.50	2.50	10.00
C GUZTIRA	2.50	2.50	2.50	2.50	10.00
GUZTIRA A-B-C. Errepide sarea	24.50	35.50	16.50	6.50	83.00
D Trenbide sarea					
13. * Trenbide sare berria	-	-	-	-	-
14. Renferen trazadura aldatzea Zizurkil eta Anoeta artean	10.00	31.00	30.00	-	71.00
15. Aldirietako trenbide sareko geltokiak hobetzea	1.00	1.00	-	-	2.00
D GUZTIRA	11.00	32.00	30.00	-	73.00
E Beste esku-hartze batzuk					
16. Autobus geltokia Tolosan	2.00	2.00	-	-	4.00
E GUZTIRA	2.00	2.00	-	-	4.00
A-B-C-D-E GUZTIRA	37.50	69.50	46.50	6.50	160.00

AZPIEGITURAK ETA ZERBITZU SAREAK	2017 2020	2021 2024	2025 2028	2029 2032	2033 2036
A * Saneamendua					-
B * Ur hornidura					-
C * Energia elektrikoa					-
D * Gasa					-
E * Hondakin solidoen tratamendua					-
F * Telekomunikazioak					-
G * Obra hidraulikoak. Uholdeen prebentzioa					-
Guztira					-

Oharra: *: Programatuta dauden edota gauzatzen ari diren jarduketak.

ASENTAMENDU SISTEMAKO EKINTZAK	2017 2020	2021 2024	2025 2028	2029 2032	2033 2036
A Etxebizitza babestuen jarduketak					
1. 950 etxebizitzatarako lurzorua kudeatzea eremu funtzionaleko udalerrietan (Eusko Jaurlaritza)	2.00	2.50	2.50	1.50	8.50
2. Beste eragile batzuek 600 etxebizitzatarako lurzorua kudeatzea	1.25	1.50	1.50	1.25	5.50
3. Alokatzeko 350 etxebizitzatarako lurzorua prestatzea eta eraikitzea (Eusko Jaurlaritza eta elkartutako eragileak)	7.00	7.00	7.00	7.00	28.00
4. Saltzeko 450 etxebizitzatarako lurzorua prestatzea eta eraikitzea	9.00	9.00	9.00	9.00	36.00
5. Beste eragile batzuek (udalek, ekimen pribatuak eta abarrek) 750 etxebizitzatarako lurzorua prestatzea eta eraikitzea	15.50	15.50	15.50	15.50	62.00
A GUZTIRA	34.75	35.50	35.50	34.25	140.00
B Ekonomia-jardueretarako azpiegiturak sustatzeko jarduketak					
6. Apattaerreaka poligonoko lurzoruaren kudeaketa eta urbanizazioa	12.00	5.00	-	-	17.00
7. Villabona-Anoetako ibarreko poligonoko lurzoruaren kudeaketa eta urbanizazioa	-	12.00	12.00	-	24.00
8. Tolosa-Ibarra hegoaldeko inguruko lurzoruaren kudeaketa eta urbanizazioa	-	8.00	9.00	9.00	26.00
9. Apattaerrekaren eraikuntza	-	6.00	6.00	-	12.00
10. Villabona-Anoetan industri eraikuntza	-	8.00	8.00	9.00	25.00
B GUZTIRA	12.00	39.00	35.00	18.00	104
C Ekipamenduak					
11. Kultur zentro integratua Tolosan	1.00	4.00	4.00	1.00	10.00
12. Eskualdeko ospitalea/Espezialitate zentroa	1.00	2.50	2.50	-	6.00
13. Kirol ekipamendua Villabona-Anoetako ibarrean	-	1.00	1.50	-	2.50
14. Irakaskuntza	0.50	0.50	0.50	-	1.50
15. Lurraldeko sarreraguneetako eragiketa bereziak	1.50	1.50	1.50	1.50	6.00
16. Beste ekipamendu ez espezifiko batzuk	2.00	3.00	3.00	2.00	10.00
C GUZTIRA	6.00	12.50	13.00	4.50	36.00
A-B-C GUZTIRA	52.75	87.00	83.50	87.25	280.00

EKINTZEN ETA ERAGIKETEN LABURPENA	2017 2020	2021 2024	2025 2028	2029 2032	2033 2036
Ingurune fisikoa	5.00	5.00	3.50	3.50	17.00
Natur inguruneko ekipamendua	4.85	4.85	4.65	4.65	19.00
Komunikazio eta garraiorako sistema	37.50	69.50	46.50	6.50	160.00
Etxebizitza babestuen jarduketak	34.75	35.50	35.50	34.25	140.00
Ekonomia-jardueretarako azpiegiturak sustatzeko jarduketak	12.00	39.00	35.00	18.00	104.00
Hiri berrekipamenduko eragiketak	6.00	6.00	13.00	4.50	36.00
Guztira	100.10	166.35	138.15	71.40	476.00

Oharra: *: Programatuta dauden edota gauzatzen ari diren jarduketak.

